

Andoain



Aurkibidea

Udalerria: Andoain

Sarrera



Beterrin kokaturiko herria, Donostiatik 15 kilometrora. Urnieta, Aduna, Lasarte-Oria, Zubieta, Billabona, Elduain eta Zizurkilekin egiten du muga. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da. *Argazkiaren iturria: [Wikipedia](#).*

- **Biztanleak:** 14.691
- **Euskaldunak:** %50,25

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **74**
- Zintak: **100**
- Pasarteak: **1.807**
- Transkribatutakoak: **114**
- Audioak: **187**
- Bideoak: **1.619**

Proiektuak

- Ahoz aho, belaunez belaun
- Andoaingo 'Orria' aldizkaria
- Beterriko kantak
- Dialektologia-EHU
- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- Euskal Herriko Ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Juan Bautista Aizpurua Ormaetxea (1936)



Aita eta ama andoaindarrak zituen eta bera ere Andoainen jaio zen. Zumea kalean bizi ziren eta gerra hasi eta egun gutxitara jaio zenez, bera bataiatzeko Udaletxe aurreko mitineko jende artetik pasa izan behar omen zuten elizara joateko. Andoaingo txistulari familiakoa da Juan Bautista eta bera ere bandan ibilia zen. Andoainen alde batetik bestera ibili ondoren, Sorabillara joan ziren bizitzera. Mitxelinen ibili zen lanean bera.

Juan Aizpurua Otegi (1924-2012)



Andoaingo Sorabilla auzoan jaio zen, Bordaberri izeneko etxean. Denbora librerik bazen, lanean pasatzen zuten. Amak Donostiara edozer gauza eramaten zuen saltzeko; eta kamamilak, loreak, gorostia, onddoak, perretxikoak, txilarra, goroldioa... bilatzen zituzten, amak gero saldu ahal izateko. Ordutik datorkio perretxikotarako zaletasuna, eta ongi ezagutu izan ditu inguruak eta mendiak izan dituen aldaketak.

Migel Amas Egibar (1932-2013)



Andoaingo Kale berrian jaio zen. Lau senidetan gazteena, La Sallen ikasi zuen. Hamahiru urterekin profesionaletara pasatu zen, baina bi urtez baino ez zen han egon, fraideak eta "hermanoak" haserretu egin omen ziren-eta. Orduan sartu zen Sapara. Greba asko izan ditu gogoan arrazoi ezberdinengatik. Batzuetan lan-baldintzen gainekoak, eta besteetan gai politikoeekin lotutakoak. Herriko parrokiako abesbatzan ibili zen txikitan eta behin ere ez zuen afizioa galdu. Festetan ere, hain famatuak ziren batelak antolatzen urte asko egin izan ditu Migelek. Andoainen bizi izan da beti.

Angel Amenabar Lasquibar (1932-2014)



Andoaingo Sorabillako Intxusaran baserrian jaio zen. Aitak basoa ateratzen egiten zuen lan eta ama, berriz, merkatura joaten zen saltzera. Berak laguntzen zion amari esnea hartzaileen artean banatzen. Baserriko lanengatik eskolara joan gabe gelditzen zen askotan, eta etxerako lanak egitera ere ez zen iristen. Horregatik, 13 urterekin eskola uztea erabaki zuen inori esan gabe. 23 urterekin mekaniko laguntzaile hasi zen paper-fabrikari. Bonba-fabrikari ere ibili zen tornulari, gero Elgoibarren eta Donostian ere ibili zen tailer gehiagotan, eta azkenean bere kontura jarri zen bere lagun batekin batera, bere jaiotetxean prestatu zuten tailer batean.

Maria Angeles Amenabar Lasquibar (1940)



Andoaingo Sorabilla auzoko Intxusaran baserrian jaio zen lau senideko familian. Aita Asteasukoa zuen; eta ama, berriz, Albizturren jaiotakoa izanagatik, Andoainen oso gaztetatik bizi izandakoa. Baserritik bizi izan ziren eta lanean ederki ikasi zuten etxean. Bigarren baserri bat ere izan zuten lanerako, eta hara joan behar izan zuen bizitzera, Maria Angelesekin 6 urte zituela. 18 urterekin, berriz Sorabillara itzuli zen eta Allurralde baserrira ezkondu zen, auzo horretan bertan. Azken urteetan, kalean bizi izan da.

Joxeba Amutxastegi Aranzabal (1927-2014)



Andoaingo Zumea kalean jaio zen eta hiru seme-alabatan gazteena zen bera. Ama Villabonakoa zuen eta Andoainen neskame zegoela ezagutu zuen bere aitak (andoaindarra zen azken hau). Aita bizargina zuen eta amak ere, ezkondu eta gero, ile apaintzaile ikasi zuen elkarrekin lanean aritzeko. Etxean bertan ireki zuten ile-apaindegi edo bizartegia eta gasolindegia ere bazuten etxe aurrean. Gerra Andoainera iritsi zenean, gasolindegia eta bizartegia kendu zizkioten eta aitak ihesi egin zuen Bizkai aldera. Itzultzea erabaki zuenean, preso hartu zuten eta aurrena Andoaingo kartzelan eta gero Ondarretan eduki zuten. Bera joaten zen jatekoa eramatera baina 32 hilabete eta gero aske utzi zuten aita. Arrantzan asko aritzen zen txikitan eta afizioarekin jarraitu du azken urteetan ere. Andoainen bizi izan da beti eta bere emaztea Andoainera txikitan etorri zen Errioxako emakumea da.

Bitoriano Ansa Goenaga (1930-2017)



Andoaingo Upategi baserrian jaio zen. Gurasoak urnietarrak zituen: aita basoan idiekin garraioan ibiltzen zen; eta ama, esnea partitzen. Aitona-amonak ere ezagutu zituen; eta, hamabost senide izan baziren ere, hamahiru atera ziren bizirik. Gerra lehertu zen arte, mojetan ibili zen Andoainen, baina gero "La Salle"-n sartu zuten. Maisuek, euskaldunak izanagatik, euskaraz hitzik ez zuten egiten, eta giro horretan ibili izan zen eskolan hamabi urte bete arte. Hamalau urterekin arrain-kaxak josten ibili zen zerrategi batean. Aitari ere idiekin laguntzen zion noiznahi eta arotz-tailer batean urtebete egin bazuen ere, fundizioan egin izan zuen lan hogeita hamar bat urtez. Andoainen bizi izan da beti.

Migel Ansa Goenaga (1937)



Andoaingo Upategi baserrian jaio zen 15 senideko familian. Aita Andoaingoa zuten eta ama Urnietako Oiamar baserrikoa. Beren baserria Urnietarekin mugan egonik, amaren baserriko familiarekin denbora asko pasatzen zuten, eta Urnietan beste enkargu batzuk ere egiten zituzten. Aita itzaina zen eta ondoko fabrikako materiala eramaten eta ekartzen egiten zuen lan. Ama, berriz, Donostiara joaten zen esnea saltzera. 14 urterekin Labordenean lanean aritu bazen ere, Upategin bertan tailerra jarri zuen bere kontura, eta bertan egin zuen lan bolada luzez.

Mikela Ansa Goenaga (1926-2015)



Andoaingo Upategi baserrian jaio zen. Hamahiru senidetan bigarrena eta alaba zaharrena izaki, etxeko lanetan lan asko egin behar izan zuen. Txikitan, Karitateko mojetan ibili zen aurrena, eta geroago doña Juanita Alkainen eskolan. Gerra denboran, ordea, beste asko bezala, hura ere itxi egin zuten eta eskola nazionala deiturikoan hasi zen. Arratsaldetan, Villa Argentinan ere ordu pare batez ikasten ibili zen. Hamalau urterekin, Donostiara joan izan zen amari esnea saltzen laguntzera, besteak beste; baina, hala ere, etxean lan asko izaten zuen normalean. Olamian bost urtez ibili zen, Andoaingo kalera ezkondu zen arte.

Roke Ansa Goenaga (1927-2003)

Maria Jesus Ansa Uribe (1931)



Aita eta ama biak andoaindarrak zituen, eta bera ere bertan jaio zen, kale nagusiko Toki Eder izeneko etxean. Sei senidetan zaharrena zen bera. Villa Argentina eskolan ibili zen hasieran eta gero Berrozpera pasatu zen. Mariaren alaben kongregazioan egon zen eta don Feliziano Etxaniz apaizarekin euskaraz aritu izana zuen gogoan. Familia oso kantuzalekoa izan da; eta, irakaskuntzan lanean aritu izan denean, hori transmititzen saiatu izan da. Andoainen bizi izan da beti.

Erramun Ansa Zinkunegi (1928)



Andoainen jaio zen Erramun, Antzizu izeneko baserrian. Ama Asteasukoa zuen, baina 13 urte zituela joan zen Andoainera bizitzera. Aita, berriz, andoaindarra zuen. Bost senidetan zaharrena zen bera eta ikasten hasi bazen hasi, gustukoa zuela konturatu zen berehala. 5 urte zituela hasi zen eskolan, La Sallen hurrena, gero Labordenean eta azkenik Donostiako akademia batean ere ibili zen, azken honetara neguan bakarrik joaten bazen ere. Historia eta kondaira izan dira bere benetako afizioak eta asko jardun du horretan.

Mari Karmen Ansa Zinkunegi (1937)



Ama Asteasun jaio bazen ere, Andoainera oso gaztea zela etorria zen. Aita Andoaingoa zuen eta bera ere Leizotz bailarako Antzizu baserrian jaio zen. Txikitatik baserriko lanetan gogotik ikasi behar izan zuen, baina eskolan ere ibili zen. Erdaraz ikasi behar izan zuen arren, doktrina euskaraz ematen zuten. Jaiotetxetik metro gutxira egindako etxe batera ezkondu zen eta bertan bizi izan da geroztik.

Martin Aranburu Artano (1926)



Buruntza auzoko Etxeberri Buruntza baserrian jaio zen zazpi senideko familia batean. Aita bertakoa zuen eta ama Sorabillakoa. Hamabost urte zituela, Labordenean hasi zen lanean; eta, hura itxi zen arte, bertan aritu zen. Gero Latz sortu eta bertan erretiratu zen. Emaztea Alkizakoa du eta Andoainen bizi izan dira ezkonduz geroztik ere.

Txomin Aranburu Artano (1922-2010)



Aita eta ama, biak andoaindarrak zituen eta bera ere bertan jaio zen, Buruntza auzoko Buruntza Etxeberri baserrian. 7 seme-alaba izan baziren ere, bi jaio eta berehala hil ziren, beraz, 5ek egin zuten aurrera. Aita gauzaina izan zen Moleda fabrian eta hortik aurrera, etxeko esnea kalean saltzetik ateratzen zuten bizimodua aurrera. Bera 13 urterekin hasi zen etxetik kanpo lanean. Ciacon aurrena, gero Laborden ia itxi zuten arte eta azkenik Latz enpresan erretiratu zen arte. Andoainen bizi izan da beti Urnietako bere emaztearekin ezkondu eta geroztik ere.

Luxio Aranburu Etxeberria (1936)



Gabirian jaio zen San Blas egun batez. Ama Berastegikoa zuen eta aita Hernanikoa. Gerra lehertu zenean, aita soldadu joan behar izan zuen eta amarekin Tolosan eman zuten denbora bat berak eta bere senideek (bederatzi anai-arreba ziren). Hamabi urterekin Andoainera joan ziren bizitzera eta ofizio eta lantegi askotan ibili izan bazen ere, bere benetako ilusioa musikari izatea izan zen. Hamabost urterekin "solfeo" ikasten hasi zen Donostiako kontserbatorioan, lanetik ateratakoan. Andoaingo bandan sartu zen berehala eta Tolosako txaranga ere ibilia da, baita ezkontzetan eta antzeko festetan jotzen zuen orkestrina batean ere. Hogeita zazpi urterekin ezkondu zen, eta ikasteaz aspertuta, musika eta gainerako ikasketak utzi zituen eta mendi elkarte batean sartu zen. Musikarekin eta mendizaletasunarekin bizi izan da eta Andoainen ireki zuen aseguru etxe bati esker atera izan du bizimodua aurrera azken urteetan.

Primitibo Arregi Arizaga (1932-2014)



Buruntza auzoko Ikutza baserrian jaio zen 12 senideko familia batean. Bi arreba ziren zaharrenak eta atzetik hamar mutil etorri ziren segidan. Aita Hernanin jaio bazen ere, 12 urte zituela Andoainera joan zen bizitzera. Ama, berriz, Andoaingoa zuten. 13 urterekin hasi zen lanean Goñiren fideo fabrika eta geroztik hainbat lantegitan lanean aritu izan da. Azkenean, zentrolean erretiratu zen. Gaztetan oso dantzazalea zen eta inguruko erromeriak ongi ezagutzen zituen. Alkizako andrea hartu zuen eta Andoainen bizi izan dira ezkonduz geroztik ere.

Iñaki Arregi Moraza (1927)

Aita amasarra zuen, baina Andoainen bizitua. Zapataria zen ofizioz eta hari zerbait laguntzen aritu izan zen Iñaki. Ama, berriz, Oriakoa zuen (oraingo Lasarte) eta baratzeaz eta etxeko lanez gainera, denda txiki bat gobernatzen zuen. Sei seme-alaba izan zituzten eta laugarrena zen Iñaki.



Andoainen "kalean" jaio bazen ere, harreman handia izan zuen beti baserriarekin. Izan ere, batez ere 50/60 hamarkadan, eliza-dirua biltzen ibili zen baserriz baserri. Lauzpabost lagun ibiltzen ziren lan horretan, baina elizarekin izan zuen hartu-emana ez zen horretara mugatu; Caritasen boluntario gerra ostean, gaixo taldeekin lanean 25 urtez... Kanturako sekulako afizioa izan du eta eliza-kantak eta bertso zaharrak bildu izan ditu. Gerra aurrean eskolan ikasi zuen kanta bat ere gogoan zuen oraindik. Eskola ona izan zuela zioen. Laborde lantegian delineante ikasketak egin eta hogeita zortzi urtez horretan lan egin eta gero, eraikuntzan lan egiteko atera zen Labordetik. Andoainen bizi izan da beti.

Maria Esther Arrieta (1929-2004)

Maria Dolores Arruabarrena Arruti (1935)

Andoaingo San Esteban auzoko Berdillegi baserrian jaio zen 11 senideko familian. Ama Amasakoa zuen eta aita Gabiriakoa. Lau neska izan ziren eta bera gazteena zen denen artean. Anaia zaharrenak lanera atera ziren adina izan zutenean, eta arrebak ere neskame joan ziren. Bera, ordea, gazteena izanda, etxeko lanetarako gelditu zen etxean. Askotan, lanengatik, eskolan piper egiten zuen, garaiko gazte askok egin behar izaten zuten modura. 12 urte zituenerako, eskola utzi behar izan zuen. 16 urterekin josten ikasten ibili zen, eta goizetan neskame-lanetan aritu zen. Andoainen bizi izan da Larraulgo bere senarrarekin ezkontuta.



Juan Bautista Arruti Iturriotz "Talai", "azariya"
(1925-2013)



Andoaingo Goiburu auzoko Talai baserrian jaio zen. Zazpi senide ziren, baina bat hil egin zitzaien "aingeru ttikia" zela. Batista guztien artean 2.a, Goiburu auzoan bizi izan da beti, ezkondu ere berak auzoan eraikitako baserri batetara egin baitzen. "Talai" eta "azariya" izengoitiz, bertsotan afizio handia izan du, jende aurrean aritzeak erreparo handia eman izan badio ere. Bertsozale eta mendizale izan bada ere, lanean pasa du bizi osoa, batean ez bazen bestean. Morroi hamaika urte besterik ez zituenean, hamahiru urterekin pinua zulatzen, hidroelektrikaren kanalean pintxe gero, pinua aldatzen ere bai, Andoaingo pasta-fabrikan zortzi urtez, Labordenean ere aritu zen ekonomatoan, eta pastako zentrolean ere bai beste dozena bat urtez. Ondorengoentzat ahal dutena uzteagatik lan egin dute berak eta [emazteak](#), baina gustura beti, bere hitzetan. Bost seme-alaba izan dituzte.

Arantxa Artano Arruabarrena (1935)



Andoainen jaio zen, Kale Berrian. Aita Amezketakoa zuen eta ama, bera bezala, Andoaingoa. Bost senide izan ziren eta bera denetan gazteena zen. Denda txiki bat zuten eta, batez ere, janaria saltzen zuten, nahiz eta alpargatak eta halakoak ere izan. Josten ikasi zuen orduan, ohikoa zen moduan, baina magisteritzako ikasketak egin zituen gero, eta irakasle izan zen ordutik. Andoainen bizi izan da beti.

Rosarito Artolazabal Ibarrondo (1945-2013)

Juan Bautista Barandiaran Iturriotz (1928-2018)



Andoaingo Zumea kalean jaio zen, 12 senideko familia batean. Lauzpabost urterekin hasi zen eskolan eta La Salleko fraideekin amaitu zuenean, Irunera joan zen fraide izateko ikastera. Irakasle aritu zen hainbat eskolatan eta eskulanetarako izugarrizko eskua zuen. Musikaz dakiena ere, ia-ia bere kabuz ikasi zuen, eta azkenean fraidetzatik atera zen etxera itzuli eta Labordenean lanean hasteko. Han emakumeen abesbatza berak sortu zuen.

Roxario Begiristain Urtxoegia (1930)



Andoaingo Sanesteban auzoko Bulanotxiki baserrian jaio zen. Aita arotza zuten, baina baserrian aritzen zen normalean lanean. Han bazen denentzako lana, baita bost seme-alabentzat ere. Aitona-amonak, amonaren ahizpa bat eta beren izeba bat ere eurekin bizi ziren; beraz, baserriko logelak ederki beteak izaten zituzten. Andoainen bizi izan da Roxario beti.

Fermin Belamendia Arrillaga (1929)



Andoaingo Kale Berrian jaio zen eta bera jaio zain egon omen ziren gurasoak baserrira bizitzera joateko. Erdoizta baserrira joan ziren bera jaio eta berehala. Zortzi anai-arreba izan ziren eta aita gerra bukatu eta segituan hil zitzairen. Aita zena, Buruntzako borralaririk onena zela esaten zuten. Bera, berriz, baserriko lanetan txikitatik ikasia eta anai-arreba txikiagoekin umezain ere denbora pasatzen zuena, arotza izan zen bere bizitza guztian. Gaztetan bertsotan aritzea gustatzen zitzaion eta bertsolari handiekin taberna batzuetan aritzea tokatu izan zitzaion.

Maria Angeles Belamendia Tolosa (1931)



Aita Sorabillakoa zuen; eta ama Aian jaioa eta, ezkondu artean, Zizurkilén bizi izandakoa. Bera 11 senideko familian jaio zen Sorabillako Erramuta baserrian. 8 urterekin artaldeari kontu egiten egon behar izaten zuen; eta, 12 urterekin, Tolosara bidali zuten izeba bati laguntzera. Gerora, enpresa batean sartu zen. Aitak ahuntz-larruarekin abarkak egiten zituen, herriko jendea Gabonetan baserritarrez jantz zedin, baina beraientzat inoiz ez zuen egin izan; hori penaz aitortzen zuen. Maria Angeles Andoainen bizi izan da.

Maria Pilar Beloki Ormazabal (1932-2016)



Andoainen jaio zen, Leitzaranen dagoen Olabista etxean. 11 senide izan baziren ere, haietatik 6 gaixotuta hil zitzaizkien koskortuta zirela. Aita eta ama andoaindarrak ziren eta amak etxeko lanetan aritu behar izaten zuen, aita kanpoan igeltsero-lanetan aritzen zen bitartean. Bera ere kanpoan ibili zen lanean: Intex-en aurrena, eta paper-fabrikari gero. Josten eta bordatzen ikasi zuen. Senarra Andoaingoa, berekin bizi izan da beti bertan.

Imanol Egibar Juanena (1929)

Joxe Eizmendi Jauregi (1911-2004)

Joxe Manuel Erkizia Uria (1923)



Andoaingo Gureola zentrolean jaio zen. Aita Zumaiakoa zuen eta ama, berriz, Aizarnazabalgoa. Sei senidetan laugarrena izan zen Joxe Manuel. Gerra Zibilaren beldurrez, Zumaiara joan ziren amarekin; eta, han zeudela, aita fusilatu egin zutela entzun zuten. Andoainera joan eta aita bizirik zegoen, bizitzaren kasualitate on batengatik. Pilotari ona izan zen Joxe Manuel, eta soldaduskan ere horretan aritu zen liberatuta. Laborde lantegian, arduradun egon zen enpresaren garai zailenetan. Azken urteetan, Orion eta Donostian bizi izan da.

Roke Etxeberria Alkain (1928-2012)



Andoaingo Etxeberrieta kalean jaio zen eta bertako eskolan ibili gerra hasi zen arte. Aita eta ama, biak andoaindarrak zituen eta bera ere bertan bizi izan da beti Urrietako emaztearekin ezkonduz geroztik ere. Lau senidetan gazteetan zen bera. Gerra hasi zenean, bi anai zaharrenek borrokara alde egin zuten "gorriekin" eta bera etxean gelditu zen. Bertso eta kanta zalea izan da beti Roke.

Inazio Etxeberria Usandizaga *Kaskabeltza* (1911-1997)

Rafael Etxezarreta Zelaia (1940)



Andoainen jaio zen, Zumea auzoan. Aita ere andoaindarra zuen, igeltseroa; eta ama, Albizturren jaioa bazen ere, gaztetatik Andoainen bizi izandako etxeakoandrea zen. 11 senidetan hirugarrena zen bera. Zazpi mutil eta lau neska izan ziren; eta, garai hartan ohitura zen bezala, senide batzuk apaiz joan ziren. Rafael, 11 urte zituenerako, bonba-fabrian sartu zen lanean. 18 urterekin aitarekin igeltseritzan hasi bazen hasi, bizitza guztia horretan eman zuela esan daiteke.

Maria Jesus Fernandez Izagirre (1933)



Andoaingo Santa Krutzen jaio zen. Bi anai-arreba ziren. Berak hiru urte besterik ez zituen Gerra Zibila lehertu eta aita eraman zutenean. Andoaingo kronikak idazten zituen aitak. Aita hil zutela esan zietenean ama, bizimodua nolabait atera behar eta josten hasi zen: tailer bat zuen etxearen azpian eta emakume asko etortzen zen bertara ikastera. Ama Bretxara ere joaten zen fruta eramatera eta goserik ez zuten pasa, etxearen atzealdean zuten baratzetxoari esker, besteak beste. Eskola askotan ibili izan da; Kontxa Arretxerekin aurrena, doña Pazekin gero eta Villa Argentinan ere bai mojekin. Hogeita hiru urterekin ezkondu zen Santa Kruz ermitan eta bi alaba izan zituzten.

Joxe Forcada Arrieta (1930)



Andoaingo Kale Nagusian jaio zen eta seme bakarra izan zen. Aita Errioxatik etorritakoa zen, eta ama Leintz Gatzagakoa. Aita alargun gelditu zen oso gazterik eta bigarren emakume batekin ezkondu zen. Seme bakarra izan zen eta 16 urterekin Andoaingo Telleria fabrikan bulegoko lanetarako hartu bazuten hartu, horretan egin izan zuen lan erretiroa hartu arte. Txikitan, fraide batek erakutsita, ezpata-dantza dantzatzen ikasi zuela gogoratzen zuen ederki.

Gurutz Ganzarain Ansa (1927)



Andoaingo Etxeberrieta auzoan jaio zen bost senideko familia batean. Gurasoak ere andoaindarrak zituen. Ama oso pertsona jantzia omen zen musikan eta historian batez ere, eta aita gerra garaian preso izan zuten. Gerran, arreba txikiena hiru urterekin gaixotasun bat zela medio hil zitzaien eta gerra garaia nahiko gogor bizi izan zuten guztiaren ondorioz. La Sallen ikasi zuen eta eta Laborde anaiekin jarraitu zuen gero. Mekaniko ikasi zuen, baina bere benetako afizioa bizikletarekin karreran ateratzea zen. Oso ona zen horretan eta hainbat karrera irabazi zituen. Baina ezkondu zenean, utzi egin behar izan zuen lanean hasteko.

Joxe Goikoetxea Orbegozo (1927-2009)

Joxe Antonio Huizi Bereziartu (1937)



Andoaingo Ubalategitxiki baserrian jaio zen, aitaren lantokitik gertu. Aita andoaindarra zuen eta Rezolako harrobian egiten zuen lan garai hartan. Ama, berriz, Alegikoa zen eta neskame zegoela ezagutu zuen bere aitak, gero Laborden lanean aritu bazen ere. Lau senidetan gazteena izan zen eta ama alargun gelditzean, gogotik ikasi zuten lan egiten. Etxeko lanetan oso txikitatik hasi eta gero Laborden aritu zen lanean familiako askorekin batera.

Delia Huizi Zuñiga (1928-2018)



Ama Orian jaioa zuen eta aita Andoaingoa. Bera ere Andoainen jaio zen karrikan, baina aita tifusagatik hil zitzairenean Etxeberrieta kalera joan ziren bizitzera. Gerra hasi zenean Bilbo aldera jo zuten ihesi, emakume alargunekin soldaduek gehiegikeriak egiten zituztela entzunda. Kortezubin denboraldi luze samarra eman zuten eta han zeudela Gernikako bonbardaketa ikusi ahal izan zuten menditik. Han gertatutako sarraskiak beldurtuta, gauez Santander aldera alde egin zuten beste jende askoren tartean. Handik Oviedora gero eta Frantzia aldera itsasontzi batean sartuta. Katalunian ere egin zuten denbora bat; azkenean, etxera itzuli zirenean, altzari guztiak falta zituzten eta etxea bera ere beste familia bati alokatua zioten ordurako. Aitonaren etxean bizi izan ziren itzulitakoan, "itsubania" deitzen zioten etxean.

Ramon Huizi Zuñiga (1931-2021)



Aitona "kamineroa" zuten eta "kamineroaren familia" izan dira beti Andoainen. Bera Zumean jaio zen. Aita Andoaingoa zuen eta ama Urnietakoa (gaurko Lasartekoa). Gerra garaian Gernika aldera eta gero Euskal Herritik kanpora ihes egin zuten beldurragatik. Aita hil zelarik, ama lanean hasi zen Subijana lantegian eta haiek haurrak zirenez, Subijanako haurtzaindegian edukitzen zituzten.

Joxe Iraola Urchoeguia (1933-2015)



Goiburu auzoko Elizondo baserrian jaio zen Joxe. Ama zuen bertakoa, eta aita Amasatik etorritakoa. Sei senide izan ziren, bi aitarenak. Gaztetan Leitza erreka baserrietatik laguntza eske etortzen zitzaizkien, idi parearekin lurra lantzera joateko, eta horretan egunak ematen zituzten. Beharrezko traste guztiak kargatu eta bidaia luzearen ondoren, baserrietan jatekoa eta lotarako mantenua ere ematen zieten diruaz gain. Hainbat apustutan aritu izan zen Joxe gaztetan, baita geroago ere (trontzan, idiekin, harri jasotzen...). Sutarako egurra prestatzen eta saltzen ere urteetan aritu izan da. Horretaz gain, fabrikari egin izan du lan oso gaztetatik erretiratu arte.

Migel Irazusta Larrea (1930)



Aita Asteasukoa zuen eta ama, berriz, Andoaingoa bertakoa. Berak bi urte besterik ez zituela hil zitzaizen ama, eta aita amaren ahizpa batekin ezkondu zen. Lau senide izan ziren eta bera zaharrena zen denetan. Aitak, amak eta geroago bere amaordekoa izango zen izebak Inazio taberna erosi zuten eta batzokia jarri zuten bertan. Festa gutxi harrapatzen zituela zioen, baina txistua joaz Adarratik Xoxokara jaisten zirenekoak gogoan zituen. Laborde anaien lantokian aritu zen lanean 14 urterekin hasita, eta gerora igeltsero ibili zen. Andoaingen bizi izan da beti.

Joakina Irizar Zarautz (1930)



Andoaingo Garro baserrian jaio zen. Bost senide izan ziren, baina lau hazi ziren bertan, denen artean bigarrena bera. Eskolan gutxi ibili zen, zortzi urterekin etxea gobernatzeko adina baitzen bera. Hamabi urterekin neskame joan zen; eta, hamalarekin, Moleda fabrikari sartu zen lanera, hogeita bat urte zituen arte. Villabonara neskame joateko atera zen handik, eta Donostian ere ibili zen; baina, azkenean, Sorabillan taberna hartu zuten berak eta artean senargai zuen lagunak (gero berarekin ezkonduko zen); eta han egin zituen berrogeita sei urte, bizi ere bertan eginez.

Patxi Irizar Zarautz Garro (1928-2013)



Andoaingo Leizotz auzoko Garro baserrian jaio zen bere hiru arreba bezala. Haurdunaldiko denbora bete baino lehen jaio omen zen eta zapata-kaxa batean hazi omen zuen bere amak guata artean. Inork pentsatzen ez bazuen ere, aurrera atera zen eta ez nolanahiko sasoiarekin gainera. Korrikalari azkarra izan zen gaztetako apustu batean uste baino marka hobea egin ostean. Baserriaren izenez ezagutu izan du inguruko jendeak, "Garro" goitizenez alegia. Atzerrian asko ibili zen karrera ezberdinetan parte hartuz eta ezkondu zenean utzi zion korrika ibiltzeari, 1956an. Hogeita hamalau urtetan adreilu-fabrika batean egin zuen lan. Beti bizi izan da Andoainen.



Joxe Mari Jauregi (1937)

Pedro Jauregi Sorondo (1922-2010)



Andoaingo Agerreborda baserrian jaio zen. 5 anaia eta 2 arreba ziren, eta bera denetan gazteena. Gurasoak andoaindariak zituen; eta, aita artzaina izanda, sindikatuan ere ibili izan zen zertxobait. Eskolan 12 urtez aritu bazen ere, azken 2 urteetan baino ez zuen ikasi bere hitzetan. Izan ere, "La Salle"n "primera" kategorian sartu eta gaueko eskolan hasi zen anaiari laguntzeagatik. Afrikan 3 urte pasa zituen legioan. Gerra garaian, berriz, etxea hondatu zioten eta hura konpontzea asko kostatu zitzaien, nagusiak ez baitzuen nahi horrelako gastuetan sartu. Laborden aritu zen 16 urte zituenetik 52ra arte.

Carmen Jauregi Ulazia (1934)



Irungo Bentan jaio zen. Gurasoak Amezketatik joan ziren bertara eta han baserria errentan hartu zuten. Dirutan ez baina, etekinak erdi bana eginez ordaintzen zioten etxearen errenta nagusiei. Nagusien alabak bizikletetan joaten zirenean, haien usaina gogoan zuela kontatzen zuen Carmenek. Zazpi senide ziren (lau neska eta hiru mutil) eta bera gazteena zen. Egunero aitak kargatzen zion astoa esnearekin eta topoa hartzen zuen Irunen esnea saltzeko. Astoak bidea ongi ezagutzen zuela zioen, eta trena noiz zetorren ere ederki sumatzen zuela. Bere ahizparen koinatuarekin ibiltzen hasi zen Hondarribiko festa batzuetan eta harekin ezkondu zen Andoainera. Bertan bizi izan da geroztik.



Gorka Julio Hurtado Teketen (1982)

Ixiar Mendikute Garmendia (1943)

Kristina Mendikute Garmendia (1942)

Loli Mendikute Garmendia (1941-2018)

Iñaxio Mendiluze Elizondo Fondako Iñaxito (1937)



Andoaingo Zumea kalean jaio zen. Sei anai-arreba ziren, bera bosgarrena. Ama Andoaingo Elizondo tabernakoa zuen, eta aita Andoaingo Algodoneran aritzen zen lanean. Fonda bat zuten eta "fondako Iñaxito" bezala ezagutu izan dute herritar askok Iñaxio. Txikitan beti erdaraz hitz egitera ohitu ziren, zaharrak euskaldunak zirela jakin bazekiten arren. Laborden ikasten sartu zen eta bertan gelditu zen lanean ere, bulegoan eta administrazioan.

Mertxe Mujika Otegi (1929-2013)



Goiburu auzoko Txurikadi baserrian jaio zen. Bederatzi senidetan seigarrena, oso txikitatik ardi kontuan lan egin izan du, ahizparen etxean. Komunioa egin zuenerako umezain ere egon zen, baina berehala aspertu eta ahizparen artaldea zaintzen jarri zen. Baserriko lanetan gelditu gabe ibili zen bizitza osoan. Goiburun jaio eta auzo berean bizi izan zen beti Mertxe. Bost seme-alaba izan zituzten.

Miel Muñagorri Muñoa (1927)



Andoaingo Leizotz bailarako Ipurkaitz baserrian jaio zen. Arreba zen zaharrena, baina hemezortzi urterekin hil egin zen tifusarekin gaixotuta. Aitak eta berak ere pasatu zuten gaixotasun hori. Hiru anaia gelditu ziren eta berak Laborden ikasi eta lan egin zuen. Laborden 23 urte egin eta gero, tailerra jarri zuen beste hiru bazkiderekin Urnietan. 35 urterekin Hernanira ezkondu zen eta bertan bizi izan da geroztik.

Loren Navarro Hombrados (1924-2014)



Andoaingo Zumea kalean jaio zen eta ahizpa bakarra izan zuen. Amak denda txiki bat zuen eta aitak, berriz, dendaren alde batean, "barberia". Notre Dameko mojen ikastetxean ikasi zuen errepublika garaian, mojek bertatik alde egin behar izan zuten arte. Herriko eskola publikoan sartu zuten orduan. Bertan urtea amaitu eta gero, Alkain maistraren ikastolan hasiarazi zuten. Han, antzerkiak ere egiten zituzten jendearentzat. Gerrarekin batera, ordea, aita atxilotu eta denda itxi zieten. Garai latzak pasatu zituen.

Maria Oiarzabal

Jose Mari Oiarzabal Beloki (1946-1997)



Jose Mari 1946an jaio zen Andoaingen, Olabista etxean, Lizarkola baserria eta Leizaur burdinola izan zenaren aurrean. Bere aita musikaria izan zen, tronpeta eta soinu-jotzaile, eta haren pausoak jarraitu zituen Jose Marik. Solfeo eta kantuko ikasketak egin zituen, eta Andoaingo bandan tronpeta jotzen hasi zen. 14 eta 30 urte bitartean, delineatzaile gisa ibili zen lanean Andoaingo COMAQ enpresan, baina ez zuen musika alde batera utzi. 30 urte bete zituenean, musikari eskaini zion bete-betean bere denbora. Ikasketei jarraipena eman zien Donostiako Musika Kontserbatorioan, eta 1986an tronpetako katedra lortu zuen. Hurrengo urtetik aurrera, kontserbatorioko banda sinfonikoko eta ikasleen bandako zuzendari izan zen. Garai horretan hasi zen Sarriegi musikagilearen danborradako piezen konponketak egiten. Gaur egun, 50 obra baino gehiago konpondu ditu eta hainbat grabaziotan hartu du parte tronpeta jotzen. Bere lanaren zati handi bat 3 diskotan jasota gelditu da: "Donostiako Ihauteriak", "Sociedad Euskal Billera 1901-2001" eta "Dira Dira Ihauteriko Konpartsak".

Bixente Olano Otegi (1919-2008)

Jose Mari Olazabal Iñurrita (1928-2015)



Andoainen jaio zen, eskola kalean. Zortzi senidetan bigarrena, Andoainen bizi izan da beti. Ama baserritarra zuen eta aita, berriz, azpeitiar okina. Hamabi urte arte "La Salle"n ibili zen eskolan eta gero Sapan sartu zen lanean. 1964-1971 bitartean Andoaingo kontzejal izan zen. Maila ekonomikoan lan handia egin zuten garai horretan. Andoainek urte haietan zuen biztanle kopurua bikoiztu egin zen legealdi horretan.

Jesus Mari Otamendi Berasain (1944)



Eltzaburun jaio zen, baina txikitatik Andoaingo Zumean bizi izan zen, harik eta ezkondu zen arte. Ama zuen Eltzaburukoa eta aita, berriz, Gaintzakoa. Bost senidetan zaharrena zen bera, eta eskolan Basteron ibili zen. 8-9 urte zituela kantatzen eta musika ikasten hasi zen. Txistua jo izan du eta herriko abesbatza batean aritu izan da kantatzen.

Xalbadora Roldan Iturrioz (1922-2016)



Ama goierritarra zuen eta aita Añorgan hazia. Bera Andoainen jaio zen eta hiru senidetan gazteena izan zen. Bere izeba batek ostatua jarri zuen Andoainen eta bere aitak han ezagutu zuen emaztea izango zuena, Xalbadoraren ama. Aitak tranbia gidatzen egiten zuen lan orduan eta ezkondu zirenean Julian enea izeneko etxean taberna ireki zuten gurasoek. Han lan egin zuen Xalbadorak eta gero Zubiaurre etxera ezkondu zen hango harategiko semearekin. Harategian lan egin zuen urte batzuetan, baina gazterik alargundu zen eta harategia aurrena semeen esku utzi eta gero errentan eman zuen. Frantsesez ikasi zuen txikitan, Notre Dameko mojen ikastetxean. Andoainen bizi izan da Xalbadora azken urteetan ere.

Mari Cruz Sagarzazu Iturriza (1928-2012)



Andoaingo Idiazabalaundi baserrian jaio zen. Aita Hondarribikoa zuen; eta ama, aitaren bigarren emaztea izan zena, Alkizakoa. Aitaren lehenengo emaztea gaixotuta hil zen 10 hilabeteko haurra utzita, eta bigarren emaztearekin ezkondu zenean, beste hiru seme-alaba izan zituen. Andoainen bizi izan da Mari Cruz beti.

Maria Uranga Jauregi (1916)



Andoaingo Etxarri baserrian jaioa. Ama andoaindarra zuen, eta aita azpeitiarra. Sei senidetan gazteena, hogeita hiru urte bete zituen arte baserrian bizi izan zen. Gero, ordea, anaia etxera ezkondu zenean, neskame joan zen Villabonara, eta hamar urte egin zituen bertan, Segurola harategian lanean.

Joxe Mari Urola Oiartzabal *Bekaixtei* (1934-2016)



Andoaingo Bekaixtegi izeneko baserrian jaio eta bizi izan zen haurtzaroan. Ama zuen andoaindarra, Miranda baserrian jaio eta gero, Bekaixtegira bizitzera joandakoa. Aita, berriz, Aldabakoa zuen. Lau arreba eta bera bizi izan ziren gurasoekin baserrian eta txikitan ondo ikasi zuten behiak gobernatzen. Sasi errota deituriko etxean ikasi zuten txikiak zirela, eta geroago joan ziren herriko eskolara; han erdaraz zerbait gehiago ikasi zuten. Leitzaran paper-fabrikari egin zuen lan erretiratu zen arte. Andoainen bizi izan da beti.

Txomin Usandizaga Murgiondo (1934-2015)



Andoaingo Buruntza auzoko Serotegi baserrian jaio zen. Noizbait seroren etxea izango zen Serotegi baserria, eta ondoan aurkitu diren elizaren aztarnak indartu egiten dute uste hori. Inguruko gainerako baserri guztiek "eliz" izenarekin dute zerikusia. Txominek hiru arreba izan zituen eta baserrian lan egiten ongi ikasi zuten denek. La Salle fraideen ikastetxean ikasi zuen hamalau urte bete zituen arte; gerora, Olamian sartu zen, eta egunean 8-10 ordu egiten zuen lan. Berrogeita bost urte eman zituen han lanean. Bera gelditu zen jaiotetxean; eta, hara ezkondu ondoren ere, bertan bizi izan da.

Joxe Luis Usarralde Lasquibar *Iyuya* (1928-2014)



Andoaingo Iyuya baserrian jaio zen; eta, urte horretan bertan etxea erre ondoren, Bistaeder baserrira joan ziren bizitzera. 11 senide izan ziren, sei arreba eta bost anaia, eta gehienek artzaintzan egin zuten lan gaztetan. Bi artalde izaten zituzten, zotalekoak eta sasi-ardiak; Joxe Luisek sasi-ardiak zaintzen zituen, etxean edukitzen zituztenak, alegia. Aita basozain eta txondorgile ere aritzen zen eta hamar urte zituenerako hasi zen Joxe Luis ikatza asto gainean garraiatzen. Eskolan zerbait ibili bazen ere, lanean gehiago aritu behar izan zuen. 15 urte zituela, Urrizti baserrira bidali zuten morroi, eta bertan egon zen soldadu joan zen arte. Handik itzulitakoan, hainbat lantegitan lanean aritu ondoren, Urrizti baserriko alaba zaharrenarekin ezkondu zen. Baserrian eta kanpoan segitu zuen lanean, eta Urriztin bizi izan da geroztik.

Martin Zabala Agirre (1926-2015)



Garai batean Etxeberrieta izena zuen kalean jaio zen Andoainen bertan (gaur egun Larramendi kalea den horretan). Aita gerra garaian desagertu zitzaion eta seme bakarra, amarekin eta amona batekin hazi zen. Ama bertakoa zuen eta aita Adunakoa. Berak La Salle ikastetxean ikasi zuen eta gero Laborden. Etxeko lehen irratia berak muntatu zuen eta gero saldu ere egin zituen beste batzuk inguruko etxeetan. Handik afizioa sortu eta etxeko tresna elektronikoak saltzeko denda bat jarri zuen Kale Nagusian. Bertatik pasatu ziren Andoaingo lehen plantxa elektrikoak, lehen garbigailuak, lehorgailuak... Bere denbora librean herri-kiroletako epaile ere izan zen Martin, batez ere sega-apustuetan.

Antonio Zabala Zalakain (1937-2011)



Andoaingo Galardi baserrian jaio zen senide askoko familia batean. Aita itzaina zuen eta Villabonako paper-fabrikara pasta eramaten egiten zuen lan. Eskolarako gogoia izan zuen Antoniok, baina 12 urterekin La Salletik atera beharra izan zuen. Handik atera zenean, arrebari laguntzen eman zituen bi urte; eta, gerora, hainbat lantegitan aritu zen lanean (Olamian, Ciacon, butanoa banatzen...). Urnietako emakume batekin ezkondu eta Andoainen bizi izan da denbora luzez.

Bittori Zabala Zalakain (1924-2017)



Andoainen jaio zen, elizaren atzealdean zegoen Galardi izeneko baserrian. Maizter ziren eta errenta San Tomas aurreko igandean ordaindu behar izaten zuten. Aita zorrotza omen zuten; eta ama, aldiz, gozoa. Hamasei urte zituela, pleuresiaz gaixotu zen. Gerra ondorena izaki, bailarako etxe guztietako kartilak beraien etxean uzten zituzten auzokideek, Bittoriri haragirik falta ez zekion. Ordurako Moledanean zebilen lanean; eta, osatu eta indartu zenean, Olamian hasi zen, harik eta ezkondu zen arte. Buruntza auzora ezkondu zen eta bertan bizi izan zen geroztik.

Felix Zabala Zalakain *Galardi* (1928-2015)



Gaur egun Andoainen kale oso bati izena ematen dion Galardi baserrian jaio zen (etxe asko egin zituzten baserria zegoen lekuan). 12 senide izan ziren, eta bera zen laugarrena. Aita Andoaingoa zuen, itzaina ofizioz, eta ama Sorabillakoa zuen. 16 urterekin, morroi bidali zuten Garagartza baserrira. Handik atera zenean, fabrikan sartu zen eta han egin zuen lan erretiratu zen arte. Andoainen bizi izan da beti, bertako alaba batekin ezkondu eta gero ere.

Miren Zarraga Pagola (1932)



Ama oiartzuarra zuen eta aita Erandiokoa. Bi anaia eta hiru arreba ziren; eta, Gerra Zibila hasi zenean, beldurratik, Bilbora egin zuten alde amarekin. Bilbon aitaren arreba batengana joan ziren, baina han ere salbu ez zeudela susmatuta, anaia zaharrena izebarekin utzi eta Asturiasera, Kataluniara eta azkenik Frantziara mugitu ziren. Bederatzi urte bete zituen arte han egon ziren, eta orduan itzuli ziren Andoainera. Aita joan zitzaien bila eta egun haren oroitzapen polita du. Herrira itzultzea, ordea, ez zen erraza izan. Ezinikusia eta ezineramana bizi izan zituzten garai hartan, lana aurkitzeko zailtasunak... Hamabi urterekin izebarengana itzuli zen Bilbora eta haren errotan egin zuen lan lau urtez. Andoainera bueltatu zenean, Laborden sartu zen eta handik ezkondu zen Andoaingo kalera bertara.

Agustin Zinkunegi Aranburu (1914-2002)

Maria Kristina Zinkunegi Irazusta (1936)



Bera Goiburuko Urrizti baserrian jaio eta bizi izan bada ere, guraso biak asteasuarrak zituen. Lau senide izan ziren eta bera zen zaharrena. Etxean bakoitzak bere lanak izaten zituen. Eskolan mojetan ibili zen aurrena; eta sasi-erota deituriko eskolan gero. Baserri handia izan da berea, eta bertan bizi izan da ezkonduz geroztik ere azken urteetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. "Lagundurikan danoi..." Otañoren bertsoak

- **Hizlaria(k)**: Arregi Moraza, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-001/008
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:14:18. **Bukatu**: 00:18:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Otañoren aitak, Ameriketara joan zenean, semeari abestutako kanta gustatzen omen zaio gehien. Sei bertsoak abesten ditu: "Lagundurikan danoi..." Honekin lotuta, Otañoren semea Ameriketara joaterako eman zion irakaspena azaltzen du. Beste hainbat kanta ere ikasi zituen 5 pezeta ordainduta erosi zuen liburuxka batetik.

Transkripzioa

- Gehien gustatzen zaidana, ta eliza maillakua da nahi bazu, Otañok ze kantatu zion aittak semiai Ameriketara jun zanian.
- Buruan daukazu?
- Goguan? Bai, sei estrofa dauzkat.
- Kantatu nahi badittuzu...
- Asko ez [baita] izango...
- Guk ez daukagu topeik.
- E?
- Guk ez daukagu topeik, nahi baldin badittuzu kantatu.
- Bueno. Ba, kantuba hau da:

Lagundurikan danoi
gugatik hil zanak,
seme, hazi zaitugu
aitak eta amak,
beti zure gidari
izandu geranak.
Orain gurutze honen
oiñean esanak
ondo goguan hartu
bihaitzu danak.

Zu Ameriketara
joatia hemendik,
Jaunak hala nahi badu,
zer egingo det nik?
Han ez dezu izango
aitik eta amik,
ta ez zera galduko
noranahira joanik,
ez bazaizu ahaztutzen
gaur hemen entzunik.

Ez nizuke utziko
joaten, egietan,
gure erlijiorik
ez balitz han bertan.
Iritsiko baziña
han urrutietan,
herri ta elizarik
ez dan tokiyetan,
oroi zaitez Jainkoaz
leku guztietan.

Ez dakit danak zeatuko dittuten, baiño...

Seme, izan goguan
zeure gurasoak
hemen uzten dituzun
senide goxoak,
jaio ziñan tokiko
mendi ta basoak,
euskerazko otoitzak
edo errezuak,
erakutsiyak zuri
amatxo gaxuak.

Ta, bukatzeko... biharbada batenbat tartian utziko nun, baiño azkenekua da:

Iritsi da ordua
juan behar dezuna,
badakizu aita-amak
hemen dauzkazuna.
Ez dezazula ahaztu
gaur hemen entzuna,
hitz baterako hau da
eskatzen zaizuna:
izan zaitez nunahi ta
beti euskalduna.

- Jolin! Ze politta!

- Ba, biharbada bat utziko nun tartian, baiño... Gioia hemen eduki banun, danak kantatuko nittun, zeatikan hasiera kostatzen da. Ta horren sarrera politta izan zan, gaiñera. Preanbulo bezela o, esplikatzen du hoi idatzi zunak [...] aittak semia mahaian gaiñea iyoazi zula ta esan ziyola: "Oan bizkarra nei emanda jarri hai mahaian gaiñian iyota, ta bota lurrea". Ta bee

kontu haundiyakin, baiño bota emen zan lurrea, ta aittak bihar bezela propiyo ez heldu ta esan ziyola: “Ameriketaa juatian ez fiyatu hire aittakin ´e!”.

- Ez da irakasgai...

- Bueno, ta hoi bezela, ba, “Loriak udan ihintza bezela...” ta bueno, “Markesaren alaba enamoratusa, mariñeruekin...” ta, bueno, montoi bat hola. Ta hasi ezkeo... Baiño bat baiño gehio ahaztu in zaizkit. Baiño hartu ezkeru liburu bat segitzeko, [...]. Ta bi liburuxka, bost pezeta pagatutakuak zian.

- Jolin, ni harritzen naizena da han liburu hoik nondik eskuratzen zenittuzten garai hartan ta...

- Ba, librerin batetik. Bai, ordun´e bazian.

1.2. Bertsopaperak; erdi euskaraz erdi erdarazko kantak

- **Hizlaria(k)**: Arregi Moraza, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-001/009
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:18:28. **Bukatu**: 00:21:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
 - Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Martin Ugaldere osaba bat ibiltzen omen zen bertsopaperak banatzen. Izaten ziren erdi euskaraz erdi erdaraz ziren kantak. Erdarazko bertso bat eta "Bihotzeko asto gaixua" kanta abesten ditu.

Transkripzioa

- Gero esaten da bertsopaperak saldu ere egitten ziela.

- E?

- Bertso paperak saldu, saltzen ziela.

- A! Paperakin bazan holakua. Hemen bat... prezisamente bat zan Martin Ugalde —aitzera ez dakit bazun—, haren osaba, bertsopaperak banatzen ibiltzen zana. Ta horrena´re, por ejemplo, oan danak ez bada´re gogoratzen naiz nola esaten zun erdi erdera erdi euskaldunaz: “Pepito cayó al patio desde un quinto piso”.

Pepito cayó al patio
desde un quinto piso
una misa al santo Cristo
de Lezo
Le ofrezco agradecido
por salir ileso.
Posterior en el cuello
le salió un divieso
Al médico avisó
con rayos revisó
algo le divisó
sabéis lo que le hizo:
aplicarle un emplasto
hecho con yeso. (bis)

Holako kanta pillat bat ordia, e!

- Erdi euskeraz ta erdi erderaz esan dezu ta "Biyotzeko asto gaixua" ta hoik´e bazian.

- "Asto gaixua", hoi´re memoriz dakit. Oan bertan nahi bazu abestuko nizuke.

Al ikullu ya no vuelve
mi buen astua, no vuelve no,
ya no brinca de poxa
cuando cabeza tocar alguno,
arraia suerte txarra
tripakomiñas poner hizo
biyotzeko asto gaixua
malkos tiraba cuando murió.

Ahora te hace dos años
juntu-juntuak que ayer cumplió
que las tripakomiñas
al pobre burro le agarró
con su arrantza fuerte
una noche me despertó
biyotzeko asto gaixua
malkos tiraba cuando murió.

Hor´e akaso batenbat utziko det zeatu gabe, baiño... [...] Igual aldatuko det, baiño...

Levantarme yo enseguida
y al ikullu me marché yo
con ojos de bixigu triste
como hablarme mirar hizo
estirar luego la pata
y como harri koskorra se endureció
biyotzeko asto gaixua
malkos tiraba cuando murió.

Ordena, hoi ya ez naiz... Aurrian izan banun liburuxka, ba, danak esan...

1.3. "Belengo portalian" gabon kanta

- **Hizlaria(k)**: Arregi Moraza, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-001/014
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:29:38. **Bukatu**: 00:30:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kanta » Gabon kanta
- **Laburpena**: 15-20 urte inguru egin zituen koruan abesten.
Eguberrietan "sola" ere egin izan du. "Solo"an abestu izan duen gabon kanta abesten du.

Transkripzioa

- Geroztikan, ni koruan egongo nitzan, ba, bi pusketan, 15-20 urte igual, koruan kantatzen. Ta, esan deana, behiñ´e ez det izan musikik. Ta noiz o noiz solon bat´e kantatu Eguarritan´e bai. Ba... solua izan zan, oso netzako preferittutakua, ta oan semiak´e tentatzen naue hola Eguarritan kantatzeko. Ez dizut dana abestuko, baiño:

"Belengo portalian negu gogorrian
jaio da gure Jesus askatxo batian
askarik gabe dago abere artian,
guztiz ahaltsua dana zeru ta lurrian".

Hantxen dagoooo...

Ta hoi zean... hoi askotan kantatu izandu det. Ta inkluso koruan bertan´e Andoaingo elizan´e... Musikadunak ez dula kantatu nahi ta "Hik kantatuko al dek?", "Bueno, kantatuko dit". Ta...

- Hoixe! Gogua izan ezkeo...
- Bai, bai. Ni hortan ez naiz erregutu... erregu eske ibili.

1.4. Jaioberritan hiltzat eman eta bizirik atera

- **Hizlaria(k)**: Irizar Zarautz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-002/002
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:01:57. **Bukatu**: 00:04:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota,
kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Gurasoek nola ezagutu zuten elkar azaltzen du. Amak 21 urte zituela ezkondu zen. 23 urte zituela, Patxi jaio zen, 7 hilabete zituela; zapata-kaxan eduki zuten inkubagailua izango balitz bezala, eta inork espero ez zuen arren, bizirik atera zen.

Transkripzioa

- Eta nondik nora bukatu zuen, ba, hemen? Aittak ezautuko zun ama ta...
- Bai, aittak...
- ... amak honea ekarri, e?
- Ama Hernanira jun, lehengusu [...] zea batera, eztaietaa, eta aitta morroi etxe hartan egon. Ta handikan ezautu ta danba! ezkondu. Ta ezkondu... 21 urtekin. Amak 21 urte. Ta honea ezkondu zian. Eta 23 urte [zittukanian] ni jaio. Baiño jaio ez, abortua izan zun. Soruan, maiatzian, soruan, bee aittakin ganaukin ittulian zabillega sumatu du —esperuan egon, ta—, sumatu du zeoze ta “ez dek posible, ez dek posible, ez dek posible”, baiño posible izan. Abortua. Eta etorri, ta medikua etorri, ta etxian bertan abortua. Oso txikiya emen nitzan, kilon bat eo hola. Ta zer eman bihar diate? Ta ura azukria nahastu ta kutxarillakin ura ematen emen ziaten. Ta aurrera. Ta bi-hiru egunian biziko nitzala, bi-hiru egunian biziko nitzala, ta gero orduko zea, adelantuba, inkubadora o nola esaten [diyue], gauz hoik? Zer izango ta zapata kaja!

- Ttiki askua ziñan!
 - Bai. Zapata kaja ta han goata jarri. Ta zapata kajan, guatian.
 - Hara!
 - Bai. Eta hortxe hiru o lau egun pasa [nittun] garaian, biziik! Seittun hilko nitzalakuan! Ta ze okurrittu zaio amai? Petxun jartzia! Ta ni titi zalia izan ta seittun tiraka hasi! Ta tiraka hasi nitzanian, joe, bizirik atera! Bela hilko nitzala ta... Ta gaur iya larogeta bi urtekin... hara!
 - Jesusus!
 - Hara! Nik esan dizut historiya badeala nik.
 - Abortua ez, ordun, e? Aurrea atea ziñan zu ederki.
 - Zazpikiya.
 - Zazpikiya?
 - Zazpikiya.
 - Ta, ordun, zapata kajan ta...
 - Zapata kajan, goata jarri ta goata. Orduko adelantuba! Ordun... buf!
 - Medikuk-eta esango ziyoen ez ziñala ateako.
 - Bai, bai, bai, seguruasko, bi-hiru egunian biziko nitzala. Ta hara! Nola izaten dian gauzak! Okurrittu zitzairen zapata kajan goatakin ta goxo-goxo jartzia ta ura azukriakin nahastuta. Ta hiru-lau egunera, esaten zun, petxun [jartzia] okurrittu zaio ta ni tiraka hasi!
 - Harrittuta geldittuko zen.
 - Ta etxian, noiz hilko nitzan, hantxe, gurasuak. Danak. Famili osua, dana.
 - Bueno, bueno, atera ziñan behintzat eta...

1.5. Hiletak eta heriotzaren inguruko ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Olazabal Iñurrita, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-004/027
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 00:49:43. **Bukatu**: 00:54:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
 Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena**: Norbait hiltzen zenean, hilbeila egiten zen. Hiletako ohiturei buruz hitz egiten du. Manuel Lekuonak asko ikertu zuen historia, eta bidegurutzeak oso garrantzitsuak izan direla esaten zuen. Santa Kruz zergatik dagoen leku horretan azaltzen du Jose Marik.

Transkripzioa

-Ordun gorputza... belatoriyua edo... etxea etortzen zan jendea errosariyua errezatzea ta hola?
 -Bai.
 -Han izaten zan kandelak eta erramu hostua ta, holako zerak izaten zian gorputzan ingurun?
 -Bai.
 -Juten zanak aitagure bat errezatu edo...
 -Bai.
 -Ta gero gorputza elizaa eamateko edo, elizbidiak-eta izaten zian, baserritatik eta holako tokitatik?
 -Hor ohittura diferentiak zeuden basarritan ta kaletan. Kaletan, por ejenplo hemen, entiarro garaia ailleatu, bueno, ordulaurden bat lehen hartu

bizkarrian ta tapa-tapa elizaa. Elizan jarri han, entiarra bukatu, berriz´e bizkarrian hartu, zuzenian kanposantua. Gehienak kanposantuk elizan ingurun izaten zian. Han erresponso bat errezatu hillobin, ta hala bukatzen zan.

-Urnitán aittua dakat...

-A! Barkatu.

-Bai, segi, segi.

-Basarrin ohittura bat bazeon, hoi nik neonek ikusiya, lehen esan dizut monagillua izandu nitzala, ta gorputzan billa apaizakin monagillua juten zan, ohitura hala zan. Nik esango nuke basarrin bat... bueno... Gurutze bat hartu, ta apaizakin baserrira. Baserrin errespontso bat errezatu, hartzen zuen lau gizasemek, monagillua gurutziakin aurrian, ta bidekutzetan geldittu ta bidekutzeko pertsona batek mahai bat ateratzen zun ta gorputza han jartzen zan. Aitagure bat errezatu, berriz hartu hilla bizkarrian ta elizaa. Hoi nik neonek ezaututakua. Ta gero, historiagilleak eta esaten due hemen adibidez oso jatorra gendun Don Manuel Lekuona, aitzera ba al dakazu? Kategoriko gizona zan. Ta gero hemen eskrituak eta asko dauzka liburuk eta. Harek esaten zun zer inportantziya zeukan oin dala urte batzuk bidekutziak. "Los cruceros". Ta harek esaten zun, biharbaa, Santa Kutz-ko ermita´re jarriya daola daon tokin bi erriyo hor biltzen dialako: "río Leizarán y río Oria". Hor biltzen dia, hain zuzen, ermita daon tokin. Hor fijatzen bazea... Andoain gutxi ezautzen dezu zuk.

-Bai, bai, badakit, hara aldea dau, hor Alegi aldea ateatzen zeala.

-Hemengo zubiya dator, hemendikan berrehun metroa dao zubi bat, ta hor dator Leizaran. Ta berrehun bat metro o hola beherago biltzen da "río Oria". Oria askoz inportantegua, zeatik datorrena, Tolosaldekan, ta biyak biltzen dia.

-Ta Santa Kruz...

-Santa Kruz hor jarriya dao.

-Beitu.

1.6. Jaunartzeko bazkaria

- **Hizlaria(k):** Mujika Otegi, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-006/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena:** Dotrina elizan ikasten zuten. Jaunartze bakarra egin zuen Mertxek. Jaunartzeko bazkarian dena jatera behartu zuten eta desatsegina egin zitzaion.

Transkripzioa

- Dotriña esaten da oso-oso inportantea zala ordun.
- Jesus!
- Zuk zeorrek esan dezu.
- Jesus! Bueno...
- Elizan ikasten zen? Eskolan? Etxian? Non ikasten zen dotriña?
- Ba, leziyuak etxeako ematen zixkiguen, ta gero, komuniyo garaia

etortzen zanian, bastante lehenaotikan hasten giñan leziyuak. Egunak izentatuk izaten zien juteko ta... leziyuak ematea elizan ordun. Oan bezela uste al dezu komuniyok? Ezta pentsatu´re! Bueno! Hobeto preparatzen zan leheno, e! Hobeto ez dakit, hala aitzen zien behintzet.

- Eta komuniyua bakarra ez igual.

- Nik bakarra in nun.

- Bai?

- Bai, bakarra in nun, bai. Ta gustoa asko! Jo! Nere ahizpa... zerbitzen egoten zian tokian konbidatu niñuen bazkaltzeko. Jesus! Han nik egundaiño ikusi ez nittun klasiak [atea] zittuen. Baiño zan nausiya oso zorrotza, ta ni beida, bildurraz hasteko, nundik heltzen zitzaien´e jakin ez ta: “gaur ez badittuzu hoik danak jaten gehio ez zea honea sartuko, e! Denak jan bihar dia!”. Jo... Alde batea penatuta ta guzi egon nitzan, “nahio nin etxian jan banun!”. Onez esaten zittun hoik, e! Onez. Hobeto ikusteatikan, baiño... Guk ez genduken, esan deuna, betiko menu klasia itten gendun guk etxian ta haik ez nittun nik ezautzen.

- Hortaz, espeziala zen, menu espeziala?

- Bai. Bai. Etxe ona zan, ta! Fabrika guziyan jabe ziana zan ta... Haik, badakizu, gue etxetatikan diferentia zeon hua. Baiño... Hola.

- Ahizpa zaharrena zenun han lanian?

- Zaharrena... Zaharrena´re han pasia. Zaharrena ibili zan nausi horrek beakin zalদিya ta karuakin herrin ogiya partitzen ibili zan. Ta geroz, bai moja, ta bai beste... hiru ahizpa bestiak han pasiak izango zian zerbitzen etxe hortan bertan. Bai.

1.7. Heziketa han eta hemen jasotakoa

- **Hizlaria(k):** Fernandez Izagirre, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-009/004
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Aita hil zenean, berriro hutsetik hasi behar izan zuten. Ama josten hasi zen orduan. Kontxa Arretxe maistrarengana eraman zuten Maria Jesus: han zer ikasten zuten azaltzen du. Gerora, doña Pazekin ibili zen, eta azkenik, mojen eskolara joan zen.

Transkripzioa

- Eta gero, ba, bizitza hasi bihar gendun “de cero”, klaro. Eta nere amak, hasi zan, ba, josten. Josten hasi zan nere ama. Eta, klaro, gu, ba, hiru urtekin, hiru urte ta erdikin, bialdu zigun Kontxa Arretxe zala maistra bat euskeraz... dotriña gehiena eakusten ziguen hor. Ta gero, ba, etorri zitzaion lagun bat aitana, oso laguna, maistra, Maria Paz Atarain, eta esan zion nere amai bialtzeko, bialtzeko eskolaa, zeatikan oso laguna zala, eta ze pasa zan, ba, harrituta zeola. Eta, ordun, ba, esan zion, ba, juteko eta ez ziula kobratuko. Baiño, klaro, nazkan hiru izeba monja, eta beti eskribitzen ziyoen honi responsabilidade haundiya zakala, oso responsabilidade haundiya, bi haur, eta bialtzeko monjetaa neska eta mutillek frailletaa. Zeatikan responsabilidade hoi, aber ze pasako zitzaion. Oain arte karta hoik izandu dittut eta puskatzen aittu naiz, zeatikan gue neskak ez dakit

zenbat gauza billatuko [diren] hor. Eta, bueno. Ta, ordun, ba, hola, esan zion, ba, asko sentitzen zula ta hola. Eta, gairia, ba, urtebete eendu giñan eta ez zion batere kobratzen. Ta honek erregalo bat bialdu ziyola, baiño, klaro, badakizu ze pasatzen dan, beti gelditzen zea zorretan. Eta, bueno, ordun, ba, bialdu zian monjetaa. Eskola... jesuitinas, Hijas de Jesus. Villa Argentina zan. Villa Argentina zan gure kolegiua.

- Kontxa... Kontxa Arretxe esaten dezu, ez?

- Bai, Arretxe. Ta gero Maria...

- Horrekin zenbat denbora pasa zendun?

- Hoi pasa gendun, ba, igual ge'ore juten giñan bost urte arte o hola.

Dotriña, Aita Guria... Ta gero, hor, hor eskola hortan zaken alki batzuk.

Alkik, sagardotegin bezela, baiño txikin. Alki batzuk. Eta ikusten giñan danak alkarrekin, eta oso eskola polita zan. Eta hor ikasi gendun —bueno, amak eakusten zigun, baiño— Aita Guria, Jesukristo nere jaun, kredoa, salbia... danak. Danak eakusten zigun beak.

- Euskeraz?

- Dana euskeraz. Horrek eakusten zigun dana euskeraz. Gero, beste hortan, batzutan euskeraz 'e bai doña Pazena, baiño gehiena erderaz horrek.

1.8. Euskara debekatuta kalean, baina babestuta bihotzean

- **Hizlaria(k)**: Fernandez Izagirre, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-009/005
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:10:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Mojekin dena gaztelaniaz ikasten zuten eta ikasle gehienak erdaldunak ziren. Euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen, baita kalean ere. Gaur egun dena euskaraz egiten dute lagunartean.

Transkripzioa

- Ta gero, pasa giñanian baita 're Villa Argentinaa, monjan konbentu hortaa... zergatikan, klaro, monjan konbentu hortaa nere izeba monjangatikan. Eta, klaro, ba, ordun, ba, pasa giñan horrea eta monjak zian danak erdaldunak. Eta dana-dana-dana iten gendun erderaz. Eta bakarrikan iten gendun etxian euskeraz amakin. Eta kalia debekatuba zegoen. Kalia debekatuba zegoen euskeraz hitz eitea! Hoi zan erruba gendekana hemen Andoaiñen. Danak basarritarrak, danak ezaunak. Zeatikan ni jaio nitzanian, nere amai aituta, nere aita nola zan iten zittuna kronikak Andoinguak, ba, ordun jartzen zun gendela, giñala ni jaio nitzanian, 1933n, hiru milla biztanle bakarrikan. Hiru milla. Eta gero, estadistika etorrita, konturatu nitzan eta bi milla ta beatzirehun o hola. Eta esan nun "Hara! Ba aita arrazoi zakan". Nik aituta amai. Eta hoik danak. Eta, gero, klaro, ba, juten giñan kolegiyo hortaa, danak giñan, ba, erdaldunak eta hola. Eta gero, ba, askok baita 're euskeraz, baiño gehiena iten gendun bi o lau neskakin euskeraz, baiño bestela danak erdaldunak zian. Danak erdaldunak! Eta gero, ba, oain...
- Zer zan, ba... Andoingo jendia izango zan ba!

- Bai, baiño...
- Ta erdaldunak?
- Bai, bai, erderaz hitz eiten zan gehio. Zeatikan nola zeon horren debekatuba hoi...

1.9. `Zibilak esan naute´ abestia

- **Hizlaria(k)**: Navarro Hombrados, Loren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-022/013
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:16:08. **Bukatu**: 00:17:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Iparragirreraren `Zibilak esan naute´ kantatzen du. Amonak abesten zion.

Transkripzioa

- `Zibilak esan naute´ hura nola zan?
- Bai.

Zibilak esan naute,
bizi, egoki,
Tolosan bihar dala
gauza hau erabaki;
giltzapian sartu naute,
poliki-poliki,
negar egingo luke
nere amak baleki.

Jesus tribunalean
zutenean sartu,
etzion Pilatosek
errurik billatu;
neri ere ez didate
errurik billatu,
zergatik ez dituzte
eskuak garbittu?

Gehio al dao?

- Bai, gehio bada, beste bat.
- Bai.
- "Kartzelatik atera fiskalen etxera...".
- Bai.
- "Abisatu zidaten...", bueno.
- Bai, hoi...
- "Joateko berehala ta ez etortzeko gehio".
- Ez, bi hoik abestutzen zizkidan gehio amonak, eta neonek´e ohitura gehio.

1.10. 'Ardoa edanda' eta 'Agur Euskal Herriari' kanta

- **Hizlaria(k):** Navarro Hombrados, Loren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-022/015
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:18:06. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
Ohiturak eta bizimodua » Kanta
- **Laburpena:** Amonak abesten zion abesti motza: `Ardoa edanda´. Iparragirreraren `Agur Euskal Herriari´ abesti sentikorra.

Transkripzioa

- Eta geo hoi, nola da?

Ardua edanda... —hoi´re abestutzen zian— mozkortzen naiz
pipa erreta zorutzen nai
kortejatzia lotsatzen nai
nola demontre biziko naiz?

Hola, motx hoik hola iten zixkian. Baiño aldatu, e? Geo...

- Hok badia gehio baiño...

- Bai, asko dia, bai.

- "Gazte-gaztetandikan" ta...

- Bai, hoi bai.

Gazte gaztetandikan
herritik kanpora,
Estranjeri aldean
pasa det denbora.
Herrialde guztietan
toki onak badira,
Baiñan bihotzak dio:
"zoaz Euskal Herrira".

- Ze politta hoi, e?

- Bai, abesti polittak. Ta nei hoi Jesus! Onbre, amona hil zanian, iya zazpi urte banittun, ta bizi zan bitartian harek abestutzen zixkian, e! Oseake, ahaztu gabe euki nittun urte hoitan guztitan.

- Honek badaka beste bat: "Agur nere bihotzeko..."

-

Agur nere bihotzeko
Amatxo maitea!
Laster etorriko naiz
Konsola zaitea.
Jangoikoak ba nahi du
Ni urez joatea;
Ama zertarako da
negar egitea?

Baiño dia... abesti sentikorrak dia, e! Bai. Nik ttikitan negarra´re itten nun,

e, gero konturatzen nitzanian hola! Bai.
- Ze polittak dian.
- Bai.

1.11. `Ikusten duzu goizean´ abestia

- **Hizlaria(k)**: Navarro Hombrados, Loren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-022/016
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:21:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: `Ikusten duzu goizean´; abestia kantatzen du.

Transkripzioa

- Gero, `Ikusten duzu goizean´...
- Bai.

Ikusten dezu goizean
eguna argitzen danean
menditxo baten gaiñean
etxe txikitxo txuri polita
lau haitz haundiren erdian
iturritxoa atean,
txakur txiki bat aldean
hantxen bizi naiz pakean.

[Ezeziza] gaztelua
maite det nik sorlekua
aiten aitek hautatua
Etxetik kanpo zait iruditzen
nonbait naizela galdua
hantxen ni bainaiz sortua
han utziko det mundua
galtzen ez badut zentzua.

1.12. `Hara non diran´ abestia

- **Hizlaria(k)**: Navarro Hombrados, Loren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-022/022
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:30:05. **Bukatu**: 00:31:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: `Hara non diran´; abestia kantatzen du.

Transkripzioa

- `Hara non diran´.
- A! Bai. Hoi bai.

Hara nun diran mendi politak;
Hara nun diran zelaia!
Baserri eder txuri-txuriak...

Nola da?

- "Iturri eta..."

-

... iturri eta ibaiak.
Hendaian nago zoraturikan,
zabal-zabalik begiak,
hara, Euskadi! lur hoberikan
ez du Europa guztian. (bis)

1.13. `Anttoni eta Antton´ abestia

- **Hizlaria(k)**: Navarro Hombrados, Loren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-022/026
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:33:23. **Bukatu**: 00:34:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: `Anttoni eta Antton´ abestiaren egilea nor zen; ez da aintzinakoa, baina bai herrikoia. Kantatu egiten du, erdi irakurritz.

Transkripzioa

- `Anttoni eta Antton´ esan dezu lehen.
- Hoi bai, baiño hoi da...
- Baiño hau haiñen zaharra al da?
- Ez, zaharra ez. Zeatikan apaiza hoi in zuna —hilla igual eongo da—, hemen horren anai bat eon zan: don Feliziano Etxaniz. Ta horrena ez naiz gogoratzen, baiño Azkoitikua da hoi. Eta horreatik esaten det hoi berrigua dala abesti hoi. Eta da oso... herrikoia da oso.
- Hau zure amonak, ordun...
- Ez, hoi ez. Ez det uste. Nik geroztik entzuna bai. Bai, bai.
- Kantatuko al dezu?
- Politta da, bai.

Anttoni! Anttoni!
Zure atean nago ni.
Ai, Antton! Ai, Antton!
Ate ondoan, hor konpon.

Hormazuriak negu gorrian
ez du atsegin elurra,
eta janari gabe lur...

Ez, salto [ein det].

- "Zerua goibel..."

-
 ... zerua goibel, kabia hotza
 eta janari gabe lurra.
 Ai, maite, nire bihotzak duen
 zure hotzaren beldurra!
 Biontzat kabi bat berotzeko
 bilduko nuke egurra.

Ez, politta da, e! Oso politta da. Baiño beira ze... ze luzia!

1.14. `Txoria txori´ abestia

- **Hizlaria(k)**: Navarro Hombrados, Loren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-022/029
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:35:53. **Bukatu**: 00:36:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: `Txoria txori´ abestia kantatzen du.

Transkripzioa

- Hegoak ebaki banixkio
 nerea izango zen,
 ez zuen alde egingo.
 Baiñan horrela
 ez zen txoria izango
 Baiñan horrela
 ez zen neria izango
 eta nik...
 txoria nuen maite. (bis)

- Ze politta dan...
 - Politta da, e? Oso politta da, e.

1.15. Aitona trenak jo zuen

- **Hizlaria(k)**: Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-027/004
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:02:40. **Bukatu**: 00:04:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera
 izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Amaren aita trenak harrapatuta hil zen. Amak orduan 8 urte zituen.

Transkripzioa

- Amak'e jakiña, nere ama're honea etorrita, bueno, etxia inda; bea

aurrena jaiyo zan han. Onduan bizi zian ta geo nere amak'e suerte txarra izandu zun, aittakin ezin bizi. Aittak, zea ibiltzen zan, zea, fabrikan lanian, [...], fabrikan. Geo enkargatu eo uste det esaten zula gaiñea, gauzak arreglatzen ta hola. Ta ordun, zea, suba itteko ta're egurra ta ekarri bihar izaten zuen. Ta mendia juan da egurrakin, ta egur-sortakin badator badator ta trenbidian, trenbidian ixkiñan, trenbide ixkiñan, ta trenan soinuba aittu, trenan soinuba aittu ta bueltatu, "a ver" nundikan zatorren; alde batetik eo bestetik zatorren ta buelta zunian, trenak egurrari jo ta egurrak buruba jo, buruba puxkatu ta hilda geldittu. Ta nere ama geldittu zan aittaik gabe.

- Senarrik gabe.

- Senarrik gabe.

- Alargun.

- Bai. Senarra're, senarrik gabe geldittu zan.

- Hoi, barkatu, hoi zure aittona, zure aittona hil zala, zure aman aitta.

- Nere aman aitta. Ta hua're gazteik holaxe gelditu zan, zea "esto" aittik gabe. Ez dakit zenbat urte zittun, zortzi urte eo uste det zittula.

1.16. Jaio baino lehenago, aita desagertu

- **Hizlaria(k)**: Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-027/007
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:06:45. **Bukatu**: 00:09:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Laburpena**: Aita Adunakoa zuen, baina Martin jaio baino bi hilabete lehenago desagertu zen. Ez zeukaten heriotza-agiririk; baina, udaletxekoen laguntzaz, ama alarguna zela baieztatzea lortu zuten eta soldadutzatik libratu zen Martin.

Transkripzioa

- Zure ama hemengoa zala, Andoaingoa, esan deu. Ta aitta, berriz, aitta nondik zetorren badakizu?

- Aitta? Aitta Adunakua.

- Adunakua.

- Adunakua. Lerno, Lerno Zabala, Zabala Mendizabal. Lerno Zabala, aitta.

- Aitta esan diazu lehen, ez zenutela ezautu.

- Nik ez nun ezautu. Ni... ni jaio baiño bi-hiru hillebete eo lehen zeatu zan.

- Hil in zan o desagertu in zen?

- Desagertu, desagertu. Soldaduxkatikan, soldaduxkatikan nere amai kosta zitzaion baiño in zun lana, batekin ta bestiakin ta zeik ez zakan, "fe de" nola da? "Fe de defunción, defunción", nolabait desagertu zan, baiño Andoaingo aiuntamentuko historiala ta geo asko, zeak, herriko zeak, "esto" erretoriak'e, erretoriak'e esaten ziyoen, alegiya, ezautzen zuela, herritar guztik ezautzen zuela, bataiatu ezkeotikan ezautzen zuela ta hua ta hua ta... Hala gertatu zala, hala gertatu zala, ta behintzat behintzat libratu ziyoten. Geo ya boletin ofiziala egin nahi, ta etorri zan ta aiba "queda

desligado de no se qué del servicio militar". Jendeai galdetu ziyoen ta "joe, Martin!". Nik esaten nun, "ni gustoa jungo niñukek soldaduska, ikusteagatikan, munduba pixkat ikusteagatikan", zeatikan hemendikan ez giñan ta ateatzen ta.

- Ez ziñan jun soldaduska?

- Ez.

- Aittan, aitta desagertzia [...]?

- Bai, baiño bai. Ama alarguna zala ta alarguna, baiño alarguna justifikatzeik ez zakan ta ordun ba aiuntamentuak eta zeak eta haik justifikaziyua iten zuen, baiyetz "esto", hala zeola.

1.17. Euskaraz ikastetik gaztelaniaz ikastera

- **Hizlaria(k)**: Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-027/019
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:39:09. **Bukatu**: 00:41:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Gerrak iraun zuen bitartean, eskola irekita egon zen. Martinek gogoan ditu gerra aurreko euskarazko liburuak. Gerra aurretik euskaraz ikasten ohitu ziren, eta aldaketa handia izan zen gerra ostean gaztelaniaz ikasi behar izatea. Jende asko kexatu zen.

Transkripzioa

- Ba, bai; gerra zeon bitartian eskola irekiya eendu zan, baiño maixuk eta zauden gizonak, gizonak.

- Ta liburuk, euskerazko liburuk?

- Euskerazko liburuk utzi zituen Historia Sagrada ta dotriña. Beste guztik, Geografia, Aritmetika... Gerra hua sartu baiño lehenok unikamente kastellanoz ta hoi haundi xamarrek e, gaztiek ez; ya haundi xamarrek, pixka bat aurreatuta zeudenak "Gramática Castellana". Hua gendun kastellanoz, hua ez gendun ikusi bein ere euskeraz. Ta izena're bazakaen, "Gramática Castellana".

- Ta zu akordatzen al zea euskerazko liburu haitaz, ze liburu zian eo nolakuak zian euskeraz zianak?

- Bai, goatu bai. Jo, liburuk liburuk ear askuak, ear askuak danak, hoixe.

- Izenik edo akordatzen zea?

- Oain hola, oain hola izen asko ez naiz akordatzen, izenik hola ez naiz akordatzen baiño bai geotzikan nik ikusi're izan ditut baiño haik geo desaparizatzeiko modua ein zuen danak liburu haik, batian ta bestian zeatan, ta desaparezitzeiko moduba in zuen ta hua dana zeatu in zuen, borratu nahi zuen euskeraz dana borratu nahi zuen.

- Ta La Sallen euskeraz ikasi zenuen noizbait?

- Bai.

- Gerra aurre hartan bai euskeraz ikasten?

- Bai, bai; euskeraz ikasten nun, euskeraz ikasten nun. Aritmetika ta hoiek danak, Geometria ta hoiek danak euskeraz zeatzen genitun.

- Euskaldunak zian fraile guztik?

- Euskaldunak, bai, erderaz'e bai baiño ba bai, erderaz'e iten zuen baiño euskeraz'e bai. Gauz asko zea..., handixogoiri zea ya erderaz'e, jakiña, lehen esan dizutena zea gramatika ta geo sartzen giñanian zeakin geografiakin'e, geografakin'e sartzen giñanian'e ya erderaz'e bastante zeatzen zuen, baiño euskerazko geografia [giñun], bai.

- Ta ordun kanbiyo hoi hamaika-hamabi urtetan eo dena erderaz?

- Dena erderaz, bai. Ta mutill asko gelditu zian e, mutil zea hola basarritar jende ta zea ta hola zea ezin zeatuiketa jota kortatuta zea bere martxa ikasteko martxa zeamakiyena ya zea moztuta.

1.18. Frantziatik bota egin zituzten: Kataluniara

- **Hizlaria(k):** Huizi Zuñiga, Delia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-028/015
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:28:03. **Bukatu:** 00:30:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Ez zieten utzi Frantzian geratzen. Lizundutako ogi koskorak. Jatekoa: garbantzuk, babarrunak. San Juan de las Abadesas herrian urtebete, komentu batean, Bartzelona inguruan. Taldekideekin ondo moldatu ziren.

Transkripzioa

- Ta gero, han gelditu giñan Frantzian ta “de Francia nos mandaron”. Bialdu ziguen beste... ez dakit zenbat buelta inda, hiru egunian han ibilita itsasuan, a San Juan de las Abadesas. Da... Bartzelonan.

- Ta Frantzian ez zenuten...

- Ez, ta gero...

- ... han gelditzeko modurik euki?

- Ez. Ez ziguen uzten han. Ta gero dena beiratzan ziguen “a ver si teníamos sarna, a ver si teníamos...” denatikan beiratzan zuen Frantzian, e! Eta ogi koxkorak ekarri zittuen lizunduta-ta emateko. Porke lehen ogiya beti lizunduta gelditzen zan pixkat umedadiakin ta hola. Oain ez da gelditzen, baiño.

- Ze jaten zenuen bide guzi hortan? Hoi´re... Bide hortan ze jaten zenuen?

- Hola, zeozar, por ejemplo, ematen ziguen, pues, igual txorixuak “o cosas así”. Hola. Ta, sin embargo, ya... ya gelditzen giñanian tokian, ordun ya ondo; garbantzuk ziala ta babarrunak ziala ta... ordun bai. Ta gero, San Juan de las Abadesas-en urtebete in gendun; monjan konbentu batian egon giñan.

- Jende asko ziñaten elkarrekin maitzen ziñatenak?

- Bai, bai. Pasaikuak, Tolosakuak, Lasartekuak... Andoainguak´e bagenittun bi o hiru famili.

- Ezaunak?

- Ezaunak, Andoaíñen [bizitzen zianak]. Kortezubin egon nitzanian lo itten nun Andoaingo neskazarhar batekin. “Neskazarharra” esaten giñon denak; oain ez deu esaten, oain decimos “soltera”, baiño lehen “neskazarharra” . Eta harekin lo itten nun. Eta nere amak-eta beste kuartuan. Oseake, oso ondo. Ondo. Moldatu giñan oso ondo.

1.19. Kataluniatik berriz Frantziara, mendiz

- **Hizlaria(k):** Huizi Zuñiga, Delia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-028/016
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:30:15. **Bukatu:** 00:33:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Arroparekin nola moldatzen ziren. Jaten ematen zieten, arropa ere bai. Jendea laguntzeko prest. Kataluniatik Frantziara joan ziren berriz, mendiz. Elurrez beteta zegoen, izoztuta. Mailek pisatu egiten zuten, eta batzuek bidean uzten zituzten; beste batzuek hartu. Sei hilabeteren ondoren bueltatu ziren, osabak erreklamatu.

Transkripzioa

- Arropakin-eta nola moldatzen ziñaten?
- Ba, garbittu ta [eso], ta gero igual erosi.
- Diruik bazenuen?
- Klaro! De... de... [emanda].
- Emandakua?
- Klaro! Ta gero nola jaten-ta ematen ziguen...! Ez da paatu bihar argiyik eta urik eta ezer´e ez da paatu bihar! Dena bestiak ematen ziguen...! Ta, askotan, segun ze... jende aberatsa, o lo ke sea, pues, eman itten zuen jendiari.
- Ta eskerrak hari, ezta?
- Ba, horreatikan!
- Hemendikan kanpuan ibili ziñatenian jendia laguntzeko prest bazan?
- Bai, bai, bai, jendia bazeon.
- Ze pentsatzen ote zun jende harek? Gerra batetik hona zentozela...
- Gero, juan giñanian... handikan juan giñan gero berriz Frantzia.
- Berriz?
- Berriz. Mendiz e!
- Oiñez?
- Elurra zeon. Eta ba al dakizu ze itten zuen? Denak. Gu gaztiak, baiñon... Elurra, gaiñera, zeon jelatuta. Eta kamioiak hareaiño iyo zigun. Bastante... Baiño gero ya ezin zan ya iyo, irristatu itten zan ta. Eta batzuk itten zuen mailetak kendu. Ta "jesus! horrek maleta hortan erropa guria baiño hobia daka!" ta beria utzi ta hua hartu jentia. Kantidadia! Gure amak eta izebak esaten zuen: "Jendia erua zeon, neska! Here erropa askoz´e hobeto ematia!". Ta askok itten zuen hoi, kendu erropa beria ta beste maletan zittuenak...
- Ta maleta haik zeñenak zian, ba?
- Jendia utzita! Ya nola oiñez zijuaztin, guaztin denak, nekatu itten zea! Eta mailetak nolaz emango dittuzu ba? Ta gero geldittu giñan... Ta gero eman ziguen a San Juan de las... este... Orleans, donde Juana de Arco nola... surtan hil zuela o erre o ze in zuen? Han eon giñan sei hillebetian, ya gerra bukatu...
- Baiño oiñez noaiño jun ziñaten?
- Ez dakit ze frontera pasa gendun, Frantzia.
- Ta gero han...
- Ya [aquella]... repartittu in ziguen.
- Kotxetan o kamioietan edo...

- Kotxetan 'e bai. Así es. Hala da.
 - Ta han zenbat denbora pasa zenuen?
 - Han sei hillebete. Ya gerra bukatu zan, hiru urte pasata, ta... Osoba bat gendun ta harrek reklamatu, ta etxea etorri, Irunaiño.
 - Reklamatu in bihar izaten zan ordun?
 - Bai, ordun bai.
 - Eta hoi nola itten zan?
 - Paperak itten zittuen. Ez dakit nun ingo zittuen osobak eta. Paperak. Aiuntamiento o ez dakit...

1.20. Emakumeen lan-baldintzak kotoi-fabrikan

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-030/009
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:21:03. **Bukatu**: 00:23:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
 Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Ura izaten zuten etxean. Emakumeek kotoi-fabrikan lan egin arren, etxeko lanen ardura ere eramaten zuten. Familia zuten emakumeei ordu erdi lehenago uzten zieten ateratzen lanetik. Kotoi-fabrikan pieza osoa egin arte ez zuten jornalik kobratzen. Fabrikak hiru kooperatiba zituen janaria saltzeko, eta langileek dirurik ez zutenean, zorretan uzten zuten erositakoa.

Transkripzioa

- Ta urikan eta izaten al zan etxetan?
 - Bai. Ura bagendun, bai.
 - Zenbait baserritan igual ez?
 - A ez, ez. Basarritan ez, baiño kalia bai, kalia ura bazan.
 - Eta emakumiak fabrika lanian ai ta geo etxea juten zianian, haik arropa garbitzen ta etxia garbitzen ta...?
 - Apaiya iten ta, zean, hor fabrika uzten zittuen umiak eta zittunai ordu erdi bat lehenao ateatzen uzten ziyoen fabrikatikan. Otordua're asko ezin ingo zuen, bezperan in ta preparatu bihar. Baiña mahaiya preparatu ta ordu erdi lehenao uzten ziyoen ateatzen, pamilya zunai ta. Ta geo atsaldian, berriz harea jun ta gure ama zanak esaten zun zea tela haretan zabillega pieza osua in bihar, igual ehun metrokua izango zan eta hua bukatu arte jornalik ez omen zun zeatzen, ta hua bukatzen zanian haren baliyua. Ta askotan, zea, ezin bukatu igual ta larunbata etorri ta zea xoxik gabe. Ta klaro, hurrungo, zean, astelenian hartuko zun. Baiño ordun diruik ez zan. Ordun, zian algonoderak zitun hiru denda. Kooperatiba esaten zitzaiyon. Bat Etxeberrietan, bestia hemen, Zumean eta bestea Kale Txikin. Ta han liburuba izaten zan. Eta zu juten ziñan ta "bueno, nai ekatzu garbantzu, zea patatas o zeona" ta apuntatu itten zuen. Apuntatu. Liburuba ekartzen zun ta beak apuntatzen zun ta gero diruba hartzen zunian juten ziñan harea ta "'a ver" zenbat zor det?" eta "hainbeste" ta dirutan dana pagatzen zan. Ta hurrena, berriz, ezin pagatu, aillegatu ez ta "bueno, datorren astian pagatuko dizut" eta han bankuba hue zan, han

diruik ez zan izaten. Harea jun.

- Hoi, kooperatiba horrek asko lagunduko zun?

- Bai, hoi dana fabrikana zan, dana, dana kooperatibak eta dana zeana fabrika, zeana, Subijanana.

1.21. `Erreguetan´ kanta

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-030/024
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:44:49. **Bukatu:** 00:45:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Erreguetan´; kanta abesten du.

Transkripzioa

Min eriturik arkitzen danak
egin beharko negarra,
nahiagatikan ezin logratu
desio nuen izarra.
Mundu hontatik eramango det
damutasun bat bakarra:
zu gabetandik nere bizitza
hemen igaro beharra.

Hoi, moja jun zitzaion zea. Ta... Lau bertso die ta nik lehen banekixkin,
baiño oain hoi bakarra gogoratzen zat.

1.22. Aguazil bakarria Andoainen, baina errespetu handia zitzaion

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-030/033
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:58:47. **Bukatu:** 00:59:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota,
kontakizunak
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena:** Juanito aguazila bakarrik zegoen lehen Andoainen, eta
jendeak errespetu handia zion. Aguazilarengandik ihesi ibiltzen zireneko
anekdotak kontatzen ditu Rokek.

Transkripzioa

- Ta serenoa o aguazilla ez al zan ibiltzen ordun, tabernak ixten ta
"beinga"?

- Gure, gu gaztiak giñanian, Juanito aguazilla zan bakarrik Andoain guztin.
Ta harek oain hogeita hamar eo eongo dira ta harek bakarrik errespeto
gehiyo jartzen zun Andoainen, oangoak baiño. Harek bastoiyakin... Hue

ikusten gendunian, gu beti, tiragoma, tiragoma bakizu ze izaten zan? Beti tiragomak eta harri koskorrak beti. Txori bat ikusten bagendun, akatu arte eta petrillian eo horrela, kontuatu gabe sartzen bazan, sartu ta "beinga, beinga, tiragomak honea". Sartu ta tiragomak, baiño beti ikusten gendun urrutia ta "hara, bazatorrek Juanito" ta Etxeberrieta. Ta Etxeberrieta zan barriyu bat, aurretik sartu eta atzian beste atia zun. Ta atzetik ateatzen giñan ta guri ez ziguen harrapatzeikan ta hemendik sartu ta hemendik igual ateatzen giñan, ta etxe guztiyek zuen aurretik sartu ta atzetik atera. Ta atzian zituen oillotegik eta baratzak eta... Oain'e bai e?

1.23. "Habla en cristiano"

- **Hizlaria(k)**: Ganzarain Ansa, Gurutz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-045/011
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:22:39. **Bukatu**: 00:24:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Donostiako tren-geltokian bazen pertsona bat "habla en cristiano" esaten zuena. Donostian gaztelaniaz hitz egitea dotoreziaren seinale zen lehen. Eskolan fraideekin ibili zen La Sallen, eta han ez zituzten zigortzen euskaraz hitz egiteagatik.

Transkripzioa

- Ta ordun esan diazu tren-geltokin eta eoten zala bat bijilantzin "habla en cristiano" iñez?

- Bai, takillan Donostin.

- Takillan eoten zala Donostin. Eta trenian, tren-estaziyuan hola eoten zaneako beste edozein tokitan'e eongo zan ba hola, kalia, atentziyua deitzen zun norbaitte o beti euskeraz hitz eiten zalako?

- A! Kontuz ibili beharrekua, "claro, claro".

- Kontuz ibili beharrekua?

- Ordun elegante zan Donostin'e jendia, erderaz ta señoritak eta erderaz eta ikasten ta hola. Geo kanbiatu da, berriz, oain geo euskeraz, baiño oain euskeraz ezin hitz ein.

- Ahaztu?

- Ni anai zaharrenakin ez det asmatzen erderaz hitz eitten. Bi anaiya zaharrenak hitz eitten zuen alkar erderaz bastante. Ze biyak Lekarozen kolejiuan eondu zian ta ordun bakizu, han erderaz kolejiyuan ta hola. Ta haik hitz eitten zuen baiño gu hirurok topatzen bagiñan, danak euskeraz. Haik ez zuen nerekin asmatzen erderaz hitz eitteik.

- Izaten al zan kastiguikan, kalia edo eskolan?

- Nola?

- Kastigoik, zigorrik izaten al zan euskeraz sumatzen ziñuztenian?

- Hola esateko ez dakit ba nik, hoi esateko baiño...

- Kalia igual ez, baiño eskolan edo?

- Eskolan ez, ez, ez. Frailiakin ibili giñan gu, nazionaletan ta ez zuen euskeraz hitz eitteik, nazionaletan dana erderaz. Ni frailletan ibiltzen nitzen, zeakin, esto saillekuekin ta han... Han erderaz ematen zittuen,

baiño ez, frailiek [...]. Oain, nazionaletako berrik ez dakit. Han beste gauz batzuk zian.

- Ta "Cara al sol" kantatu bihar eskolan sartzeko?
- Eskolan kantatzen [...]. Guk prailietan ez hainbeste baiño nazionaletan ta hoitan bai.

1.24. Eskolan Sor Segundarekin

- **Hizlaria(k):** Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-047/002
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** 5 urte zituela bidali zuten lehenengo aldiz eskolara. Sor Segunda izan zuten han maistra, eta harekin zer ikasi zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Bost urte nituela bialdu ninuen lehendabizi eskolara. Zan haur txikiak ibiltzen ziran eskola. Bost urtetikan ba zazpi-zortzi bitartekoak edo hola. Lekeimea zan, gendun irakaslea, izena Sor Segunda zuena, eta horrekin ba ikasten gendun han ba kontatzen, ikasten gendun batuketak egiten, kenduketak egiten ere bai. Ikasten genduen zerbaite irakurtzen, beste zerbait idazten; gauza haundirik ez. Bostetikan zazpi urte bitartean gauza haundirikan ez, eta zazpi urte zirela.

- Doktiña edo zerbait bai?

- Bai, bai, bai. Este, otoitz aldetikan, garai hartako otoitzak eta dotriña hori oso beharrezkoa izaten zen garai hartan, gehienbat exijitzen ziguna.

1.25. Labordeko eskolako kultur-ekintzak

- **Hizlaria(k):** Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-047/007
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:15:22. **Bukatu:** 00:17:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
Aisia » Kultura » Dantza
Aisia » Kultura » Irakurtzea
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Laborde lanbide eskolan kultur-ekintza ugari egiten ziren: aldizkari bat, musika-banda, dantzari-taldea...

Transkripzioa

- Labordenean ere iten zien kultura...?

- Dana erderaz.
- Kultura arloko ekitaldi asko?
- Bai, bai.
- Aldizkari bat ere baziñuten?
- Bai, bai. Aldizkari bat bagendun ta hemen dago ta artikulu txiki bat badaukay hor erderaz idatzia ere eta besten bat edo beste aldizkari batian ere bazan, eta bueno, ahal zan, ahal gendun moduan ba saiatzen giñan zeozer aurreratzen beti.
- Eta ba ez dakit, musika bandaik edo holako gauzik izaten zen?
- Bueno, bai. Laborden zan "Coro Laber" deitzen zioena, Larramendi Donostiko Orfeoiko zuzendariordekoa eo zena etortzen zan irakastea eta zan danak gizonezkoak. Gue tartekoak baziren eta geo bertako langilleak, eta abesten ondo ondo ikasi zuten. Gero zan beste talde bat, baita ere mutil gazteakin dantzari, dantzari-talde bat, garai hartako dantzari-mota guztiak irakastea etortzen zan Donostitikan beste hoitako talde hortako zuzendari bat edo, Amunarriz abizenekoa etortzen zan. Eta bai, ondo, bi gauzak ondo egiten ziran eta behin batean Igeldon pelikula bat egin zuen Gipuzkoako Diputaziak. "Mintz Zerrenda" esaten zan, pelikula bat. Atera ziguten kantaldiak eta dantzaldiak eta zeak egiten, ba Gipuzkoa barruan kultura bezela banaketak egitearren. Bai, hori, hori gertatu zan.
- Beitu.

1.26. Gerra hasi zenean, eskolan ziren

- **Hizlaria(k):** Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-047/009
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:19:43. **Bukatu:** 00:21:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, Erramunek 8 urte zituen. Urte hartan hasi zen La Salle ikastetxean ikasten, eta gerra hasi zen egunean eskolan zer esan zieten gogoan du. Azaroan hasi ziren berriro eskolan.

Transkripzioa

- Erramun ez dakit e gerrakin ya pixka bat sartu geanean...
- Bai.
- Gerra lehertu zanian edo gerra hasi zanian zu non ziñen? Nun harrapatu ziñuzen?
- Bueno aber. Gerra hasi zanian, bai, gerra hasi zanian nik nituen zortzi urte. Urte hartantxe bertan hasi nitzan La Salle ikastetxera. Hilleete batzuk, ez dakit ba nik dozena erdin bat hillabete eo gehienez egin nituen eta gogoratzen naiz gerra deklaratu zan egun-egunian edo bezperan edo zan ekainan heme...; ez ekainean ez, uztaillan hemezortzian, uztaillan hemezortzian. Eta gooratzen naiz goizeko hamarretan zuzendariak, eskolako zuzendarik hitz egin ziguen, ba bueno, gerra bat sortu zala ta gauzak pixka bat endredatu in ziala eta egun batzutan etxean egon behargo gendukeela, eta holakoak. Etxera bidali ziguen. Eta eskola joan gabe, klaro, garai hortan oporrak izaten zian agostuan, ez zan, gaur hainbeste ez baiño agostuan eta uztaillan ere hortxe nunbait izaten zien

oporrak eta oporraldi hori dana eskolaa joan gabe igaro genduen eta hurrungo iraila're bai eta azaroa aldera edo hasi giñan berriro eskolan. Urte berean, azaro aldean.

1.27. "Izeba Pantxika, guapo al nago?"

- **Hizlaria(k):** Huizi Zuñiga, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-052/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Gerra aurrean, amak dotore jantzi zueneko oroitzapena kontatzen du.

Transkripzioa

- Oin beste gauz bat'e bai. Nei... bakaizu mutil koxkorak zea izateu... ni goatzen naiz egun batian nere amak, ez dakit zertako, jarri zian, ba, galtza txurik eta... bakizu, blusa txuriya ta... ondo orraztuta ta... Ta beheyan izaten gendun amona... amona bat. Ta Pantxika izena zun. Ta "Ramontxo esayozu behekuai, beheko andriai... esayozu aber nola zaudezen". "Izeba Pantxika". Zer?. "Guapo al no?". "Oso guapua!". Ta uain konturatzen naiz etziela, ezin ziala ikusi... zeatikan gu balkoi hau eta bea hemen beheyan ta nola... nola ikusiko ziten ni ez nitzan azaltzen ta nola!

- "Guapo al no?" Bai?

- Bai.

- Oso guapo.

- Ya esta. Konforme.

- Beitu.

- Horrena... horrena goatzen naiz. Ta geoztikan, etorri... gerratikan etorrita esan izandu niyon amona Pantxika, izeba Pantxika goatzen al zea nola?

"Bai, oso guapua ziñan e...". Bueno...

1.28. Ikastolen mugimenduan murgilduta

- **Hizlaria(k):** Artano Arruabarrena, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-055/019
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:26:38. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Magisteritza ikasitakoan, ikastolan hasi zen lanean, eta han eman zituen 24-25 urte. Ikastolen mugimenduan lan handia egin zuen Arantxak, baita irakasle sartu aurretik ere. Kanpaldietan asko ibili izan zen; eta hala deskubritu zuen Nafarroako paisaia.

Transkripzioa

- Ta magisteritza in ta gero irakasle lanian e...
- Ikastolan. Ikastolan. Bai, bai. 24 urte. 24-25 urte pasa nittun.
- Zuk magisteritza ikasteako ya ordurako ikastolak eta...
- Bai, bai... baino nik ikastolan beti lana in izan dut. Ez irakasle bezela hasieratik, baiño atzetik lan asko. Izugarri. Izugarri e... Nola beti itzalian edo... barrurago, barrurago egon bihar du jende bat, ba, bai.
- Beharko zan ordun?
- Bueno, bueno. Bihar zan hor... Eta nahiz e... ikasleekin ez euki harremana gero eratu genittun kanpaldik. Ta kanpalditan, bueno... ni hamar urte ibili nitzan kanpalditan. Eta... eta gaiñera urtero herri ezberdiñeta juanda. Eta zergatik? Ba, gehien bat zan... Nafarroa aldea asko juan giñan. Nik Nafarrua ezagutu nuen askoz gehiyo edo deskubritu in nuen, agian da hitza, ba, kanpaldiak eman zian bide hori. Zeatik juaten giñan toki ezberdiñetara. Ta hain kontraste haundik dauzka Nafarruak e... baiño ederra da benetan.

1.29. Oso txikia zela hil zitzaion ama

- **Hizlaria(k)**: Forcada Arrieta, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-060/002
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:01:49. **Bukatu**: 00:03:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Bi urte eta zortzi hilabete zituen ama hil zitzaionean. Orduko oroitzapen lausoa dauka. Sarkomak jota hil zen ama. Garai hartan, Andoaingo medikua don Agustin Amilibia zarauztarra zen. Gaztetan ez du gogoan bera gaixo egon izanik.

Transkripzioa

- Daukat sensaziyo txiki bat, hola, nik nauzkan bi urte ta zortzi hillabete nere ama hil zanian, ta sensaziyo txiki bat badaukat, han, amonan ta aitonan-ta sukaldian, ama hil zanian, nola etorri zian familikuak-eta etorri zian ta hola, ta hola... pixkat... jendia triste ta negarrez ta hola ta... daukat sensaziyo bat, ba, ordun ote zan, ama hil zanian. Baiño ez naiz gogoratzen ezerrez.
- Badakizu zer dela-eta hil zen? Gaixotasunen bat edo...?
- Bai, hezurretatikan, sarkoma-o esaten diyuen enfermedad hoi.
- Ordun, garai hartan, ez dakit holako gaixotasunak-eta asko izaten zian.
- Ordun sendatzeik ez zeon, gaiñea, ordun. Hala uste det nik behintzat. Garai hartan hezurretako miñak eta hoik... ba!
- Medikuan-eta izaten al zan Andoañen?
- Bai, bai, bai. Andoañen bai. Garai hartan zan Andoaingo medikua, Zarauzko semia, don Agustin Amilibia izan bihar zun. Bai.
- Ordun oain bezelako konsultak eta anbulatoriak eta holakotan ez...
- Ez, ez, beren etxe partikularretan iten zian konsultak eta.
- Akordatzen zea zu medikutaa noizbaitte juna?
- Gaztetan?
- Bai.
- Ez, ez.

- Oain baiño sanoxio igual, biharrek eakutsiya edo, fuerte jaioko ziñaten o haziko ziñaten.

- Bai, ni behintzat ez naiz gogoratzen hola gaixo egon [danik] eta hola. Ez naiz... Oain azkeneko ordu hoitan bi operaziyo txiki in zizkiaten, baiño, gaiñantzian, hola, gaztetan ez naiz gogoratzen hola gaixo egonik eta. Hortan suerte haundi bat euki det.

1.30. Oilaskoak zikiratzera eramatean pasatako estutasunak

- **Hizlaria(k):** Ansa Goenaga, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-063/003
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:01:59. **Bukatu:** 00:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Migelek oilaskoak eramaten zituen zikiratzera, eta han adarra jotzen zioten. Hango emakumea, Mikela, oso jatorra zen.

Transkripzioa

- Ba al zenuen Urnietakin bestelako tratuik? Aman etxea jutiaz gaiñea...

- Bai, bai. Ba, esango dizut detalle polit bat. Lehengo batian aitu nitzan [kontu] hoi esaten, ta azkenian penakin geatu nitzan ezautu gabia. Urnietako Bentan taberna zan, oain itxi due, eta nik eamaten nittun oillaskuak zikiatzea, kapoiak itteko. Kapoiak itteko oillaskuak zikiatu itten dia. Eta hango andriak zikiatzen emen zittuela. Eta han bazan neskazahar bat... Bueno, neskazaharra... geo neskazaharra izan zan, baiño nik... juten nitzanian ni mutil koxkorra, hamabi urte o... hamar-hamabi urtekua, ta beak izango zittun hoge-hogeita bi. Ni baiño hamar bat urte gehio o hola zittun. Eta aber nahi al nun ni zikiatzea, beak esaten zian. Joe! Nik pasatzen niñun apuruak! Ni orduako konturatuba neon zikiatzia zer zan. Geo hua oso neska maja zan, Mikela.

1.31. "Terrible" zaldia

- **Hizlaria(k):** Ansa Goenaga, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-063/008
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:07:08. **Bukatu:** 00:08:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Gerra ostean, errotara joan izan zen zalgurdiarekin. Zaldi ospetsua zen beraiena: "Terrible" zuen izena, Errioxatik ekarritakoa.

Transkripzioa

- Ta geo, bai, errota... hemen Kaletxikin errota bat bazan, ta harea´re

zaldiyakin´e etorri izandu nitzan gaztetan. Gero ya bizikletan remolkia gendun. Gero zaldiya gaizkittu zan ta saldu geniyon ta... Zaldi famosua izandu gendun oso.

- A bai, e?

- Bai, [...] zaldiya.

- Zer zan ba zaldi hoi?

- Zaldi harek? Ba, zan bereziya. Terrible zun izena.

- Terrible?

- Badakizu zergatik? Riojanua baizan. Ta Riojatic ekarri zun izena: Terrible. Ta gure etxen, geo, hemen pariente batzuk ekarri zuen fruta partitzeko Andoainen. Eta geo gure baserria ekarri zuen ta guk zaldiya bihar gendun ta... Oso famosua izan zan. Terrible. Bai. Riojanuak zian gure parientiakin ezkonduak.

- Baiño Terrible zer dela ta? Zer zan, gaixto xamarra o...?

- Ez, oso ona. Oso umilla ta jatorra zan zaldi hoi. Ez dakit zergatik. Riojatic ekarriya izan bihar zun. Eta guk ez geniyon deitzen Terrible, baiño beak etortzen zianian ikustea-ta "Terrible!" ta deika ta han ibiltzen zian.

- Zer zen eskutik haziya eo hola?

- Ez dakit. Ez dakit. Oso ona zan. Pinttua, beltxa ta txuriyakin, ta oso politta.

1.32. Ezkiogako Birjinaren mirariak gasolindegia mesede egin zionekoa

- **Hizlaria(k):** Amutxastegi Aranzabal, Joxeba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-067/013
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:24:07. **Bukatu:** 00:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Auto gutxi ziren garaian, miraria gertatu zen Ezkiogan. Hara joateko bidean, Joxebaren familiaren gasolindegitik pasatzen ziren autoak. Andoainen bi gasolindegia zeuden.

Transkripzioa

- Ta garai hartan automobillak zuk esan dezuna gutxi izango zian?

- Ba, bai baiño baiño han tenporada, gu katolikuak giñan, apostolikuak gea baiño ño!, bastante... Ni oain behintzat bastante atzeatuba, eta gure aitta ere bastante zea zan, liberala eo. Bueno, azaldu zan milagrua, "milagro de la virgen de Ezkioga". Bastante e, bastante dakat. Eta ordun, hua bixitatzea hemendik asko juten zian Donostikuak eta toki guztitakuak, prantsesak'e bai eta hortik nola pasatzen zian, autobusak eta puñetak hor gelditzen zien.

- Hara!

- Tra-ta-ta, gasolina. Beste gasolinera zeon, ba Eroski nola oan, hor zeon beste gasolinera, hua zan, hua, ze izena du? Joe, ahaztu zat; Bueno, beste gasolinera.

-Bi ahal zian Andoainen?

- Bai, bi zian; guria ta zea, ta gero kendu in ziguen.

1.33. Kaletik ateratzeko, dotore jantzi behar

- **Hizlaria(k):** Amutxastegi Aranzabal, Joxeba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-067/026
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:05:44. **Bukatu:** 01:07:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Beraiek bizi ziren kaletik beste kale batera joatean, arropa dotoreagoa janzten zuten. Karburoarekin jolasean zebilen batean, arropa guztia zikindu zitzaion eta etxera joan behar izan zuen aldatzera, konfesatzera baitzihoan.

Transkripzioa

- Komuniyoa, konfesatzea gure etxian libertadia banun baiño: "Joxeba, konfesatzea jun bihar dek", Ta bueno juten giñan; kale batetik bestean kalea, beste kalea "ni hablar". Gure kalia bakarrak ibiltzen giñan. Bestea jun bihar giñun, hobeto jantzita. Eun batian, ni goatzen naiz, alkandora zuriyakin, manga motxak. Mekauen... Baiño in in bihar guria ta jun naiz karburuakin ta ez dakit zenbatek, lau jungo giñen, mekauen. Potuak danba! Bota deu ta bigarrenian, jakiña, ez zan lurra; zan erreka lurra, busti-bustiya. Bunba! Mekauen!, dedio! Dena zikin-zikiña, labaderua onduan giñun, okerrago. Hartu ura ta ia!-ia!, dena beltz-beltza. Bueno hau hola ez zeok juteik konfesatzea. Etxea, aldatu ta konfesatzea. Ba ama errieta, errieta. Bai baiño bastante, ez, bastante liberalak zian nere zeak, gurasuak liberalak zian. Bestiak, bestiak baiño liberalagua. Nik ez niyon aitai behiñ'e esan "beorri". Nere launak bazian batzuk, "beorri" esaten ziyenak aittai.

1.34. `Amerikako bizitza´ bertso sorta (I)

- **Hizlaria(k):** Belamendia Arrillaga, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-078/041
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:17:17. **Bukatu:** 01:20:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena:** Txirritaren `Amerikako bizitza´ bertso sortako bertso batzuk abesten ditu.

Transkripzioa

Europatik askok egin du
Amerikara bisita.
Etxe onian jaioagatik
Danak han ezin bizi ta.
Lana eginez aberastuak

dabiltza ondo jantzita.
Gaur elituzke ezagutuko
bere amak ikusita.

Ameriketan asko dabiltza
ni kalkulatzeko dedanez.
Nahiko okela janagatikan
edari gutxi edanez.
Gure sagardo maitagarriak
aparte daude esanez,
nahiago nuke han ba neoke
nahiz diru asko izan ez.

Amerikatik baldin baletor
mutil bat ona eta fina.
Bere lanaren izardi latzez
diru pixka bat egina.
Parientiak bisitatzeke
ardagarren atsegina.
Ailegatzian ez du faltako
ondo zeinek hitz egina.

Len esan dedan indianoa
ailegatu da etxera.
Ama gaixoa laster altxa zan
hari lepotik heltzera.
Esanez nere seme maitea
sano ta ondo al zera?
Kristau bizia nekez zenikan
nonbaitetik azaltzen da.

Semeak:
Bai amatxo, aguantatu dit
osasuna eta biziak.
Nerekin hara joan ziranak
ez daude hola guziak.
Lagun estimatu aski baditut
hola lurpian utziak.
Nik suertean ibilia naiz
Jainkoari graziak.

Mandaburuko indianoa
etorri omen den neska.
Lehengoan nigatik ibilia dek
soltero nagon galdezka.
Laster hemen den pretenditzera
ai zer demontreko festa.
Ai zer trajea egingo nuken
haren diruak baneuzka.

1.35. `Amerikako bizitza´ bertso sorta (II)

- **Hizlaria(k)**: Belamendia Arrillaga, Fermin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa

- **Erref:** AND-078/043
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:20:22. **Bukatu:** 01:21:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena:** Txirritaren `Amerikako bizitza´ bertso sortako bertso bat.

Transkripzioa

Gure izeba Pantxika Antonik
hola esan du lengoan,
Mandaburuko indianoa
nola topo egin duan.
Parreguria itzuli zion
zerbait bazeukan goguan
Buru zuritzen hasia baino
Ai zer mutila dagoan.

1.36. Apaiz izateko bokazioa zuenari emandako laguntzak

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Zelaia, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-080/002
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:03:34. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Lehen, ohikoa zen senideren bat moja edo apaiz sartzea. Rafaelen bi anaia sartu ziren apaiz. Apaiz bokazioa zuenari, hartarako bidea erakusten zioten. Patrizio Etxeberriaren laguntzari esker, Rafaelen anaia aukera izan zuen apaiz izateko ikasteko.

Transkripzioa

- Garai hartan, hainbeste senide etxian ta normala izaten zan bakarren bat moja edo apaiz edo...

- Bai, bai. Gero, aman aldetik oso [elizgoitik] dia ta atzetikan bazatoztin apaiz, jesuita, monja... bazian, eta ordun, ba, hortako bokaziyua errexago etortzen zan. Eta gero izandu zan, ba, Patrizio Etxeberria Legazpiko horren seme batek ordaintzen ziyon anai zaharrenai apaiz iteko. Eta geo beste bi nola prestatu zian, hairi´re bai. Baiño batek iya bukaeran utzi in zun. Ordun, oain [daudez] bi apaiz eta bestia, ba, hoi, Erromaa ezkondu zan bestia hango emakume batekin. Ta horrela.

- Eta nola erabakitzen zan garai hartan, ba... etxera etortzen zan norbaitte "Aizu, apaiz izateko-edo semen bat ba al dezu?" edo, nola erabakitzen zan?

- Bueno, familitikan ya pixkan bat bultzatu iten zan. Gero, eskolaa, hemen La Sallen aittu giñan gu, ta La Sallera´re etortzen zian hola pixkan bat biltzeko bakoitza bere komunidadea. Eta batenbatek... karo, hamar urteko... hamar urtetako kontuk dia, eta "nik nahi det..." batek "obispo" esaten zun ta bestia "ingenierua" ta bestia ez dakit zer ta... "Ba nik nahi det frantziskanua", frantziskanua etortzen bazan. Eta orduan ya guantia bota iten ziyuen ta [...] zan. Eta, karo, ba, osoba-ta ya apaizetako bokaziyua ba ote zun o... azaltzen zula, ta, ordun, ba, hasi zian. Baiño, karo, kosta iten zan, zeatikan ordun ordaindu in bihar izaten zan etxetik,

eta ez zeon holako [...]. Eta, ordun, alleatzen ez zianentzako-ta izaten zan laguntzak. Eta Patrizio Etxeberriak, ba, jarri zun, ba, “bueno, batenbati nik lagunduko diot”, eta gure anaiai tokatu zitzaion. Eta hartu-eman haundiya izandu zuen beakin. Eta hola ibili zian. Eta gero ya, ba, bueno, ya familiya hazitzen jun zan bezela, ba, ya pixka bat libratzen´e jun giñan.

1.37. Mezalagun izatearen abantailak

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Zelaia, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-080/003
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Etxeko mutil guztiak mezalagun sartu ziren. Izan ere, horri esker, La Sallen ikastean, eskolako materiala dohainik izaten zuten. Mezalagun zirela, noizean behin, eskupekoak ematen zizkieten; eta oso ondo etortzen zitzaien diru hori. Orduko mezen ordutegia aipatzen du.

Transkripzioa

- [...] Gaiñea, orduko mutil guztik pasa giñan monagillo izatea. Zeatikan La Salle eskola elizana da eta, elizana izanez, ba, monagilluak gendun eskola libre eta eskolako tresnak´e bai; bai liburu, lapitz eta hoik denak libre giñun. Ordun... Etxeako´re beste laguntza bat zan eta gaiñetikan propinan batzuk´e billatu iten zian elizan. Eta ondo etortzen zian denak.
- Eta propinak nolakuak zian elizakuak?
- Ba, izaten zian... entiarrotan pezta bat igual ematen zizuen meza laguntzeko. Gero izaten zian erresponsoak; ordun´e ematen zizuen, ba, igual bi errial o. Karo, oain tonteri bat ematen du, baiño ordun asko zan. Pagaik-eta ez zan izaten ta hoik denak ondo etortzen zian. Eta, bueno, holaxe. Okerrena zan: bizi giñan iya beste puntan ta goizeko bost eta erditan meza laguntzea. Goizeko seitan izaten zan aurreneko meza astegunian´e egunero. Ta hua lagundu. Gero bestia zortzitan izaten zan ta hortikan ya eskolaa.
- Zumeatik...
- Zumeatikan honeaiño.
- ... elizaiño.
- Bai, elizaiño. Eta gosalduta garai hartan, eta ya beatzitan eskolan sartzeko, ba, goizean bost eta erditan gosalduta etortzen giñan. Eta erdi lotan hortxe. Baiño...
- Haiñen goiz hasten zian meza ordun, e? Sei ta erditan ta...
- Seitan, zortzitan... eta gero entiarrotan bat baldin bazan, ba, hua berandugo izaten zan, ta kasi nahio entiarrotan izatea berandugo eskolaa juteatik. Anibersaiuak´e, ordun, segun ze egunetan tokatzen zan, hala iten zan. Oain igandetan iten da, baiño... Hoik denak horrela izaten zian.
- Hildakuan anibersariyuak edo urtebeteko meza hoi ordun...
- Egun berian.
- ... egun berian errespetatzen zan?
- Bai, bai. Bai, eta izaten zan, ba, goizian. Eta entiarrotak´e izaten zian goizian. Eta gero, nola ez zeon oain bezelako ibilgailluik eta ezerre, ba, familiarrak etortzeko-ta etorri bihar izaten zuen garaiz. Eta geo gaiñetikan ematen zitzaizen hamaiketakua o bazkariya o... nola herritatikan etorri bihar izaten zuen, ba, gero garaiz etxera bueltatzeko ta. Horrela.

1.38. Hiletan kategoriaren neurriko eskupekoak

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Zelaia, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-080/004
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena:** Aldiko, 5-6 mutiko ibiltzen ziren mezalagun. Eskupekoa jasotzeko, norgehiagoka izaten zuten. Lehen, kategoriaren arabera, halakoak izaten ziren hiletak. Hiletan arteko desberdintasunak aipatzen ditu. Hileta ematen zuen apaizari ogia ematen zioten, besteak beste.

Transkripzioa

- Ume asko ibiltzen ziñeten?
- Izango giñan aldiko bost o sei o hola. Ta geo, ba, zea, txandatuz. Baiño

zeak, propinak [izango zian] garai haietan denak sartu nahi gendun, ta han bizkorrena muittu bihar izaten zan. Eta, bueno. Bai, meza nausin beti igandetan hiru monagillo bihar izaten zian. Eta gero gaiñantzekuak, ba... Gero, entiarruak´e zian diferentia. Izaten zian kategorik. Eta hola bastante ondo bizi zianak, ba, igual ateatzen zittuen sei-zortzi meza, eta herritako apaizak etortzen zian. Eta haik beti propina ematen zuen; ba, esan deana, pezta bat o ematen zuen. Eta, karo, ordun kategoriya zan, segun zenbat meza ateatzen zian, ba, “halako entiarrua in diyue” ta. Oain kaja ta loriai-ta beiratzzen zaiuen bezela, ordun mezak zian.

- Primerakuak eta segundakuak eta...

- Primera, segunda ta tercera zian, bai.

- Zertan diferentzia... zertan zan?

- Hoi ba.

- Apaiz...

- Primerakuan apaiz gehio aldarian ta geo meza gehio atea. Ordun ez zan koroiyik eta zea, kaja eta besteik be. Geroztikan atea zian koroiak eta loriak eta gauz hoik. Eta, en kanbio, mezak ya baztarrea utzi dia. Meza bat ateatzen da oain denantzako berdiña, baiño ordun ez zan denantzako berdiña. Tercerakua zana, ba, juxtu-juxtu alleatzen zan batena zan eta, ordun, eguneroko meza bezelaxe eman lehenbailehen, ta etxea. Baiño segundakuak ya bazittun hiru meza uste det zittula segundakuak. Eta hirutik aurrera ya primerakua ta hiru apaizekin, kantuakin ta ya... osatua. Hor...

- Eta segundakuak ba al zeukan kantu eta korua ta...?

- Bai, kantu pixka bat bazaukan, baiña inportantzi gehiena ematen zitzaion mezai. Eta saihetsetan eoten dian aldare hoik-eta hortakoxe zian ordun; “meza txikiya” esaten zitzaien hoi. “Atea dixkiye hiru meza txiki”, “atea dixkiye bost”, “atea...”. Hola.

- Herriyan´e pixkat komentatuko zan gero, ez...?

- Bai, dena.

- Ze kategoritako elizkizuna egin zitzaion eta...

- Bai. Eta nik ezautu izandu det Albisturren, gure ama jaiotako etxian, ogiya ematen zan hillabetian apaizantzako.

- Hara...

- Bai. Eta gaiñetikan batzuk, ba, barra txikigua, bestiak barra haundigua... hortan´e kategorik bazauden. Eta alleatu zan erretore bat eskatzea halako ogiya bihar zula halako entiarrua egingo [al] zitzaion. Ta...

- Entierrua ordaintzeko edo?

- Ohittura bat. Hemen izaten zian gero zortziurrenien mezak eta... hil osuan mezak eta... segitzen zuen ohitturak. Eta, karo, mezak ordaindu iten zan eta, karo. Eta ordun nola zan... ogiya nahiko justu izaten zan, ba, ogiya zan zea bat, laguntza haundi bat bezela apaizai. Eta, karo, ohittura hartu zuen eta geo obligaziyua bezela jarri. Eta holako... [zeak].

1.39. Apaizari ordaintzeko moduak

- **Hizlaria(k)**: Etxezarreta Zelaia, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-080/005
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:11:34. **Bukatu**: 00:14:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

- **Laburpena:** Garai batean, ogia etxean egiten zuten. Apaizari ordaintzeko, ogia egon ezean, babarrunak, egurra... ematen zizkioten. Apaizari ordaintzeko modu ugari zegoen.

Transkripzioa

- Ogiya segun ze garaitan ez zan ba errexia izango! Zuk esan dezuna...
- Etxian iten zan.
- ... etxian ogiya.
- Etxian iten zan ogiya han. Osea, etxez etxe. Ordun gariya iten zan eta geo errotatik pasa ta... Panaderua ez zan allatzen. Ogiya etxian iten zan, eta etxian indako ogiya ematen zitzaion. Gero bai. Gero izandu zan, panaderiya bertan bazan Albisturren, eta hangiak. Baiño basarritakuak denak beak egindako ogiya [izaten] zan.
- Apaizai segun zertako beste ordainketa modu bat´e izango zan; ba, oillaskuak edo zerbaitte izaten zan hola?
- Bai, geo izaten zan herri txiki hoitan, karo, herri hotan beti sarrera gehio zuen apaizak diru aldetik, baiño herri txiki hoitan sarreraik ez zeon. Eta ordun, ba, babarruna iten zan gariyan, ba, borondatez ematen zan babarruna. Beste batzuk surtako egurra ematen ziyuen. Eta hortaz moldatzen zan. Eta gero izaten zan —hoi hemen´e ezautu deu eta nik uste det herri gehienetan izango zan— San Juan bedenkaziyua esaten zitzaiona. Eta apaiza pasatzen zan basarritz basarri ta soruak bedeinkatu eta etxiak bedeinkatu ta suerte ona izateko ta dena. Eta ordun, zuk esan dezuna, ba, oillasko paria, beste batzuk lau oillasko, batzuk dirua nahi izaten zuen... Eta, karo, monagillokin jun bihar izaten zuen, eta ya fitxatuta gendukan ze baillara zian hobenak, non gehiena zeatzen zuenak... Eta, ordun, ba juten giñan apaizan onduan. Ba, ematen zitzaion bolsa ur bedeinkatuakin ta, ez dakit, kandela´re uste det [iten] zala, kandela txiki batzuk zea iteko, gurutzia jartzeko etxian. Ta hola.
- Andoaiñen ibiltzen ziñeten ordun hola?
- Bai, bai.
- Baserriz baserri.
- Basarritz basarri. Eta, ba, leku batian kafia igual emango zuen, beste... gu mutil-koskorak eta. Baiño sagardua-ta izaten zan ta merienda´re bai preparatzen zuen. Apaiza etortzen zala ta etxeko gauzik hobena harentzako izaten zian. Eta “Itxoin pixkat, itxoin, zuri´re eman bihar dizut”, zea, monagillui ta “Ez, ez, hau ordaindua do” esaten zuen. Hola ibiltzen giñan-ta gu. Hartzen giñun, propina earrak hartzen giñun basarritaa juten giñanian. Ta beak nahio zuen guk ez ikustea beairi ze eskeintzen ziyuen o ze eman nahi ziyuen.

1.40. Apaizarekin ur bedeinkatua botatzera joaten zirenekoa

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Zelaia, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-080/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:14:07. **Bukatu:** 00:16:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Ur bedeinkatua botatzearen truke, baserriz baserri joaten zen apaiza. Mezalagunak apaizei laguntzen ibiltzen ziren, eta han

ikusitakoak gogoan ditu Rafaelek. Ondo jakiten zuten zein izaten ziren bailara onenak, hau da, eskaintza onenak egiten zituztenak.

Transkripzioa

- San Juan bedeinkaziyua izaten zan, ba, San Juan inguru hortan. Eta astian igual bi biaje ingo zittuen; egun batian basarri batzuk, beste egun batian beste basarri batzuk... eta denak osatu arte. Eta apaiz bakoitzak zeukan baillara bat.
- Eta ze baillara izaten zan, hola, zuk esan dezuna, gehiena eskeintzen zuena o...? Izango zian diferentziyak baillaratik baillaraa.
- Bai. Hemen, Leizotz aldekoa zan hobena.
- A bai?
- Bai. Eta Buruntza aldekoa're bai. Bestia, berriz, hemen zan Goiburu baillara, ta hoi ya zeagua zan, justugua-o gutzako.
- Ta zertan zan ba onena, Leizotz eta Buruntza... zertan?
- Hoi, ba, nola portatzen zian, ze borondate zuen. Igual, esan detena, kafian partes, ba, gozokik igual emango zizkiguen, ta holaxe. Umiantzako ze bihar zan, ba, hola. Hoi denak goguan eukitzen zian.
- Ordun, zein jungo zan Leizotzea eta Buruntzaa edo...
- Bai, pelea: "Nei tokatzen zait aurrena" ta "Ez, zu han izandu ziñan" ta hoik denak artxibuan, burun sartuta eukitzen giñun. Baiño oso ondo ibiltzen giñan.
- Eta Goiburu edo, justugokua esan dezu. Zer zan, baserri ttikiguak o zer zian?
- Basarri... txikiguak, gutxiyo aurreratutakuak... Gero, en kanbio, aurrena beak jarri dia. Baiño mutilzahar ta holakuak bizi zian eta, ordun, ba, hoitan zea gutxiyo eoten zan, eskeintza gutxiyo. Baiño, bueno, garaioak aillatzian ondo izaten giñan, e! Gaiñetik, baimena izaten gendun eskolaa jun gabe,ba, apaizakin jun bihar gendula ta, ordun, libre. Ta iya iñular arte ibiltzen giñan basarriz basarri.
- Egun guziya?
- Ez, atsaldia, atsaldia. Bazkalonduan atera eta ya rekorridua hartua eukitzen zun apaizak, eta hantxe, bolsa txikiya hartu ta...

1.41. Apaiza galtzekin, bilutsik egongo balitz bezala

- **Hizlaria(k)**: Etxezarreta Zelaia, Rafael
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-080/007
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:16:12. **Bukatu**: 00:17:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Mezalagun zela, baserriz baserri joaten zen apaizarekin ur bedeinkatua botatzera. Oinez joaten ziren, eta beroa egiten zuenean, apaizak sotana gerriraino igotzen zuen; apaiza galtzekin ikustea oso arraroa egiten zitzaien beraiei.

Transkripzioa

- Oiñez iten zenduen?
- Bai, oiñez, oiñez. Ordun ez zeon... Gaiñea, ez zan bideik basarritaa're,

zea, kotxiantzat. Ez zan kotxeik eta! Futbolian karreteran ibiltzen giñan ta geatu gabe, gaiñera. Ez zan kotxia datorrela ta... ez zan kotxeik bat bakarrik´e pasatzen karreteran ta!

- Oiñez, apaiza bere jantziakin...?

- Bere sotana.

- Bere sotanakin?

- Bai. Guri harritzen zitzaigun... karo, bero izaten zan ta gerriaiño sotana altxatzen zuen. Bai, bidian. Geo ya jeisten zuen etxe aurrian, baiño galtzakin ikustia, ba, guri... Karo, oain galtzak´e ikusi iten zaixkie, galtza barrenak, baiño ordun ez baitzan. Zea, dena beheraiño tapatua. Eta ya, karo, berua hua denakin. Ta altxatzen zuen gerriaiño, gerrin lotzen zuen ta... Apaiza galtzakin ikustia, guri iruitzen zitzaigun galtzaik be ibiltzen ziala o. Oso zea izaten zan.

- Eta monagilluak, zuek´e bai izaten zenduen jantzi bereziya egun hortan?

- Ez, ez, guk elizako bakarrik izaten gendun. Gaiñantzian ba...

2. Familia eta harremanak

2.1. Maiorazkoa izan, baina apaiz joan nahi

- **Hizlaria(k)**: Irizar Zarautz, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-002/004
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:06:49. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Patxiren familian 4 senide izan ziren: bera zaharrena eta mutil bakarra. Maiorazkoa zen Patxi. Berak apaiz joan nahi zuen, aitak debekatu egin zion, ordea.

Transkripzioa

- Zeok zenbat senide izandu ziñeten?
- Gu geok? Hor lau. Lau: hiru arreba ta ni. Lau.
- Zu zenbagarrena ziñan?
- Aurrena, zaharrena.
- Zaharrena zu, ez?
- Ni zaharrena. Bestiak gerozkuak danak.
- Ordun seme bakarra eta zaharrena?
- Seme bakarra eta zaharrena.
- Maiorazgua izaten omen zan...
- Bai, orduan hala izaten zien, [esaten] zien. Ta geo...
- Zuretzat errexan zan maiorazguana, ez?
- Pfff.
- Ez? Ez ala da?
- Ni [...] ta aittak... Ni hasi nitzan klerora juteko.
- A bai?
- Eta aittak —ama ez zan metittu; arrebak-eta badakite— “Guk ze in bihar deu hau estudio... klerora junda? ospitalera jun?” esan ziyen. Ta hala galaazi in zian aittak, eta hemen geldittu nitzen.

2.2. Ezkontzako arrea

- **Hizlaria(k):** Jauregi Ulazia, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-017/046
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:00:14. **Bukatu:** 01:02:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Ezkontzeko, dotea prestatu behar izaten zuten: Andoainen etxea, maindireak, toaillak, azpiko arropak...

Transkripzioa

- Ze pauso izaten zian ordun? Dotia eta... izaten al zian prestatu beharreko...

- A! Dotia... hoixe! Onbre! "Había que preparar". Harek etxia in zun. Ezkondu ta... Ezkondu ta etxia in, urte batian in zittun. Etxe hau.

- Andoaiñen?

- Hemen, Andoaiñen. Hau.

- Joxe nongoa zan?

- Zizurkilkua. Baiña aitta Amezketatik etorriik, e! Ta zeozer parientiak itten giñanak, gaiñea, e!

- Hara!

- Sí, sí.

- Ta, ordun, Andoaiñen beak etxia in zun.

- Beak etxia in zun.

- Buruntzan.

- Bai, Buruntzan. Hemengo arreba... Hor bizi da arreba. Bueno, hil zian denak. Ta horko terrenua eman zigun ta etxe hau in gendun.

- Eta zure dotia, berriz, zein izan zan?

- A! Nere dotia, pues, "buen dote: tres docenas de sábanas"...

- Maindiriak?

- Maindiriak. Eta muebliak'e nik ekarri nittun. Sí. Sí, sí, sí.

- Beitu. Eta arreo ona edo dote...

- Bai, arreua esaten zitzaion, bai. Honek hala esaten ziten; "Oi! Ni gutxigokin etorri nitzan". Hoik'e senide asko zian nere gizona-ta. Ta...

- Sei... nola esan dezu? Sei juego-edo maindiriana.

- Bai, bai.

- Nola esan dezu?

- Sei...

- Ze gehio akordatzen zea?

- Pues, geo toallak'e bai. Toallak'e oso earrak. Eta geo azpiko arropak eta... dena hola, behar dan gauza dena. Bai. Ni oso gustoa. Bai. Y así.

- Arrea erakutsi beharrik izaten al zan?

- Ez, ez, ez, iñoi ez, e! Iñoi ez. Arrea eakutsi ez. Ez.

- Batzuk esaten baitue o leku batzutan bazen ohitura etxea etorri ta...

- Bai. "No sé, oye, ahora que dices, no sé si yo también no enseñé, ¿eh? a alguien". Balitteke hoi, e? Balitteke.

2.3. Etxean kantatzeko ohitura zeukaten

- **Hizlaria(k):** Jauregi Ulazia, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa

- **Erref:** AND-017/055
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:09:34. **Bukatu:** 01:11:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Lehen bazuten kantatzeko ohitura. Apaizak erakusten zizkien bertsoak. Ahizpak txikia zenean bota zuen bertso baten zer kontatzen zuen azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta lehen hitz eitten ai giñan pixkat garai bateko kantataz eta bertsotaz eta...
- Bai.
- Ohitturik bazenuen kantatzeko?
- Kantatzeko? Bai. A! Gue ahizpa marmita garbitzen ta kantari aitzen zan. Bagenun guk ohittura kantatzen aitzeko, bai. Hure behintzat asko. Ta ni´re bai. Kantatzen gendun.
- Irratirik eta hola ba al zenuen? Irratirik eta telebistarik eta.
- Ez, ordun telebistaik ez zan. Ez, ez, ez, ez.
- Ordun, entretenitzeko, nonbaitte bertson batzuk ikasi biharko zian.
- Bai, bai. Elizaa juten giñan. Apaizak eakusten zizkigun. Apaizak, bai, bersuak botatzeko geo.
- Badakazu goguan bertso zaharrik edo...?
- No. Ez. Ez naiz gogoatzen. Gue... Nee ahizpa mojak —gogoatzen naiz— oso txikiya bersua bota zun: “Amatxo, ni txiki-txikiya naiz, baiño tori muxu bat”, ta bestia: “Amatxo, ni naiz askoz haundigua, baiño tori beste bat”. Hoixe gogoatzen naiz, “pero más no me acuerdo”...
- Bertsotan hola?
- Bai.
- Zuek bota?
- Txikik ziala nere ahizpa mojak eta. Bai. Bai.
- Zaletasuna bai behintzat.
- Bai.

2.4. Ama haurdun zegoenean

- **Hizlaria(k):** Zabala Zalakain, Bittori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-018/004
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:05:34. **Bukatu:** 00:07:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena:** Ama haurdun geratzen zenean, nahigabea hartzen zuen, ez baitzekien aurrera atera ahal izango zuen beste ume batekin. Bittorik adore ematen zion; oso harreman ona zeukan amarekin. Umeak jaiotzen zirenean, hasieran, beraiek ez ziren konturatzen; baina, gerora, bai. Hasieran, uste zuten medikuak ekartzen zuela haurra.

Transkripzioa

- Ordun ume berri bat zetorrenian eta, ze giro arnasten zen etxian? Ama

tripa haunditzen eta... ume-koxkorak nabaritzen al zenuen zer pasatuko zan o?

- Ez, ez. Esaten zigun amak, e! Azken aldea esaten zigun amak. Amak pena izaten zun estadun gelditzen zanian. Esaten zun: "Oain´e badeala nik!" eta hola esaten zun; "Bueno, ama, ez apuratu horrekin! Bestiak´e hazi dia ta hoi´re danon artian hementxe haziko deu" ta nik beti animua ematen niyon. Beti... Ama asko maitte nun, e, egiya esatekotan. Aitta gogorraua zan. Baiño bitan bat gogorra izan biharra dao honbeste jenden tartian. Aitta gogorraua zan, baiña oso emakume ona gendun. Oso ona´re, gaiña, zan gure ama. Oso ona. Nik amakin izugarrizko konfiantza nun, izugarriya!

- Ordun beak esaten zun haurdun gelditzen zanian...

- Bai, bai, esaten ziun, bai, esaten ziun. Penakin esaten ziun, e! Baiño esaten... beti bere alde itten giñon. Ze in bihar giñon? Ta... Baiño, bai, bai, beti esaten ziun beak. Eta geo, jaiotzen zanian, ba, ilusiyuakin, bestiak bezelaxe hazi.

- Ba al zenekiten zehatz-zehatz nondik zatorren ume hura?

- Bai. Osea...

- Esplikatzen al zizuen?

- Aurrenekuak gu kontuatu gabe etortzen zian haik, haik ez genekiun.

Zeatikan nik ahizpa zaharrenatikan hamasei hillebeten diferentziya dakat. Eta beste hoik´e, ba, bi urte o ta bi ta erdi ta hola [...]. Ta hoikin ya ez naiz konturatzen. Baiño azkeneko hoikin, azkeneko hoikin, hoikin ya... Gu hazi... Nik anai gaztenakin hogeitaz urten aldia dakat. Ta ez nun ba jakingo orduako? Neoni´re nobiyuakin ibiltzen nitzan orduako ta!

- Bai, ordun bai.

- Hoi ba!

- Baiño hasieran-ta hola, medikua etortzen zanian...

- Bai, ta medikubak ekartzen zula! Guk burun hoi izaten gendun. Zeatikan medikuba etortzen zanian izaten gendun ume ttikiya, ta medikubak ekartzen zula. Hoi, guetzako hua zan, medikubak ekartzen zuna. Baiño hoi gero... gero guk´e ikasi gendun bestiekin batian. Geo lagunak´e izaten dia zahartxeaguak´e ta... enteratzen dia. Enteratzen gea.

- Hoi ba. Hoi ba.

2.5. Hilekoari buruz ez zen hitz egiten

- **Hizlaria(k)**: Zabala Zalakain, Bittori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhua
- **Erref**: AND-018/005
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:07:48. **Bukatu**: 00:09:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- **Laburpena**: Hilekoari buruz ez zuten hitz egiten etxean. Bittoriri lehenengo aldiz etorri zitzaionean, orduan azaldu zion amak zer zen hura. Lehen, konpresak ez zirenean, nola moldatzen ziren azaltzen du. Mutilei ez zieten ezer esaten; asko aldatu da kontu hori lehendik hona.

Transkripzioa

- Amakin holako konfiantza ta... hilerokuan kasuan, reglan kasuan, hola, harek esan al zizuen edadia pixkat... arrimatzen ziñatenian edadean, "Izango dezue hola regla" o...?

- Ez, ez ziguen... Nik oso gazteik izandu nittun. Oso gaztetik. Hamabi

urteako banittun. Eta ahizpa zaharrenak artian ez zun. Eta ez... Nik ikusi nunian zea, arrastua, ba, negarrez. Amai esan niyon ez nakila ze pasa zan ta, zea, nola kuleruak zikindu nittun ta zea ta. Ordun amak esplikatu in zian.

- Ordun esan zizun?

- Bai, ordun bai. Ordun esplikatu zian, bai. Baiño aurrenien negarrez esan niyon nik beai.

- Esplikazio hura ´re ez zan ba errexia izango amantzat, e?

- Ez dakit, ez dakit. Ba, esan ziun danak izaten zuela hua ta biharrezkua zala ta holako batzuk esan zixkiun ta... bueno. Geroztikan hor ibili gea.

- Gero pixkat lasaixio.

- Bai, bai, bai, bai.

- Gero, lehenbiziko... Oain konpresak eta, bueno, gauza...

- Bai, oain bai, oain bai! Lehen izan bagiñu hoik! Jesus! Ordun, zea, toallan baxtarrakin amak itten zittun. Oi ene! Eta geo hoik atea ingo dia hoik, e!

- Baiño hoik ´e jakin bihar dittugu. Jakin behar deu nondik gatozen.

- Toallan baxtarrakin amak itten zittun josi ta geo haik jartzen zixkiu...

Bueno, haik jartzen giñuzen. Ta gero garbittu in bihar kendu haiñean. Amak beti hori esaten ziun, kendu haiñean garbittu itteko. Beak erakutsi ziun hola ta... Belazian jarri ta... hola ikasi gendun.

- Ta gizonak-eta ikusi ezkeru, lotsa-o izango zen.

- Bai, ez zeon esateik mutillei eta hola. Jesus! Ezta pentsatzeik ´e! Oain bai, oain eozar gauza! Baiño ordun? Bueno! Oso diferentia dao zuetatikan gureta hoi asuntu hoi, e!

- Asko kanbiatu da, bai.

- Oso diferentia.

2.6. `Gitarra zahartxo bat´ abestia

- **Hizlaria(k):** Navarro Hombrados, Loren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-022/024
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:31:44. **Bukatu:** 00:32:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena:** Iparragirreraren `Gitarra zahartxo bat´ abestia kantatzen du. Etxeko giroa: kantuzaleak ziren denak.

Transkripzioa

- `Gitarra zahartxo bat´?

- Bai, hoi: "Gitarra zahartxo bat det neretzat laguna, hortxen..." nola da?

- "Horrela ibiltzen da..."

- "Horrela ibiltzen da artista ezaguna, euskalduna. Egun batean pobre, besteetan jauna, kantari pasatzen det nik beti eguna".

- Hoi zure amonak kantatzen zun baita ´re?

- Bai, hoi ´re bai, bai. Hoi. Ta nekan nahiko ahaztuba nekan. Bai. Aurreneko estrofa esango zian, zeatik beira zenbat dian, e! Bai. Baiño politta da, bai. Nei abesti hoik asko gustatu izan zaixkit beti. Ni kantari artian haziya naiz. Amonak hoik, bestiak frantsesez, bestiak opera igual abestutzen zian...

- Jolin...

- Bai.

2.7. Ezkutuan musu ematen

- **Hizlaria(k):** Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-024/001
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Lehengo ezkontzak oso serioak ziren. Apaizaren galderak eta musu emateko debekua. Hala ere, ematen zioten musu elkarri ezkutuan.

Transkripzioa

- Oso seriyoak izaten zian.
- Orduko ezkontzak?
- Oso seriyoak. Konfesatzea joan ta galdetzen zizuen apaizak ia nobiyuai muxu eman al ziozun, muxu ematia debekatua zeuken, baiño horreatikan alkarri ematen geniyon muxu; honbre... Saiatuko giñan ezkatzian ate atzian, iñork ikusten ez giñun lekun baiñan muxu ematen ziyozun despeditzerakuan.
- Nobiyotan pekatu izango zan gauza hoik itia?
- Bai; ez, ez, haragikeririk eta ez, muxu ematia alkarri, ta bostekua ta hoi, esku guztia minberatuta uzten zizuela.

2.8. Aranoko Martinen kontuak II

- **Hizlaria(k):** Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-024/031
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:44:46. **Bukatu:** 00:45:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Tabernan Martin aipatu zuen, eta tabernariak ez zuen ezagutzen. Senarrak askotan adarra jotzen zion Martinekin.

Transkripzioa

- Tabernan?
- Tabernan aittatu nun, bai, aittatu nun, ta nere senargai horrek "ze nahi dezu, Martin azaltzia?". Ta "Gutxinean e bertso bat botako liguke etorriko balitz". Eta aitatu nun, eta tabernakoak esaten zun Martin hainbeste ziala ta hola manduakin-ta ibiltzen zianak eta, beak ez zula ezautzen. Akaso, Aranotik joango ziala baiño akaso beaiek ez ziala Aranokuak izango, ta hortan gelditu zan gure ixtoriya. Ez dakizu zenbat bider muturrea bota ziten nere gizonak nerekin hasarratzen zanian. Aranoko Martin ezautu bazendun bai earki (barre), nerekin ezkondu baiño lehen. Enfin.

- Gustokoak izaten dia, beti ondo moldatzen zean zera...
- Bai, bai. Ta gaiñea gaztia nere edadexukoa zan, urte bat eo bi bakarrik zittun, gaztia zan. Beste bi ya edadekoago, haundiguak zian, bai.

2.9. Pospolinetako erretratua I

- **Hizlaria(k)**: Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-024/041
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:57:07. **Bukatu**: 00:58:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Kultura » Dantza
Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra sortu zenean, ehule jantzia, pospolinetakoa, aitik zaku batean sartu eta erre egin zuen. Bera negarrez. Erretratua erakusten du. Pospolinak eta ezpata dantzariak.

Transkripzioa

- Ba gerra sortu zanian ba erre eitten zituela eta ikurriña arrastoik ez zala euki bihar. Ta nik ikurriña ez naukan baiño naukan Pospoliñetako trajia; ez, Hilanderatakua. Hamalau urtekin "ya eres hilandera". Eta ordun ein zieten traje berriya. Ta in zieten traje berriya ta naukan etxian baiño nere aitta hor igual gogoatu zitzaion ta esan ziten: "Aizan, nun den hik Pospoliñetako traje hoi?". "Ba eukiko det holako lekutan". "Ba ekarri, sartu zaku hontan, nik gordeko diñat eta". Badakizu ze in ziten? Zakuan sartu, patiyoa eaman ta su eman ta erre; ta ni goiko leihotikan beira. Ze negarrak in nittun. Ze pena eman ziten. Gorde, gorde...; neure ohe azpin gordeko omen nun nik. Nere ohe azpin gordeko omen nun ta han eongo omen zan, hua ez omen zula iñork billatuko. Nere ohe azpia miatzea ez zala iñor joango ta.

- Ta erre...

- Ba hementxe gaude gu pospoliñak (erretratua erakutsiz).

- Honek hartuko du. Erakutsi hortikan, begira ze politta dan! Pixka bat gertuatuko det eta. Bai? Zenbat jende, e!

- Bai.

- Zenbat neska koxkor.

- Txikik pospoliñak, hilanderak, ta mutillak ya ezpata-dantzarik. Ezpata-dantzarik, lehen esan dizutena, Martin Lasarte honen osaba're hortxe dago.

- Ia. Zenbat jende.

- Bai, kuadrilla handiya giñan.

- Dantzatzen, kantatzen...

- Ni hementxe nago tartian, ikusiko nazu.

2.10. Marroka jolasten

- **Hizlaria(k)**: Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa

- **Erref:** AND-027/017
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:32:21. **Bukatu:** 00:34:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Marroka nola jolasten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Marroka eo esan diazu lehen. Ze joku zan hura?
- Marroka?
- Hoi zer da?
- "A los marros". Hoi zan, hoi izaten zan "esto" itten genun, nola esango dizut nik: hau da kamiyua, ezta?
- Bai.
- Ta hemen kamiyuan paretan kontra hola, itten nun aiba "raya" bat, hola. Kuadro bat, kuadro haundi bat. Eta han eoten giñan, han jartzen giñan hiru hirun kontra eo lau laun kontra. Han jarrita. Ta geo buelta guztin, hola bueltan, zea buelta haundi bat in ta tokik, tokik hola, "Aiba! Zea bat jarri, harriya eo, bat jarri hor! Han beste bat, hor beste bat, eta hor beste bat eta geo. Ta itten zan batek urrutitikan pelota bota, pelota bota ta pelota jo. Ta bestiak han zauden ta pelota aidian harrapatzen baldin bazun, harek irabazi itten zun. Jotzen zunak galdu. Ta haik barrena, ta bestiak kanpoa.
- Ordun barrenian eon behar zan.
- Bai, barrenian eon bihar zenun, irabazteko... batzuk barrenian eon bihar zuen. Jotzen dunak eta haren launak barrenian eon bihar zuen. Bestiak, berriz, pelota botatzen zunak, pelota botatzen zunak hua kanpuan baiño haren hiru launak kanpuan "a ver" bestiak jotzen zun pelota harek harrapatzen zun hola, harrapatzen zun. Ta harrapatzen baldin bazun, haik irabazten zuen. Ta harrapatzen ez bazun, ba, pelota jo zunak korrika joaten zan aurrena aurreneko harria ta handikan beste harria. Ta bestiak pelota hartzen zunian, ba, hua harritik harria zihuan bezela pelota botata jotzen baldin baziyon galdu iten zun.
- Beisbola eo holako tankerako, baiño [...].
- Pelotakin, pelotakin.
- Pelota nolakua zan?
- Pelota normala, pelotik ez baldin [...], askotan itten genun paiñolua korapillua in, pañoluan korapilloakin igual itten gendun ta.
- Hoi marroka.
- "A los marros".

2.11. Etxeberrieta auzoko giroa

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhua
- **Erref:** AND-030/002
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:00:15. **Bukatu:** 00:02:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

- **Laburpena:** Andoaingo Etxeberrietan auzoan jaio zen. Han kotoi-fabrika zegoen, eta haren inguruan egin ziren etxeak. Lehen Etxeberrietan denak euskaldunak eta elkarren artean ezagunak ziren. Denek zuten ezizena: aitari Felipe arrantzalea esaten zioten.

Transkripzioa

- Roke, nun jaiyo ziñan zu?
- Ni Andoañen, etxian e? Parterak izaten zian ordun ta parterakin etxian bertan, Etxeberrietan, Andoañen. Bai.
- Etxeberrietan?
- Oain zahar-zaharra dao, baiño Etxeberrietan, bai. Ordun Etxeberrieta, "barrio de Etxeberrieta" esaten zan, oain'e bai. Bai.
- Zer zan hoi, kanpoko jendiak eta indako etxiak, edo...?
- Ez, barriyu hoi zan Andoañen zan algodoneran, Subijana, ta han zortzirehun lagun ibilli izandu zian, Andoain guztiya ia han ibiltzen zan, emakumiak asko, gizonak'e bai e? Tela iten zan, algodoneran horreatik zan, tela. Ta harek in zun barriyu hoi, zea jendiantzako ta harek esaten zuen hitz ein in zula gehiena, fabrika hoi, o zea, etxe hoik. Etxe oain zahar-zaharra dao, erdik bota dittue; ta dana bota ingo due. Ijituak eta portugesak bizi da oain han. Ta lehen, danak euskaldunak giñan.
- Hara!
- Danak euskaldunak, danak ezautzen gendun, eta beti izaten zian, "Hara! Holako ta holako errittan aitu dira!". Ta leiyo batetik bestea buillaka aitzen zian ijituak baiño okerrago. Eta etxe bakoitzian, ya denok motia giñun.
- Ta zuena zein zen?
- Guria, gure aittak zun Felipe arrantzalia.
- Hara!
- Bai, esaten ziyoen.
- Ta zer zan, arrantzan ibiliya zuen aitta?
- Aittona eo ibili zala esaten zuen, baiño arrantza gehiyena ibaiyan e? Ibaiyan, bai.
- Ta zuri deitzen al dizue arrantzale?
- Ez, ez, nei ez. Ya bukatu in zan zeakin.

2.12. Emakumeak fabrikan eta garbitegian

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-030/008
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:21:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Gaztainak biltzen zituzten, baina ez zegoen denek jateko adina. Emakumeek kotoi-fabrikan egiten zuten lan, eta jai goizetan arropa garbitzera joaten ziren garbitegira baldea buru gainean zutela. Umeei ez zieten uzten hara joaten.

Transkripzioa

- Ta gaztaiñikan eta ordun biltzen al zan? Gaztaiñak o marrubik o...?

- Gaztaiñak? Gaztaiñak bilduko ez zan ba! Bai, baiño gaztaiña're zenbat zeon ba hemen. Jendia gaztaiñak baiño jende gehiyo zan jateko, biltzeko. Zea, ta emakumiak juten zien algodoneran lan ein eta jai goizian, zea, Belkoaiñen, Belkoaiñen, Belkoain mendiya dao. Ta han bota in zuen zea basua, piñuk eta. Ta guk zea jai goiza izaten zan egurreta juteko emakumiak'e. [...] sortak hartu zean, burun, ta zea ordun ez zan butanoik ta labadorik'e ez. Ta uaingo adelantoik ez zian, labaderoa juten zian emakumiak. Han baldia hartu, lanetik atea ta iñularrian igual, baldian hartu ta han garbitzen. Ta gu mutil koskorrak o hola arrimatzen bagiñan, "E! Alde hemendikan" esaten ziguen. Ez zuen nahi ikusi nahi zea arropako ezer'e.

2.13. Elizaren indarra pixkanaka galtzen

- **Hizlaria(k):** Huizi Zuñiga, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-052/017
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:39:09. **Bukatu:** 00:40:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Apaizek zentsura egiten zuten lehen, mutilei baino gehiago neskei. Elizak pisu handia zeukan, baina denbora gutxian galdu zuten autoritate hura.

Transkripzioa

- Garai hartan, apezak eta zentsura iten al zuen hola...?
- Bai, bai...
- Dantzan ittea arrimatu xamar ta...
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Pekatu asko izaten al zan?
- Guiri, guiri... mutilleiri... akaso ez ziguen zeatuko apaizak eta...
konfesatzeakuak hoi e! Baiño ni goatzen naiz andregayak eta jode... "hau esan dit, hau ta hua". Aber arrimatzen giñan... Kauen la letxe! Hau de marka hau! Eta... ez kasoik eiñ... alla puñetas. Pekatua dala ta txorakei hoi. Eta holaxe izan zan dana.
- Elizak pisu haundiya zeukan garai hartan.
- Bai, bai, bai, bai. Askok, asko, asko... asko. Geo, ya... geo ya golpetikan zeatu zan e... Rast! Iriki zan ze ta... Geo, han bukatu zian zeak. Geo, apaizak indarra galtzen juan zian. Beak'e bai, beak'e... ejenplon bat o txarran bat eman ta akabo. Ta jendia're hasi zan...

2.14. Arantzazu, Loiola eta San Migelera peregrinazioak

- **Hizlaria(k):** Huizi Bereziartu, Joxe Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-053/002
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:02:27. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

- **Laburpena:** Herriko emakume batek autobusak antolatzen zituen urtero Donostia, Arantzazu, Loiola edota San Migelera joateko. Gaztetan, Joxe Antonio bidaia horietara joan ohi zen.

Transkripzioa

- Urrutina Donostia, ta Arantzazua, ta San Migelea, ta Loiola ta holaxe... Gainantzen hemen.
- Ta Donostia ta Loiola eta San Migelea-ta juten zinatenean, zerta?
- A, San Migelea, zea... eskursiyua... zea izaten zan, este... Arantzazua-ta joaten giñenian, pues e... erromeriya bezela. San Migelea San Migeletan joaten giñan eta gero Arantzazua´re igual, ta Loiola´re, berriz, Arantzazutik bueltakuan igual sartzen giñan Loiolan ta... hola. Bai. Danak ikusiz...
- Hoik gaztiak ziñatela?
- Bai, nahiko gaztiak, bai, nahiko gaztiak oandikan, oandik nahiko gaztiak. Gero ya ez, ya geo ya... pixkat... kaskaroitik atea giñanian ya biaje hoi gutxi eitten giñun ya. Hara, San Migelea bai, San Migelea zalia izandu naiz. Ta geo... Arantzazua joan gabe igual pasako nittun, pues, hogeitamar-berrogei bat urte igual. Ta arreba etorri zan Argentinatik eta harek joateko gogua zakala, eta iñor ez zitzaiola prestatzen eta esan nion: "Neonek emango zaittut". Eta nere emaztiakin, hirurok joan giñan eta ein genun egunpasa: Arantzazua joan, meza entzun, geo goitik beherakuan hango restaurantian bazkaldu eta gero bukatu genun Izaskunen. Izaskunen Ama Birjiña bada, harei´re bixita ein; han beste zerbezatzko bat hartu eta etxea.
- Bueno...!
- Egunpasa.
- Eta gaztetan, eskursiyuak nondikan, nondikan izaten zian?
- Hemen izaten zan, hemen izaten zan e... [Kontxa Ratxe], emakume bat, harek itten zittun, autobusa organizatzen zun harek. Eta harek organizatzen zun bajiia eta denok geren motxiletan edo geren saretan-edo otorduak-eta hartu, bokadilluak eta erarik eta abar eta autobusian joaten giñan, goizian atea, goizian seitan, eta martxa! Ta iñular arte. Eta gero harekin rekorridua eiñez etortzen giñan.
- Ta Kontxa hura, zer zen?? Ze...??
- Hua zan, berez, andereñua, uste det, izandutakua... Baiño, hola, gustatzen zitzaion jendiai zeatu, peregrinaziyaun, hola, Arantzazua ta San Migelea. Hoita zun zea haundiya, urtero-urtero itten zun harek bajiia.
- Eta gazte kuadrillak juten ziñaten?
- E bai... Gaztiak... asko ez. Autobus batian joango zian igual dozena-erdi bat gazte, gaiñantzian ya o parejak, matrimoniyo gaztiak, zaharrak gehintxonetan, hola; gaztiak gutxi: dozena-erdin bat edo hola.
- Baiño zuek behintzat bai bazenuten...?
- Bai, bai, bai.

2.15. Umetako jolas sinpleak

- **Hizlaria(k):** Barandiaran Iturriotz, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-061/002
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:00:58. **Bukatu:** 00:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena:** Umetan korrika ibiltzen ziren jolasean, eta lehenengo iristen zenak saria izaten zuen. Garai hartan gutxi behar izaten zuten ondo pasatzeko.

Transkripzioa

- Mutil-koskorretan nola ibiltzen giñan? Ta, bueno, eskolatikan atera ta gero merienda, baldin bazeon, jan ta... Gero, jolasten gendun Beheko plazan. Han bueltaka ibiltzen giñan. Eta gero, ba, izarditu o zeatzen giñan t ura edatera. Ta, ordun, korrika. Ta lehenbizi alleatzen zana jefe iten zun. Danak filan jartzen zian, jartzen giñan, ta hola jotzen zun, ta edaten, lehenbizikuak. Zaukan denbora guziya, baiño ez utzita, utzi gabe. Osea... aber, nahi dekena...

- Segida-segidan?

- Bai. Harek iten zun ta bestiai esaten ziyon hola, ta hau zai, ta beak ikusten zunian: "bestia!", ta atzera jutun zan. Bestia hola. Eta danok asko edan gendunian berriz korrika ta hola ibiltzen giñan. Ta hola ai giñala, "Hi! Ama deika ai dek" eta "Jun, jun", "A! Jun in biharkok, bestela guk pagatuko digu ta". Ta holako zeakin. Bueno, holako zeak.

- Ze gauza gutxi bihar ziñuen ordun jolasteko, ezta?

- A, ya esta. Baloiyik´e ez zeon ordun. Ez zeon. Pelota bai, pelota bai, baiño korrika gehiyena ibiltzen giñan.

2.16. Urnietara enkarguak egitera, gustura

- **Hizlaria(k):** Ansa Goenaga, Migel

- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa

- **Erref:** AND-063/005

- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:04:53

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

- **Laburpena:** Urnietan asko ibili izan da Migel; hara joaten zen enkarguak egitera, eta gustura joaten zen, bizikletaz: Zaundegira, jostunengana, idiak ferratzera...

Transkripzioa

- Ni Urnietara... Urnietara gu bastante ibili gea, enkargutaa Zaundegia. Zaundegi, badakizu. Ni harea txerriya hiltzen [giñan] bakoitzian. Ni bizikletan ibiltzeatik gustora jutun nitzan, ta amak enkargua ematen zian, zea, espezien bila, oolkik-eta itteko espezien bila. Ta ni Zaundegia. Taberna zahar bat, erdi denda, hola zan. Eta enakargu asko Urnietan. Gero erropak ´e, gure amak lagunak zittun jostunak Urnietakuak eta erropa ´re asko itten zan. Ta ni bizikletan ibiltzeatik gustora ta, joe, ni enkargu asko iña naiz Urnietan. Askok! Gero txerri munik ematea, zeatikan txerriya hiltzen ziguna ´re urnietarra gendun, Jazinto ta hoin aitta. Jazinto Fernandezzen aitta zan. Eta... ni Urnietan asko ibiliya naiz. Bai, bai. Gero gaztetan neskatan ´e bai ta! Beti Urnietan!

- Ordun, Andoainguak izanagatik...

- Bai, Urnietan tratua izandu deu. Eta hamabi urtekin eo hola gutxi gorabehera gero Urnietan asko pasatzen nitzan ni baita ere... bueno,

perratzea idiyak eamaten ´e bakarrik ´e jun izandu nitzan. Geroxio hua, e!
Hua hamalau o hamabost urtekin. Jun izandu nitzan.

2.17. Karburo-potoarekin jolasean

- **Hizlaria(k):** Amutxastegi Aranzabal, Joxeba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-067/025
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:03:46. **Bukatu:** 01:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Karburo-potoarekin jolasean aritzen ziren eta tiroa egitea lortzen zuten. Karburoa ekartzeko nola-hala moldatzen ziren.

Transkripzioa

- Ta gero karburoakin'e bai. Potua, zuk ez dezu aitu, ez ziñun aittuko beiñ'e, zuloa iten zaio ttiki bat poto bati, tapa bat. Eta zulua iten dezu lurrian, hura sartu, karburua "carburo" zea mineruak eta nola ibiltzen zuen, holako pixka bat bota, tapatu zea ta beste laun batek eo zuk makilla batekin suba, jo ta suba. Jarri han ta iaaa! ateatzen zan baiño baiño zea e, kriston tirua iten zun gaiñez. [...], lapurreta in giñun. Lapurreta in giñun e hor tunela do, treneko tunela, ta eun batian, ñooo, ez dakit norbaitek billa, ikusiko zun ta: "Zea ziyok karburua potu haundiya zeok, me kauen". Jun giñan, lau eo bost jun giñan. Joe, usaiya earra eukiko zun harek e. Kolkuan ta galtzetan ta sartuta ta, pitiliñian ere bai bai zea sartu, karburua hola. Nik ez dakit zenbat kilo ekarri nitun etxea. Ta gure etxean, ezkatzian zea giñun, ba zulo bat baiño atiakin. Ganbara deitzen genion baiño, ganbara goikua izaten da eta gu behian giñun, sarreran. Han eukitzen giñun. Jo, puxkatu, puxkatu ta bueno oain atzekaldea, errekaa, han ibiltzen giñan tiroka.

2.18. Auzoen fama eta aliantzak

- **Hizlaria(k):** Amutxastegi Aranzabal, Joxeba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-067/029
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:14:36. **Bukatu:** 01:16:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Zumea auzokoek baketsu-fama zeukaten; Etxeberrietakoek, ordea, bihurri-fama. Basterokoak Zumeakoekin elkartzen ziren Etxeberrietakoen kontra.

Transkripzioa

- Aizu ta auzuan tartian Zumeatarrak ze fama zuen, zuek ze fama zenuen?
- Hoi fama, fama ez, gu bastante zeak giñan. Txarrenak zea zian, beno, txarrenak, aber, bihurrienak Etxeberrietakoak zian; bai, hoi zian.
- Zumeakoak ze fama ziñuen?

- Guk pake, pakeosua. Fubolian ta..., fubolian ibiltzen giñan kalia ta askotan irabazte geniyon zeai etxeberritarrei. Ta haik kanpo futbola zuen. Ta zea esan nahi dizut, ba gukin nahigo zuen ibili Basterokuak Etxeberritarrekin baiño. Osea, gerran haik etortzen zien gure alde.

- Basterokuak ze fama zuen haik?

- Ez, normal. Ba ez, ez. Bazian bat eo bi bazian zea, baiño ez ez. Haik motelaguak zian.

- Haiek Kale Txikikoakin ta?

- A ez, ez giñun guk, zea, tratu..., ez. Guk urte asko zea ez giñun ezautzen, zea, Kale Txikiko mutillak.

- Ez ziñaten harea azaldu?

- Ez, ez da azaldu. Guk mezeta're zea juten giñan, Santa Krutzea, ez juteagatik harea. Gero bai baiño ba hamar-hamaika urtekin ta hola joaten giñan zea, hemen goiko plaza.

- Hoi da.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Agur gariari eta auzolanei

- **Hizlaria(k)**: Arruti Iturriotz, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-005/002
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:05:26. **Bukatu**: 00:07:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Talai baserría lehen ez zen handia, baina soro ederra zuen. Garia gutxi erein izan dute etxean. Hala ere, berak ikasi zuen garia moztzen eta jotzen. Lehen auzolanak izaten ziren.

Transkripzioa

- Pentsatzen det Talai... zer zan baserri haundiya o?

- Ez, ez zan haundiya. Bost bat behi o hola zittun. Ez zan haundiya. Gauz bat zun earra: sorua zun earra. Ta hortik hazi giñan gu. Babarruna eta artua. Horko babarruna eta artuakin.

- Gariyik ezautu al zenun?

- Gariya ezautu nun. Urte bi o hola. Ezautu nun.

- Baiño asko ez.

- Ez, ez, ez.

- Zergatik ez?

- Orduako ya. Orduako ya... hemen garik lehenore apenas asko itten zan. Ta orduako ya bukatzen zeon hemengo martxa gariyakin, bai. Ikasi nun nik gariya moztutzen da, ikasi nun... Gero jotzen'e bai losa baten gaiñian nola jotzen zan. Aurrena zeakin txikorrakin lotu ta geo losa baten gaiñian jotzen zan alia kentzeko.

- Ta egueldiya nolakua behar zun?

- Hoi da. Egualdiya ona bihar zun. Aurrena zabaldu itten zan. Multxorruak itten zian. Zabaldu ta iyartzen zanian losan gaiñian jotzen zan.

- Ordun hezia zeola, oaindik ondu gabia zeola edo biltzen zan edo?

- Bai, bai, bai. Umedadia beti itten du multxorruan.

- A ya...

- Ta gero, iyartu ta jotzen zan. Ta geo, juaten giñan auzota're. Ni alleatuba

nao... gaztia nitzan oaindik baiño izeban baserrin jotzen. Haiek asko eitten zuen gariya.

- Elkarri lagundu're asko ingo zeniyoen?

- Asko eitten zan ordun, baiño ya hoi bukatu zan... gure garayeako ya bukatu zan auzolan hoi hemen. Lehen lana laian ta dana auzolana itten omen zan. Oin ya bukatu zan orduako, gure garayeako.

3.2. Irrati bakarra eta denak haren inguruan

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-030/030
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:52:54. **Bukatu:** 00:54:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Santa Kruzetako giroa garai batean nolakoa izaten zen azaltzen du: musika, kaleko giroa... Lehen jende gutxik zuen irratia: gizon batek irratia erosi zueneko anekdota kontatzen du; haren irratia entzuteko biltzen ziren denak.

Transkripzioa

- Ta Santakruzakin hasten zeate ta...

- Bai.

- Santakruzak garai batian nolakuak zian?

- Bueno, garai batian, neu goatzen naiz, Andoañen zan Pepito "churrero", soiñu-jotzaillia zan, eta hue etortzen zan "campeón de Gipuzkoa" ateata zan soiñu-jotzaille politta zan. Eta bezperatikan oain bezela ez zan ta zea Perikoneko sagardotegiyan ta nola lehen esan det, bertotan sagardotegira ta, harea ta juten zian, mutilzarrak eta gizonak; zea e berrogeita hamar urtetik gorakuak eta hua filarmonika hartzen zun ta hemen ibiltzen zian bueltaka kalez kale, zea, hamar-hamabost gizon haren atzetik. Ta gu mutil koskorak'e bai haren atzetik. Ta geo, Santakrutz goizian, harek goizian ez; atsaldeko hiruretan "Radio San Sebastián"etik zea jotzen zitun, Santakruzeko martxak eta bi o hiru pieza. Ta hua aitzea danak, radiyua zuenak eta ez zuenak'e bai. Radiyuak'e gutxik zuen. Gu goatzen naiz, etorri ta mutil koskorak giñanian, petrilla zan han kamiyo ixkiñan eta lehen esan deten zea Joxe Manuel "Tatulu" eo nola motia?

- Bai.

- Hua mutilzarra zan eta harek esan emen zun, esaera e, esan omen zun, ez zakila ze in, o andria hartu o radiyua erosi; eta radiyua erosi zun, behintzat. Geo, andria hartu zun e.

- Biyek ordun?

- Bai. Gero, bueno, aurrena radiyua ta guk ez gendun radiyoik eta, ta iñullarrian harek jartzen zun fuerte-fuerte radiyua eta guk petrillian danak han jarri ta hango radiyua aitzen eoten giñan.

- Ta orduko programazyuk ze izaten zian, radiyokuak?

- Joe, ez dakit, kankak izango zian, kankak kankak euskaldunak ez, zeudenak kanta erdaldunak. Bai.

3.3. Trenbideko gertaera gerra hasieran

- **Hizlaria(k):** Ganzarain Ansa, Gurutz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-045/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:59. **Bukatu:** 00:16:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Erreketek Andoain Belabietatik barrena eta tren txikian etorri ziren. Tropa trenean zetorrela, trenbideko erraila kendu egin zuten eta gizon batek abisua eman zien trenekoei, makinista laguna baitzuen. Gerora, portaera ona eduki izanaren agiria eman zioten gizon hari.

Transkripzioa

- Nundik etorri zian reketiak Andoain aldea?
- Reketiak? Hoik hemen Belabietatik barrena baiño beste... Nik alde in nun ordun hoik etorri baiño lehen e? "Así que" nundik etorri dian nik dakit hortik etorri ziala. Ta beste batzuk etorri zian tren txikin honea; ta gaiñea esango dizut, tren hartan zatorren soldadu pillak bat ta tren ferrokarrillekok in zuen railla kendu zuen ta nere lagun horren aittak, bijilantia zan perrokarril hortakua, ta errailla falta zanian, bere laguna mekanista zatorrena, "¡Joño! Barriola zatorren makinista ta!" [...] Ta ze in zun korrikan jun ahal zun bidian ta trenan aurrian jarri ta eskukin hasi keiñuk itten. Ta harek hua ikusita geldittu ta hango kapitanak esan "a ver qué tiene ese señor?" ta horrek esan, Barriola horrek esan emen zion "no, no, es un amigo mío; ya tendrá algo cuando éste ha salido". Ta trena geldittu omen zun, ta "ze pasatzen da?", "hola ta hola, railla kenduta zio". Ta ordun jun emen zian harek, ta geo horrek esan omen zion "bueno, rail hau jartzen laguntzen badiazue, makina mutillak [...] badizue, jarriko diagu", railla han emen zeon ba! Ta soldadu beak lagundu ta harek erakutsi, zea zan ba horko jefe itten zuna ferrokarril hortako, ta railla jarri, ta pasa zan trena hemen tropakin, honea etorri. Nik hoi ikusiya ez e? Nik orduako Zautza alde iña nitzan ta. Baiño nekin apaltzen zun mutill horren aitta zan hola.
- Ta harek makinista bere laguna?
- Makinista bere laguna ta harek ordun Karrika jun ta... Ta geo hari eman zion "un certificado de que buena conducta".
- Hara!
- "Claro", kondukta ona in zun harek eta.

4. Baserria

4.1. Eskola gutxi, baina dotrinak garrantzi handia

- **Hizlaria(k):** Mujika Otegi, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-006/002
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Euskara » Euskararen egoera

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Eskolara gutxi joan ziren, etxean lagundu egin behar izaten baitzuten. Andoaingo eskolan ibili ziren, Asintxionean; gaztelaniaz ikasten zuten. Dotrina zen garrantzitsuena lehen. Aitari irakurtzea gustatzen zitzaion.

Transkripzioa

- Eta hasierako eskolaa gu basarritikan eskolaa bialdu giñuen, baiño ez denboa luzian. Senarrak esan dun bezela, beti izaten zan: "Ga(u)r ez dakazue juteik eskolaa, e! Ganaun aurretik ibiltzeko ´re batebat biharko diñat eta..." aitta zanak. Eta, bueno. Aurrena geatzeko hola zea pixkat, baiño, jo, bi egun-eo etxian pasa ta geo jun bihar gendunian... ez nitzan eskolatsua ni ´re. Buuu! Geo kriston pena ematen zian berriz jun biharra, baiño, bueno, juten giñan behintzat.

- Nun ibili ziñen eskolan?

- Ba, hemen, Andoaíñen bertan. Andoaíñen bertan. Bi tokitan ibili nitzan. Bat kastellana zan maestra ta bestia euskalduna. Asintxionia izena zun, Asintxionia. Hor ibili giñan gu.

- Ta ze moduzko eskola zen Asentxionea?

- Bueno, nahiko ondo. Gustoa ibiltzen giñan gu behintzat. Bai. Horrek... beandu ezkondu zan, ta maisuba kastellanua zun, baiño bea maestra behintzat lehendikan ezauna genduna guk eta... Bai, beti... gue etxeko umiak horrea pasiak izango zian gehienak. Bai.

- Hori zen erderaz? Edo euskeraz?

- Guk erderaz uste det liburuk eta... Guk euskaraik... apenas, e! Dotriña ez dakit. Ordun dotriña zan printzipala. Jesus Maria! Ordun ez zeon matematikaik eta. Etxea jutian ´e ez zuen galdetzen matematikaik eta. "Ba al zakizuen dotriñako leziyua?" galdera hoi beti. Hoi izaten zan... buu! Dotriña ondo ikasi ezkeo...! Aitta ´re zalia zan ta eliza-liburu asko zittun ta... Ez zittun astian denboa asko pasatzen aittak, baiño jai atsaldia gustatzen zitzaion liburu onak, gaiña, bazittun harek, bai, ta haik letzen ta hola. Ama, en kanbio, ez. Amak ez zun hola letzeko-ta... Baiño aitta zalia zan, bai.

- Ikasketaik bazun aittak?

- Ke ba! Ke ba!

- Irakurtzen ta behintzat...

- Bai. Ta bere firma ´re botatzen zun. Ta amak ez, e! Amak ez zun firmaik ´e.

4.2. Elizondo tabernatik Fonda Mendiluzera

- **Hizlaria(k):** Mendiluze Elizondo, Iñaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-008/003
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:04:18. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Ama Elizondo tabernakoa zuen, eta Zumean beste taberna bat ireki zuten: "Fonda Mendiluze". Ostatu hura nolakoa zen azaltzen du. Kalean bizi arren, txerriak zeuzkaten etxean.

Transkripzioa

- Ordun, zu Elizondo tabernan hazi zea.
- Elizondo taberna... Ama zan Elizondo tabernakua. Eta jarri gendun taberna behian, Zumean, beste taberna [...] zun amak.
- A! Beste taberna...
- Bai. `Casa Mendiluze´ izena zun tabernak. [Bueno], "Fonda". Izena... "Casa"... "Fondakua". Ni... askotan hemen esaten dite, "Iñaxito de la Fonda" oaindikan.
- Hara!
- Gutxik, e! Zaharrak. Zaharrak eta hola "Iñaxito de la Fonda". Zeatikan "Fonda", "Fonda" izena zakan.
- Ta nolakua zan fonda hua?
- Ba, etxe bat, hiru pisoko etxe bat, ta behian zeon sukalde haundi bat eta taberna eta komedore bat, ta aurreneko pisun ta bigarren pisun bizi giñan. Bueno, bigarren pisun habitazio bakarra. Ta apopillua izaten gendun. Bai. Hemen, gerra pasa ta gero, seittun, fabrika inportante bat etorri zan honea: "Placencia de las armas". Hemen, Andoaiñen. Hoi etorri zan Plazentzitik. Eta hoi montatzeko ekarri zuen jende gaztia, mekanikuak eta, Plazentzitik. Etorri... Haintzako zan lekuba hemen ta haikin. Nere etxian urte asko egon zian apopilo bezela plazentziarrak. Bai. Ta beakin arrantzaa-ta jutun giñan, Leizaranea ta. Bai. Oso lagunak giñan.
- Ordun, beaiek han lanian ibili, ta geo etxian, etxeko bizimodua zuekin itten zuen.
- Bai. Ta etxe horrek zakan patiyua atzian. Atzian gendun oilluak, zakurrak, txerrik eta... Txerri-hiltzeko´re lagundu iten zan. Juten zian beranduo lanea, baiño txerri-hiltzeko´re lagundu.
- Hara! Oseake, baserritarra ez zea, baiño txerrik, oilluak eta hola.
- Bai, bai, bai, bai.
- Kalian.
- Bai. Txerrik garbitzen-ta egoten giñan mangerakin ta. Mangera sartzen gendun [...] ta guk... Bañadorea jarri ta amak esaten zun: "[...] garbi zazu" ta "bai, bai". Garbitzen gendun ikuillua ta hola ta gero txerriyan atzetikan ibiltzen giñan. Ta txerri gaiñian ibiltzen ta hola. Lau-bost arbola gendun: intxor bat, intxorra... intxor bat, eta gero lau... beste lau arbol... palmera... Palmerak dia? Nola dia? "De sombra". "Plátanos de sombra". Lau ta beste intxorra. Ta hantxe ibiltzen giñan. Ta oillo asko. Oillua ta... Ta zakurra ta katuk eta... denetik.
- Librian izaten zenittuen oilluak?
- Bai, libian, bai, librian. Patiyuan, bai. Patiyua zan ba... zenbat izango zun? Etxe guziya zakan hamabi o hamalau metro, ba, hamabost metro ta hogeï metroko patiyu bat. Hogeï metro, hogeta bat metro o hola.

4.3. La Salle osteko ikasketak Laborden

- **Hizlaria(k)**: Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-047/004
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:09:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

- **Laburpena:** 1940 inguruan irten zen La Salletik, eta orduan urte eta erdi pasa zuen aitari laguntzen baserriko lanetan. Bitarte horretan, Laborde anaiek lanbide-eskola sortu zuten. Eskola hartan ibili zen 14-18 urte zituen bitartean. Hura bukatutakoan, Laborde lantegira pasa zen lanera.

Transkripzioa

- Zu handikan aterako zifan hamalau bat urte bazenitun?
 - Bai.
 - Ba berrogeita biyan edo.
 - Berrogeita batean.
 - Batean?
 - Bai. Berrogeita bat inguruan edo hola bukatu nuen nik han. Berrogeita bat, berrogei. Nik uste det berrogei. Berrogei zergatikan gogoratzen naiz ikastetxe hortako, este..., ikasketak egin eta basarriyen nora joanik ez nuelako lanera joateko gutxienez hamalau urte behar ziren eta nik ordun hamabi-hamahiru eskas nituen eta urte t'erdi bat edo gogoratzen naiz aittakin etxean han pasa nuen goldean eta atxurrean ta basarriko lanetan igaro nituen hamalau bitartekoak, eta bitarte hortan Laborde anaiak sortu zuten eskola, burnizko egituratako eskola bat, konparazio batea, nola esango nuke; teknologia aldetikan eo beraiek lantoki, langille bereziak izateagatikan sortu zuen eskola hori ta eskola hori orduan Gipuzkoan zan nibelik onenetakoa zan. Haren berdiña zan Eibarren, "Armería de Eibar" eo deitzen zioena, Eibarren zan beste eskola bat eta eskola hortan hamalautikan hemezortzira beste lau urte egin nituen, lau kursoak, urteko kurtso bat eta hemezortzi urterekin ba, bueno, gero, lantoki hartan bertan lanera. Guk izaten gendun zeaik, bentajikan haundiena zan teoriaz aparte praktika oso ona izaten genduela nola taillerrak behian zauden eta langilleak ai ziela eta, beraiekin eta hartu-emanak izaten giñuzen eta praktika aldetikan oso ondo irtetzen giñen.

4.4. Zalgurdian gustura, kotxea balitz bezala

- **Hizlaria(k):** Ansa Goenaga, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-063/006
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena:** 12 urte exkax zituela, txerrikumeak eramaten zituen Hernaniko feriara. Garai hartan, zaldiarekin eta gurdiaekin ibiltzea zoramena zen Migelentzat, asko gustatzen zitzaion.

Transkripzioa

- Baiño hamabi urte o asko [gehio] gabe txerrikumiak Hernania feria ematen nittun nik. Zaldiya ta gurdin. Bueno, zaldiya ta karrua esaten geniyon, baiño oain euskeraz [...] due "gurdiya", karruai "gurdiya" esaten die. Hoi beste batek´e hoi jarri zian. Ta nik zaldiyakin ta hola ibiltzeatik ikeragarritzko... Nik badirudi ordun karneta bezela nuala. Ni zaldiyakin ibiltzia ta zea, gurdiyakin txerriik-eta ibiltzia-ta neretzat zan zoramena. Gurasok juten zian... gurason bat jungo zan trenian tratua ittea, baiño ni

oiñez bakar-bakarrik hamabi urteako. O lehenau igual, e! Juten nitzan ni Hernania, txerrikumiak, hamar bat txerrikume hartu karruan, tapatuta jartzen gendun, eta ni gustora juten nitzan! Esaten dizut, ba. Eta Urnietatik...

- Ta oiñez zu zaldiyai tiraka.

- E?

- Oiñez, zu zeorrek.

- Klaro! Ni oiñez, klaro! Ni lurretik, lurretik. Hua dana itxiya ta han txerrikumiak barrenen.

5. Ekonomia eta industria

5.1. Santa Barbara eta Burgosko prozesua

- **Hizlaria(k)**: Amas Egibar, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-011/012
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:30:21. **Bukatu**: 00:34:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Santa Barbara egunean, jai izaten zuten Sapan eta langile guztiak bazkaltzera joaten ziren. Santa Barbara egun batean, "Burgosko prozesua" izan zen eta denak greban atera ziren. Geroztik, ez da berriro egon Santa Barbara jairik Sapan.

Transkripzioa

-Aizu, ta lanaz aparte, festa pixkat´e ingo zenduen ba, dena lana ez zan izango!

-Bai, Santa Barbara egunian jai izaten gendun. Ta Santa Barbara egunian gertatu zan "El Proceso de Burgos". Eta ze gertatu zan? Denak huelgan atea giñan eta esan gendun, este: "Santa Barbaran ez diu /eztiu/ juan bihar bazkaltzea". Ta, jakiña, fabrikak enkargatu zittun Inaxionian, Batzokin, ba, "pa tantos". Este, Zumian´e, Mertxenian, eta geo beste... oain ez da /ezta/ taberna hua, han´e denantzako jana. Hoi urtero itten zuen, e? Aurrena hasi giñan bokadilluakin, baiño gero aber bokadillua zeatik eta ofizinizak eta inginierruak eta bazkaiakin ta bazkaya´re jarri ziguen langilliai´re.

-Ta ez zineten bazkaltzea jun?

-Eta ez giñan joan bazkaltzea.

-A ze galera.

-Bai ba. Eta gero, jakiña, "Proceso de Burgos" zeak izandu zian, ordun tiruak izandu zian, hemen, kale berrin, [hoi kamiyo hoi ta hor]. Eta, guardia zibillak eta, joe, alde itten da... Pasa gendun ta hurrena lanea joan giñanian ez ziguen ezer esan. Ez zuen ezer esan. Baiño datorren urtia etorri zanian, "Bueno, Santa Barbara" ta "Ya no hay Santa Barbara, todo el mundo a trabajar".

-Hara!

-"Ni comida ni fiesta de Santa Barbara". Han, hoi pasa ta gero hasi zan, berriz´e lanian hasi giñan. Ta geoztikan ez da zeatu, berrittu.

-Hara! Galdu zenduen ordun jai eguna.

-"Después del Proceso de Burgos". Mario Onaindia ta hoik zeuden ordun kartzelan. Eta oain alde atea ba "muy bien". Jakiña, joan bagiñan apaltzea, pues ez zan ezer'e pasako, ta festa eingo gendun. Baiño "¿Cómo? ¿Ni a comer, ni a esto? Por la fiesta ¿no quieren venir a comer? Muy bien". Ospitalea ta partittu zittuen. Oaindikan zeak jakingo due, Mari Kristina, zeak, Irazustak eta, hain etxea juan bagiñan. Baiño haren etxea joan giñan ehun o hola! Baiño beste bostehun-ak nunbaiten sartu bihar zuen.

-Denak atea al zinaten ordun huelgan?

-Ez... Bai, baiño joan bagiñan'e, aunke sea, denak ez, por ejemplo, ofizinan ez zien ateatzan, baiño joan bagiñan'e, ordia, bazkaltzea "pues bueno, pues ya está". Baiño "No. Había que hacer huelga. Ni cena ni comida ni nada. Pues bueno". Bestiak ez zuen esan "Itxoin". Hurrungo urtia etorri zanian "¿Fiesta?" y "No".

-"Se acabó", bukatu da!

-"A trabajar. Porque lo que doy es voluntario mío. ¿Y de la comida? Ni hablar, se terminó".

-Ezer ez hura're.

-Hura're ez.

6. Politika

6.1. Hilketaren interpretazioa lehen eta orain

- **Hizlaria(k)**: Amas Egibar, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-011/014
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:35:21. **Bukatu**: 00:36:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Politika eta Franco
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Hasieran, grebak jorjala hobetzeko izaten ziren; gerora, arrazoi politikoengatik izaten ziren. Carrero Blanco hil zutenean, xanpainarekin ospatu zuten askok. Gaur egun, jendeak ez du berdin ikusten hilketa.

Transkripzioa

-Hasieran, huelgak jornala gehio eskatzeko ta...

-Baita, baiño...

-Baiña gero politikakin'e pixkat...

-Politikakin asko sartu zan ordun. Ordun esaten zan: "Han matau una sardina vieja. Han matau dos sardinas viejas". Ta, jo, festejatu itten zan. Harritzekua hoi da, festejatu itten zan. Eta Carrero Blanco bota zuenian, hoi nik nere begikin ikusi dittut /ikusittut/: jaztea joaten giñanian, han "descorchándose champán". Benga! Bueno... Eta akatu itten zan. Ordun libre zeon, ta oain berriz ez emen dao libre. Aber ze gertatzen dan / gertatzean/ oain. Eta oain, bat baiño gehio, ta hamar baiño gehio, "La sardina vieja" esaten zunak eta zeak, "ahora" ETA-kuak eta txarrak dittuk."Y entonces, ¿por qué decías, pues? aquello también era muerte" "Sí, pero entonces estaba Franco". "¿Y porque está Franco la muerte no es igual?"

6.2. Kanposantuko fusilamenduak

- **Hizlaria(k)**: Zabala Zalakain, Bittori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-018/031
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 01:00:12. **Bukatu**: 01:02:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerran, etxetik ikusten zuten nola fusilatzen zuten jendea kanposantuan. Andoainen, hainbat hil zituzten; baina arrazoi politikoengatik baino, ezinikusiengatik eta inbidiengatik.

Transkripzioa

<p>- Geo ikusten giñun, zea, gure etxetikan kanposantuba bertan [jartzen] baizen, ta kuartuko leihotikan ikusten giñun afusilatzen-ta nola aritzen zian. Amak ez zin uzten, e! Amak “Kendu hemendikan –esaten ziun– leihotikan”. Baiño bea beira eoten zan ta gu´re bai. Pareta kontran-o jartzen zittuen eta “ti”, “ti”, “ti”, “ti”, “ti”… danak lurrea.</p>

<p>- Noiznahi igual?</p>

<p>- Bai, nahiko noiznahi. Bai. Nahiko noiznahi. Hemenguak´e bazian ta. Hemenguak kanpuan´e botako zittuen eta kanpokuak hemen´e bai ta...</p>

<p> - Herrin asko fusilatu zittuen?</p>

<p>- Hemen asko? Hemenguak, Andoainguak bertakuak asko-asko ez, baiño guk ezautzen giñunak, zera, famili normaletako gizonak, famili normal-normaletakuak.</p>

<p>- Ez dakit beste etxetan, baiña zuen etxian politikaikan... politikaz-eta hitz egitten al zenuen? O ba al zenuen hola... baten alde ta bestian alde ta holako zeak?</p>

<p>- Nik ez det uste politikuak zianikan hemen hil zittuenak. Politikuak baiño gehiyo zian inbiriya diyenak eta hola, alkarri zita sartu ta hola… Inbiriya o, deskuidatzen baldin bazea, zeozegatikan zorra igual… Zeatikan zorra´re ordun iya danak zea ibiltzen zuen: kuadernoa enkargukin ta. Zu ez zea /etzea/ gogoratuko, baiño iya

danak garai hartan izaten zuen. Eta gero txekorra, o behiya, o txerriya ateratzen zendunian, ordun pagatzen zan. Ta ahal baldin bazendun pagatuko zendun eta ezin baldin bazendun, berriz, gutxiyo igual ta… Nik uste det inbiriyangatikan gehiyo pasa zala. Politikuak hemen... hemen hildakuak politikuak... Ez zat iruditzen.</p>

6.3. Andoainen fusilatutakoak eta gerrara eramandakoak

- **Hizlaria(k):** Erkizia Uria, Joxe Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-019/005
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:11:24. **Bukatu:** 00:13:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Andoainen 20 bat lagun hil zituzten gerra garaian. Gerra hasi zenean, gazteak frontera eraman zituzten, arma gutxi batzuekin. Frontea pixkanaka Andoaina hurbiltzen joan zen.

Transkripzioa

- Zenbat gizon eta zenbat emakume... batez'e gizonak pentsatzen det...
- Andoaiñen, nik ez dakit, 20 bat o ze hilko zittuen. Nik esan dizut ba...
hiru-lau, bai, direkto ezautzen nittun ta baiño... Geo, beste batzuk bazian a... este... aurreneko... han gerran sentittu genuna, gerra hasi zala 18 de juluan hasi zan, baiño... hasi zala jakiñ ta geo... aurreneko biltzen hasi zanian jendia. Gaztai deittu ziyuen, ta plaza juateko. Ta plazatikan juaten zian grupuan... zeara... Belabita o zea... este Naparruako bire horta... juten zian. Andoaingo terrenoa, baiño harea juaten zien. Ta etortzen zian hurrengo eunian ta... baiño eskopeta batzuk ta besteak ezerre gabe. Ta jefia zeakin... bat in zuen zea hola jefe bezela... zea pistolakin hua ta... hala juaten zian, ta etortzen zian ta "Ez dira azaldu, ez dira azaldu!" ta hola. Ta eunetan, ta eunetan... ta geo, azkenian, koño ikusi zituela aurrenenguak ta tiro batzuk izan ziala... Ta hola hasi zan... zea... hola etorri zian. Ta... este... gaur arte. Hala... hoi zeatu zan, ta geo beti hau hartu duela, bestia hartu duela... ta aurreatzen ta aurreatzen ta aurreatzen ta aurreatzen ta momentua etorri zan... gu han bizitzen giñan ingurun gendukan... este... Illurramendi. Uain'e han do baserriya haundiya, baiño hua bina zan; Pagola ta bestia Goiaran zian. Ta haik zuen osaba bat eo monarkikua, baiño gobierno... Madriko gobiernuak pagatzen ziyola ta zean. Ta horreatikan bastante... gerra... bastante bertatikan ikusi nun, hasi baiño lehenore. Ta geo, hoik ezautzen...

6.4. "Poxpolinak gera" eta "Gora Euzkadi" abestiak

- **Hizlaria(k):** Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-024/007
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:10:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon

- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
Aisia » Kultura » Dantza
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena:** Pospolinen abestia: "Poxpolinak gera". "Gora Euskadi" abestia ere kantatzen du.

Transkripzioa

POSPOLIÑAK GERA

Poxpoliñak gera zorionean
eusko jolasen alde
gabiltz lanean,
eusko jolasak alaitu
euskera hutsez mintzatu,
Euskadi maite gure aberria
guk behar degu askatu,
Euskadi maite gure aberria
guk behar degu askatu.
Tra-laralala-la-la...

- Dantza iñez abestutzen gendun kanta hoiek.
- Dantza iñez eta kantatuz?
- Dantza iñez hoi ez gendun kantatuko baiño dantza bukatu ta gero kantatuko gendun.

GORA EUSKADI

Gora Euskadi bizi bedi
gora Sabino Arana Goiri,
Jaungoikua, Lege Zaharra,
gora euskotarra.

6.5. Estraperloa II: Tolosatik

- **Hizlaria(k):** Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-024/024
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:35:09. **Bukatu:** 00:36:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Olio ama eta biek Tolosako Kortadi janari dendatik ekartzen zuten, kontrabando garaian. Ondo portatzen zenak lortzen zuen jatekoa. Propinak eta garai hartako eltzetxoak, lurrezko potoak.

Transkripzioa

- Ogiya ta oliyua.
- Oliyua, oliyua nik, ekarri gendun behin eo bi aldiz ama eta biyok, zegoen garai batian Tolosan komestible bat Kortadi. Ta gure ama horri bidoiya ez dakit hamabi-hamabost litroko bidoiya erosi itten ziyon joan eta ekarri itten ziguen. Ta gero estraperlo garaiyeen joan eta berriz'e litron bat eo bi eman

itten ziguen oliyua. Ta hor etortzen giñan xextua kargatuta-ta Tolosatik. Oseake ondo portatzen zean lekun beti bado zeozer, baiño gerra goorra izandu zan e, nik banitt:un launak esaten zietenak "jo, hik oain'e bata berriya, nere amak ez dakala xoxik eta ez (e)zan egin bata berririk". Baiño bata berriya, baiño noizian behin nik bata berriya. Baiño lan inda, lan inda ta zintzua izanduta. Ta propinak'e hantxe potuan jasota.

- Amak ikusiko zun hoi?

- Honbre, beak eakutsi ziten. Beak ekarriko ziten eltzetxua, garai hartan eltzetxo batzuk bazian baiña erorita puskatzen zianak. Gero atera zituen kaja metalezkoak eta gauza dotoreguak. Baiño garai hartan zea zeon, lurrezko potuak zian. Oain'e badia nonbaitte, ikusten dia.

6.6. Gerra garaiko desfileak Andoainen

- **Hizlaria(k):** Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-027/012
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:17:11. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Andoainen desfileak egiten ziren nazionalek herriren bat hartzen zutenean. Egun haietan, etxeetako leihoak paper horiarekin eta gorriarekin estali behar izaten zituzten.

Transkripzioa

- Hemen herrin itten al zian desfiliak, ba, herri bertan...

- Jode! Hoixe! Herrin bat hartzen zuenian ta gabian, ya, beinga desfiliak. Ta kristalak zea in bihar izaten genittun, paperakin zeatu jarri, papera gorriya ta horiya, gorriya ta horiya kristalak; zea, "esto" zea, kolakin zeatuta ta argiya pixtuta, ikusteko zeak bandera espaiñolak ikusteko. Hoi kontatu al dizue? Ez? Hoi ez dizue kontatu? Joe, "me cauen la leche".

- Banderak eta hola bai, banderak bai baiño kristaletan ta...

- Kristaletan ta, kristaletan. Ta zeatu in bihar e? Igual ez baldin bazenun jartzen, igual, igual etortzen zitzazun.

- Ikurriñaik baldin bazeon etxen batian...

- Ikurriña, joe ikurriña... Joe, ikurriña esaten dezu! Pentsa zazu!

6.7. Bi anaia gerran

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-030/006
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena:** Anaia "Batall&ocute;n de Trabajadoresen" egon zen Santander aldean. Bi anaiek egin zuten alde etxetik gerra hasi zenean, Rokek gogoan du aitak anaiari esandakoa arma bat etxera ekarri zuen egunean.

Transkripzioa

- Eta "batallón de trabajadores" hartan eo nun eendu zan zure anaia?
- Oi! Santanderren'e bai. Gure aitta zanak aitua izan diyot Santanderra're jun zala ta. Gaztiak zian, hemezortzi, hemezazpi urte eo hola ordun; hamasei urtekin alde in zun ta. Ta gero, han handik atea zuenian; delituik ez zun ezer izan mutiko koxkorrak, seitun handikan atea ta soldadu in zan.
- Ta zu akordatzen al zea nola alde in zuen etxetik?
- Ni akordatzen naiz seme zaharrena o anai zaharrena behin etorri zan etxea ta hola mahaiyan gaiñian, holako pistola eo "revólver" beltz haundi bat mahaiya gaiñea jarri zun, ta aittak errita eman ziyon. Ta ordun harek izango zittun hogeitazpi urte eo hola, hurrungo urtian hil zan ta. Ta esan diyó "Nik ez diat nahi hemen holako armik e etxian" esan ziyon.
- Aittak?
- Bai. Ta gero, hoik sartu zianian, treintaiseisian hoik sartu zianian [...] jun zan ta gero han hil zan.

6.8. Gerra aurrean jende asko eskean etxez etxe

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-030/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:29:26. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Gerra aurretik jende ugari ibiltzen zen eskean, krisi handia baitzegoen orduan. Eskean zetozenean, erreztatu egiten zuten. Ogia eskatzen zuten eskaleek.

Transkripzioa

- Garai baten, jende asko ibiltzen al zan eskian o kalia?
- Gerra aurretik bastante e?
- Bai?
- Gerra aurretik bastante. Bai, ordun'e krisisa haundi xamarra zan ta ordun erreztatu iten zuen. Lantegia jun ta erreztatu iten zuen. Gure aitta zana aittua izan diyot "Mekasuen! Beti zea igual zea hamar ta hamabi egunero egunian. Ta aguazillan txapela jarriko dit atian, aber ikaratu ta alde itten duen!".
- Ta girua bakarra ez igual, jatekoa o...?
- Ogiya. Ogi koskorra, han zea bertako ogiya igual, zakubakin etortzen zian eskaliak, zakuba ekartzen zuen ta diruba, diruik ez zeon, ta ogi koskor bat eman, sartu ta beinga! Segi.

6.9. "Mutilak, urrutitik tiratzen dutela!"

- **Hizlaria(k):** Ganzarain Ansa, Gurutz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-045/004
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Belabietako borrokan izan ziren Gurutzen lagun batzuk, baina balio ez zuten armekin. Gerora udaletxean errieta egon zen akats harengatik. Belabietako borrokan egondako mutil bat ziztu bizian etorri zen Andoaina, aurkariak urrutitik egiten zutela tiro esaten. Desabantaila handia zegoen bi bandoen artetan.

Transkripzioa

- Gurutz, nola akordatzen zea zu hemen Andoaiñea edo bazetozela edo pixka bat aitzen izango zenuen nonbaitetik edo?
- Bai, bazatoztela bai, ta gaiñea esango dizut ixtoriya. Hemen bazan Joxe Beloki korrikalariya ta hoik jun zian, hoi ta bere lehengusuk, eta hoik danak, Belabieta jun zian reketian kontra. Ta gaiñea, gauz bat esango dizut: nere lagun bat zan geo alkarrekin apaldu [...], zea Migel Ormazabal. Harek eraman zun eskopeta hamabikua ta hamaseiko kartutxuak ematen zitun, ta bakizu tiroik itteik ez. Ta Barriola zanak aiuntamentun "nei kontuz, gehiyo mutillak bialdu, zea, mendia eskopeta hamabikukin ta kartutxuk hamaseikuakin". Ez baizuen baliyo. Ta bronkan izugarrin aiuntamentun aittu ziala badakit. Nik ez nun ikusi hoi e? Haik harek beak esana. Nik harekin apaltzen nun geo askotan sozidadian ta. Harek istori asko kontatu zizkian. Ta haren lehengusua, Joxe Beloki, korrikalariya ona zan, Billabonatik Aiya ta korrika ibiliya. Ta hua in zun harek, Belabieta jun zian hoik ta reketiak urrutitik tiratzen, fusillakin haik eta hoik eskopetakin, ta horrek in zun korrika Billabona etorri. Ta Billabonan tranbia hartu ta Andoaiñea etorri. Ta tranbiatik jeitsi zan ta tranbiatik jeitsi zanian, "mutilla, mutilla" buillaka, "mutilla, mutilla; hoik urrutitik tiatzen dula, hoik urrutitik [...]". Ta handik urte batzuta, nik Joxe Beloki horri esan niyon "hi, Joxe", "zer?" ta "hik, Belabitik etorri hitzanean, hik hau ta hau esaten huan" ta "hik nola dakik hoi?". "Nik hoi zakit, hi etorri hitzanean ta tranbiatik etxea, ni han neolako mutil koskorra". Ta nik aitu [...], "bai, hala huan, nik hala esaten nun, urrutitik tiratzen da ta", beai esan niyon, ta urteta esan niyon nik beai hoi. "Hik nola dakik hoi?" ta "ni han nitxon etorri hitzanean ta". Ta ordun beak esan zian, bai, Billabona etorri zala ta Billabonan tranbia hartu zula. Nik ez nekin nun hartu zun baiño harek esan zun nola hartu zun Billabonan, Andoaiñea etortzeko. Nik jeixten ikusi nun ta.
- Ta haik zer zeuden mutillan batzuk edo ahal zituen eskopetak eta?
- Eskopetakin eze itteik ez.
- Ahal zittuenak harrapatu?
- Ba momentu hartan zittuenak hartu ta mendia.
- Mendia.
- Ta haik fusillakin etorri ta fusillakin urrutitik, bakizu, danba tiratzen.
- Zuek desbentaja izango zenuen?
- Bua, alde ein in bihar korrika.

6.10. Andoaingo karlisten jarreraren larritasuna

- **Hizlaria(k):** Ganzarain Ansa, Gurutz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-045/007
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:16:39. **Bukatu:** 00:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra Andoaina iritsi aurretik, beldurra zegoen herrian. Zerrenda bat eginda zeukaten herriko karlistek Andoainen, familia bakoitzeko gizon bat fusilatzeke. Gerora, karlista haiek konturatu ziren egin zutenaren larritasunaz.

Transkripzioa

- Hari Andoaingo beste batek esan zion, geo ordun, geo, hola kalia ikusita, hoi baiño lehen e, hoi gertatu baiño lehen; "oaingo hontan Andoaiñen, ez dek familik lotuik be geldituko", "motel ze ai haiz esaten nei, nik oain dala, zea urtebete hontan andria hilla ta lutuakin nao", "ez, hiregatik ez diat esaten". Pentsa zazu, ze pentsamentu zauzken haik Andoaiñea ailleatzeko.

- Soldadu haik?

- Soldadu haik ez, Andoaingo batek.

- A.

- Soldadu haik geo, geo zian soldadu haik. Geoztikan zian soldaduk etorri, hoi gertatu orduko preparatzen hasik hemen karlistak eta jende hua. "Oaingo hontan ez dek Andoain [...]". Zeatikan pentsa zazu, Andoaiñen, komandatziya oain "casa cultura" daon horretan zeon ta brigadak zeon soldaduk, Guardia Zibilletako brigada. Ta hue etorri zan Elixondon Restoran o taberna dao, hor plazan, elizan aurrekua; ta Elixondo zaharrana: "Oye, Elizondo, ¿qué pasa aquí, en este pueblo? Quinientos para fusilar y entre ellos cinco sacerdotes". Ta Elixondo zaharran hoi burubai heldu ta "hombre, hombre, por favor, no haga usted caso a esto, no haga usted caso". Pentsa zazu, famili bakoitzeako bat hiltzeko primatuta zauzken hoik. Hemengo jendiak, karlista jendiak.

- Nundik ateatzen zittuen ba, hainbeste etsai, hainbeste...?

- Bakizu, ordun errex [...] firmatu. Baiño geo, ze in deu guk pentsatzen hasi zianian, ordun komerik. Geo, plakatzen, plakatzen, plakatzen, ta geo zuloa beak'e. Nik izen ta guztik esango nittuke baiño ez dittut esan nahi, holako holako ta halako. Hemen.

- Herriko jendia bazan?

- Herriko jendia. Inbidiya, alkarri nundik izurratuko ziyoen. Baiño geo, kontuatu zian; katolikok zian batzuk eta "joño, ze in deu guk, ze in deu?". Erotuta ibilli zian ta! Erotuta. Esango dizut, nere anaiya zaharrenak, ni baiño lau urte gehiyo, oaindik bizi da. Ta hua zeon Etxeberrietako petrillan gaiñian exerita ta pelaiyuak zatoztin, esaten dizut ba, bere banderakin ta bakizu beren desiflian ta. Ta haikin zeon sarjentua, beste gixajo bat zan hua're sarjentua haikin zeona. Gure anaiya exerita. Ta harena jun petrillea ta "hi ez al dakik bandera pasatzeakoan zutik jarri behar dala?", ta matraillian jo zun, mutikua. Banderakin, pelaiyua, bandera espāñolakin hola zijuaztin ta matraillian jo.

6.11. Francoren garaian, euskara debekatuta

- **Hizlaria(k):** Ganzarain Ansa, Gurutz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-045/008
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:21:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
 - Politika » Euskara eta politika
 - Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Francoren garaian, debekatuta zegoen euskaraz hitz egitea. Izenak ere ezin ziren euskaraz jarri. Orduko anekdotak kontatzen ditu Gurutzek. Eskolan, Cara al Sol abestu behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Geo beste batian, haik jun zian Buruntza bere kuadrillan, ta haik beren izenak ta jarri euskeraz, [...] ta holakok euskeraz jarri. Ta Guardia Zibilla ta komandantzia jun ta ibilli zittuen geo euskerako izenak jarri zittuelako. Ez zeon [...].

- Ez al zan libre?

- Izena jartzia?

- Euskeraz izena jartzia?

- Galaraziya zeon, zihero, euskeraz hitz eittia're. Pentsa zazu, nik lagun guztiri beti Gurutz esaten diyet, Andoañen Gurutz; Ormaiztegin'e Gurutz esaten diyet. "Claro", hara ezkondu ta hemezortzi urte in nittun, ta handik Gurutz. Baiña ofizialki danetan Juan Cruz jartzen det, Francon denboan hasi nintzan Juan Cruz, Juan Cruz, Juan Cruz jartzen, ta oain klaro zeatzea haik kanbiatzen. Iñork ez dik nei esaten lagunak Juan Cruz, iñork ez. Juan Cruz esaten diyet, kanpoko jendiai, "oye, Juan Cruz", ondo ikusten due ta. Ta karreran ibiltzen nitzanian, Juan Cruz jartzen zun, Juan Cruz Ganzarain, "ha ganado la carrera de tal Juan Cruz ha ganado la carrera", Gurutz behin'e ez. Lagunak bai, gaur'e asteazkena, apariya izaten da, asteazkenetan apariya izaten da sozidaden, ta Gurutz danai.

- Ta ordun ez zan libre, zeatikan ez zan libre euskeraz?

- Francok ez zulako ametitzen.

- Ez zun ametitzen?

- Euskeraz hitz eittia, [...]. Esango dizut gaiñea: hemen basarritarrak euskeraz, erderaz ez zakiyen. Guk, nik neonek ez nakin erderaz-ta mutil koskorra ta. Zeozer bai, baiño ezer ez.

- Nola jakin behar zenduen?

- Gaiñea, esango dizut, emakumiak baserrita juten zian esniakin, ta Donostia juten zian. Ta billetia hartu bihar trenian etortzeko, ta eoten zan takillan aurrian bat fusillakin, zea bat, polizi bat, ta "hable usted en cristiano", ta billetia erderaz eskatzen jakin ez, ta trena galdu askotan itten zuen, batek ezagun bat etorri arte hantxe zai; ta ezagun bat "Hi!", "Zer?", ta "Andoañeko billetia hartu diak", ta harek erderaz billetia hartu, ta billetia hartzeik ez, "hable usted en cristiano".

- Ta hoi trenian zeoneako, beste nunbait ere eongo zian?

- Kalian ta hitz eitteik ez, erderaz; galaraziya zeon zeharo. Eskoletan ta 'Cara al Sol' kantatu bihar eskolan hasteako, 'Cara al Sol con la camisa nueva que tú bordastes anteayer'. Hoik kanta hoik kantatu bihar izaten zian.

6.12. Errepublika garaian Andoaindik bidali zituzten mojak

- **Hizlaria(k):** Ganzarain Ansa, Gurutz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhua
- **Erref:** AND-045/012
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:24:18. **Bukatu:** 00:26:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Gerra hasi aurretik, eskolan gutxi ibili zen Gurutz. Garai hartan, moja frantsesak zeuden Andoaingen, eta errepublikan bidali egin zituzten Frantziara. Gerora, Gurutz Frantziara joan zen gurasoekin moja haiek bisitatzen. Ama mojekin ikasten ibilia zen.

Transkripzioa

- Eta gerra hasi aurretikan eskolan ibiliko zifan zu?

- Bai, baiño ni eskolan asko ez, asko ez. Zeatikan gerra denboa hasi zan ta ordun, bakizu, gerra denboran zortzi urte gerrakin. Handik etorri ta geo hasi gifan gu eskolan, gerra bukatu ta geo. Ta aurretikan, goatzen naiz, mutil koxkorra ttiki-ttikiya nitzala, hemen mojak zian; frantsesak moja batzuk, ta han frantsesez ta ordun hemen euskeraz askok ikasi zuen garai hartan. Ta ni mutil koxkorra, ttiki-ttikiya nola juten nitzen ta harek, hoi goatzen naiz. Ta geo hemendikan republika denboan hola zan, Republikak in zittun bialdu, "claro", "el año treintai..." Republika atera, Republikak bialdu zittun hauk. Oker haundiena hoi in zuen hemen. Haik bialdu zittuen Frantzia, berriz. Ta gue ama haikin ibiliya ta haik bixitatzea nola jun nintzan zerea, mojai bixitatzea goatzen naiz. Ta nik mojatatik gaixtua zala esaten nion, ttikiya, mutil koxkorra ta moja komunista esaten nion nik, ttikiya nitzala. Ta haik han jun gifan Frantzia hain bixitatzea amakin ta aitta, ez dakit gu zenbat gifan, umiak zenbat gifan. Ta haik zuen, bere bizi zian tokin, ez zuen zuloik eta hondarra danian. Ez zuen zeik, han hondarra gaiña, bere... izango zuen. Ta han patiyuan hor dijuanai ikusi ta "ama, ama, hara, hara moja komunista". Nik han ezautu, mutil koxkorra ttikiya baiño, nik ezautu hua. Amak esaten zian "hik ezautu huan ba hua", ta ni... Horregatik, gauz guztik danak burun dazkat, nere suhiya harrittuta eoten da, nik kontu danak nola esaten dizkaten.

- Ta nolaz jun zifaten ba zuek haik bixitatzea? Haik biali ta gero zan hoi, ezta?

- Bai ba. Haik Frantzian [...]. Gure amak relaziyo haundiya zulako haikin. Gure ama haikin ibiliya baizan, kolejiyo hartan ibiliya. Ta prantsesez ta dana haikin ikasiya. Gure amak'e elizako liburua hil zan arte're frantsesa eramaten zun. Ta dotriña euskeraz ikasi zun harek, dotriña e, aita gure ta hoi, gui eakusten, Elizako liburua frantsesa ematen zun harek. Hil aurretik alabai eman ziyon hua.

6.13. Gernika gorriek erre omen zuten

- **Hizlaria(k):** Ganzarain Ansa, Gurutz

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-045/018
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:34:16. **Bukatu**: 00:36:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Lehen lan asko zegoen, dena suntsituta eta berregiteko baitzegoen. Gurutz bizikletaz joan zen Gernikara, eta txikituta zegoen. Gernikari buruz izan zituzten lehenengo berriak gezurrak ziren: gorriek erre zutela Gernika esaten zen.

Transkripzioa

- Gerra onduan, lanak bere hortan segitu zuten, edo gutxitsu in izan edo...?
 - Ez, ez, geo ta geo gehio, "claro", dana ein biharra zan-ta. Oain, berriz, oain dao dana iña ta geo lanik ez. Baiño ordun, dana itteko, dana txikituba. "A ver" Gernika nola gelditu zan. Ni bizikletan jun nitzan Gernika ikustea. Ta harea junda, ni goatzen naiz. Ni mutil koxkorra jun harea Gernika ta, "claro", Juntako etxian kontra jarri [...] oso-osoik. Nik ez nekin Juntako etxia zanik hua ezar'e. Hua bakarrik oso-osoik, Gernikan dana txikituba, oaindikan goatzen naiz Gernikan aurreko etxia, pareta, holako zabalerako pareta bat zun, holaxen pareta bakarra zeon zutik, dana txikituba. Ta nik hamabost urte itteko nittun oaindikan. "Claro", urte hartan jun nitzan ta.
 - Gernikakuan berri nola izan zenduen?
 - E?
 - Gernikakuan berri nola izan zenduen? Nola aittu zenuen?
 - Hemen nola aittu gendun?
 - Radiyoz segitzen ziñuen eo nola?
 - Bai, periodikuan, baiño gezurrakin, dana. Hemen, periodikun jartzen zun "mira, los rojos que han quemado Gernika" ta, dana hola itten zuen, dana gezurra. "Los rojos habían quemado". Ta nere izeba zanak, harek nei mutil koxkorra ta "mira, mira los rojos lo que han quemado", ta periodikuak utzi, ta sutan ta hola. Geo handikan urteta, beste osoba, aittan anaiya, hari esan niyon, "hola ta hola izebak [...] zian nei". Nik orduako banekin zenek erre zittuna, "hola ta hola esaten zian". Meka... Hasarretu zan hua; Rikardo, aittan anaiya; Labordenian aitzen zan hua're ta "esatia zia nei, esatia esan nahi nian, alkantarilla zuluan sartuta eondu nintzanen bonbardeoko garaiyan". Hua alkantarillako zuluan sartuta, gordeta. Bakizu, itten zuen bonba bota ta ametrallatu goitik behera, ametrallatu itten. "Esatia zia nei gorrik erre zuela!"

6.14. Gernikako bonbardaketatik babesteko, zuloan sartuta

- **Hizlaria(k)**: Ganzarain Ansa, Gurutz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-045/020
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:39:50. **Bukatu**: 00:40:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Gernikan bonbardaketa izan zenean, Gurutzen lagun bat han zen: zulo batean egon zen gordeta etzanda. Bonbardaketaren eguna feria eguna zen Gernikan.

Transkripzioa

- Gernika aldian, bonbardaketa eta, bueno, Gernikan ta beste herri askotan bonbardatzen...
- Gerniakua bezelakoik ez. Ni ez nitzan han bonbardatzen. Ni geo jun nitzan.
- Ordun, jende asko're ihesi zihoan Santander aldea eo?
- Nere laguna, oain dala urtebete hil zan, beste bat, Bixente, hoixe korrika ta ibiltzen zana, famosua zan hoi. Ta hua're mutil koskorra han harrapatu. Ta harek hala esaten zian nei, hil baiño bi hillabete lehenaotikan, hizketan alkarrekin ta hala esaten zian: hua zulo batian eondu omen zan, hola zulo bat ba omen zan ta han etzanda eon omen zala hua. Han Gernikan harrapatu hua're.
- A ze txikiziyua izango zan ordun.
- Bai. Danak [...] sartuta ta Don Eugenio apaiza hemengua zana, hua're bai, beste alkantarilla batian sartua hua're, ahal zun tokin. Gaiñea, feria eguna izan bihar zun ta, feria galanta, jendia besteik ez zan, ta jota goittik ametrailladorakin botatzen omen zittuen.
- Abiona handik ta abiona hemendik.
- Abionetak. Preparatzen haik orduako.

6.15. Kartzelako agonia "libertad absoluta" emango ote zieten beldur

- **Hizlaria(k):** Ganzarain Ansa, Gurutz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-045/022
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:41:19. **Bukatu:** 00:43:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Aita ia fusilatu egin zuten. Ondarretako kartzelan fusilatzen zituztenei ez zieten apaizarekin konfesatzen uzten hil aurretik. Errekete fin bat horretaz enteratu zenean, orde, denek izan zuten apaizarekin egoteko aukera hil aurretik. Aitarekin kartzelan izandako mutil gazte bati buruz hitz egiten du Gurutzek. Kartzelako en eguneroko agonia kontatzen du Gurutzek: "libertad absoluta" esaten zieten fusilatzaera eramaten zituztenei.

Transkripzioa

- Gure aitta're afusilatzeko sartu zuen. Gaiñea, esango dizut, Ondarretako kartzelan, afusilatzen zittuen konfesatu gabe; ta "un sacerdote, un sacerdote" eske hola ibiltzeko ta gabian, "sacerdote, sí, pa' vosotros", gabian geo hamabitan, patiyuan akatzen omen zituen. Ta kartzelan, Ondarretako kartzelan, hoi aittai aittuta daxkat e? [...] builla ta eskandalo pixkat han, ta reketen bat nunbait fiña izan hua, ta harea jun ta ikusi du hango [...], "¿qué pasa aquí?, ¿qué pasa aquí?", "que nada, que les están afusilando sin confesar", "¿Cómo?" "Y tal". Harek multu omen zun, handikan aurrea afusilatzen zituenak konfesatuta hiltzen omen zittuen. Ta

gure aittak esan zun, nei esan zian, asturiano gazte bat emen zan; hua're afusilatzeko, ta hala esan zuen gue aittai "a mi madre, a mí ya me enseñó a rezar". Baiño hua're komunistakin ta ibiliya. Gaztia e, mutil koskorra oaindik, hamasei-hemezortzi urte o hola izan bihar zittun, gaztia. Ta harek hala esan omen zun "a mí, mi madre ya me enseñó a rezar, pero". Ta gure aitta gau guztin harekin errezuan aittu omen zan, gau guztin. Ta aittak ekarri zun geo harek emandako pluma estilografika bat zun, harek "esto ya no me hace falta mí", ta kazadora gamuzazko larruzko bat. Nik denboa askon ibili nun kazadora hua geo, haren rekuerdia ta; geo desaparezittu zan hemen, kazadora gazte harena; "mi madre ya me enseñó a rezar" baiño... Handikan aurrea konfesatuta hiltzen emen zittuen. Baiño txarrena emen zan, gaba aillegatu, eunez lo itteik ez, ta gaba aillegatu ta "hoy me va tocar a mí, hoy me va tocar a mí" ta loik ezin in. Zea, deitzen emen zuen gaban hamabitan, "fulano tal, fulano tal, libertad absoluta", "menuda libertad tengo yo". Gabian, geo, tiruak patiyuan. Hurrengo eguna aillatzeko, ta loik in be. Gauda aillegatu ta loik ezin in.

- "Libertad absoluta"?

- "Libertad absoluta" bai, "libertad absoluta" patiyoa ta afusilatu. Hori esanda ateatzen emen zittuzten; "venga! Fulano de tal, fulano de tal: libertad absoluta", "sí, menuda libertad tengo yo", "al patio", "descarga".

6.16. Gerra eragin zuten kausak eta pertsonak

- **Hizlaria(k)**: Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-047/011
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:21:56. **Bukatu**: 00:23:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena**: 1936ko gerra zergatik sortu zen azaltzen du: Espainiako gobernuan ezkerre zen nagusi, eta militarrek estatu-kolpea eman zuten. Hori egiteko, Francok eta Molak sortu zuten armada: Francok Afrikan eta Molak Iruñean.

Transkripzioa

- Erramun, ze izan zan hogeita hamaseiko gerran?

- Bai.

- Zergatik sortu zan?

- Hogeita hamaseiko gerra izan zen, Espaini mailan gobernu sozialista zeon nagusi. Sozialista hoik zian republikanoak, komunistak laguntzen zieten. Bazian beste politika mota batzuk'e, anarkistak eta abar. Ezkerraldeko taldeak elkartuta zeon Espainiako gobernua. Eta militarrek ez zauden konforme gobernu horrekin eta esaten dan bezela "golpe de estado" egin zuen. Hori egiteko ba Francok organizatu zuen Afrikan ejerzito bat, guda talde bat eta bestalde, beste buruzagi militar buruzagi batek, Mola izenekoak, Iruñan osatu zuen reketeak eta karlistak eta talde hortako jendeakin beste talde bat.

6.17. Belabieta mendiko sarraskia

- **Hizlaria(k):** Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-047/012
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:23:16. **Bukatu:** 00:25:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Francok eta Molak planifikatu zuten estatu-kolpea, horrela, Espainiako agintea lortzeko. Belabieta mendian (Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan) izan zen lehenengo sarraskia. Gudariek ez zuten gerrarako antolamendu sistematikorik, etxez etxe arma bila joaten ziren. Sarraski hartan hil zen lehenengo pertsona andoaindarra zen.

Transkripzioa

- Eta biak "de acuerdo" zauden, bai Franco eta bai Mola "de acuerdo" zauden biak zean Espainian estatu-golpe bat emateko eta gobernu hori bota eta beak gobernatzen jartzeko. Bueno; hori egiteko ba Molak, esan dedan bezela, Iruñan osatu zuen guda-talde hori ekainaren, este...
- Uztailaren.
- Bai, uztailaren hemezortzian atera zan Iruñatik. Belaxe, hor badao mendi bat, Belabieta izena duena, mendixka bat Gipuzkoa eta Naparron artean muga egiten duena. Salto batean iritsi ziren horrera, zergatikan Naparroan, bera naparrak nola ziren ez zuen oztoporik izan eta hor izan zan lehenbiziko sarraskia. Hor aurre ein zioten hemendikan gudariak, gudarik zian borondatez gerrara, gudarako prest jarri zirenak. Gero, herriko beste zenbait abertzale eta alde hontatikan'e bai. Ezker aldeko jende batzuk ere bazian alde hontatikan. Baina, ezerren organizaziyoik ez zuten, gerra tresnikan'e ez zuten. Baserriz baserri ibili ziren, eskopetak eta zian tresna guztik biltzen. Gure etxetikan ere eskopeta bat eaman zuen. Etortzen ziran, sartzen ziran barrena ta "'aber, eskopeta hori honuntza!", eta "ba, ez dao eskopetaik", eta "ze ez dezuela?". Sartu ta miatzen zittun ta billatzen baldin bazuen bronka galanta bota ta kuestiyoa eskopetak eta kartutxoak eta ahal zituen guztik eraman iten zituzten. Eta hoik zien erabili zituzten armak beste hoién kontra. Klaro, hoiyekin zer eiñikan ez zeukaten eta ez dakit, bi eo hiru egun ez zuten iraun. Hor izan zen, sarraski horetan izan zen lehendabiziko hilla, guda hortan, hogeita hamaseigarreneko guda hortan lehendabiziko hilla eta bera andoaindarra, andoaindarra zan bera. Eta, bueno, zaurituak'e izan ziren eta hortikan aurea ba belaxe, belaxe ziren Andoainen, Andoainera belaxe sartu ziren.

6.18. Borrokako zaurituak eta hildakoak nora?

- **Hizlaria(k):** Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-047/014
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:32:02. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

- **Laburpena:** Buruntzan izandako borrokan hildako eta zauritu asko egon ziren. Zaurituak sendatzeko nora eramaten zituzten azaltzen du. Ospitale haietan nazionalak bakarrik sartzen ziren.

Transkripzioa

- Buruntzan, barkatu Erramun, Buruntzan han izandu zan ba enfrentamendu horretan hildakoak eta izango zian?
- Bai, bai. Hildakoak baziren, zaurituak asko. Egunero ikusten giñuzen Gurutze Gorriko kideak nola jeixten zituzten kamilletan eta, eta hemen Andoaiñen Kale Txiki eo deritzan inguru hortan jarri zuen, este..., holako ospitale edo sendaetxe edo. Han bazan, ospitala deitzen zion hortan bazan zee adiñekoan etxe bat. Orain ere han dago etxe hori eta han ere jarri zituen ohiak eta gaixo zaudenak eta bueno, hor hor erabiltzen zien, eta hillak ekartzen zituztenak beren etxeeta ta bialtzen zituzten eta zaurituak, berriz, sendatu artean eta gerrak eta ekartzen ditun gauzak.
- Han ospital hartan ez dakit, bi bandotako jendia bilduko zen, edo hoi zailla zen?
- Ez, ez. Nazionaletakoak. Besteak ez dakit nola ibiltzen ziren. Besteak, akaso, baten bat edo baino oso gutxi. Besteak larri ikusten zian unean alde egiten zuten, ikusten zuenian ez zakatela ze eiñikan, okerraoko zerbaiz gertatu baiño lehen alde ein egiten zuten.

6.19. Gerrako salatarien erantzukizuna

- **Hizlaria(k):** Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-047/016
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:39:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerran salatariak zeresan handia izan zuten nor hil aukeratzean: karlistek salatzen omen zituzten abertzaleak. Andoainen 17 gizon hil zituzten. Hernanin apaizak ere hil zituzten.

Transkripzioa

- Han garbittu edo afusilatzen zuten jende hori, hori nola aukeratzen zen edo zeinek salatzen zun bata bestia, nola zan?
- Hoik, hoiyek informaziyua ez dakit nundik izango zuen. Parte bat, parte bat Euskadin ere nahiz gehienbat abertzaleak izan, karlista jende asko zan. Zeatikan abertzaletasuna edo Partidu Nazionalista izan zan, karlismotikan irten zan, atera zan alderdi bat eta karlista hoiyek ezagutzen zituen, zituzten han karlista izan eta abertzaletasunera pasa ziran kideak eta ezagutzen zituzten eta, karo, ezagunak ziran. Ta hoiyek denuntziatzen zituzten. Andoaiñen ere baziran bat edo beste holako gauzak egiten zituztenak. Klaro, hemen izenikan ez dao esateik.
- Ez, baiño bata bestiak salatutako jende hori, zerrenda azkenean luze xamarra izango zen.
- Bai, bai.

- Andoaingo salatutako pertsonena?

- Bai. Andoaíñen hamazazpi edo ziren. Bi ziren Urnietakoak edo zirenak eta beste Tolosakon bat edo're bai. Monolitua hor dao jarria, ez dakit ikusiko zendun. Izen guztiekin hor dao jarriya. Eta, baiño Hernanin, Hernanin berrogeitamar eo gehio, asko ziren, Hernanin asko ziren. Baziren apaizak eta, baziren apaiz euskaldunak, apaiz jatorrak. Geroztikan, haiyen historialak eta badauzkat hor nunbaitte zirenak; eta harrapatzen zuen guztiya zeatzen zuen. Ez zan, ez zan ezerren zeik izaten eta gero Andoaindikan horri eskapatzeagatikan igesi joandakoak harrapatzen zituzten hor eta espetxeratu eta. Bueno, hor historia asko dao esan, aipatu ezin leizkenak edo gertatzen zirenak, nik badakixkit bi edo hiru. Hormaren aurrean jarrita hola zaudela salbatutakoak eta, bueno, hoik ikaragarri luze jungo litzateke hoik danak aipatzearren.

6.20. Gerrak zatitu zuena gizatasunak batu

- **Hizlaria(k):** Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-047/019
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:47:06. **Bukatu:** 00:49:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Karlistak eta nazionalistak zatituta egon ziren gerrarengatik. Frontea Andoaindik pasa ostean, karlistak eta armada ziren nagusi; baina herritarren artean elkarri laguntzen jarraitzen zioten, nahiz eta politikan aurkako bandoetan egon.

Transkripzioa

- Baita ere, baziran hemen garai hartan karlistak zirenak, eta nazionalistak. Klaro, nazionalistak eta karlistak hoik zatituta gelditu zien eta famili berean aitta karlista, semea nazionalista, beste semea ez dakit ze. Dana hola zan. Eta karlistak behin frentea pasa zan ezkerro, karlistak eta militarrek zien hemen nagusi. Eta hoiyek nazionalistak zirenak atzetik zatozten, zeatikan hiltzailleak, fusilatzen ta ibiltzen zan batailloia atzetikan etortzen zan, atzerago etortzen zan. Hoiyek pasa ta geo iten zituen, hemen, ietten zittuen zirrizkada guztik. Eta haiyek etorri bitartean, beraiek, este..., karlistak nazionalista zirenak kotxean hartu eta, este.., mugaz beste alde igarotzen zituen, pasatzen zituzten. Ta hoi bertan bat etxetikan ikusi genduen, gure etxean aurrian, Buruntzaldean, zan etxe batekua, etxe bateko jabia zan, bankun lana itten zun eta, este..., hura nazionalista zan batek atzetikan zatoztenak iritsi baiño lehen nunbaite deitu in ziyon eta etxetik ikusi genduen kotxea kamiyoan etxe parian eta artasoro baten tartian korrikan nola kotxean sartu ta eraman zuan.

- Mugaz bestaldera?

- Bai eta holako gauzak asko eitten zixkioen, batai-besteai laundu iten zioen nahiz politika aldetikan izan. Herritarrek zirenak, herritarrek zirenak eiten zituen. Klaro, atzetikan etorri ta hemen gelditu zirenak, bueno, larrutik ordaindu zuen askok; eta horrelako gauza asko ikusten zan. Ba danak bildurrak.

6.21. Koltxoiak gerrako baletatik babesteko

- **Hizlaria(k):** Ansa Zinkunegi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-047/020
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:49:17. **Bukatu:** 00:50:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Beldurra pasatzen zuten gerran. Oheko koltxoiak leihotik zintzilik jartzen zituzten balatatik babesteko. Baserriko ganaduarentzako lanak ilargitan egiten zituzten.

Transkripzioa

- Etxian egoten giñan gu, egunez ohieko koltxoiak hartu ta leihotan goitikan behera zintzilik jarri ta esaten zuen balan bat eo, kristala puskatuta sartu ezkeo koltxoi hori sekula ez zuela pasatzen, hor indarra galdu iten zula edo, hori esaten zan. Goizian jeikitakoan hartu koltxoiak eta zintzilika jarri lehendabizi. Gabian illuntzen zunean kendu ta ohiera. Eta, klaro, basarrin ganaduak eta haiantzako janak eta ekarri in behar ziren eta eguzkietako ordez illargitan eiten giñun lanak, illargitan eiten giñun lanak, korrika ta presaka. Pronto-pronto eon ta oaintxe illuntzen zun, ta benga danak; batzuk ganauantzako ekarri, bestiak etxerako bihar zienak ekarri, bestiak esnia eraman, danak hola ibiltzen giñen, hola ibiltzen giñen.

6.22. Errazionamenduaren alderdi administratiboa

- **Hizlaria(k):** Artano Arruabarrena, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-055/012
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:16:37. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Errazionamenduko gorabeherak: kartilak, kontabilitate-liburuak... Noizean behin, kontuak begiratzera etortzen ziren.

Transkripzioa

- Ta ez dakit zenbat gauza gehiyo etortzen zian razionamenduan... A, eta gero kartillak. Bakoitzak zun bere kartilla. Kendu behar zendun kupoya eta hori dena.
- Hortan ibiltzen ziñan zu?
- Bai. Bai, bai, bai. Iten nun hori eta gero haiek ordenatu... ordenatu ere bai, baiño ordenatu gehiyo eta liburu batian kontabilidadia eman nere ahizpa zaharraguak iten zun. Eta gero, rebisiyuak egoten zian.
- Zein etortzen zan rebisiyua itea...
- Ba, "abastos" edo ez dakit nola deitzen zan... "de abastos" edo holako zerbait. Bai. Aber ondo zeuzkazun denak. Bai, bai.
- Ze etortzen zan e... inspektoren bat edo?
- Bai. Bai, bai. Bai, begiratzen nola zegoen.

6.23. Errazionamenduko olio jasotzean, purrustadak

- **Hizlaria(k):** Ansa Goenaga, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-063/007
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena:** Zalgurdiarekin asko ibilitakoa da Migel, baita kalera joateko ere. Errazionamenduko jeneroa jasotzean, olio asko tokatzen zitzaien, senide asko zirelako etxean; eta herriko emakumeak purrustaka egoten ziren, dena eramango zuen beldurrez. Gerra ostean, olio gutxiago zegoenean, txerriaren gantza erabiltzen zuten sukaldean aritzeko.

Transkripzioa

- Eta ni zaldi-karruakin —zaldi-karrua o gurdiya o dalako horrekin—asko ibiliya naiz. Kalea ´re enkargutaa ´re bai. Enkargutaa ´re etorri Kaletxikia ta Kaletxikin kooperatiban garai hartan, razionamentua zan garaियian-ta, joe, ni gogoratzen naiz andriak, hola... oliyua ematen zigun, ta gu asko giñan ta oliyo asko tokatzen zitzaigun guri. Eta: "Danak honek eamango dizkiu! Mutil koxkor hau...! Honek danak eamango dizkiu! Gutzat ez da izango!", ta esaten ziyen kooperatibakuak: "Lasai, lasai, honek tokatzen dana bakarra eamango du ta. Tokatzen zaiyona. Asko dia hok eta". Osea, nik hoi, gerra ondoko urte gogor hoik, asko ezautu dittut. Asko, asko bizittu naiz.
- Ordun kartilla o izango zenden...
- Bai, kartilla. Ta tokatzen zan honbeste litro familiko. Honbeste giñan ta honbeste. Bai, bai, dana legezkua zan. Baiño jendiak ordun zakan bildurraikin "oliyua gutzat ez da izango" iñez ta. Joee.
- Oliyoik gabeko urte hoik-eta nolakuak izandu zian?
- Ez dakit, oliyua bazan. Nik ez det ezautu oliyoik gabekua. Oliyua gure etxian izaten zan. Gero txerriyan zeakin, gantzakin, o txerriyan mantekakin ta nolabaitt hola moldatzen zian. Basarrietan ez zan problemik izaten; nik uste det ez zala... Kalian izango zian problemak. Izango zian, bai.

6.24. Bigarren epaiketari jakin zuten zergatik epaitzen zuten

- **Hizlaria(k):** Amutxastegi Aranzabal, Joxeba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-067/018
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:42:21. **Bukatu:** 00:44:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepublikanoa
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** Aita kartzelan sartu zuten, eta bigarren epaiketa egin ziotenean jakin zuten zergatik eta nork salatu zuten.

Transkripzioa

- Ta kartzelan sartu zeatik in zuten?

- Joe, ba bai, esango dizut. Aurrenekoan ez genikin baiño biarreanean bai. Sartu zuten zazpi, eta gure etxeko goiko bizilaun bat zan maixua. Ta zakan seme bat Legiyuan (Legión) ta beste semia fraile izanduba zean zakan, militarretan, alfereza, "como alférez". Ta hua're hari're denuntziya zun "maestro sin dios". Republikak eman zun ordena kentzeko gurutziak eskolakuak ta harek obeditu zun. Baiño ez, baliteke igual ez zan ezer baiño republikanuan... Ta bueno, sartu zuten kartzelan. Juiziyua atera ta hari're hoita hamar urte. Ta etorri zan fraile hoi, semia ta hasi zan maitzen. Joe, ta "renovación de juicio" kontsegittu zun. Biarreanian, "la renovación" nahita nahi ez, denak jun zian, zeak, denunziantiak jun zian ta ordun jakin giñun zein zian denunzian, tiak, ze ze denuntzi zian eta horreatikan. Fraile horrek, gure bizilaunak, harek zakan "denuncia de maestro sin Dios". Ta horreatikan hoita hamar urte eman zituen e. Gure aittak, berriz, zakan "por reuniones clandestinas en la barbería". Ta horreatikan eman ziyoen hogeita hamar urte. Ta jakin giñun zein zian. Bizilaun horrek, harek maitu zunak zakan ba... Agirre zan, Subijanan lanian iten zun, baiño karlista, denuntziya.

6.25. Aita salatu zuena oso gertukoa zen

- **Hizlaria(k):** Amutxastegi Aranzabal, Joxeba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-067/020
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:47:08. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepublikanoa
- **Laburpena:** Aita bilera klandestinoak egiteagatik eraman zuten kartzelara. Salataria aitaren aitajaunaren semea izan zen. Lehen herritarren artean lagunagoak ziren.

Transkripzioa

- Nere aittak zun denuntziya, "si esto..., reuniones clandestinas". Ta zein zan denunziantia? Nere aittan aittajauna, haren semiak. Nere aittan aittajaunak, haren semiak denuntziatu zun.

- Familikua zan?

- Ez, ez, ez, ez. Aittajauna ordun ez zan. Hi, horreatikan esaten dizut, krixton kanbiyua eman deu bizimodun e zea, denak launak zian, zea amistadia eo: "Hi familiya izandu dit eta nahi al dek izan aittajauna?". "Bai!". Aittajauna.

- Familikua ez baiño launa.

- Nere aittoan launa. Ta zer jarriko diogu, ta Estanix. Hola, hola zian gauzak ordun.

- Ez zan arrazoi haundirik behar ordun batek bestia... Ezin ikusiya eo zer zan?

- E... gaztia. Nere aittajaunan semia gaztia; ta ze? Zea ordun in zuen zeak falangista ta ez dakit ze ta badakit zer ta. Denda aurrian ta semiak denak atea zian ba karlistak. Enkanbio, gero haren arreba ezkondu zan nazionalista batekin. Ta tira, hola zian gauzak.

6.26. Umea izanda ere, gerran sufritutakoa

- **Hizlaria(k):** Amutxastegi Aranzabal, Joxeba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-067/022
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:51:42. **Bukatu:** 00:53:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Nahiz eta gerra garaian umea izan, asko sufritu zuen Joxebak. 11 urte zituztela, komunio handia egin zutenean, Joxe izena hartu behar zuela esan zioten.

Transkripzioa

- Ta gaiñeakoan Joxeba zuek umiak ziñaten?

- Bueno guk asko sufritu giñun, nahiz umia izan. Nik in nitun zortzi urte-beatzi hoik sartu zianen, zortzi urte t'erdi eo hola. Eta Bilbo hartu zuenian ta ordun ordun ordun asko sufritu giñun guk. Ba komuniyo handiya itean iteakuan ordun'e zea gaztiak giñen. umiak giñen baiño dios!, dena, hoi dena sartzen zian burun. Nei Don Kostantino, ordun zan Don Costantino Laskibar.

- Apaiza?

- Apaiza hemen. Ta komuniyoa hamaika urtekin iten giñun. Zazpikin ttikiya ta haundikin haundiya hamaikakin. Jun giñan zeatik, ta aber, ez naiz ahaztuko sakristin sarreran atian onduan Don Kostantino apuntatzen, zeñek in bihar giñun komuniyoa. "A ver, ¿Cómo se llama, cómo se llama?" "Joxeba Amutxastegi Aranzabal" "¿Cómo, cómo?" "Joxeba Amutxastegi Aranzabal" "¿Cómo, cómo?" "Joxeba Amutxastegi...". Joe, momentutik momentua boz altugua, ez al dik ba aitzen honek? "¡Esos cuentos de Joxeba se terminaron. De aquí adelante te llamarás Joxe!". Hamaika urtekin. Hoik barrenen gelditzen dia, batzuidi ez zaio inportik baiño nei ordun ordun'e bai nei inporta zizaten. Hoi, Don Kostantino.

7. Euskara

7.1. Andoaingo euskara eta inguruko herrietakoa

- **Hizlaria(k):** Muñagorri Muñoa, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-021/029
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:49:41. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** 35 urte zituela ezkondu zen Hernanira. Euskara ez da aldatzen Andoaindik Hernanira; bai, ordea, Goizueta aldera, Eibar aldera, Goierri aldera...

Transkripzioa

- Zu Andoaindikan ezkondu in ziñan Hernanira.
- Hernania.
- Zenbat urtekin ezkondu ziñan?
- Hogeita hamabost urtekin.
- Eta hemendikan Andoaínea nabaritzen al da euskeran diferentziya?
- Ez, Andoaínea ez. Goizutaa ta hoitaa bai.
- Zertan nabaritzen da Goizuta aldea?
- E?
- Zertan nabaritzen da Goizuta aldea?
- Beste zea bat, beste doiñu bat ematen diyela.
- Ta Aranoa, esate bateako?
- Igualtsuk izango dia Arano ta... Arano gutxiyo, e. Goizuta oandikan... Arano gutxiyo, hemengo tankeraa Arano.
- Hemendikan Astigarraga aldea ta hola aldatzen al da?
- Astigarragaa ez. Behin Oiartzuneako ganbiatzen dala uste det, bai, pixkat.
- Han´e doiñua?
- Bai. Gero Bizkai aldian ta hoitan ta. Eibar aldea, ta hoitan ta. "Bentania" ta.
- Ta hemendik Tolosa aldea ta?
- A! Behin Goierria ezkeo hor´e ganbiatzen da pixkat, e! Tolosa arte igualtsu. Handi aurrea.

7.2. Urteko hilabeteen izenak

- **Hizlaria(k):** Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-024/049
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 01:05:44. **Bukatu:** 01:06:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Euskara » Lexikoa
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Hilabeteak esaten ditu. Lexikoa.

Transkripzioa

- Ilbeltza, otsaila, martxua, apirilla, maiatza, ekaina; ekaina hoi bai esaten zan; baiño hurrenguk; julia, agostua, setiembre, oktubria, nobiembre eta abendua. Guk hala ikasi gendun, guk hola ikasi gendun. Eta oain ibiltzen naiz nahastuta.

7.3. Andoaingoa, euskara garbia

- **Hizlaria(k):** Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-024/051
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:06:37. **Bukatu:** 01:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Euskara non hasten den aldatzen: Tolosa aldean, Goierri. Doinua Zumaia aldean desberdina, Hondarribia eta Irun aldean ere bai. Andoaingoa euskara garbia da.

Transkripzioa

- Hemendikan kanpoa ateatzen danian norbaite, Andoaindik, Tolosa aldea eo, Hernani aldea eo, nabaritzen al da euskera diferentia?
- Tolosan, pixkat aldatzen da; Goierri aldea're bai. Badie, hitz batzuk baittue, nere amak bazittun hitz batzuk hemen Andoainen ez zeudenak, Goierrikuak. Bazittun hitz batzuk. Oain ez zaixkit etorriko baiño.
- Ta doiñua ta zerbaiten diferentia izaten al zuen?
- Doiñua gehio aldatzen da Zumaia aldian ta hortan. Doiñua hoi. Gu gainontzekuak [serenoguak] gea, hizketa eta sendogua deula esaten det nik. Bai.
- Baiño garbiya dela esaten da?
- Garbiya, Andoaingoa euskera da garbiya, garbiya da. Ez ni andoaindarra naizelako e, baizik ni besteiri entzuten diyot hizketan ta esaten det, hoi ez da nere euskera.
- Zumaia aldekoa, adibidez?
- Zumaia aldekoak eta Irun aldekoak'e bai. Irun aldekoa, Hondarribi-Irun aldekuak'e badittuzte bere hitz hola... Beak esaten due hitz polittak. Guk Goierri aldekuak zakarragua emen degula. Bakoitza geatzen gea gerenakin.

7.4. Euskaraz hitz egiteko lotsa

- **Hizlaria(k):** Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-027/020
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:41:56. **Bukatu:** 00:43:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak

Euskara » Euskararen egoera

Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

- **Laburpena:** Baserrikoei gehixeago kostatzen zitzairen gaztelaniaz moldatzea. Gaztetan ez zuten ohiturarik lagunartean erdaraz hitz egiteko. Baina garai hartan erdaraz hitz egitea kategoriaren seinale zen; nesken artean hika hitz egitea lotsagarria zen.

Transkripzioa

- Baserrikoai gehio kostatzen al zitzairen?
- Nik uste det baietz, nik uste det, nik uste det gu kalia eta gehiyo zeatzen giñala, zea, hola erderakin beti beti baten bat izaten zan ba, ta gehiyo zeatzen genula uste det.
- Ta zuk gaztetan ba al zenun ohitturikan erderaz hitz eitteko, lagun artian?
- Ez, ez. Ni, guk esaten deu gaiñea, nere edadekuak izango gea, izango giñan oain dala, oain dala hogeita hamar, oain dala berrogei urte izango giñan euskeraz erabat, kuadrilla guztiyak euskeraz, beti euskeraz iten genula, beti.
- Ta ba al zan kalia hola erderaz hitz ein nahiago, nahio zunikan edo? Erderaz hitz eittia hobia balitz bezela?
- Jode, kategoriya, particularmente emakume txoru hoik, "esas chocholiñas". Haik hasi zian ya erderaz ta hola, zea... Nere andriak, esaten dizuten bezela, hika. Baten bati esan, jolines! Hoi zea zan "una blasfemia" esaten zuen bezela.
- Hika hitz eittea?
- Hika hitz ein neskei ta euskeraz hitz ein, ez, ez. Erderaz, erderaz.
- Hura hobia?
- Bai, "señorita de postín." Nik euskeraz; "de castellano"..., erderaz, "castellano".

7.5. Irrati-nobelak eta 'Euskal Telebista'

- **Hizlaria(k):** Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-027/032
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:14:39. **Bukatu:** 01:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
 - Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- **Laburpena:** Irrati-nobelak Radio San Sebastián entzuten zituzten. Jendeak asko jarraitzen zituen irrati-nobela haiek. Denak gaztelaniaz izaten ziren. Euskal Telebista jarri zutenean, Martinen amak barre izugarriak egin zituen hango programak ikusten.

Transkripzioa

- Radiyuan esan dezu, irratin nobelak?
- Bai.
- Aitze ziala ta, ze ze kanal zian eo, zein zian?
- Radio San Sebastián, Radio San Sebastiánek zitun bi emisora eo hiru zittun, ta geo beste bat'e bazan, zea Madrikua eo zea ta, ta haitan. Batian nobela bat, bestian..., ta jendia ba al dakizu nola nola eoten zan radiyuan,

zea nobela hua zeatzen, "Ana Rosa" ta ez dakit zer ta badakit zer. Bueno, bueno! Sekulako... Nei ya ahaztu zaizkit izenak baiño-baiño ba al dakizu nola eoten zian?

- Euskeraz zerbait izaten al zan?

- Ez, ezta ezer'e. Euskal Telebista hasi arte ez.

- Ezta bertson batzuk edo?

- Ezer ez, ezer ez zuen iten. Euskera ez zuen... Geo zeatu zuenian, Euskal Telebista jarri zuenian aurreneko... Gue amak haik parrak in zittun gue amak! Joe... Haik parrak in zittun. Euskal Telebista jarri zuenian aurreneko zeatu zuen, ta aiba, zea hitz bat zaldikin, zaldi zea zakan kuadro zaldi kuadrak, ta mutilla, morroiya eo, t mutilla morroiya eo beltza, beltz-beltza ta hua euskeraz hitz eiten zeai nausiai. Gue amak: "Motel, motel hoi ez dek posible, hoi beidaiyok ze beltza dan, horrek euskeraz nundikan jakingo dik ba euskera...". (Barre). Gure, nere amak, nere amak "hua zea, euskeraz, hoi beltza-beltza dek eta horrek nola jakingo dik ba euskeraz, nundikan jakingo dik euskeraz, hoi ez dek posible, motel!".

7.6. Euskara momentu eta leku bakoitzean

- **Hizlaria(k)**: Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-027/035
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 01:19:12. **Bukatu**: 01:21:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Tratamenduak
 Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
 Euskara » Tratamenduak » Berorika
 Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Gaztetan beti euskeraz egiten zuten lagunartean, hika hain zuzen ere. Berorika gutxi erabiltzen zuten, maila handiko gizonekin bakarrik. Euskara berdina da Tolosatik hasita Donostia aldera. Goierri aldean desberdindu egiten da euskara. Azpeitia eta Zarautz aldean ere euskara desberdindu egiten da.

Transkripzioa

- Ta euskerakin seituz, zuek gaztetan beti euskeraz hitz eiten zenuen. Zuen artean hika ta hitz egiten zenuen?

- Bai, oain'e hika.

- Ta berorrika norbaitekin?

- Bai, baiño gutxi, gutxi. Berorrika ya zea bihar zun, oso oso ze haundiya; apaiza eo zea eo oso zea haundiya behar zun, bai. Oseake nibel haundiko gizona eo behar zun.

- Hemendikan kanpoa, Andoaindik kanpoa ateatzen zeanian, euskera non hasten da kanbiatzen, lehen aitu gea pixka bat hizketan baiño, hemen jasota gelditzeko. Hemendikan Tolosa aldea eo Donosti aldea eo, nola, non hasten da kanbiatzen?

- Esaten dizut, hemendikan Donostia Tolosa artian guk ez dakau igua-igual-iguala zeatzen deu nahiz Astiasun nahiz zean igual-igual, berdin-berdin [jarduten] deu. Akaso, izango da batian larunbatan partez zapatua esango duela? Baiño hoi ya bakiu, baiño zea, baiño igual-igual zeatzen deu.

- Handikan aurea ya edo, Azpeiti edo Goierri edo?

- Goierriin ya diferentia da, diferente esaten da, diferentia, dejia ta dana.
 - Bukaerak eta?
 - Bai. Ta bukaera. Nik esaten det 'aitta' ta haik esaten due 'aitte'. Ta 'ama', haik esaten due 'ame'.
 - Azpeiti ta kostalde hortan?
 - Kostalde hortan ta ere, behin Zarautzen, Zarautzen sartzean ya haik Zarautzen esatia, haik esango due, haik oaingo berriyahobeto dakie. Badakizu turismua udan, "pueblo turístico".
 -Ta zuk ezautzen dituzun euskera diferente hoikin, polittena, onena eo garbina?
 - Garbina, aizu, ni honekin ohittuba nao ta neetzako hau. Oain, bixkaitar batek eo zea han zea, nola esango nizuke, Motrikoar, mutrikotar bat haik ohituta, haiena izango da onena baiño; baiño Motriko ta Zumaia etorri ta nik Zumaiakoa nahiago det Motrikokoa baiño.

7.7. Euskara hitz egiteko lotsa

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-030/038
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:05:28. **Bukatu**: 01:07:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Lexikoa
 Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Beti euskaraz hitz egin izan du Rokek. Lehen, euskara gaztelania baino gutxiago zen lotsagatik, baserritar askok ez zieten seme-alabei euskara erakusten. Andoainen "mokolo" hitza erabili izan da.

Transkripzioa

- Ta euskerak ordun atzerakadaik izandu al zun? O zuek erderaz o euskeraz o nola manejatzen ziñaten ttikitan?
 - Gu euskeraz. Gu, gu gaztediya beti euskeraz aitu gea. Oain'e ni gehiyan euskeraz aitzen naiz e? Baiño nere lagunak ni bezela dakiye euskeraz, baiño erderaz beti jotzen due.
 - Ordun izaten al zan pentsatzen zunikan erdera gehiyo zala edo, euskeraz hitz ein nahi ez o izaten al zan?
 - Ba, batez ere basarritarrak.
 - A bai?
 - Basarritarrak esaten zuen. Nik ezautzen dittut, zea, basarritarrak euskeraz ez dakiyenak semiak. Amak eta're nolabaitte behintzat erderaz, zeatikan basarritarrak ordun tontuak bezela zian, tontuak, mokoluak Andoaiñen. Andoaiñen mokolua Andoaingo herriya da hoi, o hitza. Hoi da, "por ejemplo", Urnietan da iñozua. Tonto, nola esaten da, tonto. Ta Andoaiñen esaten da mokolua. Ta mokolua izen hoi're galdu in da Andoaiñen. Eta Etxeberrietako tabernatikan bakarra aitzen det, kartetan ai dianak "hi, mokolua!". Andoaiñen hor bakarra aitzen det, hitz hori. Hoi're galdu in da, mokolua. Hoi baten batek lehen aittu izan diyot, baten bati hola aittu mokolua, Donostin eta. "A, hi Andoaingua haiz e!".
 - Ta ordun, mokolo batzuk izaten zian ordun?
 - Oain'e bai, oain'e bai mokolua.

- Euskeraz baiño erderaz nahiago zuenak?
- Bai, bai; esaten dizut ba, gehiyenak baserritarrak.

7.8. Euskarari buruzko iritzia

- **Hizlaria(k)**: Artano Arruabarrena, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-055/024
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:34:26. **Bukatu**: 00:35:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: "Hizkera garbiei" buruzko iritzien ikuspegia adierazten du. Euskara batuarekin konforme dago, hizkuntza estandarra behar delako, hizkuntza normalizatu nahi badugu.

Transkripzioa

- Bat garbiya esan beharko bazenuen edo bat hola... politta edo garbiya edo dana?
- Ba, bai, ba, nei terminologi hoyek ez... ez... ez die konbentzitzen. Klaro, nik neria dut eta iruitzen zait garbiya dala, baino ni iñoiz ez naiz eongo e... esaten dunakin: "eske zuena ze politta dan! Guria askoz'e zatarrago da". Ez, jauna. Netzako hitz ein in bihar da eta kitto. Ta bakoitza berea. Eta ni euskera batuakin oso konforme nago e! Konforme nago e... gehiyen bat e... idazteko ta hola e... Euki dezagun zea bat hizkuntza guztik daukaten bezela. Nere iritziya e...
- Oso ondo.

7.9. Urnietako eta Andoaingo euskararen arteko aldeak

- **Hizlaria(k)**: Ansa Goenaga, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-063/002
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:00:41. **Bukatu**: 00:01:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Aita Andoaingoa zuen; eta ama, Urnietako Oiamar baserrikoa. Urnietako eta Andoaingo euskararen arteko aldeak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta, ba, aita etxekua gendun eta ama Urnietako auzoko Oiamarkua. Zeatikan auzoa itten da Andoaingo ta Urnietakin gure basarri hoi.
- Oso mugan dago, ezta?
- Bai, oso ondoren. Berton. Gu Andoainguak eta haik Urnietarrak. Eta, gaur egundu naiz gogoratzen, hitz batzuk bazittuen diferentziak. Adibidez, garuana. Andoaingo "garua" esaten deu ta Urnietan "iñixtorra".
- Hara!
- Bai, beti "iñixtorretaa", ta "iñixtorretaa" ta guk "garotaa". Eta ondokuak giñan, e! Juxtu muga tartia gendun. Eta hoi oso... Beste hitz batzuk e bai.

Txorin izenak-eta ´re bazian diferente esaten zienenak. Guk “etxolarra” esaten geniyona, haik “burloiak” esaten zien. Karo, nik lehengusukin asko tratatu nun, nere edadekuak zian. Eta... Bai. Hoi da ze diferentzi daon. Eta Urnietan badao oain e, elkarte bat “Inixtorra” jartzen diena. Bereziya da Urnietan esaten dan hitz hoi, ikusten danez. Bai.

- Eta zuen ama, ordun, ondoko baserri batekua?
- Auzoko Urnietako Oiamarkua, bai.
- Oiamarkua.

8. Aisia

8.1. Errespetua elkarri, tabernan

- **Hizlaria(k)**: Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-024/009
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:11:44. **Bukatu**: 00:12:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Musika
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Mojetan zortzi-bederatzi urterekin ikasi zituen abestiak frantsesez. Tabernan ere entzuten zituen kantu eta bertsoak. Errespetua zioten elkarri, eta bakoitzak nahi zuena kantatzen zuen.

Transkripzioa

- Ordun beatzi-hamar urte, monjetan frantsesetan nenbilen garaiyeen.
- Ta ikasten al zenuen beste batzokiyan ez zan beste nonbaite euskeraz kantarikan,, bertsoirkan edo ordungo kantaik eo?
- Ez, nik tabernan entzuten nittun bertsuak eta kantak tabernan, alde guztitakoak entzuten zian hor. Baiño bazegoen errespetua eta zeñek ze kantatzen zun iñor ez zan kejatzen e, bakoitzak beria ta kito. Ta oin hala bihar du, oin hala bihar du, bakoitzak beria ta kito; pakia izango baldin bada hoi biharko degu, bestela ez dago pakeik, ez da izango.
- Errespetua.
- Hoi da, errespetua alkarri.

8.2. Aranoko Martinen kontuak I

- **Hizlaria(k)**: Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-024/029
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:43:23. **Bukatu**: 00:44:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Musika
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

- **Laburpena:** Martin zuen izena Aranoko ikazkin gazteak. Bertsolaria zen. Senargaiarekin Aranora joan zenekoa. Zuaznabar txalapartariarekin joan ziren autoan.

Transkripzioa

- Hua zaharra zan. Martin, Martin zan gaztia. Martin "txilipitero" esaten niyon nik eta "zer dezu negarrez?" esaten ziten beak, abesti bat da hori. Eta "ez dut nik negarrik iten e. Baiña ni zu ikusita pozik jartzen naiz". "Gero bertson bat bota bihar dezu e". Gaiña, bertsolaiya zan. Bertsoa botatzen zun ta tartian puntaran bat botatzen ziten neri. Baiño ni oso gaztia nintzan ta nik ez nun ezer'e pentsatzen holakoik. Baiño gero, nere senargaiyakin Aranoa jun nitzanian, han tabernan aittatu niyon bati; ba nere edadia ez du, ni baiño bi urte gehixo eo hola ditu, eta nik ordun ezkondu baiño lehen nitzala uste det Aranon, senargaiyakin joanda, koadrilla joan giñan. Zuaznabar nola zan, zea jotzen...

- Txalaparta.

- Txalaparta jotzen eakutsi zuna, bakizu zuk Zuaznabar. Hori aita hori bazan, harek zun kotxia, harekin joan giñan gu, Zuaznabar. Andoaiñen bizitzen baitzan hori lehen. Ya hil da, gizajoa hil da..., ez, Donostin bizi da, Donostin bizi da. Alaba ikusten dut iñoiz. Donostira joan zan. Nik usten det hil dala. Gizon harek ya ehun urte ditu, hil zan, hil zan, hil zan. Gaiña uste det entiarroa joan giñala.

8.3. Pospolinak eta ehuleak

- **Hizlaria(k):** Roldan Iturrioz, Xalbadora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-024/046
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:03:28. **Bukatu:** 01:05:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Pospolinen jantzia entregatu eta ehulearena eman zioten, 14 urterekin. Atotxara joatekoak ziren, dantzara. Gerra hasi, eta aitagin erre egin zion jantzia. Hortxe bukatu ziren dantzak. Neska handiak, ehule. Arku dantza, sagar dantza...

Transkripzioa

- Xalbadora, eta nora joaten ziñeten pospoliñekin dantzatzea ta.
- Ba esango dizut. Pospolin trajia entregatu eta eman ziyoten hilanderana. Ya hamalau urte iten nittun gerra sartu zanian, hamalau urte itten nitun eta ya nitzan ya hilandera. Eta eman ziyaten traje berriya. Jun bihar gendun dantza ittea Atotxaa, San Sebastian, jun behar gendun dantza ittea. Ta ni nere traje berriya "con toda ilusión" han naukan, baiño ez nun traje berriik jantzi, ez nik eta ez bestek. Nere aittak su emanda erre in zian ta, hua disgustua!

- Ta Atotxa ez ziñan jun, baiño...

- Ez, Atotxa ez giñan jun.

- Beste norabaittea jun ziñen dantzatzea?

- Ez, ba gerra sartu zan ta ya gehio ez giñan jun, gehio ez giñan jantzi.

Bukatu zan pospolin-dantzak. Ta hilandera-dantzak bukatu zian.

- Ta pospolinetik hilanderara ze salto zeon?
- Ba gorputz haundigua ta dantzak'e haundiguak. Poxpoliñak beti atzeagotikan ibiltzen zian, hilanderak aurreagotikan joaten giñan ta neska haundiguak giñan. Ni gaiñea izandu naiz gorputz altukua; bai.
- Eta ze dantza iten zenituzten?
- Jartzen ziguenak; arku-dantza eta bestia xexto-dantza, buru gaiñian xextua hartuta.
- Arrantzaliana?
- Arrantzaliana ez, arrantzaliana bezela ez. Basarritarrena zan guria, sagarrak giñuzen gaiñian-ta, sagar-dantza zan, sagar-dantza. Ni ez naiz gauza itteko.

8.4. Batelak Oria ibaian

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: AND-030/018
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:34:49. **Bukatu**: 00:36:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Aisia » Kirola » Arrauna
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Festetan, auzoen arteko pikea egoten zen: batelak izaten ziren orduan, ibai izkin guztia batelez beteta egoten zen... Orduko anekdotak aipatzen ditu: behin batel bateko patroia erori egin zen, beste batzuk tranpa egiten saiatu ziren...

Transkripzioa

- Ta zeatan'e, festetan'e izaten al zan batzuk bestien kontra eo arraunian eo batelakin eo pelota partiduikan eo bata bestian kontra? Izaten al zen...
- Hemen, hemen bolak gerra bukatu ta gero, orain dala hogeitau urte eo, batelak izaten zian hemen. Eta barriyuak barriyuak izaten zuen "pikia". Zea, batela ttikik'e lau lagun ta patroia. Ta ateatzen zian Etxeberrietatik, bestia Zumeatik, bestia Basterotik ta bestia Kale Txikitik. Gero, berriz, hasi zan ya kanpotikan. Ya kategori gehiyo. Ya Tolosatikan ta ya Oriyotikan'e bai ta ya... Ta gero presak zian hemen, presa bakizu zer dan, presara bota zittuen ta ya ura jeitsi egin zan ta oain ez due iten.
- Baiño politta izango zan ikusteko?
- Joder, jende asko etortzen zan e, kanpotikan ta. Hemen ibai ixkin guztiya dana betia.
- Ez al zan izan bakarren batek buelta emateakuan...
- Erori zan Luziano hortxe zana, putzua erori. Zea, bea patroia zan, ta ez dakit arraunian indar gehiyegi in ta balantza in ta putzua erori ta igeri bazekin ta atera ta han geatu zan.
- Baiño aillatu gabe, buelta emanda, holakoikan?
- A bai, aurretikan aurretikan emanda, bai, bazan, bai, urte batian. Buelta hemendik eman beharrian, aurretik eman ziyola ta. Deskalifikatu in zittula ta.

9. Lanbideak

9.1. Irratiak saltzen hasi eta etxetresna elektrikoek denda jarri

- **Hizlaria(k):** Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-027/026
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:01:09. **Bukatu:** 01:03:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Irratiak saltzen hasi zen eta andregaiak ere laguntzen zion. Garai hartan, irrati-nobelak oso modan zeuden eta horri esker irrati asko saldu ahal izan zituen. Azkenean, etxetresna elektrikoek denda jartzea erabaki zuen.

Transkripzioa

- Geo saltzen nitun ta ematen ziaten, "un tanto por ciento", ya ordun geo zeu andregaia eo ya bastante zeatuta ta honek beak'e laundu ziten zeatzen, andriak. Han bee ingurun ta hola ta.

- Radiyuak saltzen?

- Bai, andriak esan "aizue, radiyua nahi det". Lehen esan dizuetena sekulako zeu bazan ordun nobelakin eta, atsaldian, zeu hiruretan jendia hasi [huan] ta jende asko zeu, hemen radiyua baldin banakan aldemeneko andria honeu radiyua aitzeta. Horrek "ya" ikusten zitun ta "aizan, zertako jun behar den horrena radiyua aitzeta?" "radiyua nei zeak Martinek, nobiyuak saltzen dixkin radiyuak ta harek ekarriko din radiyua. Ta gaiñea, igual emango din zeu, esto, sei hillabitian patzeko igual emango din sei hillabete". "Bai". "Ba bai, ezer zeatu gabe".

- Radiyo pilla salduko zenuen ordun?

- Jode, ikearri saldu, asko e, asko.

- Ordun "zinea juteko ta're?

- Joe, ordun zinema, ordun joe ordun nitzan "el más rico del pueblo" esaten dan bezela, jode... (barre).

- Ta hartatik hasi ta geo elektrizista?

- Hortik hasita elektrizidadia. Geo jakiña, gauza zeatzen zijuan, eboluzionatzen, ta ni [...] etxetik etxea. Ta denda jarri behar dit, ta denda jarri. Ta denda jarri elektrodomestikuak. Ordun ez zeon, elektrodomestikoik ez zeon, baiño plantxa elektrikuak bakizu, plantxa elektrikuak zeu plantxak zeak izaten zian berotu bihar zenunak txapan gaiñian. Geo elektrikuak, plantxa elektrikuak, hau dala hua dala, bonbillak, radiyuak, radiyuak eskaparaten ta hola.

9.2. 1965ean telebistak barra-barra saltzen

- **Hizlaria(k):** Zabala Agirre, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-027/031
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:12:40. **Bukatu:** 01:14:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon

- **Gaia(k):**

Lanbideak » Negozioak, dendak

Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

- **Laburpena:** Erretiratu arte eduki izan du etxetresna elektrikoaren denda. Denda baino lehenago, etxe hartan zineak zeuden. 1963-1964 inguruan telebista iritsi zen, baina leku guztietan ez zen ondo harrapatzen seinalea. 1965en, ordea, Andoainen errepikagailua jarri zuten, eta telebistak barra-barra saldu zituen orduan Martinek dendan.

Transkripzioa

- Denboa askuan euki zendun denda?

- Nik erretiratu arte ta oain seme-alabak daude, oain seme-alabak seizen due.

- Ze kaletan zenun denda?

- Hemen Calle Mayorrian, han aurrin, Calle Mayorrian, "Calle Mayor treinta tres". Ta nik denda jarri nun, denda jarri nun, aurretikan zea zan, zinia, Cine Iparragirre, ta frakasatu in zun ta hasarratu in zian. Etxea [bota] zuen, zinea ere bota zuen ta geo etxia in zuen. Ama, bai. Hamasei bizitzako etxia in zuen, hamasei bizitza, geo etxia in zuen ta behean, bajuba, bajuba ikearriya bajuba ta, jo... Aurrena ez, biarren denda jarri genun, biarren denda jarri genuna. Hua're txikiya gelditzen, alegiya, aurrenien ez zeukazun ezerre, baiño geo frigorifikuak, geo zeak, geo labiak, dana; telebisiyua dala... Telebisiyua're ya hasi zan hemen sesenta y tres, sesenta y cuatruan hasi zan hemen, ez zan ikusten ta zeatikan, esto..., zeatikan ikusi behar zan Bilbautikan, Bilbaoko zeakin "canal cuatro" handikan ta. Toki bat eo beste izaten zan ikusten zuna baiño... Sin enbargo kostaldian, Donostia aldian ta ikusten zan, nunbaite seiñalia itsaso aldetik etortzen zan, baiño hemen menditan ta, mendi tartian, mendik-eta [...] iten zuen, ta geo sesenta y cincuan Andoaiñen repetidora jarri zuen. Ta repetidora jarri zuenian, joe!, telebisiyuak "como churros", telebisiyuak saltzen, joe...!

9.3. Aitona mikeletea

- **Hizlaria(k):** Forcada Arrieta, Joxe

- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa

- **Erref:** AND-060/004

- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:04:56. **Bukatu:** 00:06:05

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Lanbideak » Polizia

- **Laburpena:** Aitona mikeletea zen. Erretiratu ostean, garbiketa-lanetan ibili zen. Mikeleteek "emakumeen lan" asko egiten zituzten etxean.

Transkripzioa

- Akordatzen al zea aittonan lan hortaz zerbaitte?

- Ez, ez naiz gogoatzen uniformez ikusiya nik aittona. Ez naiz gogoatzen. Baiño erretiratu ta gero, gerra denboran ta hola, liempieza `Caja de Ahorros´ana-ta beak itten zittun.

- Hara!

- Bai, badakizu mikeletiak-eta diputaziotikan ibiltzen zian, ta erretiratu zanian eman ziyuen, ba, garbiketak-eta itteko. Hoi gogoatzen naiz, nola... eske etxetikan bertan gendun `Caja de Ahorros´a ta nola juaten nitzan ni aittonana garbiketan aitzen zanian ta hola. Eske, hola, mikeletiak eta

guardak eta hoik “emakume lanak” asko in zittuen, e! Itten zittuen etxian. Ni gogoatzen naiz amonai... Jesus, amonai! Beti etxeko lanak eta beak... este... trapuba lurrekua beak pasa ta, ba, han ibiltzen zian, bai.

- Ondo ikasita zeuden ordun...
- Bai, ohitura hoi. Badakizu, bere serbiziya kunplittu ta gero etxera etortzen zian ta zerbait in bihar ta... Gero, baratza zakan, ta baratzen ta...

9.4. Bizartegiko tresnak eta ohiturak

- **Hizlaria(k):** Amutxastegi Aranzabal, Joxeba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-067/006
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:12:11. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Bizartegiko lanari buruz hitz egiten du: bizarra eta ilea mozten zuen han jendeak. Labana eta xaboia erabiltzen zituzten bizarra mozteko; ilea mozteko, guraizeak eta eskuzko makina.

Transkripzioa

- Eta nola izaten zan barberiko lana, jaboia ematea zan?

- Ba, e.

- Aurrenekua.

- Barberoa eo, jendia ordun ba barberia juten zan ba afeitatzea ta illia moztutzea. Oain illia moztutzea bakarrik juten dia, jeneralen. Baiño ordun, zea, afeitatu ta afeitatu ba nik bakarrik jaboia eman. Bestea labanakin, labanak bazian holakuak, ez dakit ba (da) katen hor. Gero ni labanakin afeitatzen nitzen baiño oain ez. Ta bueno, jaboia ematen nion ta. Jaboia ez zun beratzen, urak beratzen zun, entenditzen dezu? Bizarra; baiño ahaztu iten zan, bustitzen giñun baiño ba ta jaboia eman ta tak! Etortzen zian aitta ta bestia, ra!, moztutzen zun; gero, illia arreglatzen zuen eo illia moztutzen zuen. Ta...

- Labana hoik oso zorrotzak izan behar zuen?

- Ba eakutsiko dizut gero, uste det hor dakatela bat. Ez dakit, bota nun. Oain dala gutxi bota det e, bota balin badet. Zea, larrubai ematen ziyon pasta bat, ta pasta harek zorrotzu ez baiño bai, leundu baiño oso fiñak zian zeak, beste hoja, hojak baiño, igualtzu.

- Eta illia mozteko berriz, ze?

- Guaizek eta makina eskuz, oain elektrikoak die baiño eskuz, hola. Joe ta nekatu iten zan, ta ni bizkorra izandu nitzan hortan, bizkorra izan nitzan.

9.5. Andoainen 4.000 biztanle inguru zireneko bizartegiak

- **Hizlaria(k):** Amutxastegi Aranzabal, Joxeba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-067/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:19:41. **Bukatu:** 00:21:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon

- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Bizartegi ugari zeuden lehen Andoainen: non zeuden azaltzen du. Garai hartan 4.000 biztanle inguru bizi zen Andoainen.

Transkripzioa

- Gu hamalau, etxia hamalau. Haik hamasei ta hurrungoa hemezortzi tikigua; Martin Ugalde aitzera badakazu?

- Bai.

- Han, etxi hartan bizi zian beste barberua, semiakin.

- Zenbat?

- Hiru. Ta geroxego, geroxego; bai, urte batzuk geroxego gaztegua zan ta zea hor taberna Txuri-beltz eo ez, hemen e, hemen, Txuri-beltz. Bueno hemen, kali hontan, "calle Mayor" eo hau "calle Mayor" da zea, kamiyokua.

- Bai.

- Ta hor ataiya bado.

- Bai.

- Ba bi ate gerogo, beste barberiya jarri zun, Ostape.

- Bueno.

- Baserritarrak, bai. Bestia, beste barberiya zean, Basteron, Basteron; oan etxe berriya nola iten ai dia? Hor. Ta beste barberiya, Elixondonian. Ta beste barberiya Kale Txikin. Badia, e!

- Bai.

- Bat, bi, hiru. Hiru, lau, bost, sei. Sei nik dakixkitela.

- Bai.

- Ba asko zian.

- Bai, joe!

- Garai hartan Andoain?

- Lau milla persona eo holakon bat, lau milla ta bostehun eo.

10. Natura

10.1. Lehengo zabor-bilketa sistema

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Alkain, Roke
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** AND-030/035
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:00:44. **Bukatu:** 01:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena:** Kale-garbitzailea bazegoen lehen: zaldia eta gurdiaekin ibiltzen zen herri guztian. Ekonomia erabili ostean, erregaitik soberan geratzen zen harria biltzen zuen kale-garbitzaileak. Bestelako zabor organikoa oiloentzat izaten zen. Lehen zabor gutxiago sortzen zen. Zabortegia non zegoen azaltzen du.

Transkripzioa

- Ordun ze langille gehio izaten zen, izaten al zen kale-garbitzailleik edo?
- Bai, bai, bai. Zeakin ibiltzen zan, zaldiya ta karruakin ibiltzen zan herri guztin. Ta danok ekonomika izaten gendun ordun, ta jeneralian suba iten zan egurrakin. Diru pixka bat baldin bazan, ikatza're bai. Eta han geatzen zana, zea, ikatza baldin bazan, harriya geatu iten zan erre gabia ta hola ontzi txiki batian, lurrezko ontzi txiki batian hua, zea, kamiyo ixkiña hartu, basura guztiya hua izaten zan. Ta hue etortzen zan, barrenderua karrua ta zaldiyakin ta hua botatzen zun ta han uzten zun berriz ta aurea. Oso gutxi izaten zan basura, oain aldian. Basura guk'e oillua izaten giñun ta zea patata azalak, (...) hartu ta dana han (...) zan; azan sustarrak eta danak oillueidi. Oain aiña basura. Ta papera're, ez oain aiña paper ta.
- Gehienez'e, plateran bat hausten baldin bazan eo?
- Bai, holako holako zean bat. Bai, gaiñontzian basurik batez.
- Ta zabor hoi dena, basura hoi dena noa botatzen zenuen ordun?
- Ordun, basura zan Andoaíñen zean, [...]. Andoain, Villabona baiño lehentxeo, Andoaíñen hor soroa zan, kamiyotikan berrehun bat metroa ta han soro zabal bat eta harea botatzen zuen urtetan, harea botatzen zittuen. Ordun ez zan zeik; bakoitzak, herri bakoitzak beria beria zun ta harea bota ta su ematen ziyoen ta han erretzen zien.

11. Iritziak

11.1. Aitaren duintasuna pasatakoak pasa eta gero

- **Hizlaria(k)**: Ganzarain Ansa, Gurutz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhua
- **Erref**: AND-045/026
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:57:43. **Bukatu**: 00:58:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Gerrari buruzko gogoetak. Aitak pasa zuena ez lioke beste inori egingo.

Transkripzioa

- Anaian arteko gerra izan omen zan ta [...].
- Bai, anaian arteko gerra...
- Kasuak izango zian, etxe berian?
- Ez, ez. Anai arteko gerra, ez; hemen gerra... Bai, geo hemen... Ta etorri zianak? Franco etorri zan Afrikatikan, hua anai artekua al zun harek. Ixtorik. Gure aittak amai hala esaten ziyon: "Dolores", askotan hitz eiten zuen erderaz ta, "Dolores, lo que me han hecho a mí, prefiero que me han hecho a mí que yo hacerle a otro. Yo estoy tranquilo" esaten zun harek. Gaixtua zalako, baiño hil zanian elizan tokiyik ez jendiantzako, jendia kanpuan ta dana eliza dana bete.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eliza-dirua batzen baserriz baserri (AND-001/002)

Eliza-dirua batzen ibilia da baserrietan 50-60ko hamarkadan. Elizak izendatutako gizon batek biltzen zuen gero dirua eta elizaren gastuetarako erabiltzen zen. Baserrietan ongi-etorri beroa egiten zieten. Talde desberdinak ibiltzen ziren auzoka banatuta. Zehaztutako kopurua izaten zen eman beharrekoa eta erreziboak egiten zitzaizkien baserritarrei.

2. Apaiza soroak bedekatzera baserrietara (AND-001/003)

Apaiza, eliz mutilen laguntzaz, soroak bedekatzera joaten zen baserrietara. Isipuekin ur bedekatua zabaltzen zuen soroetan, erreztatzen zuen bitartean. Garia ere izaten zen, baina gehienbat arto-sailak izaten ziren.

3. Guraso eta aitona-amonen jatorria (AND-001/004)

Aita, izatez, Andoainen jaioa zen, baina Iñakiaren aitona Amasakoa eta amona Zizurkilgoa ziren. Ama Oriakoa zuen. Amaren aldeko aitona burgostarra zen eta handik omen datorkio Moraza abizena.

4. Aita zapataria; zapatagintzaren inguruko azalpenak (AND-001/005)

Aita zapataria zuen. Beraiek ez zuten askorik ikasi lanbidea. Osaba bat gazterik itsututakoa zuen eta hark laguntzen omen zion aitari. Zapatagintzaren inguruko azalpenak ematen ditu; zapatek hezetasunik har ez zezaten zer egiten zen. Gero "eztenarekin" josten ziren. Anaia batek lanbideari eutsi omen zion, nahiz eta gero Kutxan lan egitera pasa.

5. Kanturako zaletasuna familian (AND-001/007)

Musikarako zaletasuna izan dute familian. Solfeoa ikasten hasi ziren, baina ez omen zuten behar bezala ikasi. Kantatzeko joera handia zuten bai anaiek eta baita lehenengusu batek ere, tartean Nemesio Etxanizen kantak. Lehen tabernetan kanturako zaletasun handiagoa zegoen, baina pixkanaka galtzen joan da. Kantak liburu edo liburuxketatik buruz ikasten zituzten.

6. Gerra ostean sagar txortanak eta laranja azalak jateko prest (AND-001/011)

Gerra ostean janari falta zegoen eta gosea pasa zuten. Ama 30 urte ingururekin alargun gelditu zen 5 seme-alabarekin. Ez zuen inolako diru-laguntzarik izan eta zuten denda txikiarekin ateratzen ziren aurrera. Eguberrietan amonaren etxean elkartzeko ziren. Konpota egiten zuen amonak, eta mutikoak zain egoten ziren sagar txortanak jateko. Txerriak jaten zituen gauzak ere jaten omen zituzten, laranja azala, esaterako.

7. Gerra ostean esnearen ordeza ura; "morokillua" (AND-001/012)

Gerra ostean janari falta zegoen eta dendetan ere dena gastatu zen. Batzuetan esnerik ere ez zuten izaten eta ura erabiltzen zuten esnearen ordeza. Kafea txikitzearekin artoa txikitu eta "morokillua" esaten zioena egiten zuten. "Pan de higo" ere izaten zuten. Antzerkiak egiten zituzten lagun

artean. Behin zozketa batean untxi bat tokatu zitzairen. honen inguruko azalpenak.

8. La Salletik Laborde lantegira 1941ean (AND-001/016)

5 urte inguru egin zituen La Salle ikastetxean. 1941eko San fermin egunez 19-10 lagun Laborden hasi ziren lanean, lehen promozio gisa. Laborde lantegia nolakoa zen. Gerra garaian bonbardaketetatik babesteko sotoa ere bazuen. La Sallekoekin harremana izan zuen gero ere, bertako administrazioan lan egin baitzuen denbora batez.

9. Iñaki izenaren inguruko gorabeherak (AND-001/019)

Francoren garaiko debekuak. Iñaki izenaren gorabeherak. Erregistroko jatorrizko dokumentuan "Ignacio" izenaren azpian "Iñaki"ren arrastoak ikusten omen dira.

10. Gerra aurretik eskolak euskaraz; euskal kanta (AND-001/020)

La Sallen gaztelaniaz ikasten zuten, baina ez zieten zigorrik jartzen euskaraz egitearren. 1933-1936 bitartean euskaraz ematen zituzten eskolak. Horren frogatzat orduan ikasitako euskarazko kanta bat abesten du: "Bai ederra dala aberri maitea..." Gerra etorri zenean aldatu ziren kontuak.

11. Zenbaitek euskara beldurragatik galdu du (AND-001/023)

Bera umea zela euskara asko entzuten zen Andoainen. Baina gaur 50-60 urte inguru duten askok galdu egin omen zuten, beldurragatik. Zenbaitek euskarak zertarako balio duen ere galdetzen dute.

12. Senideek hika egiten zioten elkarri (AND-001/024)

Senideen artean hika hitz egiten zuten. Emaztearen aldeko familiak zukarako joera zuen, errespetu handiagokoa zela eta. Berorika ere hitz egiten zitzairen errespetu gehieneko pertsoneri, aitonei, adibidez. Kontua asko aldatu da.

13. Laborde lantegian hasi zenekoa (AND-001/026)

14 urterekin aprendiz gisa hasi zen barautsak egiten zituen Laborde lantegian. Hasieran eskolak hartu zituzten eta gero praktikak egiten zituzten. 400-500 langile inguru zituen orduan Labordek eta sail desberdinetan egiten zituzten praktikak. Bera delineaatzailea izan zen.

14. Laborde lantegi berezia: korua, mendizaletasuna... (AND-001/028)

Laborde lantegi berezia zen. Korua ere bazuen eta Gabonetan kantuan ateratzen ziren dirua biltzeko. Bildutako dirua ospitaleari ematen zioten. Mendizaletasuna ere orduan sortu omen zitzairen eta Mendizale Elkartearen sorrera Laborderi esker izan zela dio. Laborden sartzeko, gainera, andoaingarria izan behar zen hasieran eta La Sallen ikasitakoek zuten lehentasuna. Jendeak inbidia zien eta kanta bat ere atera zieten.

15. Laborde lantegiaren sorrera (AND-001/029)

Laborde lantegia 1927an sortu zuten pabilioi zahar batean alemaniar jatorriko bi anaiek. Injineruak omen ziren biak. Barautsak egiten zituen hasieran

lantegiak, baina gerora hainbat erreminta egin izan dituzte bertan. 1940-50eko hamarkadan alemaniarrekin bat egin omen zuen lantegiak.

16. Algodonera, lantegi zaharrenetakoa (AND-001/031)

Andoainen Algodonera (Subijana) zen lantegi zaharrenetakoa. Telak egiten zituzten bertan, maindireak, mahoizko arropak... 400-500 langile inguru izango zituen orduan. Gozokiak egiten zituzten denda ere bazegoen herrian. Pertsianak egiten zituen lantegia ere nahiko handia zen. Hasieran egurrezkoak egiten zituzten, baina gerora metalean ere hasi ziren lanean. Gaur egun galdu egin dira lantegi horiek.

17. Etxeetan dutxarik ez, baina Laborden bai (AND-001/033)

Orduan etxeetan ez zen dutxarik izaten. Bere jaiotetxean aska bat zegoela gogoan du eta han bainatzen ziren tomate poto baten laguntzaz. 1964 arte ez zuen dutxarik ezagutu etxean. Baina Laborde lantegian bazituzten dutxak ordurako.

18. Emakumeen lana Laborden eta tela-fabriketan (AND-001/034)

Emakumeak ere bazeuden lanean Laborden. Barautsak (brokak) egiteko makina automatiko samarra zen eta hura zaintzen egoten ziren emakumeak. Paketatze lanetan eta garbitasunean ere lan egiten zuten emakumeek. Tela fabriketan ere baziren emakumezkoak eta, gainera, lan horretarako egokiagoak zirela gizonezkoak baino esaten zen.

19. Andoaingo garbitokiak; kotxeak urri (AND-001/036)

Garbitokiak non zeuden Andoainen. Ibai ondoan ere losak egoten ziren eta hara joaten ziren emakumeak arropa garbitzera. Lehenbiziko garbigailua non ezagutu zuen. Bera umea zela ia kotxerik ere ez zen ibiltzen eta beraiek errepidean egiten zuten jolas.

20. Andoaingo garbitokiak (AND-001/037)

Andoaingo garbitokiak non zeuden.

21. Benito Arratibel aguzilak patat banatzen zuen alondegitik (AND-001/038)

Garai batean aguazil gutxi izaten ziren, 2-3 asko jota. Benito Arratibel aguazilaren inguruko kontuak. Patata egiten omen alondegian eta gero, Goiko parrokiatik jendea irteten zenean, bandoa irakurtzen zuen norbaitek patata behar bazuen alondegitik pasatzeko esanez. Alondegiaren egitekoa.

22. 1940-50eko gosetean 'Caritas'ekin behartsuei laguntzen (AND-001/039)

1940-50 bitartean gosete handia izan zen. Ordurako Caritas bazen eta bera ere laguntzen ibiltzen zen. Amerikarrek esne-hautsa eta gazta lata handiak bidaltzen omen zituzten. Esne-hautsa labadoran uretara botata egiten omen zuten esnea. Beharra zuen jendeari banatzen zioten gero jatekoa edo esnea. Sei urte inguru egin zituen boluntario gisa.

23. 25 urte gaixo taldeei laguntzen (AND-001/040)

Elizarekin lotuta, 25 urte inguru egin ditu gaixo taldeei laguntzen. Apaiz batek bera izendatu zuen arduradun. Ardura utzi zuen arren oraindik laguntzen ibiltzen da. Gaixoekin harremana ez da erraza izaten.

24. Andoaingo festa eta erromeriak (AND-001/042)

Andoaingo udaleko kultura zinegotzia izan zen eta herriko jaien antolaketan aritzea tokatu zitzaion. San Juanak eta Santa Krutzak ziren Andoaingo festa nagusiak. Lehenago San Ferminak ere ospatzen ziren. Erromeriak: San Esteban eta San Roke. Beste auzo batzuetako jaiak.

25. "Pepito Txurrerua": Pepe Andoain soinu-jolea (AND-001/044)

"Pepito Txurrerua" deitzen zioten Pepe Andoain soinu-joleari. Hala deitzen zioten txurro-denda zutelako. Berak umetan ezagutu zuen Pepe. Haren inguruko datuak biltzen ibilia da.

26. Don Jose Oiarzunek bultzatutako antzerki-taldea (AND-001/045)

Don Jose Oiarzun apaizak bultzatuta antzerkia egiten zuen gazte talde batek. Secundino Etxeberriak egiten zuen zuzendari lana. Herriz herri ibiltzen ziren antzeztzen. Taldeko partaideak izendatzen ditu.

27. Hainbat taldetako kide (AND-001/046)

JOC (Juventud Obrera Catílica) elkarteko kide ere izan zen. Belgikan sortu eta hona etorritako elkarte zen, garai batean Acciín Catílica deitzen zitzaiona. Gerora beste talde baten ere parte hartu zuen. Han egunkari pixka bat iraultzailea kaleratzen zuten eta bera zen egunkariak banatzearen arduraduna. Umeekin begirale gisa ere ibilia da.

28. Iparragirre zinema eta eliz-taldeen pelikulak (AND-001/048)

Elizako taldeen babesean, pelikulak botatzen zituzten. Bere arreba sarrerak saltzen egoten zen eta koinatua pelikula proiektatzen. Iparragirre zen zinema ofiziala. Hernanira zinera joateko joera ere bazegoen, han serieak botatzen zituzten eta. Dantzara ere gazte asko joaten zen.

29. Izebei ilea "zerora" moztu zietenekoa (AND-001/049)

Gerra garaian, Oriora joan ziren egoera pixka bat lasaitu arte. Itzuli zirenean, etxea prezintatuta aurkitu zuten. Komandantziara joan behar zutela esan zieten eta halaxe joan ziren bere bi izeba. Han ilea "zerora" moztu zieten, abertzaleak izatearren. Gero txapela jantzita ibiltzen ziren. Izebetako bat oso ausarta omen zen eta behin erreketekin joan zen kotxean Donostiara autostop eginda.

30. Gose garaian katuak harrapatzen zituzten jateko (AND-001/052)

Etxe atzealdean patioa zuten. Untxiak izaten zituzten patioan. Arratoiak ere ugari ibiltzen ziren eta batzuetan inguruetan zebiltzan katuak ere ez ziren ausartzen arratoi artera joaten, zuten tamainagatik. Beraiek gerra ostean gosea pasa zuten eta zenbaitetan katuak harrapatzen zituzten jateko. Katuak harrapatzeko nolako tranpak jartzen zituzten azaltzen du. Arratoi tranpak.

31. Anaiak ibaian barboa harrapatu zuenekoa (AND-001/053)

Ibaian aingirak harrapatzen zituzten jateko. Bere anaiak kordela jartzen zuen ibaian zerbait harrapatzeko asmoz. Behin barbo handi bat harrapatu zuen. Barboa hartu eta kordela han utzita joan zen etxera. Bitartean ibai ondoko etxeko oiloak kordeleko zizareari kolpe egin zion eta oiloa lepotik lotuta geratu zen.

32. La Sallen ikasitakoa (AND-002/005)

La Sallen ikasi zuen 13 urtera arte. Gerra ostean, eskola euskaldunik ez zegoen eta dena gaztelaniaz ikasten zuten. Lehen eskola asko zeuden Andoainen: hasieran, maistra euskaldun batekin ibili ziren; eta geroago, Irundik etorritako ikasleekin batera ikasi zuten. Mutilak bakarrik egoten ziren klasean.

33. Korrikan lasterketetan hasi zenekoa (AND-002/006)

Korrikan asko ibilitakoa da Patxi. Lehen denagatik konfesatu behar izaten zuten; behin konfesatzera zihoala, korrika-apustua egiteko eskaini zioten. Amateur sartu zen korrikalari, eta fitxatu egin zen orduan. Lasterketak irabazten zituenez, lehenengo kategoriara pasa zuten.

34. Soldadutzara joan bitartean, bere kabuz entrenatzen (AND-002/007)

Jarraitzaileak bazituen Andoainen. Soldadutzara joan bitartean, lan egiteko eta entrenatzeko bere kabuz moldatzen zen. Gerora, korrikan nabarmendu zenean, entrenatzaileak izan zituen.

35. Soldadutzan zegoela, nazioarteko lasterketara joateko izandako arazoak (AND-002/008)

Soldadu joandakoan, Espainiako txapelketa jokatzera joan zen Kataluniara. 6. geratu zen, baina militarra izateagatik ezin zuen Espainiatik atera; Madrila joan behar izan zuen baimena lortzeko. Andoain guztiak poza hartu zuen Patxik baimena lortu zuenean.

36. "Cross de las naciones" eta turismoa (AND-002/009)

"Cross de las naciones" zen orduko munduko txapelketa eta hara joan zen Patxi. Bidaia nola egin zuten azaltzen du. Gaztelaniaz nola-hala moldatzen zen, baina beste hizkuntzatarako interpretea izaten zuten.

37. Ezkondutakoan, lasterketak utzi (AND-002/010)

Fabrikan lanean hasi eta lasterketetan korritzen jarraitu zuen. Hernaniko eta Andoaingo kirol-klubetan ibili izan da. Ezkondu arte hartu zuen parte lasterketetan. Emaztearen urtemuga egunean ezkondu ziren. Urte hartan, izozte handiak egon ziren.

38. Neska-lagunarekin dena bekatu apaizaren begietan (AND-002/011)

Nobiotan ez zuten dirurik izaten. Konfesatzean dena zen bekatu, eta neska-lagunari estraperloan egin behar izaten zizkioten apaizari konfesatzen ez ziotena.

39. Andregaia ezagutu zuenekoa (AND-002/012)

Andregaia nola ezagutu zuen azaltzen du. Dantza-bilera batean ikusi zuen lehenengo; geroago, lasterketa bat irabazi ostean ikusi zuen, eta neska-laguntza eskaini zion. Etxera berandu iritsi zen eta errietan egin zioten.

40. Hernanin dantzan eta zinean (AND-002/014)

Hernaniko plazan musika izaten zen. Batzuetan zinera joaten ziren dantzara joan aurretik. Dantza lotua ere egiten zuten noizean behin.

41. Gabonetan baserriz baserri eskean (AND-002/017)

Lehen baserriz baserriko eskea egiten zen Gabonetan; goizeko 6etarako mezara joaten ziren gero. Mutilak bakarrik ateratzen ziren eskean. Lehen elizan ere emakumeak eta gizonak aparte egoten ziren.

42. Emakumeek ezin edozein lekutan sartu lehen (AND-002/019)

Elkarte gastronomikoetan (sozietateetan) ez zen emakumerik onartzen. Tabernatan ere ez ziren sartzen normalean. Emakumeak ez ziren ateratzen normalean.

43. Errege eguneko desfilea (AND-002/021)

Errege eguna ospatzen zen: desfilea izaten zen. Karroak nola prestatzen zituzten azaltzen du.

44. Aldaketak Andoainen eta arropa garbitzeko moduan (AND-002/023)

Lehen Andoain nolakoa zen azaltzen du: 4.000 biztanle inguru zituen; merkataritza bazegoen, baina ordutik denda handiek txikiak ixtea ekarri dute. Garbitegira emakumeak joaten ziren arropa garbitzera. Sutako hautsa erabiltzen zuten emakumeek arropa garbitzeko. Karga garbitegira eramaten eta handik ekartzen laguntzen zioten amari senideek.

45. Baserrian erabiltzen zituzten tresnak (AND-002/025)

Lehen soro gehiago izaten zituzten, eta tresneria oinarritzekoagoa: goldea, karramarroa, harria, alferra, hesia, besabeak, aitzurrak...

46. Gose garaian gari gutxiago entregatzeko trikimailuak (AND-002/026)

Gosete handia izan zenean, garia ereiten zuten. Gero, gari hori entregatu egin behar izaten zen herrian banatzeko. Baserritarrek trikimailuak erabiltzen zituzten gari gutxiago emateko. Garia lursailen tamainaren arabera ematen zen, urte txarra tokatzen bazen ere.

47. Tabakoa erretzeko egin beharrekoak (AND-002/027)

Tabakorik ez zen ia izaten gerraostean, errazionamenduan jasotako apurra bakarrik. Horregatik, beraiek baratzean ezkutuan landatzen zuten tabako-landarea. Tabakoa lortzeko lan handiak izaten ziren. Tabakoa biltzeko papera estankotan erosten zen. Eskolan zegoela, arto-bizarrak ere erretzen zituzten.

48. Korrika egiteko janzkera (AND-002/030)

Korrika egiteko zer arropa erabiltzen zuten azaltzen du. Oinetakoek iltzeak izaten zituzten pistan korritzeko.

49. Perretxikotarako zaletasuna (AND-002/032)

Perretxikoak biltzeko zaletasuna izan du gaztetatik. Perretxikotan zer ingurutan ibili izan den azaltzen du. Askok biltzen zuenean, saldu egiten zuen zenbait lekutan: Amasan, Lasarten...

50. Onddoak jaiotzeko lurrak zer behar duen (AND-002/034)

Nafarroako lurrak hobeak dira perretxikotarako, han pago eta haritz gehiago baitago. Onddoak ateratzeko ilargiari begiratu behar zaio. Nondik ibili izan den perretxiko bila azaltzen du. Azken urteetan pinudi artean ere azaldu izan dira perretxikoak, lehen pagoak egon izan direlako lur horietan.

51. Gerraostean errotak itxita eta ezkutuan joan behar (AND-002/035)

Gerra hasi zenean, 8 urte zituen Patxik. Gerraostean, errotak itxita egon ziren eta ezkutuan joaten ziren. Miseria handia zen hura. Itsasondora ere joaten ziren errotara trenez. Garia ehotzean, taloa egiten zuten.

52. Gariak ematen zuen lana (AND-002/036)

Garia urte gutxitan egin zuten baserrian, lan handia ematen zuen. Garia mozteko igitaia erabiltzen zuten. Garia bildu eta aletu egiten zuten; geroago, makinarekin hautsa kendu eta prest zegoen.

53. Baserriko jeneroak saltzen zituztenekoa (AND-002/037)

Ogia ez zuten egiten etxean. Janari gutxi zegoen gerraostean. Baserriko jeneroa Donostian saltzen zuten. Baserriko esnea zikina zela zabaldu zen eta esne-zentralak hasi ziren orduan martxan.

54. Euskarari buruzko hausnarketak (AND-002/039)

Bere euskara gaztelaniazko hitzez betea dagoela uste du Patxik, narrasa dela. Francoren garaian euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen. Eskolan ere zigortu egiten zituzten euskaraz egiteagatik. Oiartzun eta Goizuetan euskara desberdindu egiten dela nabaritzen du, baina gainerakoan ez da asko aldatzen Andoain inguruko herrietan. Orain umeei euskaraz egiten zaie.

55. Andoain asko aldatu da (AND-004/002)

Andoain asko aldatu da Jose Mari umea zenetik: lehen 3.000-4.000 biztanle zituen, baserri gehiago zegoen, kale bakarra eta luzea...

56. Jaiotetxearen egitura (AND-004/005)

Bere jaiotetxea nolakoa zen deskribatzen du. Maizter ziren etxe hartan. Garai hartan gutxi ziren etxeen jabeak. Etxean baratzea eduki arren, nagusiarena zenez ezin izaten zuten erabili.

57. La Salleko heziketa txukuna (AND-004/008)

La Sallen ikasi zuen 12 urtera arte. La Salle eskola serioa zen eta irakasten txukunak ziren. Hara mutilak bakarrik joaten ziren; neskentzat beste eskola batzuk zeuden. Kontxa Arretxeren eta doña Juanitaren eskolak gogoan ditu.

58. La Salletik SAPAra lanera (AND-004/009)

1935ean hasi zen ikasten La Sallen, eta handik gutxira lehertu zen gerra. 12 urte zituela, lanean hasi zen Soralezeko SAPA lantegian, etxean beharra baitzegoen.

59. Pilotan jokatzeko gustuko (AND-004/010)

Oso gustura ibiltzen zen pilotan jokatzeko. Andoaingo txapelketa bat irabazi zuen, garai hartan Andoainen zen pilotari onena (Joxe Manuel Garmendia) zuela lagun. Pilotan non jokatzeko zuten azaltzen du.

60. Pilota-partidua ikusteko ohitura ezinbestekoa (AND-004/012)

Pilotan arkupe batzuetan jokatzeko zuten; eta nahiz eta lekua aldrebes samarra izan, gustura ibiltzen ziren. Kontzejupean izaten ziren pilota-partidu batzuk eta jende asko joaten zen haiek ikustera.

61. Andoainen festa faltarik ez (AND-004/014)

Gaztetan ere orain ospatzen diren festak izaten ziren: Santa Kutzak, San Juanak, San Pedroak, San Estebanak... Urte guztian izaten ziren festak.

62. Festetako musika (AND-004/016)

Festa batzuetan, orkestak, orkestinak, banda militarrek... etortzen ziren kontzertuak ematera.

63. Prozesioak asko eta serioak (AND-004/017)

Lehen prozesioak asko eta serioak izaten ziren. Herrikoek parte hartzen zuten prozesioan, haietako bat Jose Mari bera. Prozesioko pertsonaiak zein ziren aipatzen du.

64. Mezan latinez, nahiz eta ulertu ez (AND-004/020)

Mezan latinez egiten zen, nahiz eta ezer ulertu ez. Jose Mari mezalagun izan zen.

65. Ezkontzarako prestaketak (AND-004/022)

Ezkontzeko prestaketak nolakoak izaten ziren azaltzen du: ezkontzako eguna oso garrantzitsua zen; ohitura handia zegoen ezkondu aurretik Tolosako Frantziskotarrengana joateko konfesatzera. Emakumeek burutik gizonaren sorbaldara zihoan zapi bat jartzen zuten: emakumeak gizonaren menpe egon behar zuen esanahia ematen zioten horri.

66. Mugimendu apostolikoa (AND-004/024)

Mugimendu apostolikoei buruz hitz egiten du: sekularrek Elizan bere tokia izateko mugimendua izan zen. "Acción Católica", "Baserri gaztedi"... aipatzen ditu.

67. Elizako txartelak eta bulak (AND-004/025)

Elizako txartelak eta bulak zer ziren aipatzen du. Bulak erosi egin behar ziren.

68. Santa Kruzko irudia eta kanta (AND-004/028)

Santa Kruzko irudiak 5-6 mende ditu. Santa Kruzko kanta errezitatzen du.

69. Jaiotza egunean umeak kalez kale abesten (AND-004/029)

Gabonetan kanta-lehiaketak egiten ziren elizan. Jaiotza eguna ospatzen zen bereziki: umeak kalez kale ateratzen ziren abesten. Kanta gehienak euskaraz izaten ziren. La Sallen euskaraz eta gaztelaniaz ikasten zuten.

70. Gerra bat-batean eta bala hankan ezustean (AND-004/031)

Gerra bat-batean etorri zen, bonbardaketak bat-batean hasi ziren. Jose Mari jolasean zebilela, bala galdu batek jo zion hankan, falangista batek medikuarengana eraman zuen, eta 15 egunean egon behar izan zuen etxean sendatu arte.

71. Gerra hasi eta paisaia tristetu (AND-004/032)

Bonbardaketak hasi zirenean, ibai ertzean lehertzen ziren bonbak. Parapetoak non zeuden azaltzen du. Paisaia tristea zegoen orduan. Jende askok egin zuen ihesi Andoaindik. Aita abertzalea zen, eta kuartelera deitu zuten: isuna jarri zioten gorriek botatako zubia altxatzeko.

72. Zinegotzi izan zeneko Andoain (AND-004/034)

Andoain zinegotzi egon zen 1964-1971 bitartean. Andoain denbora gutxian asko hazi zen: Soria eta Extremadura aldetik etorri zen jendea gehienbat. Jende-oldea izan zen hura. Ekonomia-gaiak izan zen garai hartako borroka.

73. Udaletxearen egitura erabakitze sistema (AND-004/035)

Zinegotzi sartu zenean, hauteskundeak izan ziren. Udaletxearen egitura nola erabakitzen zen azaltzen du. Gobernadore zibilek garai hartan botere handia zuten.

74. Baserriko tresnen eboluzioa (AND-005/003)

Laian aritua izan da Juan Bautista, baina gutxi; goldean ibiltzen ziren gehiago. Karramarroa erabiltzen zuten goldea baino lehenago. Baserriko hainbat tresna aipatzen ditu: alferra, mazoa...

75. Karea eta simaurra lurra ontzeko (AND-005/004)

Garro asko biltzen zuten beraiek. Simaurra soroan zabaltzen zuten. Karea oso ona da lurrerako. Karea eta simaurra nahastu egiten zituzten lurra ontzeko.

76. Aita gizon aparta (AND-005/005)

Aita gizon aparta zuen: udan prestatzen zuen negu osorako egurra. Ura aita ekartzen zuen etxera. Gizon zintzoa zen.

77. Baserriko elikadura eta lan-banaketa (AND-005/006)

Amona etxeko lanetan aritzen zen. Ama kalera joaten zen esnea saltzera. Etxean zer jaten zuten azaltzen du. Amonak lurrezko ontzian prestatzen zuen janaria. Jaietarako eta astegunetarako janari desberdinak prestatzen zituzten. "Baserrian lan asko egin eta miseria". Lanik ez zegoen kanpoan, eta baserritik bizi behar izaten zuten. Amak denentzako janaria jartzen zuen.

78. Perretxiko bila joateko zaletasuna umetatik (AND-005/007)

Mendira joaten ziren gaztaina eta perretxiko bila eta berak oso gustuko zuen. Onddo-lekuak urtero berberak izaten dira, baina non dauden dakienak ez du lau haizetara zabaltzen.

79. Onddo motak eta haiek non topatu (AND-005/008)

Onddo motak: hiru klasetakoak ezagutzen ditu eta finenak zein diren esaten du. Pinuen inguruan ez omen dira zizak ateratzen, baina lehendik pagoa egon izan bazen landatuta bai.

80. Perretxikoak nola bilatu (AND-005/009)

Perretxikoak bilatzeko bide asko pasa behar dira. Antzeman daiteke zer perretxiko klase jaioko den leku jakin batzuetan. Goizean goiz eta bi egunetik behin joan behar da perretxiko bila. Behin kiloko perretxikoa ekarri zuenekoak kontatzen du.

81. Perretxikoak bilatzeko natura lagun (AND-005/010)

Perretxikoak bilatzen laguntzeko seinaleak ematen ditu naturak. Behin onddoa ikusitakoan, hartu egin behar da; bestela ez omen da gehiago hazten.

82. Betizuekin lanean (AND-005/013)

Lehen ere bazen betizuekin lan egiteko joera eta nola izaten zen lan hura azaltzen du. Betizuak haragitarako izaten ziren.

83. Mendian ibiltzeko zaletasun handia beti (AND-005/014)

Ardien aitzakiarekin mendira joaten zen. Ardiak egunero zakurrarekin biltzen zituen, zenbatu eta denak elkartu. Beti zuen aitzakiaren bat perretxikoak biltzeko. Mezara Aranora joaten zen mendiz, hain zuen gustuko mendian ibiltzea.

84. Berastegiko San Lorentzo ermitara oinez (AND-005/015)

Berastegira oinez joan izan da gaztetatik hango meza entzutera. Gaztetan aitarekin joan zen lehenengo, eta handik aurrera urtero; denborarekin kuadrilla elkartzen ziren ibilaldi hura egiteko.

85. Zazpi Gurutzeen ibilaldia (AND-005/017)

63 urte zituela egin zituen Zazpi Gurutzeak lehenengo aldiz. Orduetik aurrera gehiagotan ere egin izan du.

86. Zazpi Gurutzeei buruzko bertsoak (AND-005/018)

Zazpi Gurutzeak zein diren aipatzen du. Zazpi Gurutzeen ildora sortutako bertsoak botatzen ditu.

87. Eskola utzitakoan egindako lanak (AND-005/020)

Gaztetan ez zuen izan denborarik mendira bueltak egiteko. 7-12 urte bitartean eskolan ibili zen. 11 urte zituela, morroi ibili zen baserri batean. 13 urte zituela pinuak zulatzen hasi zen mendian. 15 urterekin, apendizitisetik operatu zuten. Kanalean ere karga eramaten egin zuen lan. 16 urterekin pinuak aldatzen aritu zen negu osoan. Udazkenean paperaren pasta egiten zen fabrika sartu zen lanean. Hala ere, aitari laguntzen zion etxeko lanetan.

88. Gaztetako lehenengo pausoak lan-munduan (AND-005/021)

Bere anaiek zortea izan zuten, lanbidea ikasi bitartean lan egiten baitzuten. Juan Bautista berak Laborden egin zuen lan. Umetan lan egin zuen Laborden, eta handik urte batzuetara berriro deitu zioten.

89. Hainbat lekutan lan egindakoa (AND-005/022)

Gaztetan ondoko baserritarrari laguntzen ibiltzen zen. Zentralean lanpostu bat libre egon zenean, lanean sartu zen eta 12 urtean aritu zen han. Kanala puskatu zenean Villabonara joan zen, eta han 5 urte ibili zen.

90. 2 lagun izatetik 22 izatera (AND-005/023)

Baserrian lan asko egin izan dute emazteak eta berak. 5 seme-alaba izan dituzte, eta aurrera atera ahal izan dituzte nola-hala. Gaur egun familia asko hazi da.

91. Emaztea ezagutu zuenetik 68 urte elkarrekin (AND-005/026)

Emaztea nola ezagutu zuen azaltzen du. 13 urte egin zituzten nobio, eta 55 urte ezkontuta.

92. Ezkonberritako ilusioa (AND-005/028)

Ezkundu zenean prestatu zuen bertsoa abesten du. Ezkon-bidaian lau egun izan ziren: Logroño eta Zaragozan ibili ziren. Ezkonberritan, garbantzua erre zitzaizkion, baina emazteak lasaitu egin zuen.

93. Bertsotan hasi zenekoa (AND-005/030)

Gaztetan Goiburuko festara joaten hasi zen lehenengo. 17 urte zituela aritu zen lehenengo aldiz bertsotan. Pixkanaka hainbat lekutan hasi zen bertsotan.

94. Herriko bazkarian urtero bertsotan (AND-005/031)

Plazatan ez du inoiz egin bertsotan. Herriko bazkarietan beti eskatu izan diote bertsoak botatzeko. Urte batean lutoagatik ez zuten abestu.

95. Etxean bazkaltzen egondako bertsolariak (AND-005/033)

Bertsolari ugari bazkaldu izan dute bere etxean.

96. Baserriko lanetan gustura (AND-006/005)

Komunioa egin ostean, belgikar batzuen etxean aritu zen lanean ume-zaintzaile, baina berak baserria nahiago zuen. Orduan ahizparen etxera joan zen ardiekin lan egitera. Han pasatako komeriak aipatzen ditu. Oso gustura ibili izan da Mertxe landako lanean.

97. Belarra biltzeko prozesua (AND-006/007)

Etxean estu ibiltzen ziren: belarrak biltzeko eguraldiaren menpe egoten ziren, eta belar ona jasotzeko lan handia egin behar zen. Gaur egun aurrerapenak asko erraztu dute lana. Belarra biltzeko prozesua nola izaten zen azaltzen du.

98. Artoa lantzeko prozesua (AND-006/008)

Lehen arto dezente egiten zuten. Artoa nola lantzen zuten azaltzen du: hosto guztiak kendu, sortatan lotu, etxeko terrazan zabaldu, harrotu...

99. Garia ereiten zutenekoa (AND-006/011)

Garia ezagutu izan du etxean, baina gutxi. Kutxatan jasotzen zuten garia. Talorik ez zen falta izaten etxean; arto-irina lortzeko errotara joaten ziren.

100. Soroak bedeinkatzeko distantzia (AND-006/012)

Elizak garrantzi handia izan du baserrian: lurak bedeinkatzera etortzen ziren apaizak sorora eta trukean oparia ematen zitzaien. Pixkanaka bedeinkazioa gero eta urrutia egiten zuten, azkenean ohitura galdu zen arte.

101. Erramua eta ur bedeinkatua (AND-006/013)

Erramu egunean bedeinkazioa izaten zen soroetan. Gerora ohitura galtzen joan da. San Juanetan ur bedeinkatua ekartzen zuten, lokotxei su ematen zieten... baserri batean metak erre zitzaizkien lokotxak erretzen ari zirela.

102. Erramuarekin egindako gurutzeak (AND-006/015)

Erramuarekin gurutzeak egiten zituzten. Gurutze haiek terrenoetan jartzen zituzten. Kandela bedeinkatuarekin tanta bat botatzen zioten gurutze bakoitzari, eta haiek jartzean kredoa errezatu behar izaten zuten.

103. Aitari zioten errespetua (AND-006/016)

Mezara joatea sakratua zen, aita garrantzi handia ematen zion horri. Inguruko festetara joatean, etxera garaiz bueltatzen ziren.

104. Ijitoak eta ijito-babarrunak (AND-006/017)

Lehen ere lapurren beldurra bazen; baserriko atea gauez beti ixteko ohitura zeukaten. Lasarteko ijitoen beldur egoten ziren; etxean jaten eman izan zieten ijitoei. "Ijito-babarrunak" zer ziren azaltzen du.

105. Familia izan eta bataiatu arteko ohiturak (AND-006/019)

Umea jaiotzen zenean, amak ezin izaten zuen etxetik atera elizan sartzea egin arte; atera behar izanez gero, teila bat jarri behar izaten zuen buruan. Elizan sartzea egin ostean, bataioa gurasoek izendatutako egunean izaten zen. Atsolorrei buruz hitz egiten du.

106. Bikote-kontuak tabu zireneko garaia (AND-006/020)

Umetan, ama haurdun zegoenean ez ziren konturatzen. Gurasoen aurrean ez zuten hitz egiten nobio-kontuei buruz.

107. Haurrak izateko pasatakoak (AND-006/021)

Haurrak izatean, emagina etxera etortzen zen. Lehenengo haurra izan zuenean arazo handiak izan zituen Mertxek; bigarren haurra izan zuenean, hobeto joan zen dena. Ondorengo haur guztiak klinikan izan ditu.

108. Hilekoa ezkutuan pasa behar (AND-006/022)

Hilekoari buruz amak ez zien hitz egiten, kanpotik jakiten zuten dena. Garbitzeko ezkutuan ibili behar izaten zuten, anaiek ikus ez zezaten. Felpazko konpresak erabiltzen zituzten.

109. Heriotzaren inguruko ohiturak (AND-006/025)

Norbait hiltzen zenean, etxean edukitzen zuten eta jendea bisitan etortzen zen. Ur bedeinkatua eta erramua egoten zen, defuntuari errezatzeko. Hilkutxa bizkarrean hartuta eramaten zuten etxetik elizara. Elizbideak izaten ziren orduan.

110. Urnietarako joera (AND-007/003)

Upategi etxean jaioa, Andoainen. Urnietatik gertu dago, eta hara ere asko joaten ziren. Ama esnearekin joaten zen Donostiara, Urnietako autobusean; gero, trenean hasi ziren. "Holanda" deitzen zioten Urnietako geltokiari, esnedun asko igotzen zelako han.

111. Ama Andoaindik Donostiara, esnearekin (AND-007/004)

Zaldi-karroa zuten, eta Andoaingo geltokira eramaten zuten esnea. Donostian karreteroak egoten ziren zain, marmitak eramateko. Amak harategi batera eramaten zuen esnea, eta handik partitu. 07:30eko trenean joan, eta 11:00etarako itzultzen ziren.

112. Errota itxita, eta estraperloko irina (AND-007/006)

13 senide ziren, eta jende asko etxean. Gerra ondorena gogorra izan zen. Andoainen errota prezintatu egin zuten. Estraperloko irina. Nafarroara joan zen anaia behin errotara, ingurukoak itxita zeudelako. Bidasoako trenean joan zen, Irundik Elizondo aldera. Garia ere ehotzen zuten.

113. Babarruna entregatu beharra (AND-007/007)

Gerra bukatu eta bi-hiru urtera hasi zen gosea. Babarruna eta artoa entregatu behar izaten zuten; batzuek erosi egin behar izaten zuten, entregatzeko. Arrautzak ere eraman behar zituzten. Babarruna saltzea ez zen libre.

114. Kaletarrak baserrira, janari bila (AND-007/008)

Kalean gose handiagoa pasa zuten. Txalekoarekin joaten ziren baserrira, babarrunez betetzeko, eta gabardina jarri gainetik.

115. Ogia erostea ere ez zen libre (AND-007/009)

1952-1953 arte ogia erostea ere ez zen libre. Donostiara joaten zen lanera, 1949an. Errekarderak sal-erosketan ibiltzen ziren, eta ogia eramaten zuten trenean. Karabineroak agertuz gero, zakuak trenetik behera botatzen zituzten.

116. Estraperlokoa zen ia dena (AND-007/011)

Estraperloko olioak garesti zegoen. Nafarroatik harria ekartzen zuten kamioiek, eta harri tartean irina. Bizikletan joaten zen bera aurretik, guardia zibilik ote zen ikusteko.

117. Oliorik ezean, esnegaina (AND-007/012)

Oliorik ezean zer erabiltzen zuten janaria prestatzeko. Manteka, seboa eta esnegaina. Babarrunak esnegainarekin.

118. Aita idi parerarekin lanean (AND-007/013)

Familia handiak asko ziren garai hartan. Beraien baserria ez zen bereziki handia: 6-8 behi zituzten. Aita idiekin ibiltzen zen garraio lanetan, ikatzarekin eta egurrarekin. Goldetzera ere joaten zen inguruko baserrietara.

119. Baserriko tresnak (AND-007/014)

Baserriko tresnak. Laia ez zuten erabiltzen. Goldea, karramarroa, harria, rastra, besabia, marka...

120. Artoa eta babarruna ereiten (AND-007/015)

Artoa ereiteko makinarik ez zuten erabiltzen. Lurra lehorregi egotea ez da aproposa. Gaueko ihintza ere ondo hartzen du artoak. Artoa eta babarruna batera. Nola ereiten zuten.

121. Hazien jaiotza (AND-007/017)

Haziak jaiotzea erditzeekin konparatzen du. Erein eta egun gutxira jaio behar duela dio, bestela gaizki ibiliko dela.

122. Arto landarearen lorea (AND-007/018)

Arto landarearen lorea. Arto emeak eta arrak daude. Txurikina. Lorea kendu egiten zitzaion artoari, ganaduari emateko. Babarruna heltzeko, artoari orriak ("maizorriya") kentzen zitzaizkion, eta zintzilik jarri. Tontorra egin.

123. Artoaren urte garaia (AND-007/019)

Artoa eta babarruna erein eta jasotzeko garaia noiz zen. Maiatzean biak erein, tontorra santiotan egin, babarruna bildu irailean, eta urrian-azaroan artoa bildu. Aletu egin behar zen gero; artoa ihartzeko moduak.

124. Artoa aletzeko garaia eta moduak (AND-007/020)

Artoa zuritu eta aletzeko familiakoak moldatzen ziren, asko ziren eta. Auzolanean egiten zuten beste batzuek. Aitonak aletzen zituen gehienak, egurrezko mazoarekin jota. Aletzeko moduak.

125. Gari lanak (AND-007/021)

Gari lanak gerra ondorenean bueltatu ziren. Higitaiarekin ebaki, sortak egin eta metatu egiten zuten. Mandioan losak jarri, eta jo egiten zuten.

126. Gari lanak II (AND-007/023)

Gari alea garbitzeko eskuzko makinak izaten ziren. Lan zikina zen. "Mandioa" hitza nondik datorren: mando igoa. Bi solairuko ganbara zuten.

127. Ogia egiten zuen etxean (AND-007/024)

Ogia egiten zuten etxean, gerra ondorenean. Nola egiten zuen azaltzen du. Ur epelarekin legamia urtu, irina bota, masa egin, eta zapi batekin estaltzen zuen; harrotzen zenean, masa goxatu, forma eman eta labera. Ekonomikako labeen egiten zuten.

128. Idiak eta uztarriak (AND-007/025)

Sei-zazpi behi, idiak eta txekor batzuk zituzten. Bi-hiru uztarri zituzten. Mendirako uztarri estuagoa erabiltzen zuten, bidezidorretarako. Uztarria, kopetekoa, eriak, ubelak, kurteria, kabila, buru-larruak... Sokak egiteko modua.

129. Behiak eta txekorrak (AND-007/026)

Behi suitzarrak eta pinttoak zituzten, esne behiak. Arraza nahasketa zegoen. Txekorrak saldu egiten zituzten; aita ibiltzen zen horretan. Andoingo hiltegiara eramaten zituzten. Feriara ere joaten ziren, Hernanira. Tolosako feria. Oinez ibiltzen ziren. Kamioiak gasogenoarekin ibili ziren garai batean, gasolinarik ezean.

130. Gerraostean eskolan "Viva España" (AND-007/028)

Eskolan mojetan ibili zen, ospitalean. Gerraostean La Sallen ibili zen. Dena erdaraz egiten zieten, euskaldunak izan arren. Besoa altxatuta "Viva España" kantatu behar. Francoren koadroa. Erdara umetatik entzun du.

131. Umetako jolasak (AND-007/029)

Umetako jolasak. Pilotan ibiltzen ziren mutikoak eta neskak txingoka eta sokasaltoan. Aparte ibiltzen ziren.

132. "Aldapeko sagarraren" (AND-007/030)

Euskaraz kantatzen zutena, La Salleko fraideekin. "Aldapeko sagarraren" aipatzen du, baita nola-hala kantatu ere. Bertso-paperak saltzen zituzten ferietan eta festetan. Erezotzun.

133. Arrain kaxak josten (AND-007/031)

14 urterekin hasi zen lanean, Andoainen, arrain kaxak josten. Pinu oholekin egiten ziren. Zerrategian egiten zituzten, Donostiara eta Hondarribira eramateko. Idiekin aitari laguntzen ere ibili zen. Osabaren aroztegia ere ibili zen, Donostian. Eraikuntzan eta fundizioan ibili da. Fundizioan 30 bat urte.

134. Erromerietara batera eta bestera (AND-007/032)

Erromerietara joaten zen, askotan bizikletan, jai arratsalde. Goiburun soinua jotzen zuten, Urnietan. Neskei etxera lagundu bai, baina sexurik ez. Hori bai, dantza lotua libre zuten beraiek.

135. Errekan bainatzen eta amuarrainak harrapatzen (AND-008/004)

Umetan, bizimodua kalean egiten zuten. Udan erreka joaten ziren igeri egitera. Etxera bueltatzen zirenean, gose handia ekartzen zuten. Amuarrainak harrapatzen ere aritzen ziren errekan, eta behin isuna jarri zioten horregatik. Esku-arrantzan aritzen ziren.

136. Tourra irratian eta futbola errepidean (AND-008/005)

14-15 urterekin, irratia ondoan ematen zuten arratsalde guztia Frantziako Tourra entzuten. Futbolean, igerian eta sokasaltoan aritzen ziren umetan. Bizikletarik ez zuten, alokatu egiten zituzten. Errepide nazionalen jokatzeko zuten futbolean. Gizon batek garai hartan aurreikusi zuen egunen batean auto ugari ibiliko zirela errepidean. Baloiak beraiek sortzen zituzten eta nolakoak izaten ziren azaltzen du.

137. Poliomieltis pasa zuen umetan (AND-008/007)

3-4 urte zituela, poliomieltis izan zuen; horregatik, kirolak egiteko zailtasunak izan ditu. Baina, hala ere, oso mendizalea izan da beti. Medikuek garai hartan ez zekiten nola tratatu poliomieltisa; medikuak zer tratamendu ematen zion azaltzen du. Hankan zauriak egitean, tipulak jartzen zituen.

138. Medikuen zerbitzua denboran zehar (AND-008/008)

Antzina, medikuak zaldiz joaten ziren etxez etxe. Duela 50 urte inguru, medikuek etxean izaten zuten kontsulta. Iñaxio lanean hasi zenerako, bazegoen gizarte-segurantzak.

139. Labordeko eskolan ikasi zuen (AND-008/012)

La Salletik ateratakoan, Laborden hasi zen lanean. Jornala baxua izaten zen orduan, baina eskola profesionala zegoen han: egun erdia ikasten eta beste erdia lanean ematen zuten. Laborden ikasitakoak aipatzen ditu: aljebra, kimika, fisika, frantsesa... Eskola ona izatearen ospea zeukan Labordek.

140. Laborden bulegoan orduko ordenagailuekin lanean (AND-008/013)

17-18 urte zituela, bulegoan hasi zen lanean, eta ordutik erretiroa hartu arte bertan aritu izan da lanean. 60. hamarkadako ordenagailuak nolakoak ziren deskribatzen du.

141. Aurrerapenak pixkanaka sartzen (AND-008/014)

Lehenbiziko irratia nolakoa zen azaltzen du. 1964an ekarri zuten telebista eta 1969an kotxea. Asko erabili izan du kotxea. Garbigailua izan baino lehen, etxean eskuz garbitzen zuten arropa; ur beroa bazeukaten etxean eta lagunak etortzen zitzaizkien ur beroarekin dutxatzera.

142. Tabernako bi suak (AND-008/015)

Tabernan bi su zeuzkaten: nolakoak ziren azaltzen du. Goizetan sua pizten zuenean, oso pozik jartzen zen ama.

143. Aste Santuan dirua biltzeko ohitura (AND-008/017)

Aste Santuan lata batzuen barruan sua etxez etxe eramaten zuten, eta dirua ematen zieten horregatik. Lata haiek nola prestatzen zituzten azaltzen du.

144. Kobrea bildu eta saldu (AND-008/018)

Mutil koskorrak zirela, kobrea jaso eta saldu egiten zuten. Obratan bilatzen zuten kobrea.

145. Oria ibaia nola zaindu eta erabili izan den (AND-008/021)

Santa Kruzak zirenean, Los Alegres jazbana etortzen zen, krosa egiten zen, batelak izaten ziren... Garai hartan, Oria ibaia oso zikina zegoen, xaboi-apar asko zegoen. Lehen edozer gauza botatzen zen ibaira. Batelak auzoen artean lehiatzen ziren.

146. Euskararekiko kontzientzia adinaren eta sexuaren arabera (AND-008/025)

Gaztetan, kuadrillan ez zuten euskaraz hitz egiten, baina orain bai. Gerra baino lehenago jaiotakoek euskaraz egiten zuten, baina ondorengoek ez. Neskek ez zuten euskaraz egin nahi izaten, hori makurkeria zela uste baitzuten.

147. Aitonak eta amonak elkar ezagutu zutenekoa (AND-008/027)

Amona Zizurkilgoa zen, eta jaso egin zuten Elizondo tabernan, familiarik ez baitzuen. Aitona nola ezagutu zuen azaltzen du. Aitonak jakin-min handia zuen burdindegari lotutako kontuak ikasteko. Elizondo tabernan, bere familiako zenbat belaunaldi egon izan diren aipatzen du.

148. Jolasean euskaraz eta gaztelaniaz (AND-009/007)

Umetan euskaraz hitz egiten zuten, baina kalean gaztelaniaz egin behar izaten zuten, euskara debekatuta baitzegoen. Jolasetako kantak euskaraz eta gaztelaniaz abesten zituzten. Kanta batzuk gogoratzen ditu.

149. Meza nagusiaren ostean, amonarengana (AND-009/009)

Mojekin meza nagusira joaten ziren eta handik etxera itzulitakoan, amonak merienda prestatzen zien. Amonak pezeta bat ere ematen zien, eta zertan gastatzen zuten aipatzen du.

150. Amonaren laguntzailea bisitatarako (AND-009/011)

Maria Jesus eskolatik etxera noiz etorriko zain egoten zen amona, lagundu egiten baitzion senideei bisitak egitera.

151. Donostiako "Infernuaren" istorioa (AND-009/014)

Judasen istorioa eta Donostiako "Infernuaren" kontakizuna kontatzen du.

152. Amak eskolan ondo ikasi zituen gaztelania eta gizabidea (AND-009/016)

Ama Igarako eskolara joaten zen ikastera umetan. Garai hartan ez zekiten gaztelaniaz, baina eskolan gaztelania eta gizabidea oso ondo ikasi zituzten.

153. Gurasoek nola ezagutu zuten elkar (AND-009/018)

Amaren baserria oso handia eta ederra zen: Bretxara joaten zen amarekin fruta eramatera. Izeba-osabek tela-denda zeukaten eta Andoaingo emakume bat joan zen behin hara. Emakume harekin laguntasuna hasi eta azkenean Maria Jesusen ama haien etxera joan zen Andoaina; hala ezagutu zuen gerora senarra izango zuena.

154. Guraoen ezkontza (AND-009/019)

Guraoen ezkontza nolakoa izan zen azaltzen du: goizeko 7etan ezkondu zituen Don Joakin apaizak, gosalduta egin zuten, eta ezkonberriak eztei-bidaiera joan ziren Madril eta Granadara. Granadan Alhanbran oso dotore jantzi zituzten, eta janzeria hura nolakoa zen deskribatzen du Maria Jesusek.

155. Ezkondu arte dena bekatu (AND-009/024)

Ezkondu bitartean dena bekatu zen, eta ez zuten ezer egiten bikotean. Ondo eramaten zuten hori. Mutil-lagunarekin gelditzeko lagun gehiago etortzen ziren, ez ziren bakarka egoten. Mutil-lagunarekin zer-nolako planak egiten zituzten azaltzen du.

156. Andoainen ibiltzen ziren arrain-saltzaileak (AND-009/030)

Andoaina etortzen ziren arrain-saltzaileak zein ziren aipatzen du.

157. Alabei ere euskararekiko maitasuna transmititzen (AND-009/033)

Euskarari garrantzi handia eman izan dio beti. Alabak euskaraz hitz egiten zen lekuetara eramaten saiatu izan da: Donostiako Alderdi Ederrera, Zubietara, Sorabillara...

158. Agerrebordan jaioa (AND-010/002)

Andoainen jaioa, Urnietako muga. Agerreborda baserriaren historia. Borda bat zen hasieran. Sagastiak jarri zituzten gero. Sagardoa egiten zuten. Sagar motak. Sindikatuan ematen zituzten landareak. Neurria: sei sagar zaku zen gurdia.

159. Aita artzaina zuen (AND-010/005)

Aita artzaina zuen; aurretik sindikatuan egon zen. 80 ardi inguru zituen, baina oraingoek esne gehiago dute. Mendian gustura egoten zen aita. Laguntzera joaten zen bera. Txabola egin zuten ardientzat. Baina bera sekula ez da arditara gustora joan.

160. Umetako jostailuak (AND-010/006)

Dena aldatu da. Erregetan mazapan txiki bat izaten zuten, eta aita egindako txilibitua. Nola egiten zuen azaltzen du. Intsusak barrua hutsa izaten du, eta harekin "porrosta" egiten zuten.

161. Eskola garaian ikasi, gutxi (AND-010/008)

Eskolan azken bi urteetan bakarrik ikasi zuen. Dotrina. Jaunartzeak. Maisuak makilarekin jotzen zien, eta ez zien ezer irakasten. Erdaraz ez zekiten. La Salleko fraideekin hasi zenean, orduan ikasi zuen zerbait.

162. Anaia La Salleko maisuarekin gau eskolan (AND-010/011)

Anaiak eskolarik ez zuen, eta lan egiten zuen lantegian premia zuen. La Salleko maisu bat gaueko eskola ematen hasi zitzaion. Baleak erabiltzen zituen maisuak, ikasleak "engainatzeko".

163. Umetako jolasak (AND-010/012)

Dana mutilak zebiltzan fraidetan. Automobilik ez zen izaten, eta kalean jolasten zuten futbolean. Pilotarako afiziorik ez zuen.

164. Mola eta Franco (AND-010/013)

Gerra hasi zenean, komandantzia jarri zuten. Salbakonduktoa lortzea. Mola jenerala ere izan zen Andoainen. Mola Francok hil zuela dio. Francoren kontuak.

165. Hiru urte Afrikan soldadu (AND-010/014)

Hiru urte egin zituen Afrikan soldadu. Hango sargento bat serenoa izan zen gero Andoainen. Legionarioak. Soldadutzatik bisitan etorri zenekoa. Hiru egun behar zituzten bidean.

166. Anaien ibilerak gerra garaian (AND-010/016)

Gerra garaian enpresak militarizatu egin zituzten. Anaien ibilerak. Andoainen hil zuten gizona. Belabietako borroka. Anaia batek zazpi urte egin zituen langile batailoietan eta denbora horretan ez zuten ikusi. Gero Irunera eraman zuten, eta sukaldari jarri zuten. Hantxe bilatu zuen bikotekidea ere. Anaia emazteari buruzkoak: arrautzak saltzera joaten zen.

167. Anaien ibilerak gerra garaian II (AND-010/017)

Belabietako borrokan bere hiru anaiak hartu zuten parte. Gau hartan egin zuten alde, Bilbo aldera. Zaharrena bueltatu egin zen, lantegia militarizatu zutenean. Salbokonduktoa egiteko, dardarka komandantzian.

168. Frontea Andoainen; kanoiak garraiatzen (AND-010/019)

Frontea Andoainen. Kanpandorrean ametrailadora jarri zuten. Mandoekin ibili ziren, baita bera ere, kanoiak garraiatzen.

169. Anaien ibilerak gerra garaian III (AND-010/022)

Anaia baten kontuak. Frontera joateko erniatik ebakuntza egin zioten, 25 urterekin, eta ospitalean hil zen. Beste anaia bat kartzelan izan zen.

170. Gerra garaian, baserrian (AND-010/023)

Gerra garaia. Baserrian oiloak eta txekorrak kentzen zizkieten. Ezkutalekua egin zuten. Lehengusua baserrian izan zuten; makinista zen. Kalera enkargutara joaten zen bera, trenbidetik. Gerra garaian artean goserik ez zen.

171. Baserria bonbek kaltetuta (AND-010/025)

Gerra garaian, goiz batean kalera joan zen, eta bueltan izutu egin zen: etxe aurrean goldea txikituta zegoen. Hegazkinek botatako bonbekin, etxea hondatu zen. Konpontzeko nagusiarekin zein akordiora iritsi ziren.

172. Etxea konpontzeko lanak (AND-010/026)

Etxea nola konpondu zuten, idiekin. Enborrak zerrategira eramaten zituzten, gurdian. Idiekin behiekin baino askoz hobeto moldatzen zen. Lau pareta bakarrik geratu ziren.

173. Zezena zuten etxean (AND-010/028)

Behiekin baserriko lanak egitea zailagoa da idiekin baino. Zezena izaten zuten; ematen zituen irabaziak. Zezena uztarrian lotzen hasi ziren gerra garaian. Animaliek ezagun dute zeinek tratatzen dituen ondo eta zeinek ez.

174. Urik ez etxean (AND-010/029)

Urik ez zuten etxean umetan, eta errekarara joaten ziren ur bila, marmitarekin. Soldadu zegoela jarri zuten kanilako ura. Argindarra bazuten; berunezko hariekin jarria, suterik ez izateko.

175. Gauez garotan eta sagarrak batzen (AND-010/031)

Gauez ere egiten zituzten baserriko lanak. Udazkenean garoa, sagarrak... lan asko zuten. Ilargi gauetan ibiltzen ziren sagarra batzen eta garotan. Jai arratsaldea bakarrik zuten libre. Idiak zituzten baserriak, abantailan. 60 gurdi sagar saltzen zituzten.

176. Urtean txekor bat (AND-010/033)

Idirik ez zuten: etxea konpontzeko bakarrik erabili zituzten. 3-4 behi eta zezena zuten. Haragitarako ziren behiak. Urtean txekor bat hazten zuten. Esne asko ematen zuten behiei egiten zizkieten kontrolak. Andoainen hiru-lau tokitan izaten zen zezena.

177. Behiari zezena botatzea (AND-010/034)

Behiari zezena noiz bota. "Susaldiak". Umea izan berri ez da ona zezena botatzea; hori gertatzen zenean, batzuetan zezenzaleei botatzen zieten errua. "Karena". Zenbat itxaron behar den.

178. Hilekoari buruzkoak (AND-010/036)

Emakumeen hilerokoa ez da hilean behin, urtean 13 aldiz baino. "Metodo ojinoa" azaltzen du, berak erabili izan duena; bestela hoge seme-alaba izango ei zituen.

179. Dantza eginda konforme (AND-010/037)

Neskatan egiteko garaian, sexurik ez. Dantza egitearekin konforme.

180. Tren txikiko estraperloa (AND-010/038)

Lehengusua makinista zen meatzetarako tren txikian. Estraperloa Nafarroatik, gerraostean. Gauez errotara joan beharra. Baba txikia, ogia... denetik ekartzen zuten tren txikian. Leitzan guardia zibilak zain zeudela ikusita, lehengusuak egin zuena.

181. Tren txikiko estraperloa II (AND-010/039)

Hiru aldiz harrapatu zuten guardia zibilek, baina dirua emanda libratu zen. Karabineroak okerragoak ziren.

182. Tren txikiko estraperloa III (AND-010/040)

Emakume batek egunero arkumea eramaten zuen tren txikian, haurdunaren tripa balitz bezalaxe. Babarrunak galtzetan sartzen zituenik ere bazen.

183. Gose garaiko trikimailuak (AND-010/041)

Gose garaia zen. Baserrian nahiko ondo, baina kalekoak gaizki ibili ziren, batez ere hirietan. Sindikatuan erabiltzen zituzten trikimailuak, gose garaian. Babarruna ezkutatzen. Nafarroan kontrabandoan zebilen bat hilda aurkitu zuten.

184. Lau txerri hil zituzten urtea (AND-010/042)

Sindikatua kofradia modukoa zen. Abereak haztea. Ezkurrekin gizendutako txerriak ederrak ziren. Urte batean lau txerri hil zituzten, eta bat zen libre. Guardia Zibilen kontrolak.

185. Karabineroak, zorrotzagoak (AND-010/043)

Karabineroekin larri ibili ziren. Andoainen sei zeuden. Guardia zibilak baino zorrotzagoak ziren.

186. Andoaingo aguazila (AND-010/045)

Andoaingo aguazilak umeen ibilerak kontrolatzen zituen. Kartzelara ere erraz sartzen zituen gaztetxoak, gaua pasatzera. Umeak gaizki hezita daude gaur egun.

187. Tranbiako kontuak (AND-010/046)

Tranberoa nola hil zen, amilduta. Tranbian emakumeek buruan zestoak eramaten zituzten; laguntzeagatik propina ematen zieten haiek. Txistezalea zen tranberoa: bi anekdota.

188. Tranbiako kontuak II (AND-010/047)

Tranberoaren beste istorio bat, Andoaingo kondearekin lotutakoa. Tranbiak Politena putetxean egin zuen geldialdia. Tranbiako kobratzaileak.

189. Andoaingo kanala (AND-010/049)

Arrain saltzaileak. Angula asko eta merke zegoen. Leitzan paper lantegia jarri zutenean, ura zikindu egin zen. Andoaingo batek egin zuen kanala. Izokina eta amorraina, ugari. Langileek jarri zuten baldintza: astean behin haragia jatea.

190. Arrantzan (AND-010/050)

Arrantzan eta ehizan ibiltzen zen. Arrantzan, gauez. "Tresmailak" eta "butroiak". Amuarrainak. Zumitzarekin egiten zituen aitak butroiak.

191. Arrantzan II (AND-010/051)

"Eskusarearekin" ibiltzen zen bera, gauez. Etxerako hartzen zuten arraina. Guardek ez zuten sekula harrapatu.

192. Andoaingo santakrutzak (AND-010/053)

Andoaingo santakrutzak. Lantxak. Akordeoia gustatzen zitzaion berari. Herniora joaten zen. Soinu jotzaileak.

193. Andoaingo bilerak (AND-010/056)

Bilerak egiten ziren tokietan soinu jotzaileak egoten ziren jaiero. Andoaingo bilerak. Gaur egungo musika ez zaio soinua iruditzen. Oraingo gazteen ibilerak ere ez zaizkio gustatzen.

194. Labordenean lanean (AND-010/057)

Labordenean 16 urterekin hasi zen, eta 52 urte egin zituen. Espoletak egiten zituzten, granadentzat. Egunean 8.000 egiten ziren. Gerra garaiko kontuak. Kamioiak errekisatu zituzten, Bilbora eramateko. Labordeneko ezkutalekua.

195. Labordenean lanean II (AND-010/058)

Gerra aurretik lantegia ez zebilen oso ondo; espoletekin asmatu zuten; dena aldatu zen. Modernazio ezak ekarri zuen galbidea, gero. Labordenean emakumeak ere bazebiltzan. Haiek egiten zuten lana.

196. Labordenean lanean III (AND-010/059)

Labordeneko lan baldintzak. Larunbat arratsalde zai. Errepublikak garaian jarri zuten 8 orduko lan eguna; lehenago, ilundu arte egiten zuten lana. Andoingo kanala egiten aritu zireneko lan baldintzak. Batek bi zaku eramaten zituen aldiko. Eliza kapitalista izan da beti.

197. Bataioak (AND-010/061)

Bataiatu, jaio eta berehala. Ama ez zen joaten. 20 egun pasatzen zituen ohean. Oilo salda. Elizan sartzea. Aita-ama pontekoak.

198. Oilaskoa, bedeinkazioaren truke (AND-010/062)

Baserriz baserri bedeinkazioa ematen ziren apaizak. Oilasko pareak ematen zieten trukean. Asteasun gertatutako anekdota kontatzen du.

199. Jaunartzea (AND-010/064)

Dotrina elizan ere ikasten zuten, Jaunartzea egiteko.

200. Anaiaren ezkontza (AND-010/066)

Bere anaiaren ezkontza. Lezok ezkondu, eta Andoainen ere kobratu.

201. Hildakoa zaintzen (AND-010/067)

Hildakoaren gorputza zaindu behar zen. 15 misteriozko arrosarioa errezatzen zuten, belauniko. Gailetak eta ardoa ematen zuten. Anekdota.

202. Hildakoa zaintzen II (AND-010/068)

Inguruko baserrietakoak joaten ziren arrosarioak. Anekdota kontatzen du: mozkortu eta hildakoa zutik jarri zutela batzuek. Hileta egunean bazkaria izaten zen, eta han ere mozkortzen ziren batzuek.

203. Hildakoa eramaten (AND-010/069)

Hildakoa baserritik elizara bizkarrez eramaten zuten. Elizbiderik ez zegoen.

204. Euskararen egoera Andoainen (AND-010/071)

Afrikan ikasi zuen gaztelania. Andoainen kalean dena euskara entzuten zen. Ebanjelioa latinez izaten zen garai batean, gerra aurrean. Gero, gaztelaniaz.

205. Inguruko euskara (AND-010/072)

Tolosaldeko euskara antzekoa da. Kostaldean aldatzen da asko. Tolosatik Donostiara da euskara garbiena. Elkar ezin ulertua. Euskara batua baino hobeto ulertzen du gaztelania. Gazteek erdararako joera handiagoa dute.

206. Andoainen antolamendua lehen (AND-011/002)

Bere jaiotetxeari buruz eta orduko Andoingo kaleen antolamenduari buruz hitz egiten du.

207. La Salle Andoainen jarri zutenekoa (AND-011/004)

La Salleko anaiak 1932-1933an etorri ziren Andoainera. Hasieran lau anaia etorri ziren irakasle. Gerora, eskola gehiago egin ziren Andoainen. Migelek La Sallen ikasi zuen, baina La Salleko anaiak fraideekin haserretu zirenez, ikasleek eskolatik atera behar izan zuten.

208. Lanbide-eskolan ikasi ostean, lanera nora? (AND-011/005)

13 urte zituela, lanbide-eskolan hasi ziren ikasten 17-18 ikasle. Han goizez teoria ikasten zuten, eta arratsaldean praktikak izaten zituzten. Lanbide-eskolako lehenengo promozioa izan zen berea. Bukatutakoan, Laborden sartu ziren lanean 15 ikasle, baina Migel Sapara joan zen. Erabaki hura zergatik hartu zuen azaltzen du. Lan-baldintzak hobetzen joan ziren pixkanaka.

209. Sapako grebak (AND-011/006)

Sapan langile asko zeuden, Migel 1204.a zen. Sapan greba asko egiten ziren: hasieran, jornala hobetzeko eskatzen zuten. Langile batzuk zigorra jaso zuten greban ateratzeagatik.

210. Motorra zeukan langilea (AND-011/007)

Hasieran grebak lan-baldintzak hobetzeko izan ziren. Sapako langileetako bat motorrez joaten zen lanera besteak bizikletaz joaten ziren bitartean. Motor haren gainean nagusiak ere komentarioak egiten zituen.

211. "Sábado inglés" eta ordu estrak Sapan (AND-011/008)

"Sábado inglés" egiten zuten beti, eta sistema horrek nola funtzionatzen zuen azaltzen du. Garai hartan, ordu estrak sartzen zituzten askotan diru pixka bat gehiago ateratzeko. Hainbat urtetan gau eta egun aritu zen lanean Sapa.

212. Francok Sapa bisitatu zuenekoa (AND-011/009)

Sapan lanean zebilela, Francoren bisita izan zuten. Orduan nor egon zen fabrika azaltzen du.

213. Francoren bisita eta Sapako lana (AND-011/011)

Carrero Blanco eta Martin Artajo Francorekin etorri ziren Sapa bisitatzerako. Orduan gertatutakoa kontatzen du. Francok ez zuen nahi izan langile guztiak egotea lantegian; Migel eta beste langile batzuei han egoteko eskatu bazieten ere, ez zuten nahi izan. Lan asko egin izan du Migelek Sapan, dena armamentuari lotutakoa.

214. Trantsizio garaiko giro nahasia (AND-011/016)

Garai nahasia izan zen trantsizio inguruan. Edozein sartzen zuten kartzelan orduan. Behin fabrika inguratu zuten guardia zibilek, eta Migelek kontuz ibiltzeko abisatu zien langile batzuei. Horri esker, seguru asko, ez zituzten hil. Carrero Blanco hil zutenean, xanpainarekin ospatu zuen askok.

215. Aste Santuan lanera joateko baimena lortu zutenekoa (AND-011/017)

Aste Santuan lanera joan behar zuten, baina garai hartan bekatua zen. Apaizarekin hitz egin ostean, ordean, baimena lortu zuten lanera joateko.

216. La Salleko ikasleak elizara errenkadan (AND-011/018)

Lehen elizara jaiero joan behar izaten zuten. La Sallen zebilen garaian, 200-300 ikasle joaten ziren elizara, denak errenkadan.

217. Gurutz Ganzarain animatzeko eskolatik irteten utzi zietenekoa (AND-011/019)

Lehen pilotan eta futbolean jokatzeko zuten gehienbat. Txirrindularitza ere jarraitzen zuten, eta garai hartako txirrindularitza-itzuli batean Gurutz Ganzarain animatzeko utzi zieten eskolatik irteten La Sallen. Itzuli haren ibilbidea nondik nora zihoan aipatzen du.

218. Korrika-apustuak eta Garro (AND-011/020)

Korrika-apustuak egiten ziren orduan. Garroren aldekoak izaten ziren beraiek. Lasarteko kros bat gogoan du oraindik.

219. Batelen txapelketen hasiera (AND-011/022)

Batelen lehenengo txapelketa beraiek antolatu zuten. Auzoen artean lehiatzen zuten, eta nor izaten zen onena azaltzen du. 5-6 urte iraun zuen horrek.

220. Bateletako gorabeherak (AND-011/023)

Bateletan izandako gorabeherak kontatzen ditu: tongoak, ika-mikak, tranpak... Orduko tripulazioan 4 gizon eta patroia joaten ziren. Batelak erosi egiten zituzten.

221. Andoaingo estropadak antolatzen (AND-011/024)

Lehen apustuak egiten ziren, eta horretarako artekariak etortzen ziren. 1985 arte jokatu ziren estropadak Andoainen. Migel estropada haiek antolatzen ibiltzen zen.

222. Andoainen festa eta musika ez da falta izan (AND-011/025)

Musika asko izaten zen Andoainen festetan. Neskekin dantza lotua egitea libre zen; bandak eta jazbanak jotzen zuten musika. Andoainen festa asko egiten ziren: 6 auzotan, hain zuzen ere.

223. 10 urte babarrunak jaten (AND-011/027)

Normalean babarrunak jaten zituzten. Migelek 10 urte pasa izan ditu ia egunero babarrunak jaten.

224. Gerra ostean ogiarekin arazoak (AND-011/028)

Gerra ostean ogiarekin arazoak egon ziren, eta kontrabandora jo behar izan zuten hura lortzeko. Behin Txindokiraino igo ziren txangoan eta jaitsieran soldaduek janaria eskatu zieten; ordurako dena janda zeukaten, baina.

225. Mendira joateko zaletasuna (AND-011/029)

Maiz joaten ziren txangoan. 17 urtetik aurrera, igandero joaten zen mendira lagunekin; gerora, emaztearekin eta umeekin joaten zen. Txangoak nora egiten zituzten aipatzen du.

226. Mendira joateko janzkera (AND-011/031)

Mendira joateko ez zuten arropa berezirik izaten: abarkak janzten zituzten, panazko txaketa, mantala... Zestoako lagun bat beraiekin joaten zen mendira, eta harekin ikasi zuten Itziar inguruan ibiltzen.

227. Bere jaiotetxearen egitura (AND-011/033)

Lehen etxeak zaharrak ziren, baina orain baino hobeak. Beraien etxearen egitura nolakoa zen azaltzen du. Gela eta logelaren (alkoba) arteko desberdintasunak aipatzen ditu. Olentzerotan, Patxi Garrok beraien etxean egiten zuen lo. Harekin izandako anekdota kontatzen du.

228. Ura eta argindarra etxean beti ezagutu izan ditu (AND-011/034)

Ura ekonomikan berotzen zuten. Ur beroa gastatzeko kontuz ibiltzen ziren. Iturriko ura eta argindarra beti ezagutu izan ditu etxean. Neguan, iturriaren hodietako ura ez izozteko, ura martxan edukitzen zuten etengabe.

229. Etxeko baratzea eta garbitasuna (AND-011/035)

Etxean bi baratze zeuzkaten. Etxe barruan komuna bazeukaten, baina dutxarik ez. Etxe inguruan garbitegia bazeukaten, baina amak harraskan garbitzen zituen gauzak.

230. Sua egiteko zerrautsa biltzen (AND-011/036)

Etxean zerrautsarekin egiten zen sua zeukaten. Zerrategietara joaten ziren zerrauts bila. Zerrautsa azprietatik beraiek ateratzen zutenez, ez zieten kobratzen zerrategian.

231. Soriako fruta-saltzailea (AND-011/038)

Kalean ibiltzen ziren fruta-saltzaileak. Haietako bat Soriakoa zen, eta "ederra merke" esaten zuen euskaraz.

232. Arrainaren salmenta nola aldatu den (AND-011/039)

Arrain-saltzaileak etortzen ziren Andoainera, zortzi emakume inguru; Donostiatik ekartzen zuten arraina. Andoingo lehenengo arrandegi itxia Luzuriagak jarri zuen. Angulak lehen merke saltzen ziren oraingo aldean. Kamioiak arraina garraiatzen hasi zirenean, arrainaren prezioak garestitu egin ziren.

233. Tranbiako bidaiariak (AND-011/040)

Andoain oso ondo komunikatuta egon izan da: trena, tranbia... Tranbia Migelen etxe ondotik pasatzen zen. Tranbian landareak eta abereak (astoak, txekorra...) ere sartzen zituzten baserritarrek.

234. Bildutako perretxikoak etxean nola prestatu? (AND-011/043)

Perretxikotan asko ibilitakoa da Migel. Basora joaten ziren perretxiko bila; baina bildutakoa prestatzeko olio falta izaten zitzaien, eta grasa erabili behar izaten zuten. Zer perretxiko klase ekartzen zuten aipatzen du. Gaztainak erreta edo egosita jaten zituzten etxean normalean.

235. Upategi baserrian jaioa (AND-012/003)

Gerra hasi zenean 9 urte zituen. Upategi baserrian jaioa, aita bertakoa zuen; ama Urnietakoa. Hasieran maizterrak ziren. Etxe ondoko lurretan lantegi bat jarri zuten, aita han enplegatu zen, eta Donostiara tratua saltzera joateari utzi zioten; aurretik bera ere joaten zen esnearekin.

236. Donostiara esnea partitzera (AND-012/004)

Esnea partitzera joaten zen Donostiara, eta txerri jana ekartzen zuen bueltan. Trenez joaten zen Andoaindik. Autobusik ez zegoen artean. Zaldi-karroa. Etxera itzultzean, etxeko lanak egin behar izaten zituen.

237. Baserriko lan banaketa (AND-012/005)

13 senide ziren. Nesken lanak eta mutilenak. Zapatak garbitzea bere lana zen. Mutilak aitari laguntzen egoten ziren, abereekin eta soroan. Bera ere ibiltzen zen soroan, baino ez asko. Lastozko kapela jartzen zuen. Arropa garbitzea zen bere lana; marmitak garbitu eta iturritik ura ekartzen zuen. Hankak nola garbitzen zituzten, txandaka.

238. Arropa garbitzen, iturrian (AND-012/006)

Arropa garbitzea. Iturrira joaten zen. Teilatuko ura biltzeko "bozadera". Xaboia. Laneko arropa aparte garbitzen zuen. Buru gainean eramaten zuen barriñoia. "Burutia" eta "buru-xestera".

239. Sutarako hautsa, maindireentzat (AND-012/007)

Amonak sutako hautsa erabiltzen zuen maindireak garbitzeko, "kuelan".

240. Arropa garbitzen, iturrian II (AND-012/008)

Arropa garbitu ostean non jartzen zuten. Orduko tela sendoa zen. Mahoizko galtzak.

241. Josten eta galtzerdiak egiten (AND-012/009)

Gazterik ikasi zuen galtzerdiak egiten; amak erakutsi zion. Amak eginak erabiltzen zituzten umetan. Josten ere ikasi zuen, amaren josteko makinan. Ikastaroren bat ere egin zuen. Etxerako josi izan du. Lehen ez zuten egindako arroparik saltzen.

242. Tela dendak (AND-012/010)

Tela denda asko zegoen oraingo aldean. Andoainen ere bazen. Egindako arropak hasi zenean, ez zen orain bezalakoa.

243. Arropa lisatzen (AND-012/011)

Anaien galtzak eta alkondara zuriak lisatzen lan ederra hartzen zuen. Lisaburdinak ekonomika gainean berotzen zituen. Ikatzezkoak ere baziren. Lehengo plantxa elektrikoak eskasak ziren.

244. Umetatik umezain (AND-012/012)

Argindarra beti ezagutu du etxean. Aurretik kinkearekin ibiltzen ei ziren. Sukaldeko lanak. Su egurra. Anai-arrebak zaintzen, artean umea zela.

245. Andoaingo ikastolan, itxi zuten arte (AND-012/013)

Eskolan mojekin hasi zen, eta gero ikastola zabaldu zuten, eta Juanita Alkainena. Gantxiloa egiten erakusten zuen. Han dena zen euskaraz. Eskolarako bidea. Gerra denboran itxi egin zuten ikastola, eta eskola publikora joan behar izan zuen. Dotrina ere gaztelaniaz han, eta kosta zitzaion; lehen euskarazkoa zuten. Jaunartzea noiz egin zuen. Erdaraz ez zekien. "Cara al Sol" kantatzen zuten.

246. Etxean laguntzeko, eskola utzi (AND-012/015)

Villa Argentinan ibili zen partikular arratsaldez, aldi batean. Amona hil zenean eskola utzi zuen, etxean laguntzeko. Buruz ikasten zuten lezioa, zer esaten zuen jakin gabe. Ikastolan "Xabiertxo" liburua zuten, enziklopedia... baina denbora gutxi egin zuen.

247. Umetako jolasak (AND-012/016)

Umetako jolasak, neskenak eta mutilenak. Txibak. Kurkuluxak. Txingoak.

248. Eskuz egindako jostailuak (AND-012/017)

Eskuz egindako jostailuak. Lokotsarekin panpinak egiten zituen. Yo-yoak ere egiten zituen, botoiekin.

249. Umetako arropak (AND-012/018)

Gutxirekin konforme izaten ziren. Alpargata berriak janzteko pozik. Arropa amak egiten zien; eman ere bai igual norbaitek.

250. Etxea garbitzen (AND-012/019)

Etxea garbitzeko modua. Lurra fregatu egiten zuten. 12 urterekin egin zuen lehendabizi, belauniko jarrita. Salan bi alkoba zeuden; gero obra egin zuten, gela egiteko.

251. Oheak partekatu behar (AND-012/020)

Senide asko ziren, eta ohea partekatu behar. Amonarekin egiten zuen lo berak; anaia batek aitonarekin. Gerora, lau neska gela batean; armairu batekin aski zuten. Orain, berriz...

252. Menda belarra, erratz kirtenean (AND-012/021)

Menda belarra erabiltzen zuten, erratz kirtenean jarri eta ohe azpia garbitzeko. Arkakusoak izaten ziren, eta uxatu egiten zituen.

253. Mezetatik bueltan, taloak erretzera (AND-012/022)

Lan asko egiten zuten, eta hala ere gustura. Konforme. Jaitan egiten zuena: mezetara joan eta gero taloak erretzera.

254. Jaten zutena, egunero eta egun berezietan (AND-012/023)

Gabonetan, txitxarroa. Babarrun gorria zen eguneroko jakia, eta jaitan garbantzua. Paellak eta horrelakorik ez. Zopa ere jaten zuten, eta haragia tomatearekin. Laranja jaietan bakarrik. Gazta edo txokolatea, meriendatzeko.

255. Gabonetan mutilak kantu eskean (AND-012/024)

Gabonetan eskean ibiltzen ziren mutilak, gauez.

256. Erregeen ilusioz, Gabonetan (AND-012/026)

Erregeak, olentzerorik ez zen. Mazapanak ekartzen zituzten. Behin panpina ekarri zioten, baina normalean arropa edo. Gerraostean kanta euskaldunik ez zen entzuten kalean. Bertsolariek ere ezin zuten nahi zutena kantatu.

257. Meza ondoren, bertsoak eta bandoa (AND-012/027)

Bertso-paperak saltzen zituzten eliza atarian. Kantatu egiten zituzten, eta saldu. Pregoilaria ere ibiltzen zen, meza ondoren abisuak ematen. Bidea konpontzeko deia egiten zutenean, baserri denetatik joaten ziren. Haserreak ere izaten ziren.

258. Gerraosteko errazionamendua (AND-012/028)

Gerra hasi zenean, 15 egunean ez ziren etxetik atera. Gerraostean oliorik ez zen. Errazionamendua. Baserritarrek ekoiztutakoaren zati bat udaletxera eramane behar zuten. Ogia txarra zen. Boniatoak. Babarrunei esnegaina botatzen zieten, olioaren faltan.

259. Ogirik ez, eta taloa (AND-012/029)

Ogirik ez zegoen gerraostean. Etxean artoa izan arren, errotak itxita zeuden. Zizurkilera joan zen anaia, gauez. Kontrabandoko irina. Taloeke aspertu ere egin ziren. Txerria hiltzen zuten. Bakarra hil zitekeen gerraostean, baina bi hildako urteak izan ziren.

260. Ama beti haurdun eta bera beti umezain (AND-012/030)

Ama beti haurdun ezagutu zuen, baina jaio arte ez zieten ezer esaten. Gazteena bera baino 18 urte gazteagoa zen, eta orduan bai, amak esan zion bere besoetakoa izango zela. Umea umearen atzetik, bera ez zen lanetik libratzen. Umea jaiotzean, amona eta izeba etortzen ziren.

261. Umeen bataiatu, lehenbailehen (AND-012/031)

Bataiorako faldoia jartzen zieten umeei. Lehenbailehen bataiatu behar zen. Gerraostean anaia jaio eta taloak egiteko irinik ez zuten; amonaren etxera joan zen bila.

262. Elizan sartzea eta etxetik atera ezina (AND-012/032)

Amak astebete pasatzen zuen ohean esne-ura eta oilo-salda hartuz; ezin zuten normal jan. Elizan sartzea zetorren gero. Berak ere egin zuen. Bere alabetako baten bataioa kontatzen du. Amak ez ziren bataiora joaten, ezin zuten etxetik atera. Teila buruan jartzeko ohitura.

263. Elizaren garrantzia eta ezkontza (AND-012/033)

Elizaren garrantzia. Ezkontza nola izaten zen. Emaztea gizonaren azpian zegoen. Manga motzean ezin sartu elizara. Arreoa. Laborden egiten zuen lana senarrak, eta han ondora joan ziren bizitzera. Urruti samar zegoenez, lekuz aldatu dira.

264. Euskara eta nortasuna (AND-012/037)

Euskara zer den berarentzat. Euskaldunak etxekalteak gara batzuetan: erdaraz jarduteko ohitura. Kolean erdara entzuten zen asko, eta "kaxera" esaten zieten. Erdara noiz hasi zen zabaltzen. Orain euskara lehen baino gehiago entzuten da.

265. Euskara aldatu egin da (AND-012/038)

Ikastolako euskara diferentea da. Etxeko euskara ere aldatzen joan da. Euskara non hasten den aldatzen. Amezketako euskara eta Itziarkoa diferenteak dira.

266. Gerra garaian, baserrian (AND-012/041)

Gerra garaian baserritik ez zen atera. Osaba Migel joaten zen kalera. Anaia zaharrena mutikoa zen artean.

267. Hilabeteen izenak (AND-012/043)

Hilabeteen izenak esaten ditu. Lexikoa.

268. Ilargiaren garrantzia (AND-012/044)

Ilargiaren inportantzia. Amak oilalokarekin kontuan izaten zuen, eta baita landareak aldatzeko ere. Lur azpian ateratzen direnak ilbeherakoak ei dira. Eguraldiak ere lagundu egin behar du.

269. Baserritik lantegira (AND-012/046)

Lehen dirurik ez zegoen, eta ezin gastatu. Orain aise gastatzen da. Baserritik lantegira joanda, diru iturri segurua.

270. Baserritik lantegira II (AND-012/048)

Baserritarrak lantegietara joaten dira lanera, orain arte. Etxeko mutilak eta aita, denak kanpora joan ziren lanera. Baserrian ordutegirik ez da.

271. Igande arratsaldea libre (AND-012/049)

Zinemara joaten ziren neguan, jai arratsaldetan. Inguruko herrietako festetara joatea ez zen hain erraza. Sanpedrotan Lasartera joaten ziren.

272. 'Le petixene' (AND-013/002)

'Le petixene' esaten zioten Mirenen osaba bati. Mirenen amaren ahizpa batekin ezkondua zegoen, eta zamorarra zen izatez. Osabari buruzko azalpenak.

273. Aita atxilotuta eraman (AND-013/005)

Gerra denborako oroitzapenak. Aita atxilotuta eraman zuten, bizilagun batek salatuta.

274. Aita atxilotuta, amarekin Bilbora (AND-013/006)

Gerra denborako oroitzapenak. Aita atxilotuta, amak eta bost seme-alabak Asuara, Bilbora, alde egin zuten. Karlista batek eraman zituen Bilbora. Behin han, aitaren arreba baten etxean egon ziren. Baina bertan geratzea arriskutsua izan zitekeela-eta, anaia zaharrena izebarekin geratu, eta amak eta lau seme-alabek handik alde egin zuten.

275. Ihesean batetik bestera (AND-013/007)

Gerra denborako oroitzapenak. Andoaindik ihesean Asuara, Zorrotzara, Gijónera (Asturias)... joan ziren ama eta lau anai-arreba. Bueltakoan, Santanderren edo Oviedon barku bat hartu eta Bartzelonara joan ziren. Barkuan Miren mareatu egiten zen. Andoaingo maisu bat tokatu zitzairen barkuan, eta gazta eta txokolatea eman zien.

276. Bartzelonatik Frantziara (AND-013/008)

Ihesaldiko oroitzapenak. Denboraldi bat Bartzelonan egon eta gero, Frantziara joateko saiakera egin zuten. Anbulantzia batean Frantziara zihoazela tirokatu eta Bartzelonara bueltatu ziren. Halako batean, Frantzian sartzea lortu zuten.

277. Ihesaldiko urteak (AND-013/010)

Ihesaldiko oroitzapenak. Andoaindik ihes egin eta lau urtera bueltatu ziren herrira, aita erreklamatuta. Lau urte horietan nolako bizimodua egin zuten kontatzen du. Frantziako egonaldia.

278. Frantziako egonaldia (AND-013/011)

Frantziako egonaldiko oroitzapenak. Iheslarientzako esparru batean egon ziren. Egoteko eta lo egiteko toki onena lortzeko borrokak izaten ziren. Mirenen ama eta emakume guztiak lanera eramaten zituzten "kontzentrazio-esparrura".

279. Jana eta arropak Frantzian (AND-013/012)

Frantziako egonaldiko oroitzapenak. Ondo ematen zieten jaten. Arropak, berriz, karitateko ahizpek ematen zizkien. Arropa aukera handia izaten zuten hartzeko. Bederatzi urte zituen Andoainera bueltatu zirenean.

280. Bartzelonan Amorebietako emakume batekin egon (AND-013/013)

Ihesaldiko oroitzapenak. Frantzian ez ziren euskaldunekin egon, baina Bartzelonan bai. Bartzelonan harremana egin zuten Amorebietako emakume bati buruz hitz egiten du.

281. Etxera buelta (AND-013/014)

Mirenen aita gutunak idazten zituen, eta Gurutze Gorriaren bitartekaritza bueltatu ziren Frantziatik Andoainera ama eta lau anai-arrebak. Trenetara iritsi eta aita ikusi zueneko oroitzapena. Herrira bueltatu zirenean, ezer gabe utzi zituztela jabetu ziren.

282. Espainiako ereserkia abestu behar (AND-013/015)

Herrira itzuli, eta eskolan hasi ziren. Amak esaten zien ez esateko Frantzian egonak zirela. Astean behin opila txokolatearekin ematen zien eskolan, baina

Miren eta bere bi ahizpei ez zien ematen "gorriak" zirelako. Espainiako ereserkia abesteko esaten zien maistrak, baina beraiek ez zekiten: amak ez kantatzeko esaten zien.

283. Maistra errepublikarra (AND-013/016)

Gerraostean eskolan hasi zireneko kontuak. Maistra berri bat hasi zen eskolan: Doña Karmen Talavera. Antza, maistra berria errepublikarra zen. Maistra horrek opila eta txokolatea uzten zizkien komuneko ate atzean, baina norbaitek salatu eta mokadu gabe geratu ziren.

284. 'Prietas las filas' abestera behartu (AND-013/017)

Eskolako kontuak. Inpektoreak ibiltzen ziren eskolan. Behin, 'Prietas las filas' abestera behartu zuten. Gero, etxera joan zirenean, ahizpa batek esan zion amari Mirenek kantu frankista bat abestu zuela, eta amak jo egin zuen. Eskolan, kalean, etxean... diktadura bizi zutela dio.

285. Politika etxean (AND-013/020)

Politika etxean nola bizi zen. Mirenen gurasoak abertzaleak ziren.

286. Aitaren kartzelaldia (AND-013/021)

Mirenen aitarekin batera kartzelan egon ziren andoaindarrak: Pedro Arregi, Fidel Arrieta eta Felix Balastrain. Laurak egon ziren kartzelan eta Langileen Batailoietan. Burgosko penalean, Santoñan eta Donostiako Ondarretan egon zen preso Mirenen aita. Asuako abokatu batek atera zuen espetxetik.

287. Astero komandantziara joan behar (AND-013/022)

Andoainera bueltatu zirenean, astero komandantziara joan behar izaten zuen familia guztiak. Kanean zihoazela "rojos" esaten zien.

288. Aita harrobian lanean (AND-013/023)

Kartzelatik libre gelditu ondoren, Mirenen aitari ez zioten lanik ematen. Harrobian egiten zuen lana. Harrobian lanean zebiltzala egarri handia egiten zitzaien hautsagatik, eta inguruko baserri batera joaten ziren edatera.

289. Oldarra taldeko ikurra (AND-013/024)

Klandestinitate kontuak. Ikurrinak kolkoan sartuta ibiltzen ziren. Mirenen ahizpa Begoña oso abertzalea zen. Santa Krutz jaietan, besoan Oldarra Dantza Taldearen ikurrarekin atera zen ahizpa. Guardia Zibilak ikusi eta hura kentzeko agindu zion.

290. Ikurrinak banatzen (AND-013/026)

Ikurrina txikiak banatzen ibiltzen ziren Miren eta bi ahizpak. Ez zuten beldurrik pasatzen.

291. 'Pirenaica' irratia (AND-013/027)

'Pirenaica' irrati klandestino entzuten zuten etxean. Dolores Ibarruriren hitzaldiak entzuten zituzten irrati bidez. Ondoko bizilaguna, emakume errepublikar bat, beraien etxera joaten zen irrati entzutera.

292. Trini bizilaguna eta Gabino harakina (AND-013/028)

Trini bizilaguna aterki-konpontzailea zen. Diru falta eta jan eskasia zegoen garaiko kontuak. Trinik dirua irabazten zuenean, haragia eroatera bidaltzen zituen Miren edo ahizparen bat: harakinak eskatutakoa baino puska handiagoa jartzen zien. Jatekoa: arroza haragiarekin.

293. Gosea (AND-013/029)

Gerra ondorenean gosea pasatu zuten. Mirenen ama baserrietara joaten zen babarruna biltzera, eta trukean jatekoa ematen zioten. 'Auxilio Social'en esne-hautsa ematen zien.

294. Ama, arropa garbitzen eta egurra saltzen (AND-013/030)

Mirenen amak ez zuen lanik egiten etxetik kanpo, ez zioten lanik ematen. Garbitokietan arropa garbitzen zuen diru truke. Mendira joan, egur sorta bat hartu, moztu eta egurra saltzen zuen kolean.

295. Alondegira, errazionamendu bila (AND-013/031)

Errazionamendua alondegian ematen zuten. Ilaran egon behar izaten zuten jakiak jasotzeko zain. Beti ez zen denentzako izaten. Holakoetan, negarrez joaten ziren etxera. Mirenen aita erretzailea zen. Tabakoa erosteko dirurik ez eta errazionamenduko kartilarekin ematen zien. Tabakorik ematen ez zienean, lurretik zigarro-mutxikinak biltzen ibiltzen ziren.

296. 'Auxilio Social' (AND-013/032)

Mirenen anaia Jexux eta Begoña ahizpa 'Auxilio Social'era joaten ziren bazkaltzera. Gero, Miren ere hartu zuten. 'Auxilio Social'ean egoten zen emakumeak ezinikusia zien.

297. Aitak erremolatxa jan, gosearen gosez (AND-013/033)

Gosearen gosez, Mirenen aitak erremolatxa, behiarentzako jatekoa, jan zuen. Tripetatik gaizki jarri eta medikua joan zitzaion etxera.

298. Rezolako errazionamendua (AND-013/034)

Mirenen aitak Rezolaren harrobian lan egiten zuen. Aita Rezolako langilea zelako hilero errazionamendua tokatzen zitzaien: patata, lenteja, urtaia, esne-hautsa... Erregeetan jostailuak izaten zituzten, baina amak arropa eskatzeko esaten zien. Tranbian joaten ziren bi ahizpa errazionamenduaren bila. Arropa eta garbitasun kontuak.

299. Taloa eta morokila (AND-013/035)

Villabonan eta Asteasun lortzen zuten artoa. Etxean taloa eta morokila jaten zituzten.

300. 12 urterekin, Sondikara (AND-013/037)

12 urterekin Sondikara bidali zuten Miren, izeba batengana. Ordura arte, anaia zaharrena egon zen han. Miren Sondikara zihoala eta anaia bueltako bidean zela ezagutu zuten elkar Maltzagan, tren-aldaketa egiten ari zirela. Sondikako izeba aberatsa zen, eta errota bat zuen. Han egon zen denboran ez zuen arropa eta jateko faltarik izan.

301. Izebaren errota (AND-013/038)

12 urterekin Sondikara bidali zuten Miren, izeba batengana. Izebak errota zuen, eta gauez jartzen zuen martxan errota. Lau harriko errota zen, eta Artxanda azpian zegoen. 16 urtera arte egon zen izebarekin.

302. Baserriko bizimodua (AND-013/042)

Sondikako egonaldiari buruzko azalpenak. Errotan zer eginkizun zituen kontatzen du. Baratzean eta artajorran aritzen zen. Oilo bat ito zueneko pasadizoa kontatzen du.

303. Miren 'La molinera' (AND-013/043)

Sondikako egonaldiari buruzko azalpenak. Astean behin garbitzen zuten arropa. Zelai batean zintzilikatzen zituzten arropak eta maindireak. Errotako eginkizuna: presa betetakoan, harriak martxan jartzea. Miren 'La molinera' esaten zioten.

304. Errotako eginkizunak (AND-013/045)

Sondikako egonaldiari buruzko azalpenak. Errotako eginkizuna: presa betetakoan, harriak martxan jartzea. Irina fin-fin ateratzen al zen begiratu behar izaten zuen. Errotako harriak garbitzea. Bi lehengusu txiki zaintzen zituen.

305. 12 urterekin anaia ezagutu (AND-013/047)

Gerra denboran senideak sakanatu egin ziren. Anaia zaharrena Bilboko izeba batekin geratu eta zortzi urte inguru egin zituen han. Mirenek 12 urte zituela ezagutu zuen anaia. Une hartako oroitzapenak kontatzen ditu.

306. Bi masaileko gizon bati (AND-013/048)

Mirenen anaia zaharrenak Luxio izena zuen. Zinta lasterketa batean gizonezko batek anaiari erorikoa eragin zion. Hori ikusita, Mirenek bi masaileko eman zizkion gizonezkoari.

307. Andereñoari bi masaileko (AND-013/049)

Eskolako kontuak. Negu partean, suaren inguruan biribilean egoten ziren. Andereñoa falta zen une batean, ume batek sua itzali zuen. Hura bueltatzean denek esan zuten Miren izan zela, eta andereñoak bi masaileko eman zizkion. Mirenek, ordea, bueltatu egin zizkion. Etxean zigortuta egon zen, eta aitak jo egin zuen.

308. Umetako jolasak (AND-013/050)

Ume denborako jolasak: txingoka, "a narros", "al corro de las patatas", pilotan... Ez zuten aspertzeko astirik izaten.

309. Umetako kantu-jolasak (AND-013/051)

Eskolan, jolas garaian, abesten zituzten kantu-jolasak: "En el medio del jardín..." eta "La chata merenguera...".

310. Ile-apaintzaile izan nahi (AND-013/052)

Mirenek ile-apaintzailea izan nahi zuen. Etxeko sukaldean orrazten zituen lagunak.

311. Labordenean lanean (AND-013/054)

16 urterekin Bilbotik Andoainera bueltatu, eta Labordenean hasi zen lanean.
18 urterekin birika batean lesio izan zuen, eta bulegoko lanetara pasatu zuten.

312. Lan ordutegia eta jatorduak (AND-013/055)

16 urterekin Bilbotik Andoainera bueltatu, eta Labordenean hasi zen lanean.
Lan ordutegia. Labordenean lanean aritzen ziren lau neska lagun baten etxera joaten ziren bazkaltzera: bakoitzak bere etxetik eramaten zuen bazkaria.
Orduko jendearen eskuzabaltasuna goraipatzen du.

313. Gerraosteko euskararen egoera (AND-013/057)

Papeletan Maria jarri behar zuen, bestela ez zuen kobratzen. Etxean gaztelaniaz hitz egiten zuten. Aitak euskaraz jakin arren, gaztelaniaz hitz egiten zuen. Amak euskara gehiago egiten zuen. Gerra denbora eta gerraostean senideak sakabanatuta egon ziren: Bilbon egon zirenek gaztelaniaz hitz egiten zuten bizimodua.

314. Frantzian, gaztelaniaz eta frantsesez (AND-013/058)

Gerra denboran Frantziara egin zuten ihes. Errefuxiatuekin gaztelaniaz hitz egiten zuten. Frantsesez hitz egiten ere ikasi zuten. Euskaraz hitz egiteko debekua.

315. Francoren bisitak (AND-013/060)

Pena du etxean gaztelaniaz hitz egiten zutelako. Aita Asuatik Andoainera bizitzera joan zenean, euskaraz hitz egiten zuen. Gero, ordea, jazarpen handia egon zen, eta gaztelaniaz hitz egiten hasi zen. Francoren bisitaren bat izaten zen bakoitzean Mirenen aita eta beste bost gizon kartzelan sartzen zituzten.

316. Komunioko trajea (AND-014/002)

Zazpi urterekin komunio txikia egin zuen. Eta 11 urterekin, berriz, komunio handia. Lau senidek traje berarekin egin zuten jaunartzea. Amak trajea ondo jasota edukitzen zuen. "Marroi pintarra" zen trajea.

317. Ezkontzerako etxea egin nahi (AND-014/005)

Gazte garaian, lan asko egindakoa da Juan Bautista. Zortzi ordu lantegian pasa eta gero, beste zortzi ordu egiten zituen mendian pinuak zulatzen. Hiru ordu lo eginda joaten zen lanera. Ezkontzerako etxea egin nahi zuen, aitari lursaila erosita. Etxearen zimenduak berak egin zituen, eskuz.

318. Soldaduak Goiburun sartu (AND-014/011)

Amabirgin Egunako arratsaldean sartu ziren nafarrak Goiburun. Juan Bautista auzoko bati udareak ematera joana zen. Nazionalistek meza egin zuten ermitan. Halako batean, soldaduak fusilekin agertu ziren goiko menditik. Eliz atarian zegoen jendea goitik behera korrika hasi zen, baita Juan Bautista ere. Aitak maindire zuri bat sarde baten gainean jarri eta baserriko teilatuan jarri zuen: "bakea eskatzen omen du horrek". Ilundu arte tiroak izan ziren auzoko baserri batetik bestera: alde batetik nafarrak eta bestetik gorriak. Frontea Buruntza mendira mugitu zen gero. Juan Bautistak 11 urte zituen orduan.

319. Lehengusua gerran hil (AND-014/012)

Auzoko bost mutil hil ziren gerra. Tartean, Juan Bautistaren lehengusu bat.

320. Soldaduak udareak lapurtzen (AND-014/013)

Soldaduak iritsi zirenean, Juan Bautistaren aitak maindire zuri bat sarde baten gainean jarri eta baserriko teilatuan jarri zuen, bakea eskatzeko seinale moduan. Soldaduak udareak lapurtzera joan, eta aitonak marru egin zien ez lapurtzeko. Hurrengo goizean, soldaduek etxera tiro egin zien.

321. Labordeko maisuari entzundakoa (AND-014/014)

Labordeneko Juan Jose Olabe maisuari entzundako gerrako pasadizo bat kontatzen du. Gizon batek beste bat salatu zuen: gizonak hil aurretik konfesatzeko baimena eta nork salatu zuen jakitea eskatu zien soldaduei. Antza, salatzaileak 1.000 duroko zorra zuen gizonarekin, eta horregatik salatu zuen. Soldaduek salatutako gizona bizirik utzi zuten, eta haren izan eman zuenaren bila joan ziren. Gertaera Lasarten pasa omen zen.

322. Praixku eta Joxeren kontakizuna (AND-014/015)

Baserrietako auzotarren arteko ezinikusiei buruzko kontakizuna. Praixku onaren eta Joxe gaiztoaren arteko tirabira du hizpide. Nazkatuta, Praixkuk behia ostu zion Joxeri. Konfesatzera joan da Praixku, eta Joxeri behia Josefetako zelaian entregatuko ziola esan zion apaizari. Josefetako zelaia: Jesukristok auzia egingo duen tokia.

323. "Ama ez zenuten, ba, pisatuko?" (AND-014/018)

Hizketan egokia zen auzoko gizon baten ateraldiak ditu hizpide. Antza, herriko bikote batek (biak txikiak) umea izan zuen, eta umeak bost kilo pisatu zituela jakin zuenean zera esan omen zuen auzoko gizon: "ama ez zenuten, ba, pisatuko?"

324. Auzoko baten ateraldiak (AND-014/019)

Hizketan egokia zen auzoko gizon baten ateraldiak ditu hizpide. Gizon horren amak begi bat galduta zuen, eta begiko malko eta makarrak gelditzeko trapu beltz bat ibiltzen zuen begian. Egun batean, amak trapua begi onean jarrita zebilkien...

325. Familiaren arrastoa (AND-014/021)

Duela gutxi jakin du aitak beste anaia bat zuela, eta aitonaren aita Berastegikoa zela.

326. Oilasko jokoa (AND-014/022)

Jakineko bazkarietan, kinta baZkarietan eta zaharren bazkarietan aritzen zen bertsotan, gainerakoan gutxi. Goiburuko baserrietako zaharren artean oilasko jokoa egin zuten, ia 20 lagunek hartu zuten parte. Etkez etxe joan, eta dirua hartzen zutenaren itxura egiten zuten (garai bateko hura akordatuz). Ondoren, bazkaria eta afaria izaten zituzten. Urte batean, Joxe Lizaso eta Joxe Agirre bertsolariak izan ziren bertan.

327. Txapela jarri zioteneko bertsoak (AND-014/023)

Txapela jarri ziotenean, Joxe Lizaso eta Joxe Agirre bertsolariak Goiburun ziren. Bertsoak etxetik prestatuta eraman zituen Juan Bautistak. Lau bertso irakurtzen ditu.

328. Txapel jartzaileari bertsoa (AND-014/024)

Txapela jarri zion andreari kantatutako bertsoa irakurtzen du.

329. Joxe Lizasori eta Joxe Agirreri botatako bertsoak (AND-014/025)

Jubilatuen egunean Goiburun afaria egin zuten. Joxe Lizaso eta Joxe Agirre bertsolariak bertan ziren, eta apaizak jartzen zituen puntuak. Apaizak bertsoaren bat botatzeko eskatu zion Juan Bautistari saio hasieran. Bapatean botatako bertso haiek esaten ditu.

330. Joxe Inaxio Etxeberria gudariari bertsoak (AND-014/026)

Juan Bautista ez zen jende aurrean bertsotan aritu zale: "eskatu gabe sekula ez dut kantatu inon" dio. Joxe Inaxio Etxeberria bertsolari eta gudariari egindako bertsoak irakurtzen ditu. Etxeberria mendian hil zen gerran, eta haren omenezko harri baten ondoan bururatu zitzaizkion bertsoak Juan Bautistari.

331. Urrezko ezteietako bertsoak (AND-014/027)

Urrezko ezteietarako bertso batzuk prestatu zituen, baina inork ez zion kantatzeko eskatu eta buruan gorde zituen. Hurrengo egunean, ahaztu aurretik idatzita jaso zituen. Okasio hartarako prestatutako bertsoak irakurtzen ditu Juan Bautistak.

332. Soinujoleari bertsoa (AND-014/030)

Oilasko jokoak egiten hasi zirenean, soinujoleak bazkaldu ordurako jartzen zion bertsotarako doinua. Bertsozale amorratua omen zen soinujolea. Urte batean ez zen festan izan gaixo zegoelako, eta hurrengo urtean Juan Bautistak kantatu egin zion. Bertso hura irakurtzen du.

333. Hernioko gurutzeari bertsoa (AND-014/031)

72 urterekin Herniora joan eta hango gurutzeari jarritako bertsoa irakurtzen du.

334. Urteko hilabeteen izenak (AND-014/035)

Urteko hilabeteak esaten ditu. Lexikoa.

335. 1936ko ekaineko bertso txapelketa (AND-014/036)

Gerra aurreko giroa du hizpide. 1936ko garagarriaren (ekainaren) 5ean bertso txapelketa bat ospatu zen, eta abuztuaren 15ean sartu ziren soldaduak Goiburun. Gerora, urte askoan egon ziren bertso txapelketak galaraziak. Kartzelan egondako hainbat bertsolari izendatzen ditu.

336. Soldadu denboran, koronelaren eskolta (AND-014/037)

Soldadu denborako kontuak. Lau euskaldun zeuden, baina galarazia zuten euskaraz egitea. Koronelaren eta kapitainaren eskolta izan zen Juan Bautista. Zaldi gaineko azterketa egin behar izan zuen. Asteaz bi zerbitzu lau ordukoak egiten zituen, eta bost egun jai edukitzen zituen. Koronelari agurra: "a la orden de usía".

337. Kapitaina eta lizentziatzea (AND-014/038)

Soldadu denborako kontuak. Lizentziatu zen egunean, kapitainak lanerako deitu zion. Logroñon San Mateo jaiak ziren, eta kapitainak "txuleatu" egin nahi zuen zaldiaekin. Lizentziatu eta lau egun Logroñon pasatu zituzten paperak egin zain. Kapitainarekin harreman ona zuen.

338. Soldadutzako permisoak (AND-014/039)

Soldadu denborako kontuak. Permiso dezente izan zituen soldadutzan. Leaburuko lehengusu bat ere berarekin tokatu zen soldadu. Lehengusuak ez zekien idazten, eta Juan Bautistak laguntzen zion gutunak idazten, baina mutil azkarra zen berehala jarri zen idazte kontuetan. Lehengusuari hilabeteetan etxera joateko permisorik eman ez, eta Juan Bautistak sargentuarekin hitz egin eta etxera joateko baimena eman zioten. Azken alderako erdaraz ondo moldatzen zen.

339. 'Kaxka Beltxa'-ren pasadizoa (AND-014/042)

Inazio Etxeberria 'Kaxka Beltxa'-ri buruzko kontuak. Behinola, larunbat batez 'Kaxka Beltxa' eta arreba edanean aritu ondoren, joan ziren lotara. Halako batean arrebak esnatu eta mezara joateko garaia zela esan zion. Joan zen 'Kaxka Beltxa' elizara, baina...

340. Usalartzako pilota-plaza (AND-014/044)

San Juanetan Andoaingo plazan elurra egin zuela entzuna du Juan Bautistak. Antza, Usalartzan plaza omen zen, pilota-plaza, eta han egin zuen elurra. Frantziatik pilotan jokatzera joaten ziren bertara. Etxabeko semea, apaizgaia, pilotari bizkorra zen, eta hura ere Frantziara joaten zen jokatzera. Egun batean, apaizgaiak uso mezulari bat eramane zuen berarekin. Partida irabazi, eta usoa bidali zuen etxera. Apaizgaiaren heriotzari buruzko azalpenak.

341. Artzain, Usalartzan (AND-014/045)

Usalartza nolako parajea den azaltzen du. Hara joateko bideari buruzko azalpenak ematen ditu. Usalartzara mandoarekin eta gurdiaekin joaten zenean, 10 ardo botila eramane zituen. Txilar azpian bi tokitan gordetzen zituen botilak, eta "rantxoa" egiten zuen. Gero, ardiak zaintzera joaten zen. Etxerakoan, perretxikoak biltzen zituen.

342. Atxular mendia (AND-014/048)

Ba omen zen Lesaka edo Sara aldeko jeneral bat Atxular izena zuena. Haren omenez jarri zioten mendiari Atxular izena. Gerra denboran, gaztelu bat omen zegoen Atxularren.

343. Aita eta aitona (AND-014/051)

Juan Bautistaren aitona gizon handia zen. 110 kilo pisatzen omen zituen, eta tratuan ibiltzen zen. Aita argala zen, baina 105 kilo pisatzera iritsi zen. Aitonak bastoiarekin jo zuenekoa kontatzen du.

344. Amona (AND-014/052)

Amonak asko maite zuen Juan Bautista. Mutikotan, "txerri-munik" etxeetara partitzera joaten zenean dirua ematen bazioten amonari ematen zion dirua. Amonak giltzarekin ixten zen kutxa bat zuen, eta han gordetzen zion dirua. Amonaren anaia bat hil zirenean, amonak diru bat jaso zuen. Diru horretatik 1.000 pezeta Juan Bautistari eman zizkion. Soldadutzatik permisoarekin etxera joaten zenean, amona agurtzen zuen aurrena.

345. Arbiarekin aitonari adarra jo (AND-014/053)

Soroan arbi zamorroak jartzen zituzten, txoriak soroan jaten ez ibiltzeko. Arbi haietako bat hartu eta aitonari adarra jo zionekoa kontatzen du. Gero, errieta egin zion aitonak.

346. Sakristaua mozkortu... (AND-014/058)

Sakristaua zazpiretarako mendira lanera joaten omen zen. Egun batean, sakristaua mozkortu eta ohera goiz joan zen, eta hamabietan esnatutakoan kanpaia jotzen hasi zen, garaia zelakoan.

347. Harginari buruzkoak (AND-014/060)

Herriko hargin bati buruzko kontuak. Sorginak ikusten omen zituen gizonak, baina sorginak beharrean...

348. Lebiton (AND-014/061)

Lebiton: basoko borda batean lo egiten zuen "gaiztoari" buruzko kontuak.

349. Elizak beldurra sartu (AND-014/062)

Elizak beldurra sartzen zuen. Juan Bautistaren gazte denboran sermoi gogorak botatzen zituzten pulpitorik. Elizan negarrez ari zen aitona baten ateraldia kontatzen du. Goizean goiz joan behar izaten zuten konfesatzera. Dena bekatu.

350. Trabukoren abestia (AND-015/001)

Trabukori buruzko kanta abesten du.

351. 15 urterekin fabrikan hasi lanean (AND-015/005)

15 urtera arte hainbat lekutan ibili zen lanean. 15 urterekin, ordea, adreilu-fabrikan sartu zen, eta 10 urte eman zituen han; izan ere, beraiek bizi ziren etxea fabrikarena zen, eta han bizitzen jarraitu nahi bazuten, etxeko norbaitek fabrikan egin behar zuen lan. Jendeak uste izan du nafarra dela Luxio, eta susmoa du horregatik jende batzuek baztertu egin izan dutena.

352. Bandan ikasitakoak eta entzundakoak (AND-015/008)

15 urterekin hasi zen bandan abesten eta hainbat instrumentu jotzen ikasi zuten. Bandan ezinikusiak zeuden eta kide batek egin zion komentario gaiztoa gogoan du.

353. Andoainen musika ez da falta izan (AND-015/011)

Lehen Andoainen musika-bandak orain baino gehiago jotzen zuen. Prozesioan zer ibilbide egiten zuten aipatzen du. `Alkate soinua´ piezaren hasiera abesten du. Kontzertuak noiz izaten ziren aipatzen du. Andoainen festa asko egin izan dira beti.

354. Bandaren pisua Andoainen (AND-015/013)

Lehen igandetarako gordetzen zen arropa onena; astean zehar arropa merkeagoa edo zakarragoa erabiltzen zuten. Banda udaletxearena zen, eta bandan jotzeagatik soldata jasotzen zuten. Igandero dantzaldietan jotzen zuen bandak, baina 1968tik aurrera jendea leku itxietara joaten hasi zen dantzatzera.

355. Atrila ez zenean, laguntzaileak behar (AND-015/015)

Bandak zutik edo aulkian eserita jotzen zuen. Atrilik ez zegoenean, mutil koskorrek eusten zizkieten partiturak diru pixka baten truk.

356. Bandan hasi zenetik bertan jarraitu izan du (AND-015/016)

1953-1954ean hasi zen Luxio bandan jotzen. Ordutik beti egon izan da bandan.

357. Lehengo musika motak eta neska-laguntzea (AND-015/017)

Bandan jotzen hasi zenean, zer musika mota jotzen zuten aipatzen du. Lehen binaka dantzatzen zuten, lotuta. Bekaturik eginez gero, apaizarengana joan behar izaten zuten konfesatzera. Neska-laguntzeari buruzko anekdota kontatzen du.

358. Abesteko zaletasun handia (AND-015/018)

Parrokiako koruan abesten ibili zen Luxio, eta Tolosako bandan ere abestu izan du. Behin bere burua abesten entzun zuen grabazio batean, eta ordutik ez zuen berriro kantatu berak bakarrik jendaurrean. Grabazioetatik ateratzen zituzten abestien partiturak. Ezkontza ugaritan jotzen zuen bandak.

359. Txurru-murruka (AND-015/020)

Umetan txurru-murruka ibiltzen ziren jolasean neskak eta mutilak, denak batera. Jolas hura nola izaten zen azaltzen du.

360. Zubietako apaizaren erreakzioaren indarra (AND-015/022)

Zubietan jazbanarekin izandako anekdota kontatzen du: Zubietako apaiza gizon gogorra zen eta jendeak beldurra zion. Dantza lotua jo ahal zuten ala ez jakiteko, pixkanaka hasi ziren pieza lotuak soltekoekin txandatzen apaizaren erreakzioa ikusteko.

361. Solteko piezak lotuan dantzatzen (AND-015/023)

Ataunen kalejiran jotzen zuen jazbanak. Han debekatuta zegoenez dantza lotua jotzea, azkenean jendeak solteko piezak binaka lotuta dantzatzen zituen.

362. Areson dantza lotua jo zutenekoa (AND-015/024)

Leitzan egiten zena Areson egin ohi zuten; eta horregatik jo zuen jazbanak dantza lotua Areson.

363. Norbere kasa ikasi zuten dantzan eta igerian (AND-015/025)

Luxiori beti gustatu izan zaio dantza egitea. Bere kabuz ikasi izan du. Igerian ere norbere kasa ikasi izan dute, Leitzaran ibaian, hala nola. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren. Elizan emakumeak atzean eta gizonak aurrean esertzen ziren. Oso gaizki ikusia zegoen emakumeek zigarroa erretzea edo tabernatan sartzea.

364. Auzolan elkartearen lorpenak (AND-015/026)

Auzolan elkarteari buruz hitz egiten du: 1975 inguruan sortu zuten. Leitzarango autobiarene auzia izan zen orduan eta autobiarene planoetako ibilbidea aldatzea lortu zuten.

365. Trenak herriak lotzen ditu (AND-015/027)

Andoain eta Leitzaren artean lotura egon izan da trenari esker. Trenak hainbat herriren arteko harremanak finkatu ditu. Plazaolako trenaz oroitzen da Luxio. Ilunpetan joan izan da Luxio oinez trenbidearen gainetik.

366. Mendizaleatasuna gaztetatik (AND-015/029)

Mendizalea izan da beti Luxio. Gaztetan noizean behin joaten ziren mendira kuadrillan; gerora, gero eta sarriago eta urrutiago hasi zen joaten mendira.

367. Euskalduna Mendigoizale Taldea (AND-015/032)

Euskalduna Mendigoizale Taldean lehendakari egon izan da hainbat aldiz. Taldea duela 70 urte sortu zen. 1953an Andoainen antolatu zen lehenengo ibilaldi neurtuan irten zen Luxio, baina 1962 inguruan hasi zen segidan parte hartzen horrelako ekintzetan. Orain lehen baino maizago izaten dira ekintzak.

368. Mendira joateko arropa eta ezinbesteko baliabideak (AND-015/034)

Lehen mendigoizaleek kaikua eta milarraiazko galtzak erabiltzen zituzten. Abarkak gustura eraman izan ditu Luxio; iparorratza eta planoak beti eramaten ditu mendira.

369. Mendiko buzoiak (AND-015/035)

Mendian buzoiak jarri izan dituzte mendizale elkarrekin, ikastolek...

370. Andoainen futbolera jokatzen (AND-015/037)

Andoainen futbolekin aritzen ziren. Andoingo auzoen artean egiten ziren txapelketak. Futboleko entrenamenduak bazkalostean errepidean egiten zituzten, lanera sartu baino lehenago. Garai hartan oso kotxe gutxi igarotzen ziren Andoaindik.

371. Auto asko ibiliko zirela aurreikusi zuen gizona (AND-015/038)

Kotxe gutxi zegoen garaian, gizon batek aurreikusi zuen etorkizunean auto ugari ibiliko zirela errepideetan. Lehen gurdiak eta lerak erabiltzen ziren. Lehen gurdibideak ziren nagusi, baina gaur egun asko hobetu dira bide haiek. Lehen oinez edo astoarekin ibiltzen ziren.

372. Andoain inguruko mendi-ibilbideak (AND-015/045)

Andoain inguruko mendi-ibilbide batzuk aipatzen ditu.

373. Arropa garbitzeko lanak (AND-016/004)

Lau senide ziren. Lan ugari izaten zuten. Aitak lantegian ere egiten zuen lana. Amak arropa garbitzen zuen, eskuz, garbigailurik ez zegoelako. Iturrira joaten zen. Gero labaderoa egin zuten etxe ondoan.

374. Seroretegi nolakoa zen (AND-016/006)

Seroretegi etxea nolakoa zen. Behiak eta txekorrak, ikuiluan. Sukaldea eta lau gela zituen. Su egurra erabiltzen zuten. Su bajutik ekonomikara pasatu ziren.

375. Eskolan La Sallen (AND-016/010)

La Sallen ibili zen eskolan. Txangorik ez zuten egiten. Jolastorduan, pilotan.

376. Eskolatik bueltan, baserriko lanak (AND-016/013)

Dotrina ere eskolan ikasi zuen. Etxera bueltan, beti izaten zen lana. Zituzten lur-sailak.

377. Gari lanak (AND-016/015)

Artoa eta babarruna. Pagotxa eta arbia. Gari lanak.

378. Errotak eta ogia (AND-016/016)

Artoa eta garia ehotzeko makina txiki bat zuten etxean. Errotara nora joaten ziren. Gerraosten itxita egon ziren. Ogia etxean egiten zuten, ekonomikako labean.

379. Auzokoekin harremana (AND-016/018)

Aranora ez zen bera sekula joan errotara, baina astoa ere eskatu izan zieten joateko. Idirik ez, baina astoa bazuten. Artoa zuritzeko auzolana, kontu esaten.

380. Etxeko behiak (AND-016/020)

Hiru behi zituzten, eta txekorrak hazten zituzten, saltzeko. Beltzak eta pintoak. Larramendira eramaten zituzten behiak, estaltzeko.

381. Txekorren jaiotza (AND-016/022)

Txekorren jaiotza. "Karena" lurperatu egiten zuten. Andoaingo albaitaria. Behiari ardoa ematea.

382. Kalabazei begiak egiten (AND-016/036)

Kalabazei bi begi egin, zuloa, kandela sartu eta bidean jartzen zuten.

383. Jaiotetxeko fruta, esnea eta astoa (AND-017/002)

Irunen jaio zen eta etxe hartan zer lan egiten zuten aipatzen du. Fruta asko zegoen han eta esne asko biltzen zuten. Asto argia zeukaten, treneko ordutegiak ondo kontrolatzen zituen.

384. Gela garbiak eta nagusiekin zuten tratua (AND-017/005)

Etxeko lanak ahizpen artean egiten zituzten. Lixiba eta xaboia erabiltzen zituzten garbiketatarako. Arropak zuriago ateratzeko, xaboitu eta "al verde" jartzen zituzten. Noizean behin nagusiak etortzen ziren etxera, eta gelarik garbienean egiten zuten lo. Nagusiekin erdi banako tratua zeukaten etxean egoteagatik.

385. Esnea banatzean bisitatzen zuen jendea (AND-017/007)

Esnea saltzen ibiltzen zenean, etxe batean oso tratua ona ematen zioten nahiz eta pobreak izan. Esnea banatzen aritzen zenean, zer ordutegi izaten zuen azaltzen du.

386. 10 hilabete baino gehiagoko haurdunaldia (AND-017/009)

4 seme-alaba eduki izan ditu, baina bi hil egin zitzaizkion jaioberritan. Hil zen haurretako batekin, 10 hilabete baino gehiagoko haurdunaldia izan zuen.

387. 10 hilabeteko haurdunaldiaren ostean, erditze gogorra (AND-017/011)

10 hilabete egon zen haurdun, baina medikuak ez zion garrantzirik eman. Azkenean, haurra erditzeko min handiak pasa zituen zesarerik ez baitzioten egin, eta haur hura hil egin zen jaio eta 24 ordura.

388. Haurra izateko prestatzen (AND-017/013)

Lehen etxean izaten ziren umeak. Haurdun zeudela, kamisoi luzea erabiltzen zuten. Medikua etortzen zenerako, dena garbi-garbi izaten zuten. Sehaskarik ez zuten etxean, ohe txiki bat baizik.

389. Etxean makina bat lan (AND-017/015)

Goizean astoarekin esnea banatzen ibili ostean, etxean egiten zuen lan: sukaldeko lanak egin, ganaduarentzako jatena prestatu... Sukaldea nolakoa zen azaltzen du: hasieran, su baxua zeukaten; gerora, ekonomika ekarri zuten. Su baxuko eltzeak nola jartzen ziren aipatzen du.

390. Eskola baino nahiago etxeko lanak (AND-017/017)

Eskolara joatea baino gehiago gustatzen zitzaion etxeko lanetan aritzea. Arrain freskoa jateko ez zuten arazorik izaten. Esnea banatzen aritu ostean lortutako diruarekin, janaria erosten zuen Carmenek.

391. Fruta lortzeko, zuhaitzak zaindu behar (AND-017/018)

Fruta klase asko zeukaten etxean. Fruta-arbolen enborra karearekin zuritzen zuen aita, horrela zomorroak uxatzeko; kimatu ere egiten zituen aita arbolak.

392. Lurra lantzeko ordutegiak eta garaiak (AND-017/019)

Lurra lantzeko, goldea, harria eta karramarroa erabiltzen zituzten. Artoa eskuz ereiten zuten. Goizeko 04:30ean jaikitzen ziren artoa jorratzeko, horrela eguzkiaren beroa saihesten baitzuten. Artoa eta babarrunaren garaia noiz izaten den aipatzen du.

393. Artoa zuritzeko egunak (AND-017/021)

Artoa zuritu edo taloa erretzeko aukera ematen zioten Carmeni. Artoa zuritzeko egunetan giro ona izaten zuten. Aletutako artoarekin zer egiten zen azaltzen du.

394. Etxean zezena bazuten (AND-017/022)

10 behi eta zezena zeuzkaten etxean. Zezenak inguruko baserrietako behiak estaltzearen truke, dirua kobratzen zuten beraiek.

395. Zezenaren eta behien eginkizunak baserrian (AND-017/024)

Zezena zeukaten etxean, eta zezen hark inguruko baserrietako behiak estaltzeagatik dirua kobratzen zuten beraiek. Etxean ez zuten idi parerik; behiekin egiten zituzten soroko lanak. Behien jatena zer-nolakoa izaten zen azaltzen du.

396. Sariak irabazten zituen zezen dotorea (AND-017/026)

Behiek etxeko askatik edaten zuten. Ganaduen sariak izaten zirenean, zezena eramaten zuten hara, eta saria irabazi izan dute hala. Behin, zezena egarri zenean, hari ura emateko izandako gorabeherak kontatzen ditu. Zezena ikaragarria zen. Saria emateko, zeri begiratzen zitzaion azaltzen du: atzeari, muturrari, bizkarrari, adarrei...

397. San Martzialetako ganaduen sariak (AND-017/028)

Ganaduen sariak Irungo udaletxearen plazan ematen ziren, San Martzialetan. Irunen San Martzialak eta San Pedroak ospatzen ziren.

398. Irungo alardeko giroa lehen (AND-017/030)

San Martzial egunean, kanpoko jende asko etortzen zitzaien etxera. Irungo alardeko giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

399. Gabon eguneko jaiotza eta eskea (AND-017/032)

Gabon egunean eskean aritzen ziren jaiotzarekin. Jaiotza haiek nolakoak izaten ziren azaltzen du. Etxez etxe kankak abesten zituzten, eta haietako bat abesten du. Sos batzuk ateratzen zituzten egun hartan, eta irabazitakoa amari ematen zioten.

400. Urtezaharretan etxera abestera etortzen zirenekoa (AND-017/033)

Urtezaharretan etxera etortzen ziren abestera gauean, eta ilusio handia egiten zien horrek.

401. "Colegio del Pilarren" ibili zeneko garaia (AND-017/037)

Sokasaltoan ibiltzen ziren umetan. Eskolara joaten zen, Irungo "Colegio del Pilarrera"; dena gaztelaniaz ikasten zuten. Mojen eskola zen hura, eta Pilarko festa ospatzeko, bakoitzak ahal zuen janaria eramaten zuen. Uniformea erabiltzen zuten eta nolakoa zen deskribatzen du.

402. 16 urterekin hasi mutil-lagunarekin eta 21 urterekin ezkondu (AND-017/041)

Gaztetan bilerak egiten ziren Irungo Bentas auzoan. 16 urterekin hasi zen mutil-lagunarekin ateratzen eta 21 urterekin ezkondu zen. Elizan bikoteka sartzen ziren. Orduko bilerak eta dantza-saioak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

403. Mutil-laguna etxean lehendik ezagutzen zuten (AND-017/043)

Mutil-lagunarekin hasi zenekoa kontatzen du: etxean ezaguna zen, haren anaia Carmenen ahizparekin ezkunduta baitzegoen. Lehen dena bekatu zen.

404. Hizketako akatsa zuzentzen (AND-017/057)

Hizketan akatsa zuen, eta hura zuzentzeko egindakoa kontatzen du.

405. Galardi baserriaren ingurua lehen eta orain (AND-018/007)

Lehen, Andoainen, denak ezagunak ziren. Bittoriren jaiotetxea, Galardi, non zegoen azaltzen du. Baserri hura dagoeneko botata dago, eta etxeak egin dituzte haren orde. Beste baserri batek ere Galardi izena zuen Andoainen.

406. Etxearen errenta ordaintzeko kapoiak (AND-018/008)

Etxean, errentan bizi ziren. San Tomas egunaren aurreko igandean ordaintzen ziren errentak. Kapoiak eramaten zitzaizkion nagusiari, hark San Tomas ferian sal zitzan. Beraien nagusiak etxe ugari zituen.

407. Etxeko nagusiari zioten errespetua (AND-018/010)

Etxeko nagusiari lehen errespetu ikaragarria izaten zioten. Orduko anekdotak kontatzen ditu.

408. Etxeko nagusi "eskuzabala" (AND-018/011)

Etxeko nagusiak neskamea zeukan, eta oso jatorra zen. Don Paulo izena zuen nagusiak, eta telefonoa izaten zuen etxean; noizean behin, erabili egiten zuten, baina ez gehiegitan. Behin, Bittorik Don Pauloren sagarrak hartu zitueneko anekdota kontatzen du.

409. Galardi baserriaren egitura (AND-018/012)

Galardi baserriaren egitura nolakoa zen azaltzen du: behean, ukuilua, sukaldea eta gela zahar bat zeuden. Gela zaharra zertarako erabiltzen zuten.

410. Pleura izan zuenean, auzokoen elkartasuna ere izan zuen (AND-018/013)

Galardi baserriko sukaldean, su baxua zeukaten; taloak eta babarrunak jaten zituzten beti. Bittorik ez zuen askorik jaten; eta, 16 urte zituela, pleura harrapatu zuen. Garai hartan, gaitz serioa zen pleura. Medikua aholkua: elikagai sendoak emateko. Bailarako jendeak errazionamenduko janaria ekartzen zien etxera, Bittoriri laguntzeagatik.

411. Zorigaitzean, auzokoen elkartasuna izan zuen (AND-018/014)

Beraien baserriko nagusiak bazuen beste etxe bat. Han bizi zen familiako gizona hil egin zen; eta emaztea, ume txiki-txikiekin gelditu zen alargun. Auzokoen artean, familia hari laguntza eman zioten, aurrera atera zedin.

412. Arrain-saltzaileak ura eskatzen zuenean... (AND-018/015)

Auzoan, arrain-saltzailea Galardira joaten zenean, beti ematen zioten sagardoa edaten. Auzokoen artean, oso harreman ona zeukaten, oso lagunkoiak ziren.

413. 20 durorekin, aberats (AND-018/016)

Lehen, dena merkeagoa zen. Behin, Bittori enkarguak egitera joan zen, eta 20 duro eraman zituen; bueltan, txanpon pila bat eman zizkioten, eta Bittorik uste zuen aberatsak zirela.

414. Errazionamendu garaiko menuak (AND-018/017)

Gerra ostean, beti babarrunak jaten zituzten etxean. Udan, beroa zela, su ondoan eseri, eta taloak prestatzen zituen Bittorik. Olio eskasia zenean, esnegaina erabiltzen zuten olioaren ordeaz. Arrautza gutxi izaten zuten garai hartan.

415. Baserritarren kofradia (AND-018/018)

Etxean, oiloak zituzten, baina arrautza gutxi egiten zuten. Oilo onak saldu egiten zituzten. Lehen, baserritarren kofradia zegoen, elkarren artean laguntzeko.

416. Pleurak jo zueneko trantze latza (AND-018/020)

Bittori pleurak jota egon zen gaixorik. Jan ezinik egon zen, eta amak ere oso gaizki pasa zuen hori ikusita. Nola sendatu zen azaltzen du. Sendatu eta ohetik altxa zenean, negarrez eman zuen eguna: gizenduta zegoen, baina indarrik gabe, zutik egon ezinik.

417. Andoaingo mediku jatorra eta "Pildoritas" (AND-018/021)

Lehen, sasimedikuak izaten ziren, baina beraiek medikuarekin ibiltzen ziren. Oso jatorra zen medikua; baina, Bittori pleurak jota egon zenean, hasiera batean, ez zuen asmatu zer gertatzen zitzaion. Geroago, Donostiako "Pildoritas" medikuarengana joan ziren, eta berehala asmatu zuen pleura zeukala. Andoaingo medikuarengana itzuli zirenean, ez zitzaion gustatu "Pildoritas"engana joan izana; baina, azkenean, onartu egin behar izan zuen hark arrazoi zeukala.

418. Irin bila ezkutuan joan behar (AND-018/023)

Taloak egiteko irina ekartzeko, nola moldatzen ziren azaltzen du; ezkutuan ibili behar izaten zuten, eta Itsasondora joaten ziren gauzez. Bittori joan izan zen irin bila.

419. Soldadu jatorrak eta atseginak etxean (AND-018/025)

Gerra gogoan du Bittorik. Igande batean sartu ziren naparrak Andoainen. Aste pare batez, etxean eduki zituzten soldadu batzuk; lo egiteko, nola moldatzen ziren aipatzen du. Soldadu haiek oso jatorrak eta atseginak ziren. Alde egin zutenean, pena hartu zuten etxean. Geroago, ordea, berriro itzuli ziren ilunabarrean; eta lehenago baino soldadu gehiago, gainera.

420. Fusilarekin jolasean ibili zenekoa (AND-018/026)

Gerran, soldaduak izan zituzten etxean. Behin, Bittori fusilarekin jolasten aritu zen, soldaduen laguntzaz: soldaduen kaskoari ematea zuen helburu; baina, nahi gabe, ahatea hil zuen. Errieta galanta jaso zuen orduan. Gogoan du soldadu hura, Silvio.

421. Gerran ezagututako soldaduekin egindako harreman ona (AND-018/027)

Gerran, soldaduak etxean izan zituzten, naparrak ziren, eta janari asko zeukaten. Sarjentuari asko gustatzen zitzaion txokolatea, eta amak egunero prestatzen zion, 20 xentimoren truke. Sarjentu harekin izandako anekdotak kontatzen ditu. Gerora, gerra bukatu eta gero, bi soldadu bisitan etorri ziren etxera.

422. Aitak soldaduentzako janaria eraman behar (AND-018/028)

Gerran, soldaduak etxera etorri zirenekoa gogoan du. Aita egunero joaten zen alondegira, karga hartu eta Asu baserrira janaria eramatera. Horren trukean, txartel bat ematen zioten; baina, gerora, ez zuen inoiz kobratu.

423. Etxeko soldaduen aholkua eta babesa (AND-018/029)

Gerran, soldaduak izan zituzten etxean. Oso jatorrak ziren. Donostiako familiartekoak leku segurura eramateko aholkatu zieten soldaduek, baita hartarako laguntza eskaini ere; baina, azkenean, etxekoak ez ziren atrebitu.

424. Soldaduei nork esango ezetz? (AND-018/030)

Etxean, soldaduak izan zirenean, beldurra izan zuten hasieran. Nork esango ezetz haiei? Beste etxe batzuetan ere izan ziren soldaduak; eta, haietako batzuetan, lapurreta handiak egin zituzten. Inork ez zien aurre egin haiei, errespetua jartzen baitzuten.

425. Musu emateko, ilundu arte zain (AND-018/038)

Lehen, dena zen bekatu. Mutil-lagunari musu emateko, ilundu zain egoten ziren. Musu ematen ikusiz gero, marmarrean aritzen ziren besteak.

426. Aita fusilatu zutela esan zieteneko estutasuna (AND-019/002)

Gerra hasi zenean, anaia bat frontera joan zen, 17 urte zituela; eta aita ezik etxeko beste guztiak Zumaiaara joan ziren. Han zirela, aita fusilatu zutela esan zieten; baina gezurra zen. Zergatik esan zieten hori azaltzen du: aita ozta-ozta libratu zen heriotzatik.

427. "Fusilatzeko ez zen askorik behar" (AND-019/003)

Gerra garaian, jendea fusilatzeko ez zen askorik behar. Gizon bat ia-ia fusilatu egin zuten, erdaraz ez zekienez, ezin zuelako bere burua defendatu. Azkenean, Joxe Manuelen aitak lagundu zion, eta salbatu egin zen.

428. Fusilatu aurretik idatzitako gutuna (AND-019/004)

Gerran fusilatu zituzten gehienak ezagutzen zituen. Haietako bik dantzak erakusten zizkieten, eta abertzaleak izateagatik fusilatu zituzten. Gizon batek, fusilatu aurretik, gutun bat idatzi zion bere familiari: fusilatu behar zutenei barkatzeko eskatzen zion familiakoei.

429. Arrebari ere ilea moztu nahi izan zioten zigor gisa (AND-019/010)

Gerra garaian, Andoaindik Zumaiaara joan ziren ihesi. Garai hartan, neskei ilea mozten zieten zigor gisa; Joxe Manuelen arreba zigortu egin nahi izan zuten; baina, osabari esker, salbatu egin zen neska-talde bat, haien artean arreba.

430. Apaizak pulpitutik nazionalistei buruz esandakoak (AND-019/011)

Gerra garaian, Zumaiaiko San Migel auzoan zirela, apaiz batek nazionalistei buruz esandakoak gogoan ditu.

431. Liskarren ostean, apaizari barkamena zor zioten (AND-019/012)

Zumaiaiko San Migel auzoan, garai hartan, bi baserri karlisten aldekoak ziren; eta beste guztiak, nazionalisten aldekoak. Apaiz bat etorri zen orduan, baina familia karlistek bota egin zuten. Apaizak joan behar zuenean, ordea, trenak familia haietako bateko emakumea hil zuen; eta apaizak barkatu egin zion ordura arte berarekiko izan zuten jarrera.

432. Gerra garaian Zumaian, baserriko lanetan iaioa (AND-019/014)

Gerra garaian, Zumaian egon ziren baserrian hilabete inguru. Han, baserrietako lanetan trebea zen Joxe Manuel; eta osabak apustuen bidez xaxatzen zuen. Gerora, Joxe Manuel hainbatetan joan zen Zumaiaiko baserrira Andoaindik, baserriko lanetan laguntzera.

433. Eskolan gustura, baina kirola egiten are gehiago (AND-019/016)

Joxe Manuel eskolan ibili zenean, maisu ona izan zuen, "Tolosa". Haren zigorrak gogoan ditu. Joxe Manuelek erraz ikasten zuen, baina denbora gehiena kirola egiten ematen zuen; gehienbat, pilotan. 14 urterekin, baina, fabrika hasi zen lanean; eta kirola egiteko denbora gutxitu zitzaion. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

434. Soldadutzan, pilotan aritzeko liberatuta (AND-019/018)

Soldadutzara joan behar izan zuenean, 28 hilabete egon zen han. Pilotan jokatzeko aritzen zen, eta orduko partida batzuen nondik norakoak aipatzen ditu. Azkenean, pilotan jokatzeko liberatu zuten.

435. Soldadutza garaian jaso zuen zigor bakarra (AND-019/020)

Zigor bakarra izan zuen soldadutza garaian, eta zergatik azaltzen du.

436. Soldadutzan bizargintza ikasi zuenari buruzko anekdota (AND-019/021)

Soldadutzara joan zenean, lanbideren bat zekiten boluntarioak eskatu zituzten. Ile-apaintzailea falta zenez, zumaiar bat boluntario aurkeztu zen, nahiz eta ilea moztu ez jakin. Han ikasitakoari esker, ordea, lizentziatu ostean, bizartegia ireki zuen Zumaiari. Soldadutzan, bizargin hark brigadarekin izandako anekdota kontatzen du.

437. Soldadutzatik itzulitakoan, pilota ala Laborde? (AND-019/022)

Soldadutzatik itzuli ostean, pilotan jokatzeko hitzartuta zegoen hainbat lekutan. Labordek, hala ere, lanera itzultzeko deitu zuen Joxe Manuel; eta, azkenean, lanean ardura handiko kargua eskaini zion.

438. Laborden lanean eta ikasten (AND-019/023)

Soldadutzatik itzulitakoan, Labordenera itzuli zen lanera, baina soldadutzara joan aurretik zeukana baino ardura handiagoko lanpostu batean. Lan egin bitartean, ikasteko aukera ere izan zuen "escuela de aprendizaje"n.

439. Laborden altzairua lantzeko izandako arazoak (AND-019/026)

Burdinari buruzko azalpenak ematen ditu. Laborde lantegian zebilela, zenbait arazo izan zituzten altzairuarekin. Azkenean, altzairua lantzeko zatia itxi egin zen.

440. Eskolara bide txarretatik eta oinetako desegokiekin (AND-021/003)

Herriko eskolara joaten zen lehenengo, eta geroago Salesianoetara. Han ikasi zuen 14 urtera arte. Salesianoak fraide jatorrak ziren. Gaur egun hobe da hezkuntza. Eskolara oinez joaten ziren eta bideak oso txarrak ziren. Oinetakoak nolakoak izaten zituzten azaltzen du. Geroago gomazko oinetakoak ateratzen ziren eta hobeak ziren haiek. Mantarrak erabiltzen zituzten eta haiek jantzeko pazientzia behar izaten zen.

441. Galtzerdiak etxean egin, baina ardirik eduki ez (AND-021/004)

Galtzerdiak etxean egiten zituen amak. Galtzerdietarako haria eginda ekartzen zuten etxera. Ardirik ez zuten izaten baserrian, txerriak bai, ordea.

442. Gerraostean txerria hiltzeko komeriak eta haragia kontserbatzeko moduak (AND-021/005)

Gerraostean ezin izaten zuten txerria nahi zutenean hil. Txekorra hil izan dute kontrabandoan. Haragia kontserbatzeko lehen zer sistema zeuden azaltzen du.

443. Baserriko lanak lehen (AND-021/006)

Baserriko eguneroko bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du. Lan asko izaten zen orduan, ez baitzegoen oraingo aurrerapenik. Itulan gustura ibiltzen zen Miel.

444. Tifusak etxean eragindako kalteak (AND-021/007)

4 anai-arreba ziren. Arreba 19 urterekin hil zen tifusa zela eta; amak asko sufritu zuen orduan. Medikuen sistema lehen hobea zen, herritar guztiak ondo ezagutzen baitzituzten. Mielek eta bere aita ere pasa zuten tifusa. Arrebak tifusaren kontra txertoa hartua zuen, baina ez zion ezertarako balio izan. Tifusa sendatzeko botika bat ematen zieten.

445. Baserriko aurrerapenak ez dute hobetu baserriko bizikaltatea (AND-021/009)

Ama Donostiako merkatura joaten zen baserriko jeneroa saltzera. Baratzean denek egiten zuten lan. Lurra lantzeko hainbat tresna erabiltzen zituzten. Aurrerapenik ez zuten, baina bizitzeko adina ateratzen zuten. Gaur egungo bizimoduarekin alderatzen du ordukoa; ez zaio gustatzen "a vivir que son dos días" filosofia.

446. Lehen kotxerik ez, baina pozik bizi (AND-021/010)

Miel gaztea zela, kotxerik ez zen inguruan. Lehenengo motorra 50. hamarkadan sartu zen; ordura arte, bizikletaz ibiltzen zen jendea.

447. Laborden lan egiten ikasi (AND-021/011)

14 urterekin eskola bukatutakoan, Laborden hasi zen arte- eta lanbide-eskolan ikasten. Lan eta ikasi egiten zuten han. Lehen prima kobratzeko kontrolak egiten zizkien. Laborden zer ikasten zuten azaltzen du.

448. Emakumeak ere Laborden lanean (AND-021/012)

500 langile ziren Laborden, gizonak eta emakumeak. Emakumeak hasieratik sartu ziren Laborden lanean, baina ezkontutakoan lana utzi eta etxeko lanetara dedikatzen ziren normalean.

449. Ezkontutakoek puntu gehiago lantegian (AND-021/013)

Ezkontutakoei gehiago ordaintzen zieten ezkongabeei baino, horrela familiari laguntzeko. Lan-baldintzak nolakoak izaten ziren aipatzen du: atsedanak, oporrak... Oporretan baserrian laguntzeko aprobetxatzen zuten.

450. 23 urtean Laborden lanean (AND-021/015)

Hasieran 21 pezeta irabazten zituzten astean. Igandetan bakarrik izaten zuten jai. Pixkanaka, larunbata ere jai bihurtzen joan zen. Baserrian, ordea, ez dago oporrik, bizimodu latza da. Laborden 23 urtean ibili zen lanean.

451. Labordeko garai latzak (AND-021/016)

Laborden garai ekonomiko latzak pasa zituzten, eta kiebra jo zuen. Gerora, beste lantegi batzuk zabaldu zituzten Labordeko langileek. Labordek zergatik jo zuen kiebra azaltzen du Mielek.

452. Laborden lan egin ostean, bere tailerra jarri (AND-021/017)

14 urte zituela hasi zen Laborden lanean, eta 23 urte eman zituen han. Gerora, tailerra jarri zuten Urnietan eta 15 urte inguru egon ziren horrela lanean. Tailer hartan piezak eta konponketak egiten zituzten.

453. Franco hil osteko aldaketak ekonomian (AND-021/018)

Franco hil zenean, dena garestitu zen, jornalak altxa ziren... Fabrikaren eta baserriaren arteko aldea areagotu egin zen. Hor hasi zen baserriaren gainbehera.

454. Sokatirarako zaletasuna eta jokaturako txapelketak (AND-021/021)

Sokatiran ibiltzea gustatzen zitzairen. Sokatiran aritzeko arauak aipatzen ditu. Gaur egun txapelketa handiak egiten dira sokatiran. Hernaniko taldean ibiltzen ziren sokatiran. Hainbat herritan egoten ziren sokatirako taldeak. Behin Zaragozako txapelketa batean hirugarren gelditu ziren beraiek. Herriko festatan aritzen ziren gehienetan sokatiran eta jende asko joaten zen haiek ikustera.

455. Sokatiran ondo jarduteko zer egin behar den (AND-021/022)

Euskal Herritik kanpora ez ziren joaten txapelketatara. Italian onak omen ziren sokatiran. Sokatiran ondo egiteko zer egin behar den aipatzen du. Lehen gomazko oinetakoak erabiltzen zituzten lurrari ondo eusteko.

456. Sokatiraren inguruko kontuak (AND-021/023)

Ezkondurik aurretik ere ibiltzen zen sokatiran. Epaileak egoten ziren arauak ondo betetzeko.

457. Segar eta sega-apustuak (AND-021/024)

Sokatiraz gain ez da ibili beste kirolekin. Segan aritua da. Tresnak ondo zorrotzuta egonez gero, lan erdia egin behar izaten da. Baserrian ikasi zuen segan egiten. Segar-apustuak gogoan ditu. Behin segalari bati pozoia eman omen zioten apustu batean. Segalari ezagunak aipatzen dituzte.

458. Idi-probak eta lehiak (AND-021/025)

Idi-apustuak izaten ziren Andoainen; izebaren balkoitik ikusten zituzten beraiek. Idi-probatuak harriak 1.500 edo 3.000 kilokoak izaten ziren. Idiez gain, gizonak ere ibiltzen ziren haiekin lehian. Emakumeak harriak jasotzen hasi dira azkenaldian.

459. Ahari-jokoak (AND-021/026)

Ahari-jokoak asko izaten ziren lehen, Asteasu aldean gehienbat. Zeinek kolpe gehiago eman ibiltzen ziren ahariak. Apustuak jokatzek ziren aharien inguruan.

460. Apustu xelebreak (AND-021/027)

Idiei ardoa ematen omen zitzairen apustu batzuetan. Apustu xelebreak jokatzek ziren lehen: 100 kiloko zakua hortzekin eramatea, adibidez.

461. Tximistak baserria erre zienekoa (AND-021/031)

Ipurkaitz baserrian tximista sartu zen 1959an eta erre egin zen. Miel lanean zegoen egun hartan; familia, ordea, etxean. Behiak atera zituzten nola-hala eta inor ez zen zauritu. Etxe barruan zeuden argazkiak erre egin ziren. Tximista ganbaratik sartu zen eta han zegoen lastoak su hartu zuen. Lehen tximista sarritan sartzen zen baserrietan. Baserri berria laster egin zuten, eta baserrirako bideak auzolanean egin zituzten.

462. Aitaren kontuak: bizimodua eta zaletasunak (AND-022/003)

Ama Andoaingoa zen eta aita Goizuetakoa. Mutikoa zela gurasoak hil zitzaizkion eta anaia ere bai; Tolosara joan zen bizimodua ateratzera. Aitaren zaletasunak (argazkiak, mendia, bizikleta). Bera ere argazkizalea da.

463. Amaren amona beraiekin bizi zen (AND-022/005)

Aita Tolosatik Andoainera joan zen bizitzera, eta hantxe ezagutu zuen ama. Andoaingo Zumea kalean jaio zen. Jaioteguna. Amaren amona beraiekin bizi zen: Mutiloakoa zen, eta beti abesten zebilen. Lehengusu bat ere bai; Algodonerako langileak ere beti kantuan.

464. Birramona eta Lierniko Ama Birjina (AND-022/006)

Birramonari buruzko oroitzapenak. Lierniko Ama Birjinarentzat propina eske joaten zitzaion fraide bat. Lierniko Ama Birjinaren abestia pianoan jotzen ikasi zuen gerora. Biloba bati Lierni jarri zioten izena.

465. Amonak kantatzen zizkion abestiak (AND-022/007)

Amonak kantatzen zizkion abestiak. Zati batzuk abesten ditu.

466. Pianoa jotzeko zaletasuna eta musika liburuak (AND-022/008)

Pianoa jotzea gustatzen zaio; pianorik ez zuenez, Basteron matrikulatu zen. Amak liburu asko zituen, musikari klasikoenak. Erbiti dendara joaten zen Donostian, eta handik musika ekartzen zion. Amak neska bati eman zizkion liburuak, piano karrera egiteko.

467. Piano ikasketak eta Notre Dameko mojak (AND-022/010)

Pianoa ikasten organistarenean ibili zen; Notre Damekoak alde eginda zeuden ordurako, Errepublikara garaian, beldurrez. Juanita Alkain urnietarrak ikastola ireki zuen.

468. Alcala Zamora ikusi zuenekoa (AND-022/018)

Errepublikako presidentea ere ezagutu zuen, Zumea kalean. Neska batek lore sorta eman zion, eta zentro errepublikanoen sartu zen. Alcala Zamora. Aitak El Día egunkaria hartzen zuen. Berak ere irakurtzen zuen.

469. Giro baketsua alderdien artean, gerra aurrean (AND-022/019)

Errepublika garaiko giroa: alderdien artean harreman ona zegoen, baketsua. Greba izan zen batean, guardiak joan ziren Andoainera, zaldian, eta orduan beldurra pasatu zuten. Gurasoak gauzak ganbaran ezkutatzen ibili ziren, perfumeak eta, errepublikanoen beldurrez.

470. Gerra azkar bukatuko zelakoan... Baina ez (AND-022/020)

Gerra sortu zenean, aita beldur zen, abertzalea zelako. Burdinazko Gerrikoarekin, gerra azkar bukatuko zela uste zuen. Ez zen hala izan: traizioa, Jaurilaritza erbestera... Asturiaseraino iritsi zen aita, eta preso hartu zuten, itsasoan. Eguberri tristeak izan zirela du gogoan.

471. 'Acción Católica' eta zozketatutako misala (AND-022/031)

Acción Católicara joaten zen. Apaiza Artzain Onera destinatu zuten, eta misala zozketatu zuen. Berari tokatu, eta pozez zorutzen! Berarekin ezkontzen zenak misal hori irakurri behar zuela erabaki zuen: "Compañera te doy, y no exclava" jartzen zuelako. Senarrari argazkia atera zioten misalarekin.

472. Ezkontza bidaia: Bartzelona, Palma Mallorca, Madril (AND-022/032)

Bartzelonan egon ziren ezkontza bidaian, eta Palma Mallorcan, Chopin non egon zen ikusten. "La Gran Polonesa" ari ziren jotzen, eta bera hunkituta. Madrilera ere joan ziren. Senarrari misalarekin atera zioten argazkia aipatzen du berriro.

473. Lehengo emakumeen egoera; ama, aurrerakoia (AND-022/033)

Orduko emakumeen egoera zein zen, etxetik atera gabe egoten ziren asko. Ama oso aurreratua zen horretarako; pasadizo bat kontatzen du, senarrarekin haserretu eta bakoitza bere aldetik joan zela. Etxea erosi zutenean bista ona izan zuen amak. Amak denda jarri zuen, senarraren diruarekin bizi nahi ez zuelako.

474. Bere lagunak amak ez ziren inora joaten (AND-022/034)

Amak arropa josten zien, eta aitari galtzerdiak egiten zizkion. Gerra denboran ere ez zen ikaratzen. Emakumeari isilik egotea tokatzen zitzaion. Amarekin hondartzara ere joaten ziren beraiek, abuztuan. Lagunen amak, berriz, ez.

475. Emakumea, gizonaren menpe askotan (AND-022/035)

Lehenengo ezkontzetako sinbologia, emaztea senarraren menpe zegoela erakusteko. Emakumea esklabua zen askotan. Sukaldea zen emakumearen tokia.

476. Algodonerako haurtzaindegia eta emakume langileak (AND-022/036)

Emakumeak lanean, etxetik kanpo: Algodoneran haurtzaindegia zuten. Ezkondu eta gero lanean jarraitzeko aukera zuten hala. Ume asko izan zituzten.

477. Amaren ausardia eta gerrako kontuak (AND-022/037)

Emakumearen eta gizonaren arteko aldeak. Ama ausarta izan zen denda jarri zuenean. Frantsesez bazekien amak. Gerra garaiko pasadizoak. Gerra garaiko ogi txarra ez zuten jan; ogia egiten zuten etxean, eta bestea familia bati ematen zioten. Baina familia hura ez zen beraiekin ondo portatu.

478. Dena bekatu iruditzen zitzaien garaia (AND-022/041)

Ohe kontuak ez ziren aipatzen, hilerokoa ere ez. Oraingoa gehiegizkoa iruditzen zaio. Dena zen bekatua. Edozein txorakeria konfesatzen zuten. Lurrerainoko gonak.

479. Otoitza, haur asko ez izateko sistema (AND-022/043)

Ezkondu aurretik, dena bekatua, eta ezkondu ondoren... haur asko ez izateko sistema: senarrak lo hartu arte errezatzea. Ume batetik bestera lau urteko saltoa.

480. Haurren arropatxoak eta tirabuzoiak (AND-022/044)

Haurrak ekartzea ez zen planifikatzen. Haurdunaldian, bizimodu normala. Jaio arte ez zekiten neska ala mutila izango zen. Donostiara joaten zen ume arropa dendak ikustera, ideiak hartzeko. Tolosan zegoen pediatria. Garagardoarekin kiribilak egiten zizkion alabari. Tirabuzoiak egiten nola ikasi zuen.

481. Lehenengo erditzea, luzea (AND-022/046)

Sehaska ere berak jantzi zuen, puntillarekin. Etxean izan zuen lehenengoa. Medikua ginekologoa zen. Umea handia zetorren. Morfina. Erditze luzea izan zuen. Emagina. Ekaitzarengatik argi gabe geratu ziren.

482. Bataioa, segituan (AND-022/047)

Bataioa, segituan. Ama ez zen joaten, elizan sartu behar zuen lehenengo; leihora ez ateratzeko esaten zieten. Elizan sartzea. Gizonak bedeinkazio beharrik ez.

483. Mutila izateko antsia izaten zuten batzuek (AND-022/048)

Bigarren umea klinikan izan zuen: San Corme y San Damian. Amasako moja batek esan ziona: pozik egongo zirela mutilarekin. Beraiei berdin zitzaien beste neska bat izatea. Mutila izateko antsia zuten batzuek.

484. Umea bataioan hoztu, eta komeriak (AND-022/049)

Izugarrizko izoztea egin zuen bigarren umea jaio zenean. Bataioan erretoreak ur hotza bota zion, eta gero bularrik ezin eman. Umea berotan izateko zer egiten zuen. Pediatrik esan ziona. Orduan ez zegoen oraingo ikastarorik umea edukitzeko.

485. Senarrak ez zekien sukaldean, baina ikasi zuen (AND-022/050)

Gizonek ez zuten laguntzen etxean. Baina bera ez zen gosaria prestatzera jaikitzen, eta senarrak sukaldean ikasi zuen oso ondo. Ontziak garbitzen ere erakutsi zion. Egun batean sostenak eroatera ere bidali zuen. Enkarguak egiten zituen.

486. Emakumearen lanak; alabaren soinekoa (AND-022/051)

Garbigailurik ez zegoen orduan. Arropa garbitzen, josten... gizonek baino lan gehiago zuten. Alabari egin zion soinekoa nolakoa zen kontatzen du. San Juanetan jarri zion, eta aitonak umea beste amonaren etxera eraman zuen. Hango neskatoa negarrez. Berak gogor fama zuen.

487. Haurren heziketan gogorra izatea komeni (AND-022/052)

Egun batean paseatzera joan zen koinatarekin, bakoitza bere umeekin. Umeetako batek izandako kasketa, loreen kontura. Bere umeak edozein tokitara eramateko modukoak ziren: minik gabe negarrik ez zuten egiten. Bestela, ipurdikoa.

488. Kristau ikasbidea aitaren laguntzaz ikasi zuen (AND-022/054)

Umetan oso zintzoa zen. Eta eskola-zalea: bi urterekin joan zen eskolara, eta ez zuen handik irten nahi. Kristau ikasbidea euskaraz ikasi zuen han. Aita kristaua zen, eta lagundu egiten zion. Aitaren noiz egin behar zen.

489. Bere pianoaren argazkia (AND-022/056)

Bere pianoaren argazkia erakusten du. Basteron dago gaur egun.

490. Euskararen garrantzia, nola eutsi dioten (AND-022/058)

Euskara berarentzat zer den. Etxean euskaraz egin zu beti seme-alabekin. Lagunak harrituta beraien euskararekin. Alabak bi urte egin zituen Londresen, eta bueltan erdararekin ezinean. Euskaldun askok erdaraz egiten zieten umeei. Euskara debekatuta. Euskara ikasteko erdara baino zailagoa dela uste du. Euskara non hasten den aldatzen: Tolosan eta Irunen.

491. Euskara garbiena, Tolosa ingurukoa (AND-022/063)

Azkoitian, Bergaran... euskara ulertezina omen dute. Euskara politena eta garbiena, Tolosakoa eta inguruetakoa.

492. Aita Añorgakoa, ama Itsasondokoa (AND-023/002)

Aita Añorgakoa organa hazia zen, baina aitona nafarra zen, ardo saltzailea; Aieteko neska batekin ezkondu zen. Ama Goierrikoa, Itsasondon jaio eta Legorretan hazitakoa. Bera Andoainen jaio zen; Fonda taberna zuen amaren ahizpak han. Aita arotza zen, baina tranbian hasi zen lanean. Ama nola ezagutu zuen. Ezkonduta, taberna jarri zuten. Hiru senide.

493. Eskolara moja frantsesetara (AND-023/003)

Hiru urterekin hasi zen eskolan, Notre Dame moja frantsesetara. Erdaraz ikasi zuen, solfeoa ere bai... Merienda eramaten zuen. Mojetako bat etxera joaten zen, sukaldean ikastera; ama oso sukaldari ona baitzen. Lehengo bizimodua lasaiagoa zen.

494. Julian Enea tabernako kontuak; maizterrak ziren (AND-023/004)

Julian Enea taberna zuten; maizterrak ziren. Errenta ordaintzera joaten zen bera, hilero, Maindi etxera. Ardo eta ikatz biltegiak zituzten, arropa eta janari denda ere bai. Baserritarrek, dirua zutenean, etxeak erosten zituzten; haiek bi zituzten kalean. Takoi altuko zapatekin nola ibiltzen zen gora eta behera.

495. Artilezko berokiak; emakumeek praktarik ez (AND-023/006)

Artilezko berokiak santu guztien egunean estreinatzen zituzten. Praktarik ez zuten erabiltzen; lehenengo aldiz Parisera joan zenean jantzi zituen. Frantsesez badaki pixka bat.

496. Moja ikastetxeko eta etxeko otoitzak (AND-023/009)

Moja ikastetxean orduro erreztatzen zuten; etxean ere egiten zuten otoitz. Bost seme-alaba ditu, eta orain ez. Lehen: jan aurretik, etxetik irtetean, eliza ondotik pasatzean... Moja euskaldun bat bazen, baina eskolan erdaraz eta frantsesez. Kalean, lagunekin euskaraz; etxean ere bai. Gaztetan kalean erdaraz ere ibiltzen ziren, euren buruak apainago egiteko edo.

497. Errepublika garaiko grebak eta istiluak (AND-023/012)

Errepublikako grebekin akordutzen da. Aitak taberna itxi zuen, istiluen beldurrez. Leihora atera zen. Asaltoko guardiak agertu ziren, zaldi gainean, Donostiatik etorrira. Zaldiak lurrera erori ziren, norbaitek barraskiloak bota zizkielako ganbaratik. Kasualitatea, beraiek ere bazituzten karakolak ganbaran; miaketak. Etxetik bertan tranbia zuten, eta bertako langileak kalean zebiltzan, greba egiten.

498. Apaizen kontrako abestiak, Errepublika garaian (AND-023/013)

Errepublikak ekarri zituen aldaketak. Hortik sortu zen gerra. Istiluak. Tabernan apaizen kontrako abestiak entzun, baina isildu egiten ziren. Abestu egiten du. Bera gutxi egoten zen tabernan, amak bigarren solairuko jostunarengana bidaltzen zuen.

499. Mojek alde egin zuten Errepublika etortzean (AND-023/014)

Bere ikastetxeko mojak gordeta egon ziren, eta gero ihes egin zuten Baionara; bera Tolosara joan zen eskolara. Etxeko lanak egiten ikasi zuen, josten, sukaldean...

500. Gazte alargundu zen (AND-023/015)

Taberna Kale Berrin zegoen, orain desagertua dago. Zubiaurre etxera ezkondu zen. Gazte alargundu zen. Diru faltarik ez du izan, baina penak asko.

501. Tabernan lan asko izaten zuten (AND-023/017)

Taberna nolakoa zen. Hileta ondorengo bazkariak, kintoenak... lan asko egiten zuten. Bi jangela zituzten. Langileak eta merkatariak joaten ziren. Gaztetako pentsamendua eta gerokoa ez da berdina.

502. Hondartzara joaten zen Donostiara, tranbian (AND-023/019)

Gazte denboran etxean egon behar izaten zuen asteburuetan, lanean. Aste barruan amak hondartzara joateko esaten zion. Tranbian joaten zen. Baina lagun askok ezin zuten. Igeri Andoaingo errekan ikasi zuen. Gozotegian pastela jaten zuten.

503. Inguruko herrietako festak eta Tolosako feria (AND-023/020)

Erromeriak. Asteasuko eta Villabonako festetara joaten ziren. Santiotara oinez. Oraingo gazte denbora desberdina da, lehengoa lasaiagoa. Larunbatetan, amarekin Tolosara feriara; tela dendan ehuna erosi, eta Florak (bizilaguna) josten zion soinekoa. Propinak ematea ohitura zen tabernan. Batak.

504. Mantila, mezarako (AND-023/022)

Bata erabiltzen zuten kalerako. Mezarako, iganderako soinekoa. Beti izan da apaina. Gona motzik ez zen erabiltzen. Klasikoa zen bera. Mantila, mezarako; gerra ostean kendu zuten. Galtzerdi gabe ere ezin zen joan mezara.

505. Garizumako debekuak (AND-023/025)

Garizumako debekuak: zinemara ezin joan. Ostiral Santuan lagunak Donostiara joaten ziren, bera ez. Musika: banda prozesioaren atzetik joaten zen. Taberna ere itxi egiten zuten. Baserritarrak diru gutxiarekin baina ondo bizi ziren.

506. Mutil esku-luzeari eskarmentua (AND-024/002)

Tabernan lagun asko zituen, mutilak inguruan. Ama serioa zen, eta mutilei ez kasurik egiteko esaten zion. Mutil batek eskua jartzen zion ipurdi aldean, eta sifoi botilarekin busti zuen behin.

507. Senarra aukeratzeko garaia (AND-024/003)

Gizonari errespetua izaten zitzaion. Gurasoei ere bai. Bi-hiru mutilekin ibili zen "tonteatzen", eta azkenean bere senarrarekin geratu zen. 28 urterekin ezkondu zen. Gurasoak bera baino lehenago konturatu ziren. Senarra familia utzi beharraren penaz hil zen.

508. Bost urte nobiotan; zarzuelak (AND-024/005)

Ezkontza xumea egin zuten. Harakina zen senarra. 1951n ezkondu ziren. Bost urte nobiotan, batera eta bestera: Mirentxu eta El Caserío zarzuelak ikustera joan ziren; abesti bat kantatzen du, gaztelaniaz.

509. Pospolinetan ibili zen dantzan, gerra aurrean (AND-024/006)

Pospolinak zer ziren. Batzokian biltzen ziren; Donostiatik Barriola andereñoak joaten ziren dantza erakustera. Ezpata dantzariak ere bazeuden. Martin Lasarte Realeko entrenatzailearen familiaren kontuak.

510. Batzokiko antzezlanak (AND-024/010)

Antzerkia ere egiten zuten batzokian. Abesti bat kantatzen zutela du gogoan. Bederatzi neska ezkongai kantua kantatzen du. Antzezle moduan ez zen ibili. Orduko antzezlanak: Mendi-mendiyan.

511. Andoainen denetik: karlistak, sozialistak, komunistak... (AND-024/011)

'Círculo Carlista' ere bazen Andoainen. Non zegoen, batzokitik gertu. Errepublikazaleen zentroa ere bazegoen eta sozialistena. Komunistak lepo gorria lepoan ibiltzen ziren. Denetik zegoen, 4.000 biztanle baino gutxiago izan arren. Istilu handirik ez zen izan politikarien artean. Are gehiago: jauntxoek errerepublikazaleei lagundu zieten gerra etortzean.

512. Gerra hasi zen; fusilamenduak (AND-024/012)

Gerra hasi zenean, ez zuten inora alde egin. Aita ez zen politikan sartu. Militar talde bat herrira nola sartu zen. Anaia zaharrena. Elkarren inbidia izan zen, eta 12 andoaindar fusilatu zituzten. Beldurra eta pena.

513. Gerra: lapurretak hutsik geratutako etxeetan (AND-024/013)

Lapurretak etxeetan: altzariak eramaten zituzten, kamioietan. Batek eskuetan argazki bat zuen, senarra agertzen zen, eta eskatu egin zion. Fusilamenduak. Oker asko egin zituzten Andoainen.

514. Gerra ondoren industria indartu egin zen; inmigrazioa (AND-024/014)

Gerra ondoren lana sortu zen lantegietan: inmigrazioa. Gerra garaiko industria: bonba fabrika, Laborde... Dirua egin zuten batzuek eta etxea erosi zuten. Lehen ez zegoen erosteko ohiturarik: gehienak maizterrak ziren.

515. Emakume abertzaleei ilea moztu zieten (AND-024/016)

Nazionalak sartu aurretik, ez zen hildakorik izan. Gero jende asko hil zuten batere errurik gabe, "Gora Euzkadi" esateagatik. Emakume batzuei ilea moztu zieten, abertzaleak izateagatik. Bizarginari ere malkoak ihes egiten zion.

516. Andoaindar asko Oriara gerra garaian (AND-024/018)

Batzokia eta zentro errepublikanoa itxi egin zituzten. Jende asko Oriara joan zen, eta Brunet lantegian hasi zen lanean. Emakume askok egiten zuen lan

lantegian, Algodoneran eta. Kasu bat aipatzen du. Zintzoago bizi ziren lehen. Etxean ere lana egin behar: arropa eskuz garbitzen zen.

517. Gerra ondoren, lana eta dirua bazegoen (AND-024/020)

Gerra ondoren, lana bazegoen. Dirua zuen jendeak, eta tabernan mugimendua zegoen. Oraingo emakumeei buruzko iritzia. Berak beti egin du lana. Dirua biena zen, senar-emazteena. Kontuak berak eramaten zituen.

518. Alarguna, bost seme-alabarekin (AND-024/021)

Gizon ona zen, baina gazte alargundu zen. Bost seme-alaba. Alarguntza bazeukan, diru asko garai hartarako. Baina seme-alabak txikiak ziren negozioarekin jarraitzeko. Horregatik, errentan eman zuen, eta orain arte.

519. Errazionamendua eta estraperloa: tren txikia (AND-024/023)

Gerra ondorengo errazionamendua. Flora bizilagunaren aitag, Juanillok, tren txikian egiten zuen lana. Irina, babarrunak, azukrea... ekartzen zizkien. Guardia Zibila miaketak egiten hasi zen. Etxean lau apopilo zituztela esan zieten, eta haiek ekarritakoa zela janaria. Amak ogia egiten ikasi zuen. Apopiloak nongoak ziren.

520. Euskara debekatuta, gerra ondoren (AND-024/025)

Euskararen kontrako neurriak, gerra ondoren. Gurasoekin euskaraz zebilelako poliziak kargu hartu zionekoa, tabernan. Erdaraz ere ondo zekien. Filarmonika jotzen zuten disko saltzaileak. Kanean kontuz ibili behar zen. Batzuek euskara galdu zuten. Amak Goierriko euskara zuen, eta berak ere halakoxea duela uste du. Hitz bereziak bazituen amak.

521. Aranoko ikazkinen kontuak (AND-024/027)

Tren txikia eta Aranoko ikazkinen kontuak. Egur-ikatzak ekartzen zuten Nafarroatik. Maindi denda. Txondorra egiten zuten han, eta behin ikusi zuen. Amak ere erosten zuen egur-ikatzak. Aranoko mutilak mandoak kargatuta joaten ziren Andoainera mendiz, saltzera. Beraienean egiten zuten lo. Mandoak askatu zituzten mutiko bihurri batzuek.

522. Etxera lau mutilekin eta automobilean (AND-024/032)

Gaztetan, lagunak izatea bai, baina nobio asko edukitzea ez zen ohikoa. Bera itsusia zela dio, sudur handikoa. Iluntzean goiz etxeratzen zen. Baina etorrita dago lau mutilekin automobilean: Beotibar dantzalekura joan, Tolosara, igande batean, eta bueltako trena galdu zuen.

523. Jauna hartzeko, baraurik (AND-024/035)

Santa Kruz ermita, auzoan. Parrokia non zegoen lehen; mezetara joaten ziren 06:00etarako. Baraurik, Jauna hartzeko. Zintzoegi bizi ziren orduan. Igandetan denda eta taberna asko zeuden zabalik. Apaizak esaten ziona.

524. Andoaingo festak nolakoak ziren (AND-024/038)

Santakruzetan zer izaten zen. Meza; eskopeteroek hiru tiro botatzen dituzte. Batela errekan. Bazkaria egiten zen. Egun handia zen eta da. Pepe Andoain musikari famatua; filarmonikarekin abesten zuen. Pasodobleak. Dantza lotua normala zen 16-18 urte zituenerako.

525. Pospolinen erretratua II (AND-024/043)

Erretratuari begira, izenak esaten hasi da: Pujol, Navarro, Zubillaga, Amustxategi, Etxeberria, Barriola, Apalategi, Barandiaran, Pastor...

526. 'La Unión Previsora' aseguria (AND-024/056)

Lehen haurdunaldian tentsioa igo zitzaion. Mediku partikularra zuten. 'La Unión Previsora' aseguria. Logela non zuten. Klinikari izan zuen umea.

527. Haurdun, baina festak galdu nahi ez (AND-024/058)

Medikuak dieta jarri zion, haurdunaldian, tentsioa jaisteko. Fruta eta barazki zalea da orain ere. Ingresatu egin zuten. Santo Kristori errezatu zion. Santakruzak ez zituen galdu nahi. Mateo eta Pepe musikariak.

528. Zortzi urterekin izandako istripua (AND-025/004)

Ama Donostiara joan zen, berdura saltzera, eta berak jartzen zuen bazkaria, zortzi urterekin. Aza txikitzen ari zela, ebakia egin zuen, baina ez zuten medikuarengana eraman. Medikua etxera joaten zen, larrialdiren bat zegoenean. Bestela, kontsulta etxean izaten zuten medikuek.

529. Umeen jaiotza tabua zen (AND-025/005)

Medikua oinez ibiltzen zen. Erditzeetan joaten zen. Bera ez da amaren erditzeekin gogoratzen; umeak etxetik bidaltzen zituzten. Tabua zen. Paristik zetozen umeak. Dena bekatua zen.

530. 12 urterekin neskame (AND-025/006)

11-12 urterekin neskame. Gaixotuta, aitak etxera eraman zuen, baina baita berriz bueltan bidali ere. Esnea partitzen ibiltzen zen.

531. Moleda fabrikan lanean ibili ondoren, berriz zerbitzera (AND-025/007)

14 urterekin Moleda fabrikan hasi zen lanean, aitaren bidez. 21 urte arte. Gripearekin zegoela, prima galdu zuen, eta lanez aldatzea erabaki zuen. Izkina jatetxean hasi zen zerbitzen, eta handik hiru urtera Donostiara joan zen neskame. Baldintza hobeak zituen han.

532. Sorabillako taberna hartu, eta ezkondu (AND-025/008)

Sorabillako taberna hartu zuten mutil-lagunak eta biek. Donostian neskame zegoela hasi ziren irteten. Umetatik ezagutzen zuen. Lehenengo galdetu zionean, ezetz esan zion berak. Gaixotu egin zen senarra; botikekin joan ziren ezkonbidaia, Madrilera.

533. Ezkontza bazkaria (AND-025/009)

Ezkontza bazkaria etxean egin zuten, senideekin. Ezkontzeko prestaketarik ez zuten egin.

534. Ezkondu aurretik elkarrekin bizitzea, esameserako bidea (AND-025/010)

Ezkondu aurretik elkarrekin etxe berean bizi zirela eta esamesak izan ziren. Izebaren etxera joan zen senarra. Noiz joan zen lehen aldiz senarraren familiaren etxera.

535. Etxeko lanetan umetatik (AND-025/011)

Baserriko lanetan ez zen asko ibiltzen, etxeko lanetan gehiago. Arropa konpontzen egoten zen, sukaldean, etxea garbitu... Menda belarra bildu, eta gelak haiekin pasatzen zituen. Pipiaren hautsa talko hautsa bezala erabiltzen zuten. Pasmu belarra eta kamamiloa.

536. Etxeko behiak (AND-025/012)

Bi behi izaten zituzten, suitzarrak. Errape minik ez zuten eduki. Anaiak esne behiak jarri zituen gero, eta hura okerrago ibiltzen zen. Karetxentzat landare baten esnea erabiltzen zuten.

537. Garbitasun pertsonala (AND-025/013)

Garbitasun pertsonalerako ura ekartzen zuten iturritik. Aldiko hiru balde ekartzen zituen. Labaderoan ere garbitzen ziren. Jaian pasiatzera.

538. Erromeriak eta festak (AND-025/014)

Erromeriara nora joaten ziren. San Estebanera. Domingo "Ttanttua". Amasatik baserritarrak joaten ziren hara, baina beraiek gutxiagotzat zuren beren burua. Urnietara, Xoxokara. Inguruko herrietako festetara ere bai. Hernanira. Kuadrillan joaten ziren. Sacamantecas. Mutilei gehixeago uzten zieten.

539. Emakume ona: garaiz erretiratzen zena (AND-025/015)

Festetan ordubata zen muga. Jai arratsaldetan zortziak. Emakume onak 'aimaritarako' etxean egon behar zuen. Amak esaten zuena.

540. Emakumerik ez tabernetan (AND-025/016)

Emakumea ezin tabernara sartu. Gaizki ikusia zegoen. Lasartera, Irubidetara. Gutxixeago ordaintzeagatik, oinez.

541. Sorabillako taberna (AND-025/020)

Tabernan pasatu du bizi guztia, 22 urteetatik 71 urtera. Bezeroei bazkaria eta oroigarri txiki bana eman zien agur moduan. Bezeroekin izan duen harremana.

542. Sorabillako taberna II (AND-025/021)

Zergatik itxi zuen taberan Santo Tomas bezperan. Maizterrak ziren, eta ez zieten etxea saldu nahi izan. Obrarik egiten ere ez zieten uzten. Komuna eta dutxa.

543. Sorabillako taberna III (AND-025/022)

Sorabillako taberna eta etxea nolakoak ziren. Lau gela zituen. Lotarako jendea ere izaten zuten. Ogitartekoak ere jartzen zituen. Bariantea egin zutenean izan zituen langileak.

544. Sorabillako taberna IV (AND-025/023)

Erromeriarik ez zuten antolatzen. Sorabillako festetan barra jartzen zuten kanpoan. Ogitarteko mordoa egiten zituzten, patata tortila. Afaltzeko ere 20 kilo txipiroi garbitu behar; denak jartzen zituen lanean.

545. Euskarari buruz (AND-025/026)

Euskara zer den berarentzat. Orain gaztelaniaz hitz egiten duen batekin bizi da, baina senide guztiekin euskaraz egiten du. Biloba denak ikastolara joan dira. Ikastolako euskara.

546. Euskarari buruz II (AND-025/027)

Gaztetan lantegian hasi zenean ikasi zuen erdara pixka bat. Bera ibiltzen zen tokietan euskara erabiltzen zuten. Inguruko herrietara joaten ziren, eta euskara berdintsua zen denetan.

547. Lau arreba (AND-026/002)

Aita Aldabakoa zuen eta ama Andoaingoa, baserrikoa, Miranda baserrian bizitua. Bekaiztegira ezkondu zen, eta hantxe jaio zen bera. Jaioteguna. Lau arreba eta bera ziren. Zaharrena moja joan zen; haren kontuak.

548. Arrebak zein lanetan ibili ziren (AND-026/003)

Bigarren arreba baserriko lanetan ibiltzen zen. Hirugarrena, berriz, neskame joan zen 11 urterekin. Bi arreba ibili ziren zerbitzen, baita moja joan zena ere.

549. Arreba gazteena ere neskame (AND-026/004)

Arreba gazteenaren kontuak. Leizaran papel lantegian ibili zen lanean bera. Arreba ere han sartu nahi zuten gurasoek, baina berak ez: neskame moduan gehiago ikasiko zuela eta, Donostiara bidali zuten. Etxeko lanak egiten ikas zezan. Orain ere emazteak prestatzen dio bazkaria.

550. Urik ez etxean (AND-026/005)

Etxeko lanak egitea nekezagoa zen lehen. Urik ez zuten etxean. Iturrira joaten ziren. Kanalera joaten zen garbitzera eta igerian ikastera. Dutzarik ez zen orduan.

551. Baserrian dirurik ez (AND-026/006)

Umeak zirenean, dirurik ez zen baserrian. Lantegian hasi zirenean, hasi ziren dirurik ikusten. Lau behi zituzten. Aitak obretan egiten zuen lana, han eta hemen; zentralean ere aritu zen. Artoa zuten etxean, esnea eta babarruna ere bai. Txerria hiltzen zuten.

552. Babarruna entregatu beharra; kaletarren gosea (AND-026/008)

Gerraostean, babarruna eta artoa entregatu behar izaten zuten alhondegira. Kaletarrak joaten zitzaizkien, janari eske. Amaren lagunak ere joaten ziren baserriko lanekin laguntzera, eta amak zerbait ematen zien.

553. Lurra lantzeko prozesua (AND-026/012)

Baserriko lanak. Lurra lantzeko, goldea, hesia, harria, karramarroa eta alper-harria erabiltzen zituzten. Lurra lantzeko prozesua azaltzen du, artoa jartzeko

nola prestatzen zuten. Traktoreak soroa zikin uzten du. Belarra eskubarearen batzen zuten. Idiak eta behiak erabiltzen zituzten.

554. Esne behiak eta txekorrak; behiak zezenetara eramatea (AND-026/013)

Esne behiak zituzten. Goizean jetzi, eta mendira joaten ziren garotara. Behi gogorrak izaten ziren, lanerako ere balio zutenak. Txekorrak hazten zituzten. Zezenetara eramaten zituzten, lztueta-Txiki eta Larramendi baserrietara. Berak eramaten zituen. Nola jakiten zuten noiz eramán: "Hau susa ziok!". "Biga" behi bihurtzen da.

555. Behia zezenetara eramatearen arriskuak (AND-026/014)

Bizilagunari gertatu zitzaiona, behia zezenetara zeramala. Behiak gainera salto egin, eta saihetsak puskatu. Hori berriz ez gertatzeko asmatu zuena.

556. Txekorrak jaiotzeko unea (AND-026/015)

Umatutako behiak berdín-berdín erabiltzen zituzten lanerako. Txekorrak jaiotzeko unean auzokoak joaten ziren laguntzera. Bizilagunaren bigantxa erosi zuen, umatuta, eta txekorra ezin atera, larri ibili ziren. Candido albaitaria eramán zuten azkenean, eta injekzioa eman zion.

557. Txekorrak jaiotzeko unea II (AND-026/016)

Injekziorik ez zen garaian, askotan hil egiten ziren. Biga eta txekorra, biga hil zirenekoa kontatzen du.

558. Botila bat ardo behiari (AND-026/017)

Txekorra amak garbitzen zuen. Esnea edanarazi, gero. Ardoa ematen zitzaion behiari, indartzeko. Karena zakurrei ematen zieten.

559. Behia antzutzea komeni, indartzeko (AND-026/018)

Behia berriz umatzeko baldintzak. Antzutu egiten ziren, zazpi hilabetera: haragia indartu egiten zitzaíen hala. Oraingo behi pintoak ez dira antzutzen.

560. Egungo behiak, ezin antzutu (AND-026/019)

Azkenengo behiaren kontuak. Astesun erosi zuen. Txekor ederra egin zuen. Baina gero ezin zuen antzutu. Azkenean "txorizeriara" eramán behar izan zuen.

561. Behien gaixotasunak: errape-miña, haizatzea... (AND-026/020)

Behien gaixotasunak. Errape-mina, behiak gaizki jetziz gero. Lanparoiá ez du etxean ezagutu, baina entzun bai; lipuba ere bai. Beroa janez gero, behia "haizatzea" ere gerta daiteke. Hausnarrik egiten ez duen behia.

562. Behin gaixotasunak: txuringa, napar-miña, karetxak (AND-026/021)

"Txuringa" ateratzea zer den. "Napar-miña". Behien karetxak edo "katxuak". Ukendu batekin joan zitzaizkion. Zapoá jarrita egin zuen proba aurretik, baina alferrik.

563. Garotara mendira, behiei azpiak egiteko (AND-026/022)

Behiei lo-lekua nola egin: garoa, ote belarra... orain lastoa eta zerrautsa. Garotara joaten ziren mendira. "Lotiak" markatuta izaten ziren, garotarako. Gurdiarekin, segarekin eta higitaiarekin joaten ziren. Garoa lehortzean, metak egin. "Iñaurkiña".

564. Garo meta nola egin (AND-026/023)

Garo meta nola egiten zuten azaltzen du. "Zuntoia" eta "txardama". Meta belarrari zakua jartzen zioten, garo metari ez. Egurrak jartzen zizkieten zintzilik.

565. Ganaduaren jatena (AND-026/024)

Ganaduaren jatekoa. Arbia, erremolatxa, pagotxa... eta belar ondua neguan. Belar meta egiten zuten.

566. Etxearen egitura; ganbaran zer gorde (AND-026/025)

Mandioa etxeko sarrera da. Etxearen egitura. Ganbara. Artoa, baratxuria eta babarruna nola gorde. Leka barruan sartuta gordetzen den babarruna, aletu gabe. Artoa nola aletzen zuten, mazoarekin jota. Lokotsak. Babarruna nola aletu eta haizatu.

567. Errotara, artoarekin, gero taloa egiteko (AND-026/026)

Errotara Andoaindik Zizurkilera joaten ziren, Loidi errotara. Irin ona egiten zuten han. Ogirik ez zen, eta taloa egin behar. Sardina zaharrak erdibana jaten zituzten.

568. Eskolan gutxi baina toki askotan (AND-026/029)

Eskolan Sasierrotan ibili zen, maistra batekin, Jaunartzea egin arte; bi ahizpa ziren (Dolox eta Maxima), eta eskola euskaraz. Gero, herriko eskolan, erdaraz, maisuarekin (Abrego). Gau eskolan ere ibili zen, negu batean. Erdaraz ez zekien. Lantegian lana egiteko ez zegoen ikasi beharrik. Orain ez da hala.

569. Herriko eskolako jolasak (AND-026/030)

Umetako jolasak. Pilotan, arkupean. Herriko eskola non zegoen, Andoainen. Goxokiak erosten zituzten, dirua bazuten. Mutilak eta neskak aparte, herriko eskolan.

570. Kanalera bainatu, gantzontzilotan (AND-026/031)

Txori kabi bila ibiltzen ziren. Aita siestan zen bitartean jolasten zuten. Errekara ere joaten zen lagunekin, igandetan; bera aste barruan ere joaten zen kanalera. Errioa arriskutsua da, kanala ez. Presan ere ez zen ibiltzen. Gantzontzilotan bainatzen ziren. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren umetatik. Gero ere bai. Neska laguntzen ere ez da ibili bera.

571. Hernioko erromeria (AND-026/032)

Inguruko erromeriak. Herniora joaten ziren, irailean. 15 urterekin joan zen lehen aldiz, lagunekin. Iturriotzen, auzoko neska batekin egin zuen dantza, sueltoan. Hurrengo urtean helduta egin zuen dantza; baita trenan galdu ere, eta oinez bueltatu behar. Soinu jotzaileak goraino igotzen ziren.

572. Festetara batera eta bestera (AND-026/035)

Udan festetara joaten ziren batera eta bestera. Zizurkilera eta. Xoxokako erromeria kendu egin zuten. Andoaingo festak: santakutzak, maiatzean. Zumarragako trikitixa izaten zen.

573. Oilasko jokoa I (AND-026/036)

Abuztuan, San Esteban eguna eta herriko festak. Oilasko jokoa egiten zuten, Urnietako soinu jotzailearekin. Soldaduska egindakoan edo ezkonduetakoan uzten zuten oilasko jokoa. Oilasko jokoa nola izaten zen kontatzen du. Salda edaten zuten Goiburuko etxe batean. Bazkaria eta afaria egiten zuten.

574. Oilasko jokoa II (AND-026/037)

Oilaskoei burua nola moztzen zieten, ezpatarekin; batzuek baita hortzekin ere. Ohitura nola aldatu den. Lehen neskak oilaskoak lumatzen bakarrik egoten ziren. Ekologistak.

575. Oilasko jokoa III (AND-026/038)

Oilasko jokoko oilaskoekin zopa eta paella ere egiten zuten. San Esteban hirugarermean egiten zuten oilasko jokoa; orain San Inazio egunean egiten dute.

576. San Joan sua (AND-026/039)

Andoainen, San Joan bezpera eta San Pedro. Andoaingo plazan sua egiten zen, eta etxe askotan ere bai. Garbitasuna egiteko balio zuen. Lizar adarra jartzen zuten atean.

577. Andoaingo euskara (AND-026/043)

Andoainen euskara dexente entzuten du. Nahasketa handia dago, hala ere. Tolosako euskarak du garbi fama. Mendaro eta Elgoibar aldeko euskara diferentea iruditzen zaio; lehengusuak ditu han. Andoaingoa garbiagoa ei da.

578. Apaizei lehen berorika; orain, hika (AND-026/044)

Hika hitz egiten zuten asko gazteen artean. Oraingo gazteek ez dute erabiltzen. Duela gutxi pasadizoa: Berastegiko apaizari monagiloak hika egin zion. Lehen berorika apaizei, eta txapela kenduta agurtu behar.

579. Etxeberrietan aitonaren garaitik (AND-027/002)

Etxeberrieta auzoaren sorrerari buruz hitz egiten du: kotoi-fabrikako langileentzat egindako etxeak ziren, eta Martinen etxea izan zen denetan azkena eraiki zena. Ama ere Martinen jaiotetxean jaiotakoa zen. Aitona Amezketatik Andoainera etorritakoa zen.

580. Áncoras kalearen historia (AND-027/006)

Áncoras izena du Andoaingo kale batek, garai batean aingurak egiten baitziren bertan. Errementeria asko zeuden lehen kale horretan.

581. Gerrako garai latzak (AND-027/009)

Garai latzak pasatzea tokatu izan zaie: errepublika, gerra... Andoainen 17 gizon fusilatu zituzten, gizon zintzo askoak. Errepublika etorri zenean, apaizak ez zituzten onartzen. Gero, ordea, gerra iritsitakoan, mendekua etorri zen. Gerra bukatu eta egoera normaldu arte urte batzuk pasa ziren.

582. Gizonak fusilatu eta emakumeak umiliatu (AND-027/011)

Gerran gizonak fusilatu egin zituzten, baina emakume batzuei ilea moztu zieten umiliatzeko. Emakume haietako bati buruz hitz egiten du: nazionalista izateagatik moztu zioten ilea, lagunek salatu zuten. Margaritek zer egiten zuten azaltzen du. Emakume batzuei olio erretxinaduna ematen zieten zigor moduan.

583. Arratoiak kalean eta katua platerean (AND-027/013)

Aitonak etxea eraiki zuenean, beheko zatian taberna jarri zuten. Taberna hartan katua jaten zuten eta jendeak gustuko izaten zuen. Kaleetan arratoi asko egoten ziren, eta soroetan artoa jatera joaten ziren. Etxe gehienetan zakurrak edo katuak izaten zituzten.

584. Ama sukaldaria eta emagina (AND-027/014)

Goserik ez zuten pasa. Amak amonarekin eta ahizparekin ikasi zuen sukaldean ibiltzen. Sukaldari ona zenez, hainbat lekutatik deitzen zioten bazkariak prestatzeko. Ama Andoaingo emagina ere bazen.

585. Auto baino tranbia gehiago Andoainen (AND-027/016)

Errepidean aritzen ziren jolasten umetan. Gerra aurrean auto bakarra eta bi kamioi zeuden Andoainen. Umeek autoari baino beldur gehiago zioten tranbiari. Tranbiaren ibilbideaz eta ordutegiaz hitz egiten du.

586. La Salle gerra aurretik eta gerra ostean (AND-027/018)

Pilotan jokatzeko aritzen ziren eskola-etxean. Eskola hartan 6-12 urte bitarteko umeek ikasten zuten. Martin 1934ean hasi zen ikasten La Salle eskolan: han errespetu handia zegoen. Garai hartan, fraideak kalez jantzita joaten ziren, baina gerra bukatutakoan, fraidez jantzita joaten ziren. Gerra bukatutakoan liburuak ere aldatu egin ziren: dotrina eta historia sakratua bakarrik mantendu zituzten euskaraz. Hura txoke handia izan zen umeentzat.

587. La Salletik Labordera berehala (AND-027/021)

1941ean La Salle eskola utzi zuen, eta handik bi astera lanean hasi zen Laborden. Lanbidea pixkanaka ikasi zuen.

588. Tornulari izateko gogoa (AND-027/022)

Laneko gizon batek aholku ona eman zion: kamioia erosteko. Behin laneko arduradunari tornuan lan egiteko eskatu zion, eta hantxe jarri zuten. Tornularia izan zen 2-3 urtean eta ikasketa onak zituen, ofizial izan zen.

589. Irratiak muntatzen ikasteko ikastaroa (AND-027/023)

Jornala amari ematen zion, baina aisialdian gero eta behar gehiago zituen. Horregatik, irratia buruzko ikastaro bat egitea bururatu zitzaion; nola ikasi zuen azaltzen du. Lehenengo irratia egin zuenean, proba egin zuen, eta Radio Pirenaica harrapatu zuten.

590. Irrati bat zozkatu, bestea egiteko (AND-027/024)

Etxean bere lehenengo irratia muntatu eta ondo funtzionatzen zuela ikusi zuenean, Donostiara eraman zuen doitzeko. Han esan zioten zer zuzendu behar zuen hurrengo batean irratia egitean. Orduan, irratia zaharra zozketan ateratzea bururatu zitzaion, hortik lortzen zuen diruarekin beste irratia bat egiteko. Azkenean, jostun batzuei tokatu zitzaion zozketako irratia. Zozketa hartatik lortutako diruarekin, beste irratia bat egiteko behar zuen materiala erosi ahal izan zuen Martinek. Irrati hura urte askoan eduki zuten etxean.

591. Dendan garbigailuak saltzen hasi zenekoa (AND-027/028)

Dendan garbigailuak saltzen hasi zen: Otsein enpresak egiten zituen garbigailu haiek. Lehenengo garbigailuak nola saldu zituen azaltzen du. Garbigailuetako teknologia pixkanaka hobetzen joan zen.

592. Hozkailuak saltzen lehenengoa Andoainen (AND-027/029)

1962an hozkailuak iritsi ziren. Martinek haiek saltzeko erabakia hartu zuenean, enpresak ikastaro bat egiteko eskatu zion, hozkailu haiek konpontzen ikas zezan. Hozkailuak saltzen hasi zenean, negozio handia egin zuen, Andoainen hozkailuak saltzen zituen lehenengoa izan baitzen.

593. Aita tifusarekin hil zen; aurrerapenik eza (AND-028/004)

Zumea kalean jaio zen, eta gerra ondoan Karrika kalera joan ziren bizitzera. Aita (Pio) tifusarekin hil zen, eta etxea desinfektatu egin behar zenez, etxe berrietara joan ziren. Gaitza nolakoa zen. Ez zegoen aurrerapenik. Denek pasatu zuten. Erremedioak: enplastoak, rona, aspirina...

594. Andoainen bi mediku; asegururik ez (AND-028/005)

Andoainen bi mediku zeuden. Etxera joaten ziren; oinez, bizikletan, motoan... Ordaindu egiten zitzaion, artean asegururik ez zegoelako. Laborde Hermanos lantegian bai, bazuten segurua; 14 urterekin hasi zen han. Praktikantea ere bazuten.

595. Laborde lantegian, gizon eta emakume ugari (AND-028/006)

Laborde lantegian emakume asko zebilen lanean. Brokak egiten zituzten, burnizko gauzak. Eskola ere bazuten, ofizioa erakusteko; La Salletik zuzenean sartzen ziren lanera mutilak. Bere lehen lana: barilak moztea. Gero, brokak egiten makinan.

596. Neska baserritar asko lantegian (AND-028/007)

Laborden lanean zebiltzan emakume baserritarrek beraientzat gordetzen zuten soldata; kalekoek amari eman behar. Baserrietan beti zegoen fruta, barazkiak, artoa, babarruna... bera ere joaten zen laguntzera baserri batera, merienda truke. Baserriak asko aldatu dira. Elkarlana baserritarren eta kaletarren artean.

597. Algodonerako eskolan, erdaraz eta euskaraz (AND-028/009)

Lantegietara lanera joaten zen jende asko, bere gurasoak ere bai. Amak Algodonerako hautzaindegira eramaten zituen umeak. Laboreak egiten ere erakusten zieten mojek. Oheak zeuden, ume txikientzat. Bi maistra-zaintzaile egoten ziren: Emili eta Maria Cruz. Mojek zer erakusten zieten, erdaraz eta euskaraz. Gerra aurea zen eta. Gero, Frantziatik bueltatu zirenean, erdaraz.

598. Gernikako bonbardaketa I (AND-028/010)

Gerra garaian ihesi joan ziren. Ama alarguna zen, eta esan zioten gizon gaiztoak aprobe txatu egingo zirela. Korte zubin, Gernika ondoan, denbora dezente egin zuten. Balnearioa. Bonbak bota zituztenean, han ziren; anaia eta lehengusua Santimamiñeko kobazuloan ezkutatu ziren. Gernika sutan. Pilotuak ongi ikus zitezkeen. Hegazkinak, hirunaka.

599. Gernikako bonbardaketa II (AND-028/011)

Bonbardaketa hasi zenean, bazkalondoa zen eta etxean zeuden. Pinu artera joan ziren. Lehengusu txikia, Juantxo, negarrez; gero Santanderren hil zen, pneumoniarekin. Santimamiñen ezkutatu ziren anaia eta. Handik batera eta bestera. Gerra bukatu arte ez ziren Andoainera bueltatu.

600. Gernikako bonbardaketa III (AND-028/012)

Gernikan feria eguna zen. Nola geratu zen. Hiru-lau kilometrora zeuden beraiek. Gauean, dena sutan. Ez ziren joan ikustera. Jendeak korrika alde egin zuen handik. Asko hil ziren.

601. Gerrako gertaerak nola jakiten zituzten (AND-028/013)

Gerra garaian, gertaeren berri nola izaten zuten. Irratirik ez zuten, eta galdetu egiten zuten. Erdaraz egiten zuten gernikarrekin, haien euskara ez zutelako entenditzen. Bizkaierari buruzko ikuspegia.

602. Santandertik Oviedora; handik itsasontziz Frantziara (AND-028/014)

Gernikatik joateko, gauerdian kamioi batean sartu zituzten. Santander aldera. Aitonari bonba bota zioten, baratzean zegoela. Santander aldean antzoki batean egon ziren, koltxoiak jarrita. Handik Oviedora, eta gero barkuz Frantziara. Hiru egunean itsasontzian. Hildako bi ume itsasora bota zituzten. Cervera itsasontzia. Gero, Frantziatik Kataluniara.

603. Bueltan, altzaririk ez: errekiatuta (AND-028/017)

Irunera eta handik Donostiara. Handik tranbian, aitonaren etxera: Karrikara. Altzariak kendu egin zizkieten; bizilagunak hainbat gauza gorde zizkien. Harreman ona zuten bizilagunarekin. Donostiako osabak errenta ordaintzen jarraitu zuen urtebetean, baina etxean beste familia bat sartu zuten nagusiek.

604. Bueltan, eskolara berriro; dotrina (AND-028/020)

Gerra ondoko urteak. Ondo hartu zituzten. Osabaren etxera joaten zen lotara. Eskolan hasi zen berriro. Jaunartzea ezin egin, dotrina ez zekielako. 11 urterekin egin zuen, 10ekin egin ordez. Dotrina etxean ere ikasten zuten batzuek; arrosarioa, gauero.

605. Elizaren indarra (AND-028/021)

Elizaren indarra. Seietako mezara, egunero. Orduko fanatismoa. Orduro zegoen meza, eta eliza beteta. Arratsaldetan bezperak; goiz eta arratsalde mezara. Eliza irteeran zinemarako txartelak ematen zizkieten, La Sallerako.

606. Kongregazioak: Mariaren alabak (AND-028/022)

Kongregazioak. Luistarrak eta Mariaren alabak. Goizeko zazpietan joaten zen hilean behin, Jauna hartzera. Zinta urdina, dominarekin.

607. Gaztetan, dantzara eta zinemara (AND-028/025)

Igandetan nora joaten ziren dantzara, bi plazatara. Banda. Eta gero handik zinemara. Umetan ere joaten ziren, gerra aurretik: erreala balio zuela uste du. Lehengo festak oraingoan ezberdinak ziren: dantzan jo eta fuego, eta hamabietarako etxera.

608. Andoaingo euskara (AND-028/028)

Andoaingo euskara nolakoa den. Ikastolako hizkera zaila iruditzen zitzaien hasieran. Hernanin igualtsu hitz egiten da. Irunen eta Tolosatik behera diferente.

609. Herri-kiroletako epaile (AND-029/004)

25 urte inguru zituela herri-kiroletako epaile moduan nola hasi zen kontatzen du. Segapustuetako gorabeherak.

610. Kirol-apustuak eta txapelketak (AND-029/005)

Lehen, kirol-apustu asko egiten zen. Gero hasi ziren txapelketak egiten. Segalari txapelketak.

611. Segalariak eta apustuak (AND-029/006)

Segalarien arteko apustuak. Bi orduko edo ordubeteko lanak (belarraren arabera). Segalari batzuk apustu luzeagoak nahiago izaten zituzten; beste batzuk, berriz, motzak. Partzelak neurtu eta zozketak egin behar izaten ziren. Aipatutako segalariak: Tapia, Paskualsoro, Ibiya...

612. Sega-apustuetako gorabeherak (AND-029/007)

Sega-apustua: bi lagun elkarren kontra, belar saila zeinek lehenago ebaki. Hernion jokaturako sona handiko apustu bat aipatzen du: Polipaso eta asteasuar baten kontrakoa. Polipasoren alde zegoen dirua, baina beste segalariak irabazi zuen. Apustuetan, "gauza zikina beti nonbaitetik ateratzen zen". Polipasori ondoeza emateko zerbait eman ziotenaren susmoa. Horregatik, apustuetan epaile-begiraleak jartzen hasi ziren.

613. Sega-apustuetako epaileen eginkizunak (AND-029/008)

Sega-apustuetako epaileen eginkizunari buruzko azalpenak. Segalari bakoitzak sei lagun izaten zituen belarra biltzeko. Belar bilketarako jakineko denbora izaten zen. Denbora horretan bildu gabe geratzen zen belarra ez zen pisatzen. Epaileak belarra nola biltzen zuten zaintzen egoten ziren: belarrerekin batera lurrik-eta jaso ez zezaten. Belarra pisatzerako garaian, mozten zuen segalariaren aldeko bat, kontrakoaren taldeko bat eta epailea egoten ziren. Apustuetako diru kontuak.

614. Sega-apustuetako belar-soraa (AND-029/009)

Sega-apustuen ondoren belar-soraa nola geratzen zen: toki batzuetan belarra moztu gabe. Txakelpetak hasi zirenean, azkarrena mozten zuenari eta karga gehiena biltzen zuenari saria emateaz gain, belarra txukunena mozten zuenari ere saria ematen hasi ziren.

615. Belarra moztea (AND-029/010)

Baserrira joaten zenean, segan aritzen zen. Baserrian bizi ziren senideekin harreman ona zuen. Belarra moztea: batek belarra mozten zuen, eta besteak eskuarearekin bildu eta gurdian edo astoan kartzen zuen belarra.

616. Aizkora-apustuak (AND-029/012)

Aizkora-apustuetan ere epaile lanetan ibilia da. Aizkora-apustuetako gorabeherak: enborra aukeratzea, mozte kontuak...

617. Enborren neurriak (AND-029/013)

Aizkora-apustuetako enborren neurria ontzatan adierazten da. Martinek aipatutako neurriak: 36 ontza, 45 ontza, 54 ontza (kana-erdia), 60 ontza, 70 ontza eta kanako enborra (108 ontzakoa).

618. Arriya eta Kortaren arteko neurketa (AND-029/014)

Gerra ondorenean Kortak eta Arriyak Donostian jokatu zuten aizkora-apustuaz hitz egiten du. Egin beharreko lana: 30 enbor 36 ontzakoak eta 6 kana-erdiko moztea.

619. 'Luxia' eta Garziaren arteko aizkora-apustua (AND-029/015)

'Luxia' eta Martin Garziarena aizkolarien arteko apustuaz hitz egiten du. Donostiako zezen-plazan jokatu zen apustua; zezen-plaza goraino bete zen. 'Luxia'k irabazi zuen erronka. 'Luxia'k Eibarko Iturrino izan zuen erakustaile; Garziarenak, berriz, 'Armalo' aizkolari leitzarra. Garziarenak neurketari buelta ez ziola emango ikustean, 'Armalo'k alde egin zuen.

620. Latasa eta beste aizkolari batzuk (AND-029/016)

Hainbat aizkolari aipatzen ditu: Perurena (gero harri-jasotzen hasi zen), Astibia, Baleztena, Latasa... Latasak egurrari kortea emateko modua aldatu zuela dio Martinek.

621. Aizkolariaren erakustailea (AND-029/017)

Aizkora-apustuetan, erakustailea egon ohi da, aizkolariari laguntzeko. Aizkorarekin non jo aholkatzen dio aizkolariari.

622. Ostolaza, Urtain eta Endañetarekin epaile (AND-029/019)

Harri-jasotze kontuak. Martin zein aizkolarirekin ibili den epaile lanetan: Ostolaza, Urtain, Endañeta...

623. Epailletza (AND-029/020)

Sega-apustu bati buruzko kontakizuna. Martin epaile zela, Endañetaren anaiarekin belarra biltzerako garaian izandako gorabehera. Epailletza ez da lan erraza.

624. Sokatira (AND-029/021)

Sokatiran gutxitan egin ditu epaile lanak. Sokatiran ez ziren apustuak izaten, txapelketak baizik. Sokatira talde batean zortzi lagun aritzen ziren tiratzen. Pisu kontuak.

625. Lokotx-apustua eta korrika (AND-029/022)

Herriko festetan lokotx-apustuan ibiltzen zen gaztetan. Korrika egitea gustatzen zitzaion. Donostiara joaten ziren entrenatzera.

626. Irizar eta 'Irutxinberri' korrikalariak (AND-029/023)

Martinen gazte garaiko korrikalari ezagunak: Irizar, 'Irutxinberri'... Irizarren lasterketa-apustuei buruzko kontuak.

627. Lasto-altxatze probako epaile, iparraldean (AND-029/025)

Lasto-altxatzea eta txingak herriko festetako probak izaten ziren. Lasto-altxatzea iparraldetik etorri zela dio Martinek. Urte batean, lasto-altxatze proba batzuetarako epaile eraman zituzten sei lagun Baionara eta Donibane Lohitzunera. Orduan ikusi omen zuen aurreneko aldiz proba hori.

628. Amak futbolerako afizioa (AND-029/027)

Martinen amak futbolerako afizio handia zuen gaztetatik. Ez zuen futboleko jokatzeko, baina partidak ikustea asko gustatzen zitzaion. Gazte denboran, etxe

aurrean zuen futbol-zelaia eta handik sortu zitzaion zaletasuna. Pilota ere jarraitzen omen zuen.

629. Bolatokia eta taberna (AND-029/030)

Martinen etxetik gertu taberna bat zegoen, eta haren ondoan bolatokia. Tabernan dolarea ere bazuten, eta sagardoa izaten zen sagardo denboran. Tabernatik porroia hartzen zuten, eta bolatokian jotzen zuten hura nork pagatuko.

630. Idi-apustuak (AND-029/031)

Andoaingo idi-apustuetarako plaza noiz egin zuten aipatzen du. Lehen, idiak mendi lanerako eta garraiorako erabiltzen ziren. Gero hasi ziren idiak apustuetarako prestatzen.

631. Idiak apusturako entrenatu (AND-029/032)

Apustuetarako idiak nola prestatzen zituzten azaltzen du. Jateko, pentsua.

632. Idi-apustuetarako plaza (AND-029/033)

Andoaingo idi-apustuetarako plazak zenbat neurtzen zuen. Plazako lurra, erreka harria. Idiek egindako distantzia plaza, zinta eta zentimetrotan neurtzen da.

633. Idi-apustuetako harriak (AND-029/034)

Idi-apustuetako harrien pisuaz hitz egiten du. Andoainen ba omen ziren hiru harri.

634. Zaldi-apustuak (AND-029/035)

Zaldi-apustuak egiten noiz hasi ziren. Zaldiek, banaka izanda, idiek baino harri txikiagoak tiratzen zituzten.

635. Gerrak hezkuntzako planak hankaz gora jarri zituen (AND-030/005)

Andoaingo Etxeberrieta auzoa eta Andoain bera nolakoak ziren azaltzen du. Eskola bat bazen Etxeberrietan, maisu batekin ibiltzen ziren denak. Gerra hasi zenean, maisuak alde egin zuen eta fraideetara joan ziren orduan ikastera. Neskek aparte ikasten zuten maistrarekin. Gaztelaniaz ikasten zuten eskolan. Aita nazionalista izateagatik, gerra garaian harrobira bidali zuten; diru gutxi zuten orduan, eta osabak ordaindu zuen Rokek fraideetan jasotako heziketa. Gerra garaian anaia bat hil zitzaion, eta bestea "Batall&ocute;n de Trabajadores"en sartu zuten.

636. Janari bila ibili, ostu edo trukatu (AND-030/007)

Fraideetan, 9etan sartzen ziren klasera. Roke, ordea, 7etan jaikitzen zen esne bila joateko. Morokila jaten zuten etxean. Errazionamenduan jasotzen zuten janaria banatu egiten zuten anai-arreben artean: Rokek gauerako gordetzen zuen, arrebak trukatu egiten zuen. Aitak baratzea zeukan, eta hango jeneroa jaten zuten. Eskola bukatutakoan, sagarrak osterara joaten ziren.

637. Aingurasutegi kalearen historia eta bertsoak (AND-030/011)

Lasarteko Aingurasutegi kalearen historia kontatzen du: lehen itsasontzien aingurak bertan egiten omen ziren. Aingurasutegiri buruzko bertsoak abesten ditu.

638. Aitari entzundako bertsoak (AND-030/012)

Aitari entzundako bertsoak abesten ditu, eta haien testuingurua azaltzen du.

639. Andoaingo auzoen izaera eta elkarren arteko ika-mikak (AND-030/017)

Andoaingo auzoak aipatzen ditu. Auzoen artean ika-mikak egoten ziren, eta elkarren artean harrika aritzen ziren: Etxeberrietakoak izaten ziren txapeldunak. San Juan sua zenean, beste auzokoen materiala erretzen zuten denbora baino lehenago, ezer gabe gera zitezen; Etxeberrietakoak ziren garai hartako gaiztoenak. Auzo bakoitzak bere izaera zuen.

640. Igandetako planak (AND-030/019)

Etxeberrietan futbolean aritzen ziren normalean. Igande goizetan mezara joaten ziren, handik ateratakoan mendira, bazkaldu, kafea hartu, Etxeberrietan futbol-partidua ikusi, zinera joan, musika entzun, eta tabernara joaten ziren kantatzera. Orduan abesten zuten kanta baten zatia abesten du: "Udaberrian abiatu nintzan...".

641. Aitari ikasitako kanta zabaltzen (AND-030/020)

Aitari ikasitako kanta soldadutzako lagun bati bakarrik erakutsi zion; orduetik lagun hark urtero kantatzen dio abesti hori. Abestu egiten du.

642. Mutila uzteagatik zenbait neskari ateratako bertsoak (AND-030/022)

Aretxabaletako mutil batek Andoaingo neska bati bertsoak atera zizkion, utzi egin zuelako. Gai beraren inguruko Andres Mitxelenaren bertsoak.

643. Animalien inguruko bertsoak (AND-030/026)

Animalien inguruko bertsoak.

644. Andoainen festa ugari (AND-030/029)

Hernanin festa asko ospatzen omen dira. Andoainen ere festa ugari izaten dira: banan bana aipatzen ditu.

645. Nesken ohiturak dantzaldietan (AND-030/032)

Santa Kruzetako giroa sanoagoa zen lehen: musika, bizikleta-itzulia... Neskak ez ziren tabernatara sartzen, gaizki ikusia baitzegoen hori. Neska batzuk kanpoko dantzaldietara joaten ziren, han dantza lotua egin baitzitekeen. Neskak musika bukatu orduko joaten ziren etxera.

646. Andoainen izandako hazkunde demografikoa (AND-030/037)

Serenoa ez da beti egon izan Andoainen: bi gizon ziren eta ez zuten lan handirik izaten. Kartzela bazegoen Andoainen lehen. Industria suspertzen hasi

zenean, herria hazten hasi zen eta kanpotik jende asko etorri zen. Inguruko herriak ere asko hazi ziren.

647. Andoaingo kale-saltzaileak (AND-030/040)

Garai batean, saltzaileak kanpotik etortzen ziren: barkillo-saltzaileak, gozoki-saltzaileak... Janaria Soriako gizon bati erosten zioten eta hari egindako adarjotzea kontatzen du. Arrain-saltzaileak karroarekin ibiltzen ziren herritik eta tratua egiten zen haiekin arrainen prezioa erabakitzeke. Lehen angulak ez zuen gaur egungo balioa.

648. Andoaingo harategiak eta jostunak (AND-030/041)

Lau edo bost harategi ziren lehen Andoainen. Denda txiki asko zeuden lehen: zakuak erabiltzen zituzten jeneroa eramateko. Jostunak bazeuden herrian; haiekin gertatutako anekdota kontatzen du Rokek.

649. Lehen traje berria noiz; `Xenpelar´en bertsoak (AND-030/042)

Lehen bi urtetik behin traje berria egiten zuten. `Xenpelar´en pare bat bertso kantatzen ditu. Gaur egun txaketa ez da erabiltzen.

650. Andoaingo kaleak (AND-031/003)

1911.urtean jaio zen Inazio. Bera gazte zenean Andoainen etxe gutxi zeuden eta kaleak eta etxeen izenak nolakoak ziren kontatzen du.

651. Gazteak hobetu egin dira (AND-031/004)

Gazteak gaur egun jatorragoak direla dio Inaziok, hobeto heziak omen dira; garai bateko gazteek burla egin eta nagusiekiko errespeturik ez zutelako. Elizan ibiltzen direnak gehienak txarrak dira Inaziozem ustez.

652. Harrika jolasean (AND-031/005)

Denbora pasatzeko mendira joaten ziren, jende nagusiari harrika ibiltzen zirela oroitzen du Inaziok.

653. Frantsesekin pelotan jolasten (AND-031/007)

Pelotan jolasten zutela kontatzen du Inaziok. Duela 300 urtetatik jokatzeko omen da pilotan Andoainen, herrian Migel Domingo Zaparain pelotari garrantzitsua izan omen zen, Frantziara joan zen pelotan jolastera eta Inaziok hangoei irabazitako partidu bat gogoratzen du.

654. Kotxerik ez Andoainen (AND-031/008)

Andoainen kotxerik ia ez zegoela eta behor eta zaldien gainean ibiltzen zirela kontatzen du Inaziok. Andreak mendian hanka hutsik ibiltzen ziren eta pneumatikoekin egindako abarkak izaten ziren erabiltzen zituzten zapata onenak.

655. Gaztetako bizimodu txarra (AND-031/009)

Duela 80-90 urte zaldi zahar bat hiru lagunaren artean jaten zuten taloarekin eta edateko sagarrak bildu eta mazoarekin zapalduta sagardoa egiten zutela azaltzen du Inaziok. Gaur egungoarekin alderatuz, garai hartan oso gaizki bizi zirela dio.

656. Elizako pasadizoak (AND-031/010)

Elizara joatera eta apaiz izatera behartu egiten zituztela kontatzen du. Elizak gauza txarrak egin dituela dio, kriminal aberatsei entierro izugarriak eta pobreei bat ere ez omen zitzaien egiten. Bijiliako anekdota bat kontatzen du.

657. Gerran herri desberdinetan zehar (AND-031/011)

Frontean Santanderren, Teruelen eta Castellonen egon zen hiru urte eta erdiz, "Tercera de Navarra" batailoian, infanterian. Gerran egindako ibilbidea kontatzen du. Soldadutza egiteko libratuta egon arren eraman egin zuten.

658. Moledan lanean (AND-031/013)

1937an 26 urterekin frontera joan zen. Lanean zegoen 14 urteetatik, Moledan 47 urtean zertan lan egin zuen kontatzen du.

659. Baserria erosteko gorabeherak (AND-031/014)

Kaskabeltza baserrian hazi zen, baina baserria herentzian jabeak lagun harakinei utzi zien, eta Inaziok baserria erosi egin zuen. Andoaingo komentua sal-erostean gertatutakoa azaltzen du Inaziok. Erostean izandako gorabeherak kontatzen ditu.

660. Gaztetako bizimodua (AND-031/015)

Inazioa Aramanea baserrian jaio zen eta Moledan lan egin eta baserrian bizi zen. Bazkaltzera etxera joan eta lanera berriro bueltatzen zen oinez.

661. Ezkontzeko asmorik ez (AND-031/020)

Inazio ez da ezkondu eta ez du bokaziorik izan ezkontzeko, nahiz eta proposamenak izan. "Castellanoen kontrakoa" den arren, Extremadurako lagun onak ditu.

662. San Ferminetatik bueltan (AND-031/022)

San Ferminetan Irunera joan zen gaztetan. Bueltan, bere alpargatak apurtu ondoren, arrebarenak janzten saiatu arren txikiegi zituen eta Aresotik Billabonara hanka hutsik joan zen. Billabonan zapiarekin alpargata zaharrak jantzi eta kamioi bat geratuta itzuli zen etxera.

663. Kantina etxean (AND-031/023)

Gerra hasieran frontean kantinero ibili zen etxean hilabeterako. Erosketak egitera joaten zen Billabonara eta soldaduek lagunduta egiten zuen. Ardoa eta gailetak ematen zituen.

664. Baserriko lanetan (AND-031/024)

Fabrikan lan egiteaz gain, baserrian ardiekin eta mendi lanean ibiltzen zen. Gizon zahar bat izaten zuen neguan ardiak zaintzen eta pezeta bat ordaintzen zion eguneko.

665. Lekuona eta Barandiaran lagun (AND-031/027)

Manuek Lekuona lagun zuen Inaziok. Jose Migel Barandiaran etxean egon zen laboreetako fabrikakoekin.

666. Ohiturak aldatzen (AND-031/029)

Garai bateko ohiturak gezurrezkoak direla uste du. Orain gezurra politikan dagoela dio Inaziok.

667. Putzuan amuarrainetan (AND-031/031)

Arrantzan putzuan eskuarekin egiten zuela kontatzen du. Amuarrainak harrapatzen zituen.

668. Goia zein da? (AND-031/036)

Zeru goian eta infernua behean dagoela zioten lehen, baina goia zer den inork ez dakiela dio Inaziok.

669. Gaur egungo Andoain (AND-031/037)

Gaur egungo Andoain askoz hobeto dagoela dio, dena mejoratua dago Inazientzat. Hemendik 100 urtera kotxerik egongo ez dela uste du. Aurrerapen berri asko ditugula dio, duela 100 urte ez zeudenak.

670. "Taratulu" sakristauaren gaizakeriak (AND-031/038)

Lehen erlojua ez zuela inork erabiltzen dio Inaziok. "Taratulu" sakristauak kanpaiak jotzen zituen jendea lanerako jaikitzeko. Behin, goizeko seietan jo beharrean goizaldeko hamabi erdietan jo eta jendea lanera joateko jaiki izan zen.

671. Andoainen zinema (AND-031/042)

Gerraostean pelotan, mendira paseoan, antzerkira eta zinera ere joaten ziren herrian, "Muere un hombre" eta "Ben Hur" pelikulak ikustera adibidez.

672. Joxeren familia andoaindarra (AND-033/002)

Joxe San Jose egunean jaio zen, Andoainen. Aita igeltseroa zuen, Aldabatik etorria Andoainera. Ama eta haren aita andoaindarrak ziren.

673. Gaztetan "Escuela de mecanicos laborde" -n ikasten (AND-033/004)

Joxe eskola bukatu ondoren aitari laguntzen hasi zen, baina "Escuela de mecanicos Laborde" eskolan sartu zen beste 19 gazterekin batera. Praktika tailerrak egiten zituzten ikasketekin batera. Bukatu zuenean delinante bezala sartu zen fabrian. Aparejadore ikasketak hasi zituen Madrilen, amaitu ez arren.

674. Labordeko dantzariak (AND-033/006)

"Laborde"ko eskolak garrantzi handia izan zuela kontatzen du. Herrian laguntza handia eman zien talde desberdinei. Dantza taldea sortu eta fama handia izan zuen, pelikula batean parte-hartzeko aukera ere izan zuten.

675. Labordeko fabrikak kultur eragina (AND-033/007)

Koro "Laber", taxidermiarako tailerra, eta txistularien taldea sortu zituen "Labordeko" fabrikak. Biltzen zuten dirua ospitalera ematen zuten. Fabrikako urterik onenetan iraun zuten talde hauek.

676. Andoainen pilota torneoak (AND-033/008)

40ko hamarkadan, Andoain txikia izanik, pilotan eta futboleko aritza errazagoa zen. Pilota torneoak frontoian egiten zituzten, eta behin finalera iritsi eta binakakoa irabazi zuen Joxek.

677. Futbol zelaia Andoainen (AND-033/009)

Andoainen 1945ean kanpo zelaia berriro ireki zen eta Larramendi torneoaren garai horretan sortu zuten. Euskalduna taldean jokatzera iritsi zen, "Segunda" erregionalean hasi eta primerakora pasatzea lortu zuten.

678. Kronista lanetan (AND-033/011)

Kronista lanetan aritu izan zen Joxe. "La Voz de España"-n hasi, eta "El Diario Vasco"-n lan egin zuen beste lau-bost urtez. Kronika bakoitzeko hiru pezetan ematen zizkieten. Herriko berriak eta elkarrizketak egiten zituen, astean lau kronika idatziz.

679. Olagain txistulari elkarteak (AND-033/014)

Andoaingo txistulari elkartearen presidentea da Joxe. 1979an sortu zuten Olagain udal txistulari elkarteak. Gaztetan "labordenean" aritutakoak bildu eta taldea sortzea erabaki zuten. Txistu eskola ere sortu zuten eta 1989an hamabost txistulari bazeuden eta gazteak atzetik bazetozela dio Joxek.

680. Txistulari lanetan (AND-033/015)

Txistu baxua non sortu zen ez daki, baina zuzendariak orkestra tonu eta kategoria ematen hari dela dio Joxek. Asteazkenean bildu eta ordu erdi edo bi ordu entseatzeko dute.

681. Txistulari taldeak laguntza (AND-033/016)

Udaletxeak txistulari taldea babestu, eta diru laguntza ematen diela kontatzen du Joxek. Jantziak eta instrumentuak berritzeko erabiltzen dute laguntza hori.

682. Txistu eskola Andoainen (AND-033/017)

Txistu eskola 1986an sortu zen eta gazteak laster nagusiekin ariko dira, etorkizun ona izango duela uste du Joxek. Txistulari taldea mantendu arren, ez du dantza taldean giro bera ikusten.

683. Txistulari afizioz (AND-033/018)

Txistu taldea banda munizipalean jo ondoren sortu zuten. Herriko gazte gehienak solfeo ikasiak direla dio, eskola ondoren bandan egon zirelako. Afizioz jotzen hasi zen eta gero gustura entretenimendu moduan jotzen du Joxek. Bandatik pertsonaia garrantzitsuak irten direla dio; Donostiako koraleko zuzendaria adibidez.

684. Txistuaren etorkizuna (AND-033/019)

Txistuaren etorkizuna oso ona izango dela uste du Joxek. Zuzendariak lan handia egiten hari dela ikusten du eta egoera berrietara moldatzen ari dela.

685. Musika bandan gaztetan (AND-033/020)

Musikako bandan 10 urterekin saxofoia jotzen hasi zen Joxe. Gerra ondoren, jende gutxi zela eta Alberto Agirre zuzendariak gazteak taldean sartzera animatu zituen.

686. Andoaingo bandan gaztetan (AND-033/021)

"Laborden" sartu orduko bandan bost urte egin zituzten. Bandan 15 urte pasa ondoren utzi egin zuen futbola zela eta, zuzendari lanetan Don Alberto Agirre zegoela.

687. Andoainen zer falta da? (AND-033/022)

Andoainen banda bat egon behar dela uste du Joxek, beste herrietako bandak Andoainen jo izan dutenean harrera ona izan baitute. Lagun batzuekin hitz egin zuen, baina ez zen egitasmoa aurrera eraman. Andoainen dantzariak eta banda falta direla uste du Joxek.

688. Salerosketa lanetan (AND-033/024)

Salerosketa lanetan aritu izan da Joxe. Lan nahasia eta konplikatu dela dio. Gustatzen zaio mundu hori, baina askotan probetxu asko atera ez diola uste du.

689. Makina berriak (AND-033/026)

Joxek "labordenean" lanean ari zela, moldaketak egin eta makina politak sortu zituztela kontatzen du. Elkarrizketa egin zen garaian ere, Marseillatik ekarritako aparatu berri bat etxean jartzeko asmotan zegoen Joxe, baina ez dira berak asmatutako aparatuak.

690. Joxeren zaletasunak (AND-033/027)

Gaztetan kirola zen Joxeren zaletasuna eta txistua, baratza eta lorategiko kontuak ere gustatzen zaizkio. Lagunartean ibiltzea ere gustuko du.

691. Ardo onena (AND-033/028)

Lagunartean ia egunero egoten da Joxe. Txikiteoan aritzen dira, ez dute konturik eramaten zenbat edaten duten. Ardoa edaririk onena dela uste du Joxek. Urteko ardoa onena dela iruditzen zaio, adituek bestelakoak esan arren.

692. Futbolean lesionatu (AND-033/029)

Zaletasunetatik Joxek ez du dirurik irabazi. Gaztetan gainera gaur egun baino gutxiago, futbolean gastuak ordaintzen zizkieten. Futbolean 22 urterekin tibia eta perone puskatu eta futbol taldea oso ongi portatu zela kontatzen du Joxek.

693. Lehengo eta oraingo gazteak (AND-033/032)

Gaur egun, erraztasun handiagoak daudela uste du. Joxe gazte zenean famili inportanteko mutilek soilik izaten zuten ikasteko aukera. Hala ere, gaur egungo langabezia dela eta gazteek lana bilatzen saiatu behar dutela uste du. Askatasun handiagoa ikusten duela dio eta beraien garaitik aldaketa handia ikusten du eliza aldetik adibidez.

694. Udaletxea lehen eta orain (AND-033/034)

Gerraosteko udaletxea eta gaur egungoa alderatzen ditu Joxek. Gaur egun, denen aurrean zer egingo duten esaten dutela zoriontzen du. Lehengo udaletxean askatasun handirik ez zegoela pentsatu arren, pertsona tontorik jartzen ez zutela uste du; gaur egungoak ikasketadun jendea izan arren. Hala ere, ez du desberdintasun handirik ikusten.

695. Andoainen egiteko asko (AND-033/035)

Udaletxea kultura alorren lanean ongi aritu arren, Andoainek arazo handia duela uste du. Herritar asko ez direla andoaindar sentitzen eta oraindik egiteko asko dagoela dio. Herritarrek animatu nahi ditu partehartzera, kultura sustatzera.

696. Ikasketak eta Comaqen aprendiz (AND-034/002)

Jose Marik La Sallen burutu zituen ikasketak 14 urtera arte. Ondoren, Comaqen delinearazale lanean ikasten hasi zen eta bertan 18 urte pasa zituela kontatzen du. Tronpeta, pianoa eta gitarra jotzen ditu.

697. Musika ikasten (AND-034/004)

Aita soinu-jolea eta tronpetista izan zela kontatzen du eta berarengandik datorkiola musikarako afizioa Jose Mariri. Musika ikasten Don Alberto Agirrerekin hasi zen, nahiz eta etxean aitarekin aurretik jardun. Bandan tronpeta jotzen hasi eta ondoren kontserbatoriora joan zen.

698. Musika ofizio (AND-034/005)

Elkarriketa egin zen garaian Jose Marik musika zuela ofizio. Comaq utzi eta ikasketekin jarraitu zuela dio. 29 urte zituela ofizio bihurtu zuen musika zaletasuna. 1970. urtean Euskaros taldea sortu eta disko bat publikatu zuten.

699. Musikariaren egunerokoa (AND-034/006)

Egunerokoa egiten duen lana azaltzen du Jose Marik. Lau orduko lana eta bandan egunero hiru orduko entseguak egiten dituztela kontatzen du. Klaseak eman eta funtzioak prestatzen aritzen da.

700. Kontserbatorioko zuzendari izendatu (AND-034/007)

Kontserbatorioko Musika Bandako zuzendari nola izendatu zuten kontatzen du Jose Marik. Hiru urte zuzendari lanetan ibili ondoren, alabekin denbora gehiago egoteko alde batera uztea erabaki du.

701. Bandako zuzendariaren funtzioak (AND-034/008)

Zuzendariaren funtzioak azaltzen ditu Jose Marik. Konpositoreen bitartekari lanak egiten dituela dio.

702. Bandako entzule motak (AND-034/009)

Musikaren arabera gazte jendea edo edadekoa hurbiltzen dela dio Jose Marik, eta gazteak erakartzeko bestelako musika jo behar dela uste du. Musika gustatu eta ulertzen duten entzuleak izaten direla azaltzen du.

703. Gustuko musika (AND-034/010)

Musika euskalduna gehien gustatzen zaiona dela dio Jose Marik. Erritmodun musika gustatzen zaio, zainetatik datorrena eta zerbait esaten duena. Rocka erritmo handiko musika dela dio. Jazz musika ere asko gustatzen zaio.

704. Zer da musika? (AND-034/011)

Jose Marik berarentzat musika zer den azaltzen du. Bakoitzak bere interpretazioa duela azaltzen du, norberak nahi duena espresatzeko bidea dela dio.

705. Andoainen kontzertuan (AND-034/012)

Andoainen kontserbatorioak emandako kontzertua nola bizi izan zuen kontatzen du Jose Marik. Harrera ona izan zuela iruditzen zaio Jose Mariri, Andoainen bandarik egon ez arren musikarako ohitura handia izan delako.

706. Himnoa sortzen (AND-034/013)

Andoainen himno bat egitea pentsatzen ari ziren elkarriketa egin zen garaian eta txistularien bandak zerbait prestatu duela aipatzen dute. Himnoa prestatzea nola izan behar den azaltzen du Jose Marik.

707. Artista vs. formazioa (AND-034/015)

Himno bat egiteko formazioa beharrezkoa dela uste du Jose Marik, artista izateaz gain ikasketak izan behar dela. Fama aldetik ikasketarik ez dituenak goraipatu egiten dela kontatzen du.

708. Andoainen bandaren beharra (AND-034/016)

Andoainen musika akademia izan arren, ikasleek banda edo talde bat behar dute Jose Mariren ustez. Ikasketak burutu eta taldea beharrezkoa dute, kalera irten eta bestelako giro bat sortzen baita herrian.

709. Andoaingo kultur mugimendua (AND-034/017)

Txistulariak eta abesbatza badirela eta ongi funtzionatzen duela uste du Jose Marik. Ikasleen ekimenari jarraipena eman behar zaiola iruditzen zaio, ikasleak erdibidean geratzen direlako. Bestelako kultura mugimenduetan Andoainen mugimendu handia dago. Hala ere, bestelako musika egiten dutenak ere indartu behar direla uste du Jose Marik.

710. Umeengan afizioa sortzen (AND-034/018)

Umeengan musikarako afizioa sortzeko ikastolan alderdi hori indartu behar dela uste du Jose Marik. Gehiago indartu eta eskolan egin beharreko zerbait dela azpimarratzen du.

711. Euskal Telebistan lanean (AND-034/019)

Euskal Telebistan egiten duten lana nolakoa den kontatzen du Jose Marik. Telebistan bizi izandako esperientziaz dihardu, egunerokoa eta lan taldea nolakoak diren.

712. Telebistako anekdotak (AND-034/021)

Funtzioan anekdotak izaten dira, baina irakasle bezala serioa izaten dela azaltzen du Jose Marik. Buru handiekin izandako anekdota kontatzen du, telebistan zuzenean eman zela gogoratzen du.

713. Umetako bizipenak (AND-035/002)

Agustin artzain lanetan ibili izan zen gaztetan. Ama gutxi ezagutu zuen, eta aitarekin eta aitonarekin hazi zen. Urrestin jaio zen; baserria 1929an erre egin zen eta berriro egin zuten.

714. Kanalean lanean (AND-035/003)

1944an hasi zen Agustin zentrolean lanean. Hamabi urte eman zituen bertan lan desberdinetan.

715. Kanaleko pasadizoak (AND-035/004)

Presan lanean ari zela gertaturiko anekdota bat kontatzen du Agustinek: ura zabaltzea ahaztu, eta pasatutako momentu txarrak.

716. Kanalean arrantzan (AND-035/005)

Lan patxadatsua zela kanalekoa dio Agustinek. Arrantzako afizionatuak amuarrainak harrapatzen ibili ohi ziren, baina bera ez zen arrantza zalea.

717. Kanaleko beste ofizioa (AND-035/006)

Belarrekin eta zumitzekin aulkiak konpontzen eta ibiltzen zen. Elkarrizketatzailearen aitona Erramon lan horretan bikaina zela kontatzen du. Hark hodi sarreretako zikinak garbitzen zituela dio Agustinek.

718. Inkitesen zaintzaile (AND-035/007)

Kanaleko lana utzi eta Inkitesen zaintzaile lanean hasi zen. Asko aspertzen zela kontatzen du Agustinek.

719. Liburuak estraperloan (AND-035/008)

Bertsotarako eta irakurtzeko zaletasuna; lanbideak horretarako laguntzen zion. Isilean liburuak lortzen zituela kontatzen du Agustinek. Bertsotan ez zen jubilatatu arte hasi. Egunkarian bertsoak publikatzen hasi, eta hortik hasi zen bertsotan.

720. Bat-batekorako afiziorik ez (AND-035/009)

Bat-bateko bertsoak egiteko ez du joerarik. Agustinek afizioa aspalditik du, baina harrituta geratzen da bertsolarien duten memoriarekin. Liburu bat egiten diharduela kontatzen du, bere bizitzari buruzko bertsoekin. 1958an egunerokoa egiten hasi, eta hortik aurrerako istorioak biltzen ari zen elkarrizketa egin zen garaian.

721. Buenos Airestik liburuak (AND-035/010)

Gaztelaraz irakurtzen hasi zen: enkargatuaren egunkaria. Lehenengo liburuak ere gaztelaraz irakurri zituela kontatzen du; Buenos Airestik klandestinitatean jasotzen zituen. Ahal duenean euskaraz irakurtzen saiatzen dela dio Agustinek.

722. Mendiko ibilaldiak (AND-035/011)

Otalaiko Batistarekin Andoaingo mugetatik kanpo itzuli handi bat egin zuen. 18 orduko buelta eman zutela kontatzen du, goizeko hiruretan irten eta ilunduta iritsi ziren. Zein menditan ibili zen kontatzen du.

723. Gipuzkoako tontorrak (AND-035/013)

Jubilatu zenean perretxikotan hasi eta mendiak igotzen hasi zen. Gipuzkoako tontor gehienak pasa ditu Agustinek. 500 metrotik gorako 300 mendi baino gehiago pasa dituela kontatzen du. Arrasate aldeko mendi batzuk geratzen zaizkio, baina ez dago sasoiko.

724. Esaera zaharrak biltzen (AND-035/014)

Esaera zaharrak biltzeko eskatu zion Zabalak eta Agustinek bi liburu ditu beteak. Gehiago biltzeko eskatu zion, baina utzita duela kontatzen du Agustinek.

725. Itziarren gerran (AND-035/016)

Itziarren egon zen gerra garaian Agustin. "Hereje" izendatzeko beldurrez joan ziren Itziarrera. Luebakietan egon zela kontatzen du Agustinek, eta gero italiarrek harrapatu zutela eta 5-6 hilabete egin zituela preso; zortea izan zuela dio. Zauritu eta etxera itzuli zen, nahiz eta laster joan zen berriro ere.

726. Gosea gerraostean (AND-035/017)

Trukean ibiltzeak gosea kentzen laguntzen ziela kontatzen du. Baserriko ganbaran izaten zutela artoa eta irina egiteko erabili ohi zutela azaltzen du Agustinek. Gose handia pasa zutela dio eta kontrabando handia izaten zela gogoratzen du.

727. Mendiaren inguruko olerkiak (AND-035/019)

Agustinek berak idatzitako olerki batzuk irakurtzen ditu.

728. Basarriekin harreman gutxi (AND-035/020)

Basarrikin kartaz harremana izan duela dio, baina gutxitan. Haren anaiekin lan egin izan zuela kontatzen du.

729. Eskola gustuko ez (AND-035/022)

Eskola garaiko kontuak kontatzen ditu Agustinek. Eskolara joatea gustatzen ez zitzaiola eta ezkutuan egoten zela dio.

730. Umetan eskolan gazteleraz (AND-036/002)

1906ko abenduaren 10ean Istuitza txiki baserrian jaio zen. Gurasoak andoaindarrak zituela kontatzen du. Etxeberritako eskolan eta Notre-Dameko monjetan ibili izan zen. 11 urte arte ibili izan zen eskolan. Gazteleraz ikasten zutela kontatzen du, irakasleak ez zekielako euskaraz.

731. Azelaingo jauntxoa (AND-036/003)

Azelaingo jauntxoa ezagutu zuela kontatzen du Mariak. Etxean egoten zen kontuak kontatzen iluntzetan bederatziak arte. Egunero txokolatina oparitzen ziela gogoratzen du.

732. Azelaingo jauregia (AND-036/005)

Azelaingo jauntxoa egunero Donostiara trenean joaten zela kontatzen du Mariak. Hil zenerako Azelaingo jauregia galdu zuen. Enkantean saldu zen ondoren etxea.

733. Azelaingo jauntxoa lanean (AND-036/006)

Azelaingo jauntxoak abokatu ikasketak Ameriketara egin zituen, eta Andoainen ez zioten balio; itzultzaile lanetan aritu izan zela kontatzen du Mariak.

734. Azelaingo jauntxoaren izaera (AND-036/007)

Azelaingo jauntxoa ez zen oso jendartekoa. Istuitza Txikin laguntza handia eman omen zioten, nahiz eta auzokoak beti jauntxoari edozer kentzeko prest egoten ziren, Mariaren ustez.

735. Azelaingo jauregiko bizimodua (AND-036/008)

Azelaingo jauntxoaren etxean bizi izandako dontzeila, sukaldari eta morroiak ezagutu zituen Mariak. Behiak, zezena eta automobila ere ezagutu zituen. Andrezalea zela esaten zen herrian.

736. Azelaingo etxe dotorea (AND-036/009)

Azelaingo etxea barrutik izugarria zela kontatzen du Mariak. Dotorea zela eta txikitan bertan galdu izan zela kontatzen du. Amona bertan lanean ibili izan zen dontzeila, eta hark kontaturiko istorioak gogoratzen ditu.

737. Azelaingo familia (AND-036/010)

Azelaingo jauntxoa mutil-zaharra izan zen eta anaia zaharrenarekin bizi izan zen. Bihotzeko arazoak izan zituen anaia zaharrenak eta ehizara zihoala zalditik erori eta hil egin zela kontatzen du Mariak.

738. Gaztetan asto xamarrek (AND-036/011)

Mariari bere gazte garaiko umeak asto xamarrek zirela iruditzen zaio, baina beste bihotz bat izaten zutela gaur egungo gazteekin alderatuta. Goserik pasa ez zuela dio, baina ez zutela eskuetan dirurik ibiltzen.

739. Lanetik mezetara (AND-036/013)

Andoainera mezetara egunero etortzen zela kontatzen du, eguna argitu aurretik lanera sorora joaten zen. Sorabillara baino nahiago izaten zuen Andoainera joatea baserritik.

740. Andoainen jaietan (AND-036/015)

Jai egunak mezetara joan eta etxea garbitzeko erabiltzen zituzten. Lanak bukatutakoan plazara joaten ziren, bandak musika jotzen zuen eta dantza soltean zein bikoteka aritzen ziren. Hamabietarako etxera joan behar izaten zuten.

741. Gaztetan baserrian lanean (AND-036/017)

Baserrian goizean argitu aurretik hasten zen lanean. Hamabietan bazkaldu, siesta pixka bat egin eta ordubietatik zortzietara berriro lanera joaten zen. Afalostean arropa konpontzen aritzen zela kontatzen du Mariak.

742. Herritik irten gabe ia (AND-036/018)

Maria ez zen herritik irten feria edo antzekoetara. Ezkondu zenean Bilbora joan zen, baina gutxi irteten zen herritik. Urnietara edo Villabonara joan izan zen jaietan, baina dirurik ez zuten izaten. Igandea soilik izaten zuten libre eta mezetara orduan joaten ziren.

743. Azelaingo jauntxoa elizan (AND-036/019)

Azelaingo jauntxoak bere aulkia Sorabillako elizan duela gogoratzen du Mariak.

744. Kanpai jotzen Sorabillan (AND-036/021)

Gerra zibilean etxera sartzeko gogoz, larrituta egoten zen. Sorabillara ezkondata zegoen, bi seme-alabekin, eta elizan kanpaiak jotzen aritzen zen Maria, apaizari ezetz esaten ausartzen ez zelako.

745. Soldaduek ardoa edan (AND-036/022)

Mariak taberna zuen gerra garaian eta mezatik irten ondoren ukuiluan ezkutatu ziren umeekin eta auzokoekin. Ardoa edaten zioten soldaduek egunero eta ez zioten ordaintzen.

746. Sukaldari lanetan soldaduentzat (AND-036/023)

Esnetara bidali zuen Julio Kortazar kapitainak, lau soldaduk lagunduta. Bueltan kanoikadak hasi ziren, eta lurrera erorita esneen erdiak erori zitzaizkion. Kapitainak aginduta, soldaduentzat jatekoak prestatzen aritu izan zela kontatzen du Mariak.

747. Gerran gose handirik ez (AND-036/024)

Gerra garaian gose handirik pasa ez zutela dio Mariak. Beti jatekoa lortzen zuela dio. Nazionalak egon zirenean ere esne partitzen aritu izan zen.

748. Gerran beldurrez ihes (AND-036/025)

Herrian beldurra zela eta jende askok alde egin zuen, bere ama anai-arreba gazteenekin Billabonara joan zen, nahiz eta aita etxean geratu zen.

749. Herrian fusilatuak (AND-036/026)

Karteroa eta delineatzailea hil egin zituzten komunistak zirelako. Hurrengo egunean enterratu zituzten Sorabillako kanposantuan. 17 hildako izan zirela gogoratzen du Mariak.

750. Gorroto giroa Andoainen (AND-036/027)

Gerra bukatuta ere beldurrez jarraitzen zuten. Alde egindakoak itzultzean ere gorroto giroa zegoela azaltzen du Mariak.

751. Sorabillako apaizak (AND-036/029)

Sorabillan apaiz ugari ezagutu zituen Mariak. Ongi eraman izan da apaiz guztiekin, txarrak ez zirela behintzat.

752. Taberna utzi (AND-036/031)

Mariak tabernan lan egin zuen eta hori utzi zuenean baserrian lanean jarraitu zuen. Hala ere, herrian etxea erosi eta berriztu ondoren bertan bizi izan zen.

753. Kanpaiak jotzen (AND-036/032)

Serora lanetan 22 urte pasa zituen. Goizeko meza aurretik kanpaiak jotzen zituen, meza erdian ere jotzen zituen. Larunbatetan ordubietan jotzen ziren eta igandean 5:30etan jotzen zen 6:00retako mezarako. Egunerokoa nola izaten zen kontatzen du Mariak.

754. Kanpaia jotzeko modu desberdinak (AND-036/033)

Kanpaiak jotzeko modu guztiak gogoratzen ditu Mariak. Sua zegoenean ere kanpaiak jotzen zituela gogoratzen du. Inork ez zekien kanpairik jotzen Mariak utzi zuenean eta galdezka aritzen zitzaizkion.

755. Hiru kanpaiak nola jo (AND-036/034)

Hiru kanpai daude Sorabillako elizan eta Maria askotan igo izan da kanpandorrera. Ostegun santu batean kanpaiak jo ondoren, hurrengo egunean erlojuaren pisua apurtuta agertu zela gogoratzen du. Hiru kanpaiak: noiz zer jotzen zen kontatzen du Mariak.

756. Elizako lanak (AND-036/035)

Elizan kanpaiak jotzeaz gain bestelako lanak ere egiten zituela kontatzen du Mariak. Eliza garbitu, loreak jarri, kandelak aldatu, etab. Sakristau lanetan ere aritu izan zen.

757. Andoain duela 60 urte (AND-037/002)

Andoain duela 60 urte nolakoa zen azaltzen du. 200 baserri inguru izango zirela dio. Sorabilla auzoa Andoaingo parte izan arren, beste herri bat izango balitz bezala ibiltzen ziren bertakoak.

758. Sorabilla auzoa nolakoa zen (AND-037/004)

Sorabilla auzoa nola aldatu den azaltzen du Imanolek. Baserriak ez direla aldatu dio, berdin mantentzen direla. Herrian etxe zaharrak non zeuden azaltzen du. Gaur egun mantentzen direnak eta falta direnak kokatzen ditu.

759. Subijana lantegian lan asko (AND-037/006)

1936an Subijana lantegian herritar askok lan egiten zutela azaltzen du Joxek.

760. Alfonso XIII Andoainen (AND-037/007)

"Tranbias San Sebastian-Tolosa" zentrala 1920. urte aldera inauguratu zen. Alfonso XIII erregea etorri zen inauguraziora.

761. Andoaingo fabrikak (AND-037/008)

"Labor de hermanos" fabrika langile asko egoten ziren. "Moleda" pertsiana fabrika ere oso ezaguna izan zen. Herrian zeuden fabrikak aipatzen ditu.

762. Langileen soldatak (AND-037/009)

Langile batek egunean duro bat irabazten zuela dio.

763. Lehenengo tela estanpatuak Andoainen (AND-037/013)

Algodonerako fabrika emakumeak telak egiten egoten ziren. Estanpaziodun lehenengo telak Andoaingo enpresan egin zirela azaltzen du Imanolek.

764. Lantegian haurtzaindegia (AND-037/014)

Emakumeek lan egin ahal izateko, haurrak lanera eramaten zituzten. Lantegiko "kotxeroak" egunero mojak eramaten zituen haurtzaindegian umeak zaintzeko.

765. Tranbia Tolosara eta Donostiara (AND-037/015)

Tranbiak Tolosara eta Donostiara joateko balio izaten zuen.

766. Merkantzia trenean (AND-037/017)

Merkantziarekin ibiltzen ziren trenak ere baziren. Inguruko herrietako fabrikentzat ikatza ekarri eta produktuak eramaten zituzten Donostiara eta Pasaiara.

767. Andoaingo fabriketako produktuak (AND-037/018)

Andoaingo fabriketan zee lan egiten ziren kontatzen du Imanolek.

768. Emakumeak tranbian algodonerara (AND-037/020)

Emakumeak tranbian joaten ziren lanera Oriako algodonerara. Hala ere, etxean lan egiten zuten askok.

769. Jan eskasia gerra ondoren (AND-037/021)

1936ko gerra bukatzean, Europako mundu gerra hasi zela kontatzen du Joxek. Beraiek gazteak zirela bizi izandakoa gaur egun pentsaezina dela dio: hiru urte pasa zituen ogi zuria jan gabe.

770. Euriarekin alpargatak eskuan eskolara (AND-037/022)

Gaztetan alpargatak erabiltzen zituztela kontatzen dute. Euria egiten zuenean, eskolara alpargatak eskuan zituztela joaten ziren.

771. Irina kontrabandoan (AND-037/023)

Artoarekin egindako taloa jaten zutela kontatzen du Imanolek. Errotara ezkutuan joaten ziren. Irina kontrabandoan ekartzen zuten, eta zakuak geltokira iritsi aurretik deskargatzen zituzten.

772. Egur eta ezkur bila mendira (AND-037/024)

Gosete garaian sua egiteko egurra behar izaten zen. Ahal zuten guztiek txerriak izaten zituzten, mendian bildutako ezkurarekin lodituta.

773. Oilaskoa jai garrantzitsuetako jana (AND-037/026)

Txerria izaten zen familiako janaria. Baina ez zen egunero jatekoa. Babarrunak, azak eta jai egunetan garbantzuak edo baba zuriak jaten ziren. Jai garrantzitsuetan oilaskoa jaten zen.

774. Andoainen arrain saltzaileak (AND-037/027)

Andoainen arrandegirik ez zegoela azaltzen du. Karro batekin saltzen zuten hiru emakumek arraina, kaleetan zehar. Arrainak bistan eramaten zituzten eta gazteek angulak lapurtzen ei zizkieten.

775. Ikasle erdaldunek euskara ikasten zuten (AND-037/028)

Andoainen La Salle eskolan gazteleraz ikasten zutela kontatzen du, eta ikasle euskaldun eta erdaldunak ongi moldatzen zirela. Kanean euskara gehiago egiten zenez, ikasle erdaldun askok euskara ikasten zuten.

776. Jantziak etxean egin beharra (AND-037/031)

Imanolek jantziak etxean egin behar izaten zituztela kontatzen du.

777. Arropak etxean josten (AND-037/033)

Emakumeek josten edo bordatzen ikasten zutela dio. Etxekoendako arropa guztiak etxean josten zituzten. Arropa saltzen zuen denda bat zegoen soilik.

778. Dendara koadernoarekin (AND-037/034)

Algodonerak hiru kooperatiba zituen. Denda horietan soldata kobratzerakoan ordaintzen ziren aste guttian egindako gastuak.

779. Sagardotegiak Andoainen (AND-037/036)

Sagardotegi ugari zeudela kontatzen du. Sagardoa ardoa baino gehiago edaten zela dio.

780. Jai giroa Andoainen (AND-037/039)

Igandean jai izaten zela dio Joxek. Goiko plazan eta beheko plazan txandakatzen ziren banda munizipala eta txistulariak. Auzoetako jaiak iristeko irrikaz egoten ziren, erromerietara joateko. Goizeko ordubatean dena bukatzen zela dio Imanolek.

781. Munizipalen zigorrak (AND-037/040)

Bi udaltzain egoten zirela kontatzen du. "Desmadratzen" zena kartzelan sartu eta hurrengo goizean askatzen zuten. Hernanin kaleak garbitzen ipini edo eskolara eramaten zituzten biharamunean.

782. Astelehenetan arropa garbitzen (AND-037/041)

Emakumeak arropa garbitzera garbitokira joaten zirela kontatzen du Imanolek. Etxeberritan eta karrikan erreka urarekin garbitzen zuten arropa.

783. Don Pablo Barriolaren jauregia (AND-037/043)

Gaur egun kultur etxea den eraikina jauregi bat zen eta bertako jabea Don Pablo Barriola zela kontatzen du Imanolek. Baserri eta lur ugari ei zituen.

784. Don Pablo Barriolaren lurrak (AND-037/045)

Don Pablo Barriolaren aberastasunak zeintzuk ziren kontatzen du Imanolek.

785. Andoaingo ikastola sortzen (AND-037/046)

Andoaingo lehenengo ikastola non egon zen azaltzen du Imanolek. Juanita Aranburuk etxea euskara irakasteko utzi zuen herentzian. Ondoren baserri bat erosi zuten, baina ez zen proiektua aurrera atera. Hala ere, elizaren babesean aurrera eraman ahal izan zuten ikastola sortzeko helburua.

786. Eskolan sei urtetatik hamalau urte bitartean (AND-037/048)

Eskolan sei urterekin hasten zirela kontatzen du Joxek. Hamalau urtera arte egoten ziren eta ondoren fabrikara joaten ziren gehienak. Herrian lau edo bost kanpora joan ziren ikasten jarraitzera.

787. Eskolan maila ona (AND-037/049)

Eskoletan maisuak txarrak zirela dio Joxek, baina maila oso ona zutela dio. Eskuz asko idazten zutela kontatzen du eta batzuek lan egin ondoren ere ikasten jarraitzen zuten.

788. "Labor de fábrica"-n ikasketak (AND-037/051)

Hamalau urterekin "Labor de fábrica"-n aprendiz eskolan sartzen ziren ikasleentzat karrera egitea bezalakoa zen. Egun erdiz eskolak eman eta arratsaldean tailerrera joaten ziren. Ikasle guztiek makina guztietan lan egiten zutela kontatzen du Imanolek.

789. Andoaain gerraostean (AND-037/053)

Andoaain nola handitu zen kontatzen du Imanolek. Gerra ondoren Ameriketara joan ziren asko; hala ere, geroago, estatuko jende asko etorri zen lanera. Gehienbat Renfeko trena pasatzen den herrietara etorri zirela dio Imanolek.

790. II. Mundu Gerrak lana sortu (AND-037/054)

Bigarren Mundu Gerra ondoren, burdingintza eta lana ugaritu zenez, langile beharra sortu zen. Soldatak ere igotzen hasi ziren.

791. Laminazio fabrika (AND-037/055)

Burdina lantzeko laminazio fabrika jarri zuten Andoaain. Trenbideko burdinak erabiltzen zituztela kontatzen du Imanolek.

792. Orain hobeto bizi gara (AND-037/058)

Andoaain orain hobeto bizi dela uste du Joxek. Bizi baldintzak azaltzen ditu.

793. Andoaingo biztanlerian aldaketa (AND-040/001)

Jose Marik gaztea zenean Andoaain nolakoa zen azaltzen die gazteei.

794. Andoaingo kaleetan (AND-040/002)

Andoaingo kaleak duela 40-50 urte nolakoak ziren azaltzen die gazteei. Kale nagusiak zeintzuk ziren eta non zeuden.

795. Kaletxikitik Goiburura (AND-040/003)

Kaletxikitik Goiburura, herria nolakoa zen azaltzen die gazteei.

796. Baserriko lanak umetan (AND-040/004)

Soroan nola lan egiten zen azaltzen die Rokek ikasleei. Animaliekin lan egiten zutela azaltzen du, ikastetxera etorri aurretik. Eskolara ere oinez joaten zirela eta errepidean lasai ibiltzen zirela, autoak ere gutxi ibiltzen baitziren garai haietan.

797. Kalean jolasean (AND-040/005)

Kale berrian garai batean ur depositoa non zegoen azaldu, eta bertan pilotan eta futbolekin ibiltzen zirela kontatzen du.

798. Auto gutxi eta bizikleta asko (AND-040/006)

Duela 50 urte Andoañen hamar auto ere ez zeuden. Jende asko bizikletan ibiltzen zen; horregatik ibiltzen ziren errepide alboan lasai jolasten.

799. Amerikara jodakoak eta Euskal Herrira etorriak (AND-040/007)

Andoaingo herrian duela 60-70 urte langabezia handia zegoen, eta pertsona asko Ameriketara joan behar izan ziren. Hala ere, gerra amaitu ondoren lana sortu zen eta Galizia, Extremadura eta Soriatik jende ugari etorri zen.

800. Lan bat baino gehiago bizi izateko (AND-040/008)

"Lau ordenean" lan egiten hasi zela kontatzen du Iñakik. Familia handitu ahala, beste lan bat ere bilatu zuela kontatzen du. Lagun batek motoa zuenez, lantegira berarekin joaten zen.

801. Pastela erosteko trikimailuak (AND-040/010)

Jose Marik gaztetan bere pagaren inguruko anekdotak kontatu dizkie gazteei: lagunekin bildu eta bosten artean pastela erosi eta denen artean banatu zuten.

802. Kale etxean alokairuan (AND-040/011)

Jose Marik gazteei beraien etxean dituzten abantailak gogorarazi eta bere gaztetako garaian nola bizi ziren azaldu die. Garai hartan, herritar gehienak alokairuan bizi zirela kontatzen du.

803. Baserrian janari bai (AND-040/012)

Baserrian bazen jatekoa, kalean ez bezala txerria hiltzen zutelako, Rokek kontatzen duenez. Igandetan kanpotik ekarritako garbantzuak jaten zituzten.

804. Dirudun itxuratan (AND-040/013)

Iñakik anai bati gertatutako anekdota kontatzen du. Anaia diru gehiago zuten lagunekin ibiltzen zen, eta itxurak egitearren dirua eraman zuen kalera, baina gastatzeko beldurrez etxera itzuli eta amari berriro dirua bueltatu ziola kontatzen du.

805. Gose garaian tortak (AND-040/014)

Gose garaiko urteak nolakoak ziren kontatzen die gazteei Jose Marik. Ogiaren ordez torta bezalako batzuk jaten zituztela.

806. Tuberkulosia zabaltzen (AND-040/015)

Tuberkulosia inguruan nola zabaldu zen kontatzen du Jose Marik. Gazte asko tuberkulosiaren ondorioz hil zirela dio.

807. Gose garaian edozer jateko prest (AND-040/016)

"Algarrobak" abereentzako ekarri arren, beraiek jaten zituztela kontatzen du Iñakik. Gosearen ondorioz jan izan zituen jatekoak aipatzen ditu.

808. Gerraostean gosea (AND-040/018)

Iñakik gaztetan 36 kg pisatzen zituela kontatzen du. Okela erosteko ere pertsonako 50 gr erosi ahal zituzten soilik asteen behin. Gauetz egoten ziren ilaran, turistek ez ikusteko nola bizi ziren.

809. Baserrian jatekoa baina ezkutuan (AND-040/019)

Rokek baserrian jatekoa bazutela kontatzen du, baina errotak itxi egin zituzten herrian eta bera trenean Aranatzera joan izan zela dio. Etxean ezkutuan txerria hiltzen zutela dio, bestela banatu egin behar izaten zelako.

810. Eskolan egunero (AND-040/020)

Etxean ez zen telebistarik, Europa guztian. Irratia ere Jose Marik 20 urte zituela ekarri zuten. Ostegun arratsaldetan eta igandetan soilik izaten zuten jai eskolan. Etxerako lanak ere egunez egin behar izaten zituzten, bonbila txikiak soilik izaten zituztelako.

811. Andoainen lehengo eskolak (AND-040/021)

Andoainen Jose Marik 5 urte zituela La Salle eskola sortu zela dio. 1933. urtetik herri eskola eta La Salleko eskola izan zituen. Haurrentzako haurtzaindegia jarri zuten monjek, tela fabrikako emakumeen seme-alabak zaintzeko.

812. Andoainen euskaraz (AND-040/022)

Eskolan eta herrian euskaraz egiteko aukera zutelako zortea izan zutela dio Rokek.

813. Ikasketa maila bajuak gehienek (AND-040/023)

Ikasketa garaian gazte gutxi iristen zirela Batxilergora kontatzen du. 14 urterekin lanean hasten zirela dio Jose Marik. Gehiago ikasi nahi zuenak gaueko eskolara joan behar izaten zuen lanetik irten ondoren. Iñakik ofizio bat ikasteko aukera izan zuen, eta zorte handiagoa izan zuela dio.

814. Lan baldintzak urte oparoetan (AND-040/024)

Hamalau urterekin lanean hasten ziren eta langabezia geroago hasi zela dio Jose Marik. Hilabetean 90 pezeta irabazten zituela dio. Garai hartan oporraldiak 7 egunekoak izaten ziren urte guztian.

815. Edonon jolasean (AND-040/025)

Irrati eta telebistarik eduki ez arren, ez zirela aspertzen dio Jose Marik. Futbolean edo pilotan edozein paretetan jolasten zirela kontatzen du.

816. Gaztetako jolasak (AND-040/026)

Kaniketan eta txotxekin nola jolasten zuten azaltzen du. Kilkerrak nola harrapatzen zituzten kontatzen die; kaleko etxeetan leiho guztietan entzuten zirela dio Iñakik.

817. Igandetako entretenimentua (AND-040/027)

Igandeak nola pasatzen zituzten kontatzen du Jose Marik. Goizean mezetara joan, eta arratsaldean zinera joaten ziren txandaka. Zine mutua izaten zen. Bizimodua kalean egiten zutela azaltzen du Iñakik. Antzerkia ere ikusten zuten.

818. Luxu gabeko bizitza (AND-040/028)

Andoain eta inguruko herriak pobreak izan arren, ez zutela diru asko behar izaten dio Jose Marik. Gose garaia pasa ondoren ere luxurik ez zegoen.

819. Gaztetako dibertsioak (AND-040/030)

Auzoen arteko futbol lehiaketak egiten zituztela kontatzen du Iñakik. Jose Mariren aitarekin ogi banatzen ibiltzen ziren zaldi-karroarekin. Tolosara joatea izaten zen txangoa.

820. Izen euskaldunik ez (AND-040/032)

Euskaraz hitz egiteko oztopoak izan zituztela kontatzen du Jose Marik. Euskarazko izenak jartzea ere debekatuta zegoen, eta erregistroan gaztelera idatzi behar izaten ziren.

821. Euskara bizirauten (AND-040/033)

Euskara Andoainen gurasoek seme-alabei hitz egin izan dietelako eta kalean euskaraz egiten zutelako ez dela galdu dio Jose Marik.

822. Gaztelera hobetsi (AND-040/034)

Baserri batzuetan gaztelera ez ikastearren atzeratuta geratzen zirela uste zutela azaltzen du Rokek. Batez ereemakumeek jotzen zuten gaztelera baina, hala ere, euskaraz gehiago egiten zutela dio.

823. Eskolan gerraostean gaztelera (AND-040/035)

Iñakik txikitan eskolan euskaraz ikasi arren, gerora 1936. urteaz geroztik kantak gaztelera gogoratzen ditu.

824. Medikuaren etxera (AND-040/036)

Medikuaren etxera joan behar izaten zutela azaltzen die gazteei.

825. Sukarrarentzat, izaina (AND-040/038)

Sukarra igotzen zitzairenean, izaina besoan jartzen zutela kontatzen du, sukarra jaisteko.

826. Irakasleen lana (AND-040/040)

Iñakik irakasle batek ikasgelan 1970. urtean 76 ikasle izan zituela kontatzen du.

827. Andoaingo eskoletan banatuta (AND-040/042)

Neska eta mutilak banatuta joaten zirela eskolara azaltzen du Jose Marik. Eskolak non zeuden kontatzen du Iñakik, ikasleek neskek non ikasten zuten jakin dezaten.

828. 12 urterekin eskolatik lanera (AND-040/043)

Baserri giroan mutilak 12 urte ingurura arte joaten zirela eskolara azaltzen du Rokek. Seme-alabak ikasten hasten zirenean ikastetxetik ateratzen zituztela esan zion La Salleko irakasle batek Rokeren amari.

829. Eskolako zigorrak (AND-040/045)

Ikastetxean ez zituztela jotzen diote, baina entzun izan dutela nola zigortzen zituzten. Jo ez arren, paretari begira izaten zituzten. Zigorak gaiztoak zirelako zirela dio Iñakik, ez euskaraz egitearren.

830. Irakaslea zirikatzen (AND-040/046)

Iñakik gelan irakasleari adarra nola jotzen zioten kontatzen du. Zirikatzaileari "baleak" ematen zizkiotela, zigorrik jaso ez zezan.

831. Elizako ohiturak (AND-040/049)

Igandero elizara joaten zirela azaltzen du Jose Marik. La Salleko eskolan ikasten zutenean hamarretako azken mezara joaten ziren.

832. Gaztetan begirale lanetan (AND-040/050)

Begirale lanean ibiltzen zirela kontatzen du Iñakik, gazteekin mendira joan eta jolasak egiten zituztela.

833. "Tisisa" zutenei bisita (AND-040/051)

Lanean hasi eta gero, Jose Marik hilabeteen behin igandetan tuberkulosia, "tisisa" deitzen ziotena, zuten gaixoak bisitatzen zituen.

834. Maximo de Agustin tuberkulosiaz gaixo (AND-040/052)

Maximo de Agustin tuberkulosiarekin gaixotu zen, eta "penizilina" behar zuenez Jose Marik tranbian eraman ziola kontatzen du.

835. Andoaingo jaiak (AND-040/053)

Iñaki udaletxean jaiak antolatzen egon zen urte askoan. Jaietan jende asko inguruko herrietara joaten zen egitarau hobeak zirelako. Andoaingo jaietan, hala ere, idi demak, asto karrerak eta bestelakoak izaten ziren.

836. Baserrian emakume eta gizonak antzeko lanean (AND-040/054)

Baserriko lanetan emakume eta gizonen artean desberdintasuna izaten zen, baina askotan emakumeek gizonak egiten zituzten lan berdinak egiten zituzten (alderantziz ez, ordea).

837. Aita kartzelan zegoela, arreba hil (AND-045/002)

Gerra garaian, aita Ondarretako kartzelan sartu zuten; handik Burgosa eraman zuten, eta geroago Astorgara. Gerra garaian, Gurutz ama eta anaiarekin

Donostian izan zen aste pare batez: orduko oroitzapenak kontatzen ditu. Donostiatik Zarautza joan ziren eta han bi hilabete inguru pasa zituzten. Aita Ondarretako kartzelan zegoela bisitatu zuten: han esan zion amak aitari alaba hil zela.

838. Salataria eskua ematera, eta txapel gorriarekin futboleant jokatzerat (AND-045/003)

Gerra garaian, aita kartzelan egon zen; eta, Andoaina bueltatu zenean, bera salatu zuen gizona eskua ematera inguratu zitzaion; Gurutzen aita agur hari uko egin zion. Gerra garaian, "pelaioak" desfilatzen ibili ziren herrian, harrotuta. "Pelaioak" eta "margaritak" nola ibiltzen ziren aipatzen du. Etxean txapel gorri handi bat zeukaten, eta harekin baloi bat sortu zuen Gurutzek. Txapel harekin ibiltzen ziren futboleant auzoko mutilak.

839. Euskaldunek adarrak omen zituzten (AND-045/005)

Nazionalak altxa zirenean, arma gutxi zeuzkaten herrian, ezustean harrapatu zituen gerrak. Apaiz batzuek pistolarekin ematen zuten meza. Nafarrek euskaldunei buruzko uste okerra zuten gerra hastean: mutil nafar batek euskaldunen aurka egiteari buruz amari esandakoa kontatzen du.

840. Gernika alemanek bonbardatu zuten Francoren esanetan (AND-045/019)

Gurutzen lagun bat Gernikan egon zen bonbardaketa gertatu zenean: hark izandako bizipenak kontatzen ditu Gurutzek. Gerora, lagun hura Afrikan egon zen, eta han galdetu zioten nork bonbardatu zuen Gernika: ez zuen dudarik izan alemanak eta Franco izan zirela erantzuteko.

841. Gurutzen aitaren epaiketa eta hitzaren indarra (AND-045/023)

Aita Ondarretako kartzelatik Burgosko kartzelara eramán zuten. Harako bidean, aita Gurutz ikusi zuen autobusetik eta eskuarekin agurtu zuen. Gerran epaiketarik gabe fusilatzen zituzten gizonak: Gurutzen aita izan zen lehenengotarikoa epaiketa izan zuena. Epaiketa hartan aitaren eta epailearen jokaerek garrantzi handia izan zuten. Epaketan gertatutakoa kontatzen du Gurutzek.

842. Aitona fusilatua izatetik libratu zuten (AND-045/024)

Aitona Arantzazun gordeta egon zen gerra garaian. Aitona urte askoan egon zen Bergaran "Banco Guipuzcoano"ko zuzendari. Han zegoela, salatu egin zuten eta fusilatzeko agindua eman; baina aitonak salbatzea lortu zuen ingurukoen gizatasunari esker. Aitonaren istorio hunkigarria kontatzen du Gurutzek.

843. Aguazila fusilatu zutenekoa (AND-046/002)

Gurutzen amaren lehengusina baten senarra herriko aguazila zen, gizon ona, Gurutzen esanetan, eta fusilatu egin zuten.

844. Aita preso Burgos eta Leongo kartzelatan (AND-046/003)

Aita Burgos eta Leongo kartzelatan egon zen preso. Itzuli zenean ezin omen zen janariarekin ase.

845. Maistrari ilea moztu (AND-046/004)

Gurutzen aitaren arreba maistra zen. Komisariara aurkezteko eskatu zioten eta ilea moztu zioten. Etxera bidali zuten gero. Gurutzek dio orduan sufritutako lotsak eta umiliazioak utzitako arrastoek gaixotu arazi eta hil zutela izeba.

846. Centro Republicanoan istiluak maiz (AND-046/006)

Andoaingo Centro Republicano eta batzokia gogoan ditu Gurutzek. Aitak batzokira eramaten zituen bera eta anaia, eta etxera bueltan, korrika txikian pasa arazten zituen Centro Republicanoaren aurretik.

847. Gerra garaiko Zarauzko etxea (AND-046/007)

Gerra garaian bi gudarik eraman zituzten Gurutz-eta Donostiatik Zarautzera, gurasoak han zeudelako. Gaztetxoa zen Gurutz, baina orduko etxea gogoan izan du beti.

848. Itsasertzean jostaketan (AND-046/008)

Bi hilabete inguru egin zuten gurasoek Zarautzen. Gerra izan arren, Gurutzek ongi gogoan ditu hondartzako jostaketak. Zarauzko hondartzako pasealekua ez zen gaur egungoa bezalakoa.

849. Etxeberrietarrak kaletarren kontra (AND-046/009)

Etxeberrietarrak kaletarren kontra gerra-jostaketan ibiltzen ziren tiragomarekin. Norgehiagoka handiak ibiltzen zituzten, bai eta San Juanetan ere, nork larra gehiago bildu eta zeinek surik handiena egin.

850. Villabonatarrak harrika bidaltzen (AND-046/010)

Villabonatarrak harrika bidali ohi zituzten herritik, baina haietako asko bonba fabrian lanean hastearekin batera eten zen joera hori. Andoaingo Euskalduna futbol taldeak beste herrien kontra jokatzen zuenetan mutur joka amaitzen ziren partida asko eta asko.

851. Tiragoma beti patrikan (AND-046/012)

Errekako harri borobilduak eta burdin puska puntadunak botatzen zituzten tiragomarekin. Gurutzek burdinazko kaskoa ibiltzen zuen halako jostaketak zirenean. Oraindik gordeta dauzka orduko tiragomak eta kaskoak.

852. Pistolarekin txori-ehizean (AND-046/013)

Txatarra artean pistola bat topatu zuten gazteak zirela. Pistola eskolan konpondu eta txori-ehizean ibiltzeko erabiltzen zuten.

853. Erreketeek Debako alkatea hil (AND-046/014)

Andoaingo eta Debako nazionalistek herriko erreketeak babestu omen zituzten Gerra Zibilean, gorriek fusilatu ez zitzaizten. Gerra aurrera joan ahala gauzak aldatu ziren, ordea. Frente Nazionalekoak nagusitu zirenean, erreketeek ez zieten nazionalistei tratu bera eman. Adibide gisa, Debako alkateari gertatua jartzen du Gurutzek.

854. Lehendabiziko karreraren garaile (AND-046/016)

Bizikletan ibilitakoa da Gurutz, profesional izandakoa. Bere lehendabiziko karrera Aieten korritu zuen, mutil kozkorra zela, eta garaipena lortu zuen, gainera.

855. Helmugara arrastaka heldu (AND-046/017)

Bere kirolari ibilbideko hastapeneko karrerak nolakoak izan ziren kontatzen du Gurutzek. Behin, etxekoei ezer esan gabe hartu zuen parte lasterketa batean, eta tropela Andoaindik pasatzen ari zela, aita jendartetik garrasika hasi zitzaion, geratzeko eta geratzeko. Gurutz ez zen geratu, ordea. Hala ere, eta lehenengo postuan helmugaratzera zihoala, erori egin zen. Helmugako marraraino arrastaka heltzen saiatu bazen ere, ezin izan zuen karrera hura irabazi. Gerora bai. Gerora hainbatean izan zen garaile.

856. Profesionaletan garaipen mordoa I (AND-046/018)

Esprinter azkarra izan da Gurutz eta profesionaletan karrera asko irabazitakoa: Tolosan, Eibarko sariketa, Ordizian hiru aldiz, Beasainen, Legazpin, Antzuolan, Donostian, Zarautzen, eta Bizkaiko hainbat eta hainbat herritan ere.

857. Profesionaletan garaipen mordoa II (AND-046/019)

Aitonak ez omen zituen begi onez ikusi Gurutzen hasierako bizikleta gaineko ibilerak. Aita, ordea, segituan bilakatu zen semearen jarraitzaile fin, eta karrera guztietara laguntzen omen zuen. Denborarekin, Gipuzkoako txapeldun izan zen afizionatutan eta profesionaletan, errepideko fondoko txapeldun ere, "Campeonato Vasco-Navarro" delakoan, eta ziklokroseko lasterketetan ere garaile izan zen. Soldaduska egiten aritu zela ere Burgosen eta Iruñean korritu eta irabazi zuen.

858. Anaiari bizikleta hartu (AND-046/020)

Gurutzen aita Frantziatik ekarri zuen lehen bizikleta etxera. Gero anaiak bizikleta on bat erosi zuen, BH markakoa, eta katearekin lotuta gordetzen bazuen ere, Gurutzek katea hautsi eta bizikleta harekin ibiltzera ateratzen zen.

859. Espartin eta galtza motzekin bizikletan (AND-046/021)

Gurutzek dio bere garaian ez zela bizikletan ibiltzeko arropa berezirik, eta galtza motzak eta espartinak jantzita ibiltzen zirela karreratan.

860. Espartinak erosteko dirurik ez (AND-046/022)

Espartinak aipatu eta Andoaingo familia txiro baten pasadizoa etorri zaio Gurutzi gogora.

861. Kaskorik ez (AND-046/023)

Gurutzek karrerak korritzen zituen garaian ziklistek ez zuten kasko edo buruko babesik janzten. Bere lagun bat bizikletatik erori eta buruan kolpea hartuta hil zen.

862. Federazioa eta txirrindulari karneta (AND-046/024)

Txirrindularien federazioa bazen, eta txirrindulari agiria ezinbestekoa zuten lehiatzen jardun nahi zuten guztiek.

863. Karreran bakoitzak berea egin behar (AND-046/025)

Gurutzek korritzen zuen garaian ez zen egungo "erosotasunik". Gurpila zulatuz gero, norberak aldatu behar izaten zuen, eta jatekoez eta edatekoez ere norberak arduratu behar izaten zuen.

864. Euskara batuan hainbat akats (AND-046/028)

Gurutzentzat ezberdinak dira euskara batua eta aurrez tokian tokian egiten zen euskara. Euskara batuan ohikoak diren akats batzuk aipatzen ditu.

865. "Eduki" eta "izan" (AND-046/031)

Gurutzek dio, sarritan, gazteleraz pentsatu eta euskaraz esaten ditugula gauzak, eta baita hanka hondoraino sartu ere. Bilera bat ezin omen da "eduki".

866. "Hika" aritzeak iraun du; "berorikak" ez (AND-046/034)

Seme alaba eta familiakoekin hika egiten du Gurutzek. Garai batean, berorika egiten zien alkateari, apaizari eta medikuari. Gaur egun zuka egiten die halakoei, berorika egiteko ohitura galdu egin delako batetik, eta

867. Amak euskarazko liburuak erre (AND-046/036)

Aitonak eta amak euskarari buruzko liburu eta dokumentu asko zituzten, baina errearazi zituzten, kartzelan zen aitaren kaltetan izango ziren beldurrez.

868. Dibortzioaren kontra (AND-046/040)

Leaburuko apaiz bat bai omen zen, bertsolariekin gai-jartzaile lanetan ibiltzen zena. Behin, Manuel Lasarte bertsolaria dibortzioaren kontra kantari jarri zuen, emaztearengandik banatuta hemeretzi urte zeramatzala jakin gabe.

869. La Salle eta batxilergoko ikasketak (AND-047/003)

7 urte zituela, La Sallera joan zen ikastera. Han 13 urte izan arte ikasten zen. Gerora, ikasten jarraitu nahi izanez gero, batxilergoko ikasketak egiten ziren, baina Donostiara edo Tolosara joan behar izaten zen horretarako.

870. Laborden lanean eta Donostiako akademian ikasten (AND-047/005)

Labordeko eskola bukatutakoan, ikasten jarraitu nahi zuen. Etxean lan gutxiago zenean, neguan alegia, lantokiko orduetatik kanpo Donostiara joaten zen akademia batera. Han matematikak, teknologia eta marrazketa lineala ikasten zituen gehienbat. Soldadutza iritsi bitartean han aritu zen ikasten. Ez ziren asko akademia hartara joaten zirenak.

871. Aitak hezkuntzari garrantzia ematen zion (AND-047/006)

Gurasoek gaztelania gutxi zekiten. Gerra ostean gaztelania zen nagusi Andoainen, eta aitak pena handia zuen gaztelania ez jakiteagatik; horregatik, aitak balioa ematen zion ikasteari.

872. Laborden lanean ala gerran soldadu? (AND-047/008)

Laborde oso garrantzitsua izan zen Andoainen. Espainiako enpresa garrantzitsuenetarikoa zen. Lantegian zer erreminta egiten ziren aipatzen du. Gerra garaian, militarren mende egon zen lantegia; Eibar aldetik jende asko etortzen zen Labordera, horrela ez baitzuten gerrara soldadu joan beharrik. Gerra bukatu zenean, baina, ez ziren gehiago etorri.

873. Gerraren eboluzioaren lekuko etxetik (AND-047/013)

Uztailaren 20-25erako, soldadu nazionalak Andoaina iritsi ziren. Buruntzan sortu zen nazionalen eta gorrien arteko frontea. Nazionalek egurra ematen zieten gorriei. Borrokako gorabeherak etxetik ikusten zituen Erramunek. Azkenean, gorriek alde egin zuten Hernaniko Santa Barbarara, nazionalak atzetik zituztela.

874. Gerrako kronika beltza (AND-047/015)

Buruntzatik Hernanira, eta handik Donostiara aurreratu ziren nazionalen tropak. Donostiako borroka gogorra izan zen, sarraski handia egon zen. Donostian bazegoen ganadua hiltzeko leku bat, eta hango gurdi bat gauero ekartzen omen zuten hildakoz beteta hilerrira. Hernaniko leku bati "Cuesta de la muerte" deitzen zaio, ziurrenik hor hiltzen zutelako jendea gerran.

875. Gerrako desagertuak eta ezinikusiak (AND-047/017)

Etxez etxe joaten ziren fusilatu behar zituzten gizonen bila. Behin Erramunen familiarteko baten bila etorri ziren, baserriko lanetan zebilela; ordutik desagertuta dago, inork ez daki zer egin zioten. Hura bezala, jende asko dago desagertuta. Diru-kontuengatik hildako jende asko egon zen, gerra aurreko ezinikusiak eraginda.

876. Gerra emakumeen ikuspuntutik (AND-047/018)

Normalean gizonak bakarrik fusilatzen zituzten. Emakumeei beste era batzuetako zigorrak jartzen zizkieten. Herriko emakume batzuk nola defendatu zituzten azaltzen du.

877. Soldaduentzako janaria (AND-047/021)

Noizbait soldaduak etorri ziren ganadua kentzera etxera, mendian zeuden soldaduak elikatzeko. Mendira bitan joan ziren Erramunen etxeokak idiarekin eta gurdiarekin soldaduei janaria eta armak eramatera; bidean tiro egiten zieten eta orduan pasatako estutasunak kontatzen ditu. Astero soldaduentzako janaria eraman behar izaten zuten alondegira.

878. Botoa "sekretua eta librea"... (AND-047/022)

Denboraldi bat soldadu nazionalentzako janaria ematen pasa ostean, 2.000 pezetako isuna jarri zieten beraiei eta inguruko baserriei; baserritar karlistei ez, ordea. Garai hartan, botoa ez zen librea: beraiek maizter ziren baserrian, eta nagusiak esaten zien nori bozkatu. Beldur handia zegoen lehen, jende xumeak ez zuen babesik jauntxoan aurrean.

879. Gerrako zertzeladak (AND-047/023)

Tiroketak zirenean, denak gorde egiten ziren etxean. Erramunen familiak etxean dolare handiak zituen. Obus batek baserri bat zeharkatu zuen, barruan lehertu gabe. Gorrien hegazkinek bonba txikiak botatzen zituzten eta haiek eragindako kalteak aipatzen ditu.

880. Gerrako bonbak, sirenak eta kanpaiak (AND-047/025)

Aitak erreka gaineko zubiaren azpian babesa prestatu zuen, eta han babesten ziren bonbardaketak zirenean. Bonbardaketak zirenean, sirenak jotzen zituzten; Donostian, adibidez. Nazionalak hiri garrantzitsu bat bereganatzen zutenean, Andoainen kanpaiak jotzen zituzten. Apaizen artean denetik zegoen: nazionalen aldekoak, fusilatutakoak, atzerrira alde egindakoak... Frantziara joan zenetako bat Andoaingo erretorea zen; gerora, Ordiziako artzapez egin zuten.

881. Pelayoak eta margaritak (AND-048/001)

Karlisten seme-alabak izaten ziren pelaioak (mutilak) eta margaritak (neskak). Andoaingo Bastero eraikinean biltzen omen ziren. Erramunek gogoan du nola 'Cara al Sol' eta martxa erreala kantatu behar izaten zituzten eskolan, eseri baino lehen.

882. Pelaio izan nahi nuke. (AND-048/002)

Erramun aitari baimena eske joan zen behin, pelaio izateko; karlisten gaztediekin desfilatu eta abar egiteko, alegia. Aita haserretu egin zitzaion.

883. Pelaioen desfileak (AND-048/003)

Erramunek kontatzen du zein egunetan egin ohi zituzten desfileak karlistek: ingande askotan, eta baita egun seinalatuetan ere.

884. "Etsaia hor dabil!" (AND-048/004)

Andoaingo banda musika jotzen, gazteak dantzan, eta apaiza haserre, "Etsaia hor dabil!" esaka.

885. Misioetan beldurak jota (AND-048/005)

Misioak oso gogoan ditu Erramunek. Beldurra muinetaraino sartu nahi izaten zieten elizgizonek herritarrei, eta batzuekin behintzat, lortu egiten zuten euren helburua.

886. Langarika eta Larraintzar (AND-048/006)

Langarika eta Larraintzar misiolariak gogoan ditu Erramunek. Larraintzar delakoa taberna zuloetan barrena ibiltzen omen zen jendea elizara bideratu nahian. Ordurako, gutxiengo bat izanagatik, bazen elizaren kontrako jendea.

887. Euskaldun fededun (AND-048/007)

Erramun gaztea zen garaian oso elizkoia zen jendea, eta erlijio katolikoaren kontrako lehen jarrerak etorkinengan hasi ziren sumatzen Euskal Herrian. Egun, ordea, gazteri euskalduna elizatik oso urrundua ikusten du Erramunek.

888. Andoaingo historia I (AND-048/009)

XIV. menderako ezagutzen omen zen Andoain. Erramunek Andoain herriaren historia kontatzen du.

889. Andoaingo historia II (AND-048/010)

Eliz barrutian hautatzen omen ziren herriko agintariak.

890. Santiago bidea I (AND-048/011)

Santiago bidea Andoaindik igarotzen zela eta Gurutze Donearen basiliza eraiki zuten XVI. mendean.

891. Gurutze Donearen basilizako gurutzea (AND-048/012)

Gurutze Donearen basilizako gurutzea gotikoa da. Erramunek gurutze gotikoak eta erromanikoak nola bereizi azaltzen du, Jesukristo gurutziltzatua azaltzen denetan, behintzat.

892. Iñigo Arista (Eneko Aritza) II (AND-048/015)

Eneko Haritzaren ama afrikarra zen. Musulmanak 800 urtez bizi izan ziren penintsula Iberiarreko hegoaldean, Errege Katolikoek bota zituzten arte.

893. Iñigo Arista (Eneko Aritza) II (AND-048/016)

Iñigo Arista izendatu zuten Nafarroako lehendabiziko errege.

894. Nafarroako erreinuaren zatiketa (AND-048/017)

XVI. mendean Nafarroako erreinua zatitu eta handik urte gutxira hasi ziren Nafarroa eta Aragoi eta Castillaren arteko liskarrak.

895. Azelaingo señoritoa (AND-048/021)

Azelaingo señoritoa XIX. mendean bizitu zen. Andoain inguruko hainbat lur-sailen jabea, mutilzaharra eta apetatsu amorratua omen zen. "Caballero cubierto" titulu edo graduaren jabe zen.

896. Azelaingo señoritoaren txalekoa (AND-048/022)

Baserritarrei sator-larruak erosi zizkien bolada izan omen zuen, haiekin txaleko bat egiteko kapritxoa izan baitzuen, nonbait.

897. Azelaingo señoritoa, zarrastel hutsa (AND-048/023)

Dirua erraz xahutzen omen zuen Azelaingo señoritoak, eta bere azken egunak zeharo pobretuta egin omen zituen, miseriakordien etxeren batean.

898. Leal y noble villa de Andoain (AND-048/024)

Tolosak eta Donostiak eurentzako nahi omen zuten Andoain. Andoainek, ordea, Felipe III Espainiako erregea medio, herri titulua erdietsi zuen, XVI. mendean.

899. Martin Deunaren eliza (AND-048/027)

Agustin de Leiza Perura joandako Andoaingo semeak 17.000 peso handi eman zituen herentzian Martin Deunaren eliza egiteko, baina ezin izan zuen bere begiekin ikusi, behin eliza bukatu, eta ikustera zetorrela, Perutik Andoainerako bidean zendu zen eta.

900. Afrikako eta Kubako gerrak (AND-048/028)

Felipe II-aren agindupean Espainia lurralde askoren jabe zen munduan barrena. Baina denborarekin desadostasunak sortu ziren Espainia eta konkistatutako lurraldeetako bizilagunen artean, eta hala piztu ziren Afrikako eta Kubako gerrak, esaterako.

901. Gerra karlistak (AND-048/029)

XIX. mendean izan ziren, nagusiki, gerra karlistak. Espainiako Fernando VIIak garaiko legedia aldatu eta Isabel II-ari erregetza oinordetzan eman zionean piztu ziren haserreen harira sortu ziren.

902. Andoaingo datu demografikoak (AND-048/031)

Andoaingo datu demografiko batzuk ematen ditu Erramunek, XVI. mendetik hasi eta XX. mende amaiera bitartekoak.

903. 1964ko Andoaingo hainbat datu (AND-048/032)

Andoaingo biztanleriari eta industriari buruzko hainbat datu ematen ditu Erramunek, 1964. urteko Andoaingo populuari dagozkionak.

904. Andoaingo seme-alaba famatuak (AND-048/033)

Andoaingo seme-alaba famatuen zerrenda irakurtzen du Erramunek.

905. Laborde anaiak (AND-048/034)

Enrike eta Manuel Laborderi sako zor die Andoainek, Erramunen ustez. Enpresa familiar bat martxan jarri zuten eta eskola bat zabaldu. Egun, Martin Ugalde kultur parkea dago Labordetarren enpresaren lokalak zeuden tokian.

906. Euskaraz jantzi (AND-048/035)

Erramunek gurasoen hizkera, etxekoa jaso zuen txikitan. Gerora, euskara batua ikasten hasi zen, eta bere kontura ikasi.

907. Ikastolen Elkartean lanean (AND-048/036)

Ikastolako idazkaritzan 6 urte inguru jardun zuen Erramun, eta Ikastolen Federazioko kide izan zen. Buruntza aldeko Ikastolen Elkarteko ordezkari izan zen 4 urtez.

908. Andoaingo ikastolaren sorrera (AND-048/037)

Herrian barrena sakabanaturik ziren gelak batu asmoz eraiki zen Andoaingo ikastola.

909. Bozka gehien lortu eta alkatetza galdu (AND-048/038)

1979ko hauteskundetan EAJ izan zen garaile Andoainen, eta Erramun bera izan zen zerrendaburu, alderdi jeltzaleak alkatetzarako proposatua. Baina gainontzeko alderdi guztiek bat egin, eta alkatetza kendu zieten.

910. Herritarrak plenoetara deitu (AND-048/039)

Andoaingo EAJk plenoetan proposatzen zituen proposamenen aurka ateratzen omen ziren sarri gainontzeko alderdietakoak. EAJkoek beren proposamenekin interesa zuten herritarrak deitzen zituzten plenoetara, gainontzeko alderdietako kideengan presioa sor zezaten.

911. Bost mutil nahiago, bost neska baino (AND-049/002)

Sei senide izan ziren Mariaren etxean: bost mutil eta Maria gazteena. Mariak hori bentaja zela dio, baina aitak esaten omen zuen nahiago zituela bost mutil etxean, bost neska baino. Mariak ez du oso argi zergatik.

912. Txikitako oroitzapen txarrik ez (AND-049/004)

Haurra zeneko oroitzapen txarrik ez du Mariak. Egun baino lasaiago bizi zen jendea. Beste patxada batekin.

913. Eskolan neskak eta mutilak bereizita (AND-049/005)

Eskolan neskak eta mutilak bereizita egoten ziren. Oroitzapen onak ditu Mariak. Hamahiru urte bete arte aritu zen bertan. Gazteleraz irakasten zien maistrak.

914. Eskolako zigorrak (AND-049/006)

Mariak dio behar zen alditan zigortzen zituela maistrak, eta zigorrak nolakoak izaten ziren kontatzen du.

915. Aita errespetuzkoa (AND-049/007)

Aita errespetuzkoa zuten, jenio bizikoa. Otordutan eta jai arratsaldetako etxeratzeko ordutegiarekin ez zen bromarik izaten.

916. Gurasoei berorika (AND-049/009)

Mariak dio egun baino errespetu gehiago izaten zietela seme-alabek gurasoei. Berorika zuzentzen zitzaizkien eta erantzun txarrik ez zieten ematen.

917. Eguberri egunean turroi biguna (AND-049/010)

Garai batean ez zen egun bezainbeste bazkari eta ospakizun izaten. Mariaren etxean San Inazio egunean eta Gabonetan oiloa hiltzen zuen amak, eta eguberri egunerako, turroi pixka bat eramango zuen etxera.

918. Arrozesnea kapritxo bakarra (AND-049/011)

Amak oiloa hiltzen zuenetan salda egiten zuen lehenik eta haragia saltsan jarri gero. Garbantzuak ere prestatzen omen zituen halakoetan, eta postretarako, aia edo arrozesnea. Mariak eta haren anaiek arrozesnea nahiago izaten zuten, aukeran.

919. Gosaritan baratxuri zopa eta kafesnea (AND-049/013)

Gosaritan baratxuri zopa eta kafesnea izaten zituzten, aitzak preparatuak.

920. Aita sukalde lanetan (AND-049/014)

Amonarik ez zuten eta ama goizean goiz irteten zen etxetik, esnea saltzera. Egoera horretan, Mariari ez zitzaion arraro egiten aita sukaldean kuzinatzen ikustea.

921. Jaiero mezara (AND-049/016)

Ongi erakutsi zizkioten Mariari Dotrina eta jaiero mezara joan beharra zegoela. Dotrina eskolan ikasi zuen, gaztelaniaz.

922. Jaunartzea zuriz jantzita nahi (AND-049/018)

Jaunartzea zuriz jantzita egin nahi izan zuen Mariak, eta hala egitea lortu zuen. Egun hura etxean ospatu zuten, eta erregalorik gabe.

923. Jai arratsaldetako bilerak eta ibilerak (AND-049/023)

Jai arratsaldetan bailarako neska-mutilak musikaren jiran elkartu eta dantzan aritzen ziren. Iluntzean, mutilek neskak etxera lagundu nahi izaten zituzten.

924. Neska-laguntzaren arriskuak (AND-049/024)

Mariak dio neska-laguntzeak arriskuak zituela. Emakume ezkongabea haurdun geratzea lotsa handia izaten zen familiarentzat.

925. Villabonako umezurztegia: Casa-cuna (AND-049/025)

Haurdun geratzen ziren emakume ezkongabeak Villabonako Casa-cunara joan ohi ziren erditzera. Mariak dio garai batean haurrak bertan geratu ohi zirela, baina garai batetik haurrera, haur jaio berriaren eta amaren arteko kontaktua sustatzen hasi omen ziren eta askok eramaten omen zituzten seme-alaba jaioberriak eurekin etxera.

926. Etxe-jabetzarik ez; denak errentan (AND-049/029)

Maizterrak ziren Andoaingo Etxarri baserrian; mariak dioenez, euren inguruko gehienak bezalaxe. Eguberritan ordaintzen zuten urte osoko errenta, dirutan eta errege-sagarretan.

927. Maiorazkoaren eragina senideengan (AND-049/031)

Anaia zaharrena ezkondu zenean joan behar izan zuen Mariak neskame.

928. Neskame lanak, hileko berrogei pezetaren truke (AND-049/032)

Neskame lana lortu zuenekoa kontatzen du Mariak. Harategia zeukan familia baten etxean jardun zuen hamar urtez, etxeko lanak egiten.

929. Neskamea morroiarekin ezkondu (AND-049/034)

Maria neskame ari zen etxean morroi bat ere bazen, nagusiek adoptatua, baina era berean, familiakoa zena. Denborarekin, mutil hura izango zen Mariaren senarra.

930. Senargaiarekin tripakiak garbitzen (AND-049/035)

Etxe berean lanean ezagutu zuten elkar Mariak eta bere senarrak, eta elkarrekin lan egitea tokatu zitzairen behin baino gehiagotan. Mariak elkarri mehatxuka bukatu zutenekoa kontatzen du.

931. Andoain euskalduna zen lehen (AND-049/038)

Maria gaztea zenean euskara hutsean aritzen zen jendea Andoainen.

932. "Aitari esan ezkutatze" (AND-049/043)

Mariak gogoan ditu gerra zibila hasi zenekoak. Nonbait, eskuindarra zuen aita, eta haren ideologia bereko okin batek ezkutatuta egoteko aholkua eman omen zion aitari. Mendeku kontu ugari izan zen gerran.

933. Iruñeako soldaduen lagun (AND-049/044)

Mariak dio soldadu nafarrak sartu zirela herrira, eta eurekin harremana izan zutela. gazte erdaldunak omen ziren, Iruñea aldekoak.

934. Alderik ez Andoaingo kaletarren eta baserritarren artean (AND-049/050)

Mariak ez du inoiz alde nabarmenik sumatu Andoaingo kaletarren eta baserritarren artean.

935. Santa Barbarari errezua (AND-049/052)

Garai bateko errezo eta sineskerei buruz galdetuta, gazteleraz esan du bat Mariak, Santa Barbarari esaten ziotena. Mariaren amak kandelak pizten zituen ekaitza zenean.

936. Santa Krutzak Andoainen (AND-049/054)

Garai bateko herriko jaiak ez ziren egungoak bezalakoak. Sokatira, dantza askean ibili, eta askoz gehiagorik ez zen. Mariari sako gustatu izan zaio dantzatzea.

937. Euskararik politena, Donostiatik Tolosarainokoa (AND-049/058)

Euskararik politena Donostiatik Tolosarako tartean hitz egiten dena da.

938. Juakina "panderona" (AND-050/002)

Txikitik oso haur mugitua izan zen Mari Kruz. Zazpi urte betetzerako anaiaren ume-oihalak garbitzen jarduten zuen. Ama zaintzera etxera joaten zitzairen emakumea zirikatzen ibiltzen omen zen: Juakina "panderona" esaten omen zioten emakume hari. Sukalde kontuekiko interesa txikitatik adierazi zuen Mari Kruzek. Bizilagunen alaba zaintzen ere ibiltzen zen.

939. Untxiak hil eta larrutzen azkarra (AND-050/003)

Ez zuen sekula erreparorik jartzen etxean oilo edo untxiren bat hiltzeko agintzen bazioten. Laster ikasi zuen halako lanak egiten, eta haietan trebatu zen gero, aritzearen aritzeaz.

940. Igitaiarekin lanean (AND-050/005)

Hamahiru urterekin fabrikan hasi baino lehen, baserrian hamaika lan egina da. Ahizpa aitzurrean egoki askoa omen zen. Mari Kruz, aldiz, igitaiarekin jarduten omen zen gehiago: ailorbea eta pagatxa ebakitzen...

941. Anaia Ximon aitonaren kuttuna (AND-050/006)

Mari Kruzek dioenez, aitona Jaxintok gazte asko jarri zuen lanean anaia Ximon, mutila baitzen. Neskei ez omen zien tratu bera ematen aitonak.

942. Zinema mutua ikustera (AND-050/007)

Hamaika urte ingururekin joan zen lehendabiziko aldiz zinema mutua ikustera, eta zaletu egin zen. 'Santa Teresaren bizitza' izan zen ikusi zuen lehen filma, fraideen eskolan, baina filma amaitu aurretik itzuli behar izan zuten etxera lehen aldi hartan, ilundu eta gero etxeratzeko baimenik ez zuten-eta.

943. Ikastea gustatzen ez (AND-050/009)

Oso txikitatik hasi zen eskolan, baina ez zitzaion ikastea gustatzen, eta goizetan eskolara ez joateko, tripako minaren aitzakia jartzen zuen askotan. Arratsaldez eskulanak eta laboreak egiten zituzten eta orduan gustura joan ohi zen.

944. Artilezko koltxoia, arto hostoen gainean (AND-050/011)

Artoaren hostoekin egindako oinarri baten gainean jartzen zuten artilezko koltxoia. Ahizparekin egiten zuen lo Mari Kruzek.

945. Koltxoietako artilea harrotzen (AND-050/012)

Koltxoiaren artilea urtean behin atera eta jo egiten zen, harrotzeko, eta ondoren, berriz atzera koltxoiaren barruan sartu behar izaten zen. Mari Kruzen etxean ahizpak eta berak egiten zuten lan hori, beren koltxoiarekin ez ezik, senideen eta gurasoenekin ere.

946. Babarrunaren zomorroa nola saihestu (AND-050/013)

Baserriko ganbaran gorde izan dute beti babarruna, baina tarteka zomorroa egiten zitzaion. Hori saihesteko, ur irakinetan sartu-irtena egiten zioten babarrunari. Hala ez zitzaion zomorrorik egiten. Gerora, izozgailuetan mantentzen hasi ziren.

947. Bertako artoa kendu eta amerikarra sartu (AND-050/014)

Urte askoan zehar Euskal Herrian ohikoa izan den arto-landarearekin arazoak izaten zituzten, haizeak, nonbait, lurrera botatzen zizkielako asko eta asko. Ondorioz, arto-landarean gora egina zen babarruna ere lurrean geratzen zen. Mari Kruzek dio arto amerikarra egitea erabaki dutela; kalitate eskasagokoa izanagatik, landare sendoagoa baita.

948. Maizorria eta babarrun zein arto bilketa (AND-050/015)

Maizorria ganaduarentzat egitea zer zen azaltzen du. Maizorria eta gero babarruna biltzen zuten, eta azkenik, artoa. Artoaren txurikina ganaduari ematen zitzaion ere, artoaren hostoa bezalaxe.

949. Artoarekin estraperloan (AND-050/016)

Gerra garaian eta gerraostean estraperloan eramaten zuen artoa Mari Kruzen ahizpak Itsasondora, bertan eho eta berriz etxera bueltan ekartzeko.

950. Etxean egindako ogia (AND-050/017)

Gerraostean Nafarroatik ekartzen zieten garia, estraperloan, eta gari zakua trenetik botatzen zieten. Garia kefe-erota batekin ehotzen zuten, eta ogi integrala egiten zuen Mari kruzen ahizpak etxeko labean.

951. Ogia nola egin (AND-050/018)

Irina eta legamia eskuz oratzen ziren. Ondoren forma eman eta labean erretzen zen.

952. Urtebetetze ospakizunak (AND-050/022)

Urtebetetze ospakizunetan oiloa saltsan prestatu ohi zuen amak. Ez zuten ez kandelarik ez oparirik izaten. Postrerako, arroz-esnea edo natillak izaten ziren.

953. Urtezahar egunean talo osoa (AND-050/023)

Mari Kruzen amonak esaten omen zuen, urte osoa talo erdia janda igaroagatik, urte zahar gauean ez zegoela ohera goseak joaterik, eta seme-alabei talo osoa ematen zien. Mari Kruzen aita urtezahar egunaren zaleagoa izan zen beti, Gabon-gauarena baino. Gabon-gauean, ordea, Mari Kruzen anaiak kantatzera ateratzen omen ziren. Ahizpak, nonbait, ez.

954. Plazaolaren tailerrean metrailadorea (AND-050/024)

Mari Kruzen etxe ondoan tailer zahar bat omen zen, eta gerra garaian, hantxe jarri omen zuten nazionalek metrailadore bat, Buruntza mendian zeuden 'gorrien' aurka tiro egiteko.

955. Bonbardaketak Andoainen (AND-050/025)

Andoainen izandako Bonbardaketa batean Eguzkitza baserriko morroia hil zutela gogoan du Mari Kruzek. Gau hartan bertan lur eman zioten Mari Kruzen aitak-eta morroiaren gorputzari.

956. Tunelak babesleku (AND-050/026)

Tren txikiaren tuneletan babesten ziren sarritan bonbardaketengandik. Bertaratzeko astirik izan ezean, etxean bertan babesten ziren.

957. Olorik ez kozinarako (AND-050/030)

Olioaren faltan babarrunak esnearekin egosi izan zituzten, eta txitxarroak berek zuten olioari eskerrak frijitu.

958. Arrain saltzaileak baserriz baserri (AND-050/031)

Mari Kruzek gogoan ditu baserriz baserri arrain saltzen ibiltzen ziren matrimonio bat eta beste arrainketari batzuk ere.

959. Hildako txerria deklaratu behar (AND-050/032)

Gerraostean hildako txerri guztien berri eman beharra izaten zen, errazionamendua zela eta. Hala ere, askok eta askok txerri bat deklaratu eta bigarrena ezkutuan hiltzen zuen. Fruta-saltzailea ere gogoan du Mari Kruzek, 'ederra, merke!' esanez.

960. Tratuarekin inguruko herrietara (AND-050/033)

Mari Kruzen ama gaztainak eta sagarrak saltzera joaten zen inguruko herrietara. Babarrunak ere eraman izan zituen, baina horiek saltzea ez zen libre, eta kontuz ibili beharra zegoen.

961. Zinemara joateko palomitarik ez (AND-050/034)

Mari Kruzek gogoan ditu Andoaingo plazako gozoki saltzailea eta Tolosatik Andoainera joaten zen barkillo saltzailea. Zinemara joateko kakahueteak eta hurrak erosten zituzten Mari Kruzek-eta.

962. Ez jateko esaten ziguten, baina... (AND-050/035)

Sagarrak, fideoak eta fruitu lehorrak salmentarako prestatzen lan egin zuen Mari Kruzek, Industrias Alimenticias Goñi izeneko lantegian.

963. Sagarrak zuritzea lehendabiziko lana (AND-050/037)

Lehengusina baten ordeztatu zen Mari Kruz Industrias Alimenticias Goñi lantegian. Espainiako banderaren koloreko lazoak jartzen zizkieten produktu guztiei.

964. Labordetarren berauts fabrika (AND-050/040)

Laborde anaiei lantegian hainbat lanetan aritu zen Mari Kruz.

965. Andoainen bazen nahiko festa (AND-050/042)

Festa guztietara joan zaleak ziren Mari Kruz eta ahizpa, baina Andoainen nahikoa festa izaten zutela aitortzen du. Hasieran, eurak baino helduagoak ziren neska batzuekin ibiltzen hasi ziren, halaber, baina gero lagun asko egin zituzten kalean, eta haiekin nahieran ibiltzen hasi ziren. Futbola ikustera joan ahi ziren arratsaldeko laueterako; plazara joaten ziren gero, dantzara, eta azkenik, zinemara. Bederatzitako etxean egon behar izaten zuten.

966. Mutilen atzetik eta apaizen aurretik (AND-050/043)

Apaizak maiz kargu hartzen bazien ere, Mari Kruz eta bere lagunak dantzan ibiltzen ziren, helduta eta gogoak ematen zien moduan. Mari Kruzek aitortzen du gustatzen zitzaizkien mutilak animatzeko joaten zirela futbola ikustera, kirolagatik beragatik baino gehiago.

967. Garizuman musikarik ez Andoainen (AND-050/044)

Garizuman ez zen dantzaldirik izaten Andoainen. Mari Kruz eta haren lagunak Lasartera joaten ziren garai horretan, eta futbola ikusi eta gero, Hirubidera joaten ziren, dantzara.

968. Ez duzu inor hilko (AND-050/046)

Misioak udaberri aldera izaten ziren eta Aste Santuan sermoiak izaten omen ziren nagusi mezan. Seigarren manamenduari garrantzi handia ematen omen zioten apaizek. Mari Kruzen ustez, beste batzuei ez hainbeste.

969. Euskaraz egiten ez duenarekin borrokan (AND-050/048)

Lehengusinak ez zekien euskaraz hitz egiten, eta Mari Kruzek eta ahizpak gazteleraz hitz egiten ikasi zuten. Hala ere, lagun artean euskaraz dezente egiten zutela dio. Egun borrokan ibiltzen omen da euskaraz egiten ez duenarekin.

970. Senideei eta lagunei hika (AND-050/049)

Senide eta lagunekin beti hika hitz egin izan du Mari Kruzek. Jende ezezagunarekin eta konfiantza handirik gabekoekin, aldiz, zuka. Gurasoei berorika beti, etab aita apaiz zein medikuari ere.

971. Ez amaren eta ez aitaren hizkera (AND-050/051)

Aitak ez zuen sekula Hondarribiko hizkera galdu. Amak ere Alkizako modura egiten zuen, baina seme-alabek ez zuten ez aitaren eta ez amaren euskararik hartu; Andoainekoak bertakoak gehiago eragin zien, nonbait.

972. Madrilgo lagun euskalduna (AND-050/053)

Madrilera bizitzera joandako lagun bat bazuten, uda guztietan Andoainera itzultzen zena. Urte osoan hitz erdi bat euskaraz ez eginagatik ere, herrira itzultzerakoan euskaraz egiten zuen guztia.

973. Ubalategitxiki baserria (AND-051/002)

Ubalategitxiki izena zuen beraien baserriak: izena nondik datorkion azaltzen du. Etxearen egitura nolakoa zen deskribatzen du. Urik ez zuten eduki etxean 1960ra arte.

974. Familia aurrera ateratzeko baratzea eta Laborde (AND-051/003)

1944ean aita hil zitzaien, eta familia aurrera ateratzeko gogor egin behar izan zuten lan. Ordurako anaia zaharrena Laborden zebilen lanean, eta gerora familiako gehienak sartu ziren hara. Amak ere Laborden egiten zuen lan, eta eguerdian etxera itzultzen zen umeari titia emateko.

975. Labordeko langileen profila (AND-051/004)

Laborden lan egiteko, herrikoa izan behar zen, eta euskalduna bazen hobeto.

976. Milagrosan eta La Sallen ikasitakoa (AND-051/006)

Escuela Milagrosan ikasi zuen 8 urtera arte; eta handik La Sallera joan zen ikastera. Garai hartan ez zuen asko ezagutzen herria, eskolatik etxerako bidea bakarrik egiten baitzuen.

977. Errazionamenduko janaria eta bestelako jeneroa (AND-051/007)

Errazionamendua zenean, Euxebiren dendara joaten ziren janari bila. Errazionamendutik kanpo erosi beharreko jeneroa Maximinorenean bilatzen zuten. Errazionamenduan zer jasotzen zuten aipatzen du.

978. Lurra lantzeko tresnak banan-banan (AND-051/009)

Ondoko baserrikoekin itulan aritzen zen Joxe Antonio. Lurra lantzeko zer tresna eta nola erabiltzen zituzten azaltzen du: hortza, besarea, alferra, karramarroa...

979. Hesiaren erabilera (AND-051/011)

Hesia zertarako erabiltzen zen azaltzen du.

980. Artoaren inguruko auzolana (AND-051/012)

Lurra prestatzen zutenean, artoa ereiten zuten. Marka erabiltzen zuten horretarako. Artoa eskuz ereiten zuten, auzolanean. Giro ona izaten zen auzolanean, txiste-kontari aritzen ziren, gazta jaten zuten, eta iluntzera arte egiten zuten lan.

981. Aulki txikiak auzolanean aritzeko (AND-051/013)

Auzolanean ari zirela, aulki txikietan esertzen ziren. Aulki txiki haien egitura nolakoa zen azaltzen du.

982. Pagotxa eta alpapa (AND-051/014)

Pagotxari hazia kentzen zioten hurrengo urtean berriro ereiteko. Haziak nola jasotzen zituzten azaltzen du. Udazkenean izaten zen lan hori. Alpapa izaten zen garai hartan, eta neska-laguntzeari buruzko adarjotzeetan aipatzen zuten.

983. Garoa eta arto-hostoak lotarako (AND-051/015)

Pagotxa eta alpapaz gain, aziendak zer jaten zuen azaltzen du. Garai hartan, metak egiten ziren; garoa ganaduaren azpiak egiteko erabiltzen zuten. Artoaren hostoekin koltxoiak egiten zituzten.

984. Umetako jolasak eta marroka (AND-051/017)

Umetan hainbat jolasetan aritzen ziren: gorde-gordeka, marroka, kurkuluska, kanikatan... Marroka nola jolasten zuten azaltzen du.

985. Sustriak Nafarroan (AND-052/002)

Aitona-amonak nongoak ziren azaltzen du: lautik hiru Nafarroakoak ziren. Aitona bat Gipuzkoara etorri zen lanera, eta haren istorioa kontatzen du.

986. Lasarte herri bihurtzeko komeriak (AND-052/004)

Lehen Lasarte lau zatitan zegoen, inguruko herriak ziren lur haien jabe. Lasarte sortu zen garaiko kontuak gogoan ditu: lur-jabetzen aldaketa, aldaketa egiteko bilerak... Usurbil eta Donostia ez zeuden konforme aldaketa harekin.

987. Subijanako haurtzaindegia (AND-052/005)

1931n jaio zen, gerra aurrean. Orduko oroitzapen gutxi dauzka: urtebete zuela aita hil zitzaien, eta beste etxe batera joan ziren bizitzera. Amak Subijanan, aitaren lantokia izandakoan, hasi behar izan zuen lanean orduan. Ama lanean zegoen bitartean, anai-arrebak Subijanako haurtzaindegian egoten ziren. Haurtzaindegi hura nolakoa zen azaltzen du. Carmen Alkain izan zuen hango zaintzaile. Mojek ume helduenei zerbait irakasten zieten.

988. Andoaindik alde egiteko aholkua jaso zuten (AND-052/008)

Gerra iritsi baino lehen, Andoaindik alde egin zuten: gizon batek abisua eman zien bazegoela fusilatuko zituzten gizonen zerrenda bat, eta gizon haien artean Ramonen aitona zegoela. Hasieran nahi ez bazuten ere, azkenean joatea erabaki zuten. Kamioneta batean joan ziren Oriotik barrena Gernikara. Gernikara iritsitakoan, dentistarengana joan ziren: Kortezubiko ur sufretsua edateko esan zion hark.

989. Gernikatik alde egindakoan, Frantziara eta Kataluniara (AND-052/009)

Gernikako bonbardaketa hasi zen egunean, han ziren; menditik ikusi zuten dena. Gernikatik alde egin zuten Gijon aldera, eta handik Frantziara La Rochellera. Geroago, Gironara joan ziren, eta hango familia batekin egon zen Ramon. Familia hark semetzat hartu nahi izan zuen Ramon, baina amak uko egin zion eskaintzari. Kataluniatik Frantziara joan ziren berriro, Orleansa.

990. Andoaina itzuli eta etxea hustuta topatu (AND-052/010)

Gerra garaian batetik bestera ibili ziren, eta hizkuntzekin nahasketa handia izan zuen. 8 urte zituela itzuli ziren Andoaina; aitonarekin bizitzera joan ziren orduan, beraien etxean zegoen dena lapurtu egin baitzieten. Gerora ikusitakoarekin, konturatu ziren bizilagunak izan zirela lapurrak.

991. Euskara berreskuratzen eta eskolako martxa hartzen (AND-052/011)

8 urte zituela, oraindik ez zen inoiz joan eskolara. Eskolan hasterako, ordea, bazekien matematikako oinarritzko eragiketak egiten. Frantziatik itzuli zirenean, frantsesez bakarrik hitz egiten zuen Ramonek. Hiru bat hilabete pasa zirenerako, euskara berreskuratua zuen. Sorabillako apaizak eman zizkion eskolak Ramoni 1939ra arte. 1940an eskola nazionalan hasi zen ikasten.

992. La Sallen eta Laborden ikasten (AND-052/013)

10 urte zituela, La Sallen hasi zen ikasten. 14 urterekin, Laborden hasi zen lanean. Eta 14-18 urte zituen bitartean, Laborden ere ikasten jarraitu zuten: algebra, trigonometria, fisika, kimika...

993. Neska-lagunarekin egiten zituen planak (AND-052/015)

Neska-laguna ezagutu zuen garaian, igandetan dantzak izaten ziren: bandak jotzen zuen musika. Zinean zer ikusten zuten azaltzen du. 21-22 urte zituztela, Donostiara joaten ziren zinera; neska-lagunak 8etarako etxera itzuli behar izaten zuten.

994. "Lo que el viento se llevó" (AND-052/016)

"Lo que el viento se llevó" ikustera joan zireneko komeriak kontatzen du. Garai hartan neskek ez zuten ordaintzen. Lehen erronboaren bidez adierazten zen zentsura.

995. La Salleko korua (AND-052/018)

La Salleko koruan ibili zen Ramon: zer kanta abesten zituzten azaltzen du.

996. Misioetara joatera behartuta (AND-052/020)

Misioak gogoan ditu: Elizak asko kontrolatzen zuen nor joaten zen misioetara eta nor ez. Aitona ez zen elizkoia eta etxera joaten zitzaizkion kontuak eskatzera.

997. Misioetara aitonarekin (AND-052/022)

Misioetako sermoiak gogorak ziren eta politizatu egin zituzten azkenean. Behin aitonarekin joan zen misioetara: lo hartu zuen Ramonek eta aitonak egun hartan erabaki zuen elizara gehiago ez joatea.

998. Argentina ebanjelizatzaera joandako apaizak (AND-052/023)

50-60ko hamarkadan Euskal Herritik 300 apaiz joan ziren Argentinara, hura ebanjelizatzaera. Han zer-nolako harrera egin zieten kontatzen du.

999. Sopranoen koruan abesten (AND-052/024)

Lehen Andoainen zeuden koruak aipatzen ditu. Gaur egun Ramonek oraindik kantatzen jarraitzen du. Umetan sopranoetan kantatzen zuen. Non entseatzen eta abesten zuten aipatzen du. Sopranoak 1944 inguruan sortu ziren, eta herrian harrera ona izan zuten.

1.000. Euskara ez galtzeko, ikastola sortu Andoainen (AND-052/026)

Andoainen euskara galtzen ari zela konturatu zirenean, 1963n ikastola jartzea erabaki zuten. Ikastola sortzeko emandako pausoak eta izandako arazoak kontatzen ditu.

1.001. Hizkerak eta euskara batuaren onurak (AND-052/028)

Euskara non hasten den aldatzen aipatzen du: Orion lehenengo muga; Ondarroa aldera bestea; Eibarren ere beste bat... Euskara batuak onura handia ekarri du, euskaldun guztion artean elkar ulertzeko balio baitu.

1.002. Azpikolako fruta-arbolak eta zerrategia (AND-053/005)

Auzoko Azpikola baserrian fruta-arbolak edukitzen zituen, eta punta-puntako fruta biltzen omen zuten. Mendia dena atera eta zerrategia jarri zuten. Bertako gizonak pinu-egurra zerratu eta arrain-kaxak egiten zituen.

1.003. Suertea edo lotea (AND-053/006)

Auzoko baserri bateko pinudia atera, pinu berria landatu eta lursaila lotetan banatu zuten. Suertea edo lotea esaten zitzaion terreno zati horri, eta hartzen zuenaren eginkizuna zen lur hura garbi edukitzea. Sail hartan sortzen zen belarra eta egurra lotea hartzen zuenaren erabilerarako izaten zen. Hango garo eta belarra txerrien azpiak egiteko erabiltzen zuten.

1.004. Pinudia garbitzea (AND-053/007)

Auzoko baserri bateko pinudia atera, pinu berria landatu eta lursaila lotetan banatu zuten. Joxe Antonioaren familiak sail bat hartu zen. Pinudia garbitzea: garoa, belarra... biltzea. Auzolanean egiten zuten belar moztea.

1.005. Oiloak, arrautzak eta eltzea (AND-053/008)

Oiloei eraztun bat jartzen zien hankan, bakoitzari bere numerazioarekin. Oilo kaiolak. Oilategian papertxo bat edukitzen zuten, eta apuntatzen joaten ziren zeinek egiten zuen arrautza. Arrautza gutxien egiten zuen oiloa, eltzera.

1.006. Oiloen jatekoa (AND-053/009)

Oiloen jatekoa nola prestatzen zuten kontatzen du.

1.007. "Letxera", arrautzak kontserbatzeko (AND-053/010)

Arrautzak nola kontserbatzen zituzten azaltzen du. Ontzi bat "letxerakin" (kare biziari ura bota eta handik sortzen den masa) betetzen zuten, eta arrautzak karetan sartzen zituzten. Arrautzei markak egiten zizkien noizkoak ziren jakiteko. Etxeak zuritzeko ere erabiltzen zen "letxera". Ubalategitxiki baserritik gertu zegoen karobia.

1.008. Txerrikia (AND-053/011)

Txerrikia gazi-kutxan gordetzen zuten. Txerrikia gazi-kutxatik ateratakoan, piper-hautsa eman eta lehortzen jartzen zen zintzilik.

1.009. Txorizoak eta solomoa (AND-053/012)

Txorizoak eta solomoa tina batean gordetzen zituzten, olio eta sebotan.

1.010. Gari-jotzea, Alegian (AND-053/013)

Joxe Antonioren ama Alegiakoa zen. Hango senideen baserrian gari-jotzen ibilia da auzolanean. Gari-jotzea eskuz: gari-sorta losaren kontra jo behar izaten zen. Bahea. Gari-jotzeko makinaren funtzionamendua.

1.011. Ubalategiko garia (AND-053/014)

Ubalategitxikin ez zuten garirik lantzen, baina auzoko Ubalategin bai. Ez zuten gari asko egiten, ordea. Garia eta patata alondegian entregatu behar izaten zen.

1.012. Ogia (AND-053/015)

Auzoko Ubalategi baserrian ogia nola egiten zuten kontatzen du.

1.013. Sendabelarrak (AND-053/016)

Joxe Antonioren amak enplastuak egiten zituen zauriak sendatu eta "bixikiak" (bekatxoak) kentzeko. Joxe Antoniok biltzen zituen sendabelarrak: belar beltza (emea), zaingorria, ilarrondokoa, pasmo-belarra eta berbena.

1.014. Belar beltza (AND-053/017)

Belar beltz arra edo emea izan daiteke: bakoitzaren ezaugarriak aipatzen ditu. Ultzerak eta barizeak sendatzeko ibili ohi zuten belar beltz emea.

1.015. Etxean egindako ukendua (AND-053/019)

Belar beltza (emea), zaingorria, ilarrondokoa, pasmo-belarra eta berbena egosi, eta olio, argizaria, txokolate beltza eta ardoa botatzen zitzaizkien. Dena nahastu eta pasta egin ondoren, puregailuan pasatzen zen. Gaiztotutako ebakietan, "bixietan" (bekatxoetan)... emateko izaten zen ukendu hori.

1.016. Zaingorria eta ilarrondokoa (AND-053/020)

Zaingorria eta ilarrondokoa nolako belarrak diren azaltzen du.

1.017. Pasma-belarra (AND-053/022)

Pasma-belarra gari eta bide ondoetan ateratzen den belarra da. Pasma-belarrak laranja koloreko lore txiki bat izaten du. Pasma-belarrarekin egindako infusiek infekzioak kentzen dituzte.

1.018. Berbena-belarra (AND-053/023)

Berbena-belarra nolakoa den azaltzen du. Neguan galdu eta udaberrian ateratzen den landarea da. Katarroa sendatu eta birrikak garbitzeko, berbena infusioak eta enplastoak.

1.019. Milorria eta intsusa (AND-053/025)

Milorria garo ondoetan ateratzen da. Nolakoa den azaltzen du. Landare hori intsusarekin lehortu eta katarroa sendatzeko erabiltzen zituen Joxe Antonioren amonak. Amonari berorika hitz egiten zion.

1.020. Negu partean landareak biltzeko zailtasuna (AND-053/026)

Belar beltza (emea), zaingorria, ilarrondokoa, pasmo-belarra eta berbena berde daudela prestatzen da ukendua. Negu partean gaizki ibiltzen zen landareak biltzeko. Horregatik, udaberrian landareak bildu eta ukenduak poteetan jasotzen zituzten.

1.021. Ilarrondokoaren tuberkulua (AND-053/027)

Ilarrondokorik gabe geldituz gero, haren sustraia bilatu eta hostoaren ordeztuberkulua erabiltzen zuten ukenduak egiteko. Ilarrondokoaren tuberkuluak esne antzeko bat izaten du, eta hatzetan azkura eragiten du.

1.022. Xaboi, tipula eta olio ukendua (AND-053/029)

Xaboa, tipula eta olioarekin egindako ukendua. Bestelakorik eskura ezean, asko goxatzen zuen ukendu horrek. Zaurien kasuan, enplastoa erabiltzen zuten. Tipulak barruko zikina ateratzen du.

1.023. Ebaki-belarra (AND-053/030)

Ebaki eta azaleko zauriak sendatzeko, ebaki-belarra. Nolako landarea den azaltzen du. Eskolako mutil bati zauri bat ebaki-belarrarekin sendatu zion. Ebaki-belarra eta erromeroa landatuta izaten zituzten.

1.024. Sendabelarrak biltzea (AND-053/032)

Intsusaren lorea biltzerako garaian, itzalean zegoena hartu behar izaten zen. Pasma-belarra soroetan biltzen zuten.

1.025. Txitxare-belarra (AND-053/034)

Txitxare-belarra nolakoa den azaltzen du. Txitxare-belarraren ura erabiltzen da txitxareen kontra.

1.026. Kukutxeztularentzako jarabea (AND-053/035)

Korostiaren azalaren eta egurraren arteko mintza, karakolak, ardoa eta beste osagai batzuekin kukutxeztularentzako jarabea egiten zuen Joxe Antonioren amak.

1.027. Umetako jolasak eta denbora-pasak (AND-053/039)

Ubalategitxiki kale-etxe inguruak nolakoak ziren azaltzen du. Ume garaiko jolasak: gorde-gordeka, txorro-morroka, marroka, kaniketan, painolitozka, makilak lurrera bota eta zutik gelditu behar zuten...

1.028. Trontzerra (AND-053/040)

Egurra mozteko, eskuzerra erabiltzen zuen. Gero, anaiak trontzerra erosi zuen. Trontzerra egurra mozteko aproposagoa.

1.029. Lehenengo arotz lanak: arrain-kaxak (AND-053/041)

12 urte inguru zituela hasi zen lehenengo arotz lana egiten. Arrain-kaxak egiten hasi zen.

1.030. 14 urte egin aurretik lanean hasi (AND-053/042)

La Salle ikastetxean egindako ikasturteak. 14 urte behar ziren lanean hasteko, baina ama, anaia eta arreba Labordeneko lantegian aritzen ziren lanean, eta 14 urte bete gabe zituela Joxe Antonio ere lanerako hartu zuten. Lau hilabete eta erdian kotizatu gabe egon zen artean 14 urte bete gabe zituelako.

1.031. Labordeko lanbide-eskola (AND-053/043)

Labordeko lanbide-eskolan lau urte egin zituen. Ikasturte bakoitzean zer ikasgai zituzten aipatzen du.

1.032. Arotza burdin lanean "desesperatu" (AND-053/044)

Labordeko lantegian linan aritu zen aurreneko urtean. Bigarren urtean, arotz lanbidea ikasi nahi zuela esan zuen eskolan. 17 urte egin zituen lantegian,

horietatik bi tornuan pasatu zituen: aroztegia kendu egin baitzuten lantegitik. Ez zen gustora ibili burdin lanean.

1.033. Aroztegia muntatu (AND-053/045)

Joxe Antonio arotza izan arren, Labordenean egin zituen azken bi urteak tornuan egin zituen. Ez zegoen gustura, eta bere aroztegia muntatu zuen lana utzi aurretik.

1.034. Soldaduskan, aroztegian (AND-053/046)

Soldaduskan aroztegian destinatuta egon zen. Ordurako, lantegitik ateratzeko burutazioa zeukan.

1.035. Lana "destajuan" hartzen hasi (AND-053/047)

Soldaduskara joaterako, Labordeneko lanorduetatik aparte eta Amuebladora de Groserako armairuak egiten hasia zen. Lehenengo aldian, sukaldeko bost armairu muntatu zituen. Egunean, 12 ordu egiten zituen lana. Bost armairu muntatzeagatik 300 pezeta eman zizkioten. Labordenean zenbat irabazten zuen aipatzen du.

1.036. Soldaduskako kontuak (AND-053/048)

Soldaduskan egindako arotz lanak: komandantearentzako altzariak. Komandantearen kotxe ofizialean ibili zeneko pasadizoa. Soldaduskan piztu zitzaion arotz lanetan bere kontura hasteko gogoa.

1.037. Arotz lanak (AND-053/049)

Aroztegian bere kontura hasi zenean zer lan egiten zituen kontatzen du: leihoak, ateak, tarimak... Gero, pixkanaka, altzariak egitera dedikatu zen.

1.038. Pago-egurra (AND-054/002)

Pagoa uretan egonda, gehiena irauten du egurra omen da. Uretatik atera eta sartuz ibiliz gero, segituan usteltzen da. Donostian, Amara Berri inguruan, zingirak ziren lehen. Pago enborrak bota eta haien gainean eraiki ziren hango etxeak.

1.039. Busti-lehorrerako egurra (AND-054/004)

Kanporako, busti-lehorrerako, onak diren egurrak: gaztaina, akazia... Garai batean, gaztainaren egurra erabiltzen zen leiho eta leihatiletik egiteko. Barnizatzea. Egurraren mantenimendurako produktuak.

1.040. Egurraren gaitzak (AND-054/006)

Egurraren gaitzak: karkoma (arra), pipia... Eroritako arbolei egiten zaie gehienean karkoma. Zuhaitzek azalaren eta giharren artean "albura" (zuritasuna) izaten dute: pipiak hori segituan jotzen du; horregatik, kendu egin behar izaten zaio.

1.041. Egurra ebakitzea (AND-054/007)

Egurra mozterako garaian nola zerratu behar den azaltzen du Joxe Antoniok. Enborra puntatik mozten hastea komeni izaten da.

1.042. Egurra nondik ekartzen zuen (AND-054/009)

Aroztegirako egurra nondik ekartzen zuen aipatzen du: Molera, Lasa y Lekunberri, Aserradoras de Lezo eta Maderas Portu.

1.043. Arotzeria: eskuzko erremintak (AND-054/010)

Joxe Antonioren garairako, arotz langintzan tresna elektrikoak erabiltzen ziren. Arotz lanerako eskuzko erreminten izenak: biribilgina, matxinbratua, ginbeleta, tatulua, garlopa, zepiloa, mazoa, trintxa, eskuzerra, gubia, raspa...

1.044. Arotzeria: lixak ("lijak") (AND-054/011)

Lixa motei eta haien numerazioei buruzko azalpenak ematen ditu Joxe Antoniok.

1.045. Egur-begiak (AND-054/013)

Arotz langintzari buruzko azalpenak. Kanpora egindako egur-begiak tapatzeko onena: trebea izanez gero, antzeko egur zati batekin eta kola pixka batekin zuloa betetzea.

1.046. Zerrautsarekin egindako masak (AND-054/014)

Arotz langintzari buruzko azalpenak. Egur-begiak. Zerrautsarekin egindako masei buruz hitz egiten du.

1.047. Dotrina bakarrik euskaraz (AND-054/017)

Etxean euskaraz hitz egiten zuen gurasoekin. Eskolan, dotrina bakarrik ematen zuten euskaraz. Eskola denboran, zaila egin zitzaion erdara ikastea.

1.048. Euskara herrian (AND-054/018)

Joxe Antonio umea zela, euskaraz hitz egiten zuen gehiengoak Andoainen. Herriko giroa nolakoa zen azaltzen du. Eskolan, dotrina bakarrik ematen zuten euskaraz.

1.049. Berorika, zuka eta hika (AND-054/019)

Gurasoei, berorika hitz egiten zien. Anaia zahararri, zuka. Eta bi arrebei, berriz, hika. Behin adin batetik aurrera, anaiarekin hika egiten hasi zen: anaiarekin adin tarte handia zuen. Apaizari, medikuari, maisuari eta alkateari berorika egin behar izaten zitzairen.

1.050. Amonak oilaskoak zikiratu (AND-054/024)

Joxe Antonioren amonak oilaskoak zikiratzen zituen, kapoiak egiteko. Etxeko oilaskoez gain, beste etxeetako oilaskoak ere eramaten zizkieten zikira zitzan. Amonak oilaskoak nola zikiratzen zituen azaltzen du. Etxeko nagusiari errenta ordaintzean, kapoiak ematen zitzaizkion.

1.051. Neosaton (AND-054/025)

Denborarekin, oilaskoak zikiratzeko Neosaton pastilak erabiltzen hasi ziren. Oilaskoari lepoan ebaki txiki bat egin eta handik bi pastila sartu behar izaten zitzaizkion. Jesus Okiñena albaitariarengana joan behar izaten zuen Joxe Antoniok pastila horien bila.

1.052. "Kriadillak" (AND-054/027)

Oilaskoak zikiratuta, haren "kriadillak" frijituta jaten zituzten. Jateko kontuak aipatzen ditu: taloa, artoa, "boniatoa" (batata)...

1.053. Etxean, "guardagujas" (AND-054/029)

Mutil kozkorretan egindako gaiztakeria. Auzoko mutil batekin harrobi inguruan zebilela, tranbiaren orratzak mugitu zituztenekoa kontatzen du. Tranbia bere bidetik atera zen. Anaiak harrapatu eta bronka bota zion. Orduz geroztik, etxean "guardagujas" esaten zioten.

1.054. Gabarran, Venezian bezala (AND-054/030)

Udara batean, ibaian anaiaren gabarran zebilen lagun batekin. Dotore jantzitako bi neskak ontzian ibiliko al zituzten galdetu zien, eta Joxe Antoniok eta lagunak baietz. Halako batean, ura gutxitu eta lohi artean gelditu ziren trabatuta. Neskek lohi artetik atera behar izan zuten haserre.

1.055. Andoaingo Kale Berriko giroa lehen (AND-055/005)

Txikitan, kalean asko jolasten zuten. Garai hartan, ez zegoen zirkulazio handirik, baina hainbat garraio mota igarotzen ziren beraien kaletik. Etxe aurrean, garbategia zegoen; eta, han emakumerik ez zegoenean, uretan jolasten aritzen ziren. Etxetik gertu, iturri bat zegoen, beti ura ematen zuena. Inaxio taberna zegoen beraien kalean, eta gidariak han gelditzen ziren. Kalean giro handia egoten zen.

1.056. Arropa garbitzeko irrikan egon arren, ezin (AND-055/006)

Gobara egiteko irrikan egoten ziren arren, beraiei ez zieten uzten arropa garbitzen. Ama bera bakarrik moldatzen zen arropa garbitzeko. Orduko emakumeek lan gogorrek egiten zituzten, oraingo erosotasunik gabe.

1.057. Bizitzarekiko ikuspegia aldatu da gizartean (AND-055/007)

Lehen, emakumeak ez ziren sartzen tabernetan; Arantxa gaztea zela, oso gutxitan sartzen zen, huskeriak hartzera. Lehengo emakumeek lan handia egiten zuten, denetariko lanak. Lehen, etxeetan jende gehiago bizi zen elkarrekin, denentzat zegoen lekua; hori, gaur egun, aldatu egin da. Bizitzarekiko ikuspegia aldatu da gizartean, oro har.

1.058. Ama emakume oso txukuna zen (AND-055/008)

Emakumeek lehen etxeko martxa guztia eramaten zuten. Arantxaren ama emakume oso garbia zen; denda zeukaten, eta beti txukun egoten zen. Arantxak lurrean erratza pasa behar izaten zuen, eskolara joan aurretik. Galtzerdiak konpontzen ere ikasi zuen amarengandik.

1.059. Lehengo konfiantza dendari eta bezeroen artean (AND-055/009)

Lehen, diru gutxiago zegoen. Eta dendara erosketak egitera baserrietatik etortzen ziren lagunek trukearen bidez ordaintzen zuten. Amak gizarte-kontzientzia handia zuen, eta ulerkorra zen bezeroen zailtasun ekonomikoekiko. Lehen, dendan, errazago fidatzen ziren dendariak bezeroekin, elkar ezagutzen baitzuten.

1.060. Errazionamenduko janaria banatzeak ematen zituen lanak (AND-055/011)

Errazionamendu garaia gogoan du. Orduan, ama bere onetik ateratzen zen; lan handia ematen baitzion dendan janaria banatu beharrak. Arantxari izugarri gustatzen zitzaion olio banatzea. Olio-ontziak nolakoa izaten ziren azaltzen du.

1.061. Jolasean, lehen baino kezka gutxiagorekin (AND-055/014)

Umetan, kalean ahal bezain beste aritzen ziren jostatzen. Orain lehen baino beldur handiagoa dago umeen ongizatearen gainean. Non jolasten ziren azaltzen du. Behin, jolasean zebilela, Arantxak istripua izan zuenekoak kontatzen du.

1.062. Lehengo jolasak, etxetik urruti, ahal zela (AND-055/015)

Lehengo jolasak aipatzen eta azaltzen ditu. Ahal zutela, etxetik urrutiratzen ziren, horrela, amak ez ikusteko.

1.063. Umetan jolastu; gerora, nahi izanez gero, ikasi (AND-055/016)

Lehen, ez zuten jostailu askorik, beste era batera jolasten baitziren. Denbora libre gehiago izaten zuten; eta gerora ikasi zuten. Magisteritza ikasi aurretik, josten ikasi zuen Arantxak, amak hala gomendatu baitzion. Azkenean, 40 urte inguru zituela, magisteritza ikasi zuen. Arantxari beti gustatu izan zaio ikastea.

1.064. Euskaraz egiteko kontzientzia eman zioten etxean (AND-055/021)

Etxean dena euskaraz egiten zuten; aita ez zien uzten ezer-ezer erdaraz esaten. Herriko eskolara joaten zen. Kaleko jendea, ordea, oso erraz joan zen erdarara. Berak, aitari esker, euskararekiko kontzientzia hartu zuen. Garai batean, kaleko giroa dena erdaraz izaten zen.

1.065. Hizkuntzak jakiteari ez zitzaion baliorik ematen (AND-055/022)

Ama Andoaingoa zuen; eta, dendako lanari esker, erdara primeran ikasi zuen. Lehen, hizkuntzak jakiteari ez zitzaion balioa ematen. Arantxari beti gustatu izan zaio frantsesa, eta bere kontura ikasi zuen heldua zenean.

1.066. Etxeko idiekin proba irabazi zutenekoa (AND-056/002)

Intxusaran baserria nolakoa zen kontatzen du: zortzi behi eta idi-parea zeuzkaten. Idiekin basoak ateratzen ibiltzen zen aita. Aitak behin irabazi egin zuen idi-deman; idiak prest egoten ziren demarako urte guztian zehar. Lehen gauez egin ohi ziren idi-probak.

1.067. Idi-apustu asko Andoainen (AND-056/003)

Lehen idi-apustu asko jokatzeko Andoainen, baina bestelako apusturik ez. Andoainen baserri ugarian egoten ziren idi-pareak: baserri horiek aipatzen ditu.

1.068. Garotara Adarra ingurura (AND-056/004)

Idiak behiak baino hobeak izaten ziren lanerako. Uztarrrian ibiltzen ziren behiek esne gutxi ematen zuten. Adarra ondoko herri-sailetara joaten ziren garo bila. Zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du. Garoa ebakitzeko egunak ondo aukeratu behar ziren, eta ahal bezain beste kargatzen zuten gurdia.

1.069. Eskolako etxeko lanak egiteko denborarik ez etxean zeuden lanengatik (AND-056/005)

Garoa udazkeneko lana izaten zen, eta hura bukatzean, simaurra zabaltzen zuten. Eskolako lanak egiteko denborarik ez zuen izaten, etxean lana egin behar izaten baitzuen.

1.070. Eskola uzteko erabakia (AND-056/006)

Garia egiten zutenean, txoriek txikitu egiten zuten. Txori haiek uxatzeko, tomate potoak harriz betetzen zituzten eta haiekin soinua egiten zuten. Lan hori egiteagatik, eskolako azterketak ezin izan zituen egin. Etxean behar zutenez, azkenean eskola uztea erabaki zuen bere kabuz.

1.071. Gerra osteko gosearen aurka estraperloa eta baserriko jeneroa (AND-056/007)

Gerra ostean, garia egiten zuten etxean, gari-sail handiak lantzen zituzten. Beraiek kontrabandoan ibiltzen ziren etxeko artoa eta garia Zizurkilgo errotan ehotzeko. Etxean ez zuten goserik pasa, bai baitzuten jateko nahikoa.

1.072. Errotatik bueltan "guardia zibilak" bidean (AND-056/008)

Errotara ezkutuan joaten ziren. Orduko errota batzuk aipatzen ditu. Behin, irinarekin etxera bueltan zetorrela, beldurra pasa zuen guardia zibilak ikusi zituela uste baitzuen.

1.073. Gosea zenean, arbia eta taloa (AND-056/009)

Gari-irinarekin ogia egiten zuten, eta bestela taloa. Etxean soberan gelditzen zitzaizkien taloak lagunen artean banatzen zituzten. Garai hartan, arbia ere jaten zuten batzuek. Baserrian gosea ez zen hainbeste antzeman, baina baserriko jeneroaren zati bat entregatu egin behar izaten zuten.

1.074. Esnea banatzen ibiltzen zen "Gibelaundia" (AND-056/010)

Baserrian lan asko egin behar izaten zuten lurrak lantzeko. Etxean beti izan dute morroi bat. Esnea kalean saltzen zuten lehen, eta eskolara joaterako banaketa egina edukitzen zuen Angelek; eskolara berandu iristen zenez, baina, "Gibelaundi" izena jarri zion maisuak.

1.075. Janari- eta sagardo-faltarik ez etxean (AND-056/011)

Gosaltzeko taloa eta esnea jaten zituen Angelek. Eguerdian babarruna eta haragi pixka bat jaten zuten. Fruta eta sagardoa ez zitzaizkien falta izan etxean. Sagardoa botilatan sartzeko modurik ez zutenean, barrikatik edaten zuten. Garo bila joaten zirenean, sagardoa eramaten zuten, baina zaporea aldatu egiten zitzaion.

1.076. Baserriko tresnak eta haien funtzioa (AND-056/013)

Garotara joaten zirenean eta belarretan ibiltzen zirenean, tresna berak erabiltzen zituzten. Tresna haien funtzioa azaltzen du. Azaoak eta metak egiten zituzten. Sortak etxean aletzen zituzten. Lortutako lastoarekin zer egiten zuten azaltzen du.

1.077. Lurra lantzeko tresnak eta idiak (AND-056/015)

Lurra lantzeko, goldea eta idiak erabiltzen zituzten. Beste hainbat tresna aipatzen ditu, eta haiek nola erabiltzen ziren: laia, karramarroa...

1.078. Simaurra gurdian kargatzen eta belarra sortaka eramaten (AND-056/016)

Simaurra gurdian kargatzeko, sardea erabiltzen zuten. Belarra sortaka eraman izan dute. Belar-sortak sokarekin lotzen zituzten eta bizkar gainean eramaten zituzten.

1.079. Lan-baldintza hobeen bila batetik bestera (AND-056/020)

Soldadutzatik itzuli zenean, paper-fabrikan hasi zen lanean 23 urte zituela. Handik Soraluzeko fabrika batera joan zen lanera; 5 urte egon zen han tornulari. Gerora, Elgoibarko tailer batean hasi zen: hango lan-baldintzak gogorrak ziren. Azkenean, Donostian lortu zuen lana.

1.080. Donostiatik Sorabillara etorri arteko ibilbide profesionala (AND-056/021)

Donostian lanean zebilela, Trintxerpen topatu zuen lana eta han lan-baldintza hobekak zituen. Azkenean, Sorabillan tailerra jarri zuen lagun batekin; gerora, lagunak tailerra utzi zuen. Ordutik, Angelek atera du aurrera tailerra iloba batekin batera.

1.081. Lana baino garrantzitsuagoa, osasuna (AND-056/023)

Paper-fabrikan lanean zebilela, konponketak larunbat arratsaldetan eta igande goizetan egiten ziren. Angeli deitu zioten behin, baina ez zela joango esan zuen; horregatik nagusiarekin izandako elkarriketa kontatzen du.

1.082. La Salleko koruan abesten ibilitakoa (AND-056/028)

La Salleko koruan abestu zuen Angelek: mutilek bakarrik abesten zuten han, euskaraz.

1.083. Euskaraz ohituta, gaztelaniara ohitzeko zailtasunak (AND-056/030)

Umetan dena euskaraz egiten zuten. La Sallen hasieran maisu euskalduna izan zuten eta euskaraz egiten zuten; geroago, maisu erdalduna tokatu zitzairen, eta dena gaztelaniaz egin behar izan zuten. Kontxa Arretxerekin ere ikasi zuen, euskaraz. Lagunartean euskaraz egiten zuten, eta eskolan gaztelaniaz egin behar izan zutenean, atzerapen handia izan zen, ez baitzuten ulertzen.

1.084. Behiak jezten ikasi izanaz damututa (AND-057/002)

Hamar urte zituela, behiak jeztera joaten zen Maria Dolores ikuilura, baina anaiek ez zioten hango lanik egiten uzten. Hala ere, ezkutuan ikasi zuen behiak jezten. Gero anaiak kanpora joan ziren lanera, eta behin hamalau urte betez gero ikuiluko lan guztiak egin behar izaten zituen Maria Doloresek, goizeko bostetan jaikita. Behiak jezteaz gain, esnea partitzera joan behar izaten zuen.

1.085. Hamabost litroko marmita bizkarrean (AND-057/003)

Hamabost litroko marmita bizkarrean eta txikiago bat eskutan hartuta ibiltzen zen Maria Dolores esne partitzen.

1.086. Ur bila nor joango borrokan (AND-057/004)

Ur bila amarekin joan ohi zen Maria Dolores, etxetik bostehun metrora zegoen iturrira. Harraska ere iturria zen toki berean zegoen.

1.087. Neska gazteena izanagatik, lan asko egindakoa (AND-057/005)

Baserriko eguneroko lanak berez gogorrek baldin baziren, gogorrago egiten zituen neguko hotzak. Maria Dolores hamaika senidetan neskarik gazteena izan da, eta etxean lan asko egitea tokatu zitzaion.

1.088. Jai arratsaldetako alkandora zuriak (AND-057/006)

Etxeko denen arropak garbitzen, lehortzen jartzen eta lisatzen jardun behar izaten zuen Maria Doloresek, amarekin batera. Jai arratsaldetan anaia guztiei alkandora zuria eta ongi lisatutako galtzak prestatzen zizkieten.

1.089. Eskola egunak, egun euritsuak (AND-057/008)

Kalera jaisteko baserrian hartutako usaina kentzeko ohitura zuen Maria Doloresek. Fama txarra zuen baserritarrak kolean. Haurra zela, eskolan kaletarrek burla egiten ziotela gogoan du, euririk ari ez zuenetan etxean geratu behar izaten baitzuen lanean.

1.090. Kaleko haurrak eskolara (AND-057/009)

Kolean bizi ziren hurrek erraztasun gehiago zituzten eskolatzeko baserritar zenbaitek baino.

1.091. Neguan josten ikastera (AND-057/011)

Hamasei urte bete eta josten ikasten hasi zen Maria Dolores, gustura.

1.092. Emakumea beti etxean, gizonari kontu egiten (AND-057/012)

Emakumeak etxeko lanak egin behar izan ditu beti, eta gizonezkoa etxetik kanpo joan izan da lanera. Emakumeak gizonezkoaren etxeratze erosoan ziurtatu behar izan du.

1.093. Senarraren soldata beste dirurik ez (AND-057/014)

Behin ezkonduz gero, emakumeak, orokorrean, ez zuen etxetik kanpo lanik egiteko aukerarik izaten. Senarraren soldatarekin moldatu behar izaten zuten.

1.094. Garai bateko jaki eta otorduak (AND-057/017)

Baserrian ez zuten kalean bezainbeste gose pasa gerraostean, abereak hazi eta barazkiak eta lekaleak egiten zirelako. Igandetako otorduak nola osatzen zituzten kontatzen digu.

1.095. Gabonetan oiloa edo untxia (AND-057/018)

Gabonetan oiloa hiltzen zuten, saltsan preparatzeko. Zopa egiten zuten, eta postretarako flana. Urteak aurrera joan ahala, frijituak prestatzen hasi ziren: kroketak...

1.096. Salmentaren arabera, jan edo barau (AND-057/019)

Sagar saltzera joaten zen Donostiara, tranbia hartuta. Hiru sagar klase izaten zituzten etxean. Salmenta ona egiten zuenetan kafesnea eta kruasana hartzen zituen; salmenta kaskarra eginez gero, aldiz, baraurik itzultzen zen etxera.

1.097. Tratua saltzen emakumeak gehienbat (AND-057/020)

Maria Doloresek dio emakumeak ibili ohi zirela batez ere herriz herri tratua saltzen. Erabiltzen zituzten zestoei buruz azalpenak ematen ditu: hiru neurrikoak izaten ziren.

1.098. Morokiloa (AND-057/024)

Gerraostean jaki gutxi izaten zen, eta errazionamendua, gainera. Maria Doloresek gogoan du beren etxean "morokiloa" nola egiten zuten.

1.099. Artoa ehotzera Zizurkilera (AND-057/025)

Maria Doloresek ale txikiko artoa eramaten zuen ehotzeko, baina gerta zitekeen ale handiagoko artotik ateratako irina etxeratu behar izatea. Berak nahiago izaten zuen zain egon eta beretik eraman. Izan ere, talo goxoagoak egiten ziren irin finarekin.

1.100. jaiotza eta heriotza (AND-057/027)

Haur bat jaiotzen zenean oiloa ekarri ohi zuen opari bisitan zetorrenak. Etxekoren bat hiltzean, aldiz, etxean prestatzen zen gorputza, eta bertan egiten zen beilaldia.

1.101. Katgoria ezberdinetako hildakoak (AND-057/028)

Hildakoaren maila sozialaren arabera, maila ezberdinetako hildakoak eta elizkizunak izaten ziren.

1.102. Elizbideak (AND-057/029)

Hildakoaren gorpua kutxan sartu eta bizkarrean hartuta etxetik elizaraino egiten ziren ibilbideak izaten ziren Elizbideak.

1.103. Gerrak bete-bete harrapatu jaio zenean (AND-058/002)

Gerra hasi eta 4 egunera jaio zen Juan Bautista. Bataiatu zuten egunean, mitin baten aurretik pasa ziren elizara bidean. Joakin Bermejok bataiatu zuen Juan Bautista, gerratik ihesi joan aurretik. Gauetan, bonbatatik babesteko, ezkutatu egiten ziren eta han haur jaioberria edukitzea arriskutsua zen, negarrarekin salatu egin baitzezakeen non zeuden gainerakoak.

1.104. Kaletik baserrira joan zirenekoa (AND-058/003)

Gerra garaian, jende askok egin zuen alde Andoaindik, etxe huts asko gelditu ziren. Anai-arreba gazteagoak jaio zirenerako, kale nagusian bizi ziren beraiek, etxe huts batean. Geroago, aitzak lur batzuk erosi zituen, han baserria eraiki eta baserriko bizimodutik bizitzeko.

1.105. Armamentu-fabrikatik Michelin fabrikara (AND-058/005)

Beti bizi izan da Andoainen. Urnieta inguruko armamentu-fabrika batean egin zuen lan 28 urtera arte; han lan-baldintza gogorak zituzten. 1965ean, Michelinen hasi zen lanean, urtebete egon zen mekaniko-lanetan; gerora, arduradun izendatu zuten eta hala egin zuen lan erretiroa hartu zuen arte.

1.106. Fabrikak militarizatzeak ekarritako abantailak (AND-058/006)

SAPA fabrika militarizatuta egon zen gerra garaian, eta beste hainbat lantegi ere militarizatu egin zituzten; Laborde, hala nola. Fabrika militarizatueta sartuz gero, ez zen gerrara joan behar izaten.

1.107. Fabrika militarizatueta lanaren arriskua (AND-058/008)

Andoaingo fabrika militarizatuak ez ziren arriskutsuak izaten, zati mekanikoaz arduratzen baitziren; Gasteizen arriskutsuagoa zen, ordea, han betetzen baitzituzten armak bolborarekin. 14-28 urte zituela SAPAn egin zuen lan Juan Bautistak.

1.108. Janaria ezkutatzegatik, dena lizundu (AND-058/009)

Umeak 14 urterekin hasten ziren lanean. Lehen behar handia zegoen: zeukatena ondo zaintzen eta erabiltzen zuten; gosea zegoen, diru gutxi... Gerra ostean, Nafarroatik etortzen zen tren txikiak estraperloko jeneroa ekartzen zuen; eta, hari esker, jendea aurrera atera zen. Behin, guardia zibilek etxea erregistratuko zuten beldur, aitzak bi paretaren artean sartu zituen baba zakuak, eta jeneroa lizundu egin zitzaion, zomorroz bete zitzaion, hain zuzen ere.

1.109. Entregatutako jeneroa alondegian biltzen (AND-058/010)

Gerra ostean, baserriarrak jeneroa entregatzera behartzen zituzten. Bildutako jeneroa alondegian gordetzen zen. Behin zaku bat arto hartu nahi izan zuten alondegitik, eta orduan izandako anekdota kontatzen du.

1.110. Irina lortzeko oztopoak (AND-058/011)

Gerra ostean, artoa irin bihurtzeko oztopoak zeuden, errotak itxita baitzeuden. Baserri batzuetan, artoa ehotzeko makinak sortu zituzten. Aizarnako baserri batetik errotara irin bila joan eta esku hutsik itzuli behar izan zutenekoa kontatzen du.

1.111. Errotak itxi eta jendea argaldu (AND-058/012)

Errotak kontrolatuta zeuden lehen. Gose handia zegoen orduan, eta jendea asko argaldu zen.

1.112. Herri-lurrak erabiltzeko aukera (AND-058/014)

Haragia kontserbatzeko, gazi-kutxa izaten zuten. Errazionamendua egon zen gerra ostean. Behin herriak erabaki zuen baserritarrei herri-lurrak erabiltzen uztea; Juan Bautistaren aitari lur zati bat tokatu zitzaion, eta han patata eta babarrun motza landatzen zituen.

1.113. Familia aurrera ateratzen (AND-058/015)

Gerra ostean, trukea ohikoa zen. 4 senide ziren beraiek, eta Juan Bautista zaharrena zen. 11 urte zituela, ama hil zitzaien. Gerora, aita berriro ezkondu eta beste alaba bat izan zuen. Anaia zaharrena zen Juan Bautista, baita etxetik kanpo lanean hasi zen lehenengoa ere. Ezkondu arte jorнала etxean ematen zuen.

1.114. Umetako jolasak, ikasgaiak eta ohiturak (AND-058/017)

Umetan etxe inguruan jolasten zuten. Orduko jolasak eta kankak gaztelaniaz izaten ziren. La Sallen ikasi zuen, eta dena gaztelaniaz ematen zuten dotrina ezik. Komunio txikia eta handia egiten zituzten lehen. Gaur egungo bizimoduari buruzko iritzia. Lehen arropa gehiagotan janzten zen eta jende gehiagok aprobetxatzen zuen.

1.115. Musikarako zaletasuna familian (AND-058/018)

Gaztetan, goizez mendira joaten ziren eta arratsaldean pilotan ibiltzen ziren. Gerora, aitaren ordean hasi zen txistua jotzen bandan. Andoainen igandero izaten zen musika. Familiatik zetorkion Juan Bautistari musikarako zaletasuna. Musika nola ikasi zuen aipatzen du.

1.116. Tipleen korua eta igandetako meza osteko musika (AND-058/019)

Koruan abestu zuen Juan Bautistak, "Tipleen koruan". Igandetako meza ondoren, bandarekin herrian zehar ibili ohi ziren pieza batzuk jotzen; tradizio hori nondik datorren azaltzen du. Garai batean udalaren erabakiak jakinarazteko, aguazila danborra hartuta irteten zen kalera eta erabakitakoa oihuka esaten zuen. Bandoa erdaraz izaten zen.

1.117. Musika eta kanpaiak Andoainen (AND-058/022)

Arratsaldetan txistua eta banda aritzen ziren musika jotzen bederatziak arte. Bezperak eta arrosarioa izaten ziren musika baino lehenago. Bezperetako kanpaiak jotzeko gogo handia izaten zuten umeek, eta kanpandorrera igotzeko zain egoten ziren ate aurrean.

1.118. Bandan jotzen zuenekoa (AND-058/023)

Bandan sartu zenean, 17 urte inguru izango zituen. Bandaren kontzertuak noiz izaten ziren aipatzen du. Bandako entseguak astean bitan izaten ziren. Juan Bautistak klarinetea jotzen zuen eta gainerako gehienek ere haizezko instrumentuak jotzen zituzten.

1.119. Elizako ohiturak betetzeko jakin beharrekoak (AND-058/024)

Garizuman ezin izaten zen musikarik jo; meza nagusia zen bitartean ere ezin izaten zen pilotan ibili; ostiraletan bijilia egin behar izaten zen; hausterre-egunean eta Ostiral Santuan barau eta bijilia egin behar izaten zen. Jendeak zuzen obeditzen zituen ohitura haiek eta bijilia egiten ez zutenek bulak erosteko aukera izaten zuten.

1.120. Aste Santuan sermolariak eta arropa dotoreak Andoainen (AND-058/025)

Andoainera sermolari onak etortzen ziren: Ostegun eta Ostiral Santuko prozesioan trajea janzten zuen jendeak; baziren batzuk ezkontzako trajea janzten zutenak, nahiz eta ezkondu zirenean baino gizenago egon. Emakumeek soineko berriak eramaten zituzten egun horretan. Emakumeak elizara orain baino tapatuago joaten ziren, eta buruko zapia janzten zuten.

1.121. Sepulturak elizaren barruan egiten zirenekoa (AND-058/026)

Lehen elizaren barruan izaten ziren sepulturak. Usurbilgo elizari buruzko kontuak.

1.122. Hiletak kategoriatan banatuta (AND-058/027)

Garai batean, hiru kategoriatako hiletak egoten ziren, eta bakoitzaren ezaugarriak aipatzen ditu. Defuntuari maitasuna eta errespetua erakusteko modua zen hileta.

1.123. Hiletatako ohiturak eta anekdotak (AND-058/029)

Baserrietatik defuntuaren hilkutxa elizara ekartzeko, herriko bideetatik ekarri behar izaten zuten bizkar gainean hartuta. Behin, elurra zenean, hilkutxa leran ekarri zutela aipatzen du. Gizon bat hil zenean, semearekin izandako anekdota kontatzen du.

1.124. Lore, landare eta fruitu biltzen (AND-059/002)

Ama hamabostean behin joaten zen Donostiara tratuarekin. Juanek eta haren anai-arrebek baserri inguruko hainbat lore eta fruitu biltzen aritzen ziren, amak Donostiara saltzera eraman zitza: kamamila, mihura, gorostia...

1.125. Gaztaina ugari (AND-059/003)

Juanen osabak gaztaina pila biltzen zituen bordara, bere morkots eta guzti, eta behar adina aletzen zuen gero, labainaz. Orain baino gaztaina gehiago izaten zen lehen.

1.126. Ama karga-karga eginda (AND-059/004)

Amak karga-karga eginda joan behar izaten zuen tranbia hartzera, eta seme-alabek laguntzen zioten tratua geltokiraino eramaten.

1.127. Esne-partitzen irristatu eta erori (AND-059/005)

Juan ama esne-partitzen laguntzen ibili zen, tranbiak greba egin zuen batean. Behin, Donostiako etxe batean, korridorea distira handiarekin zen eta Juan irristatuta erori egin zen, baina ez zitzaion batere esnerik erori.

1.128. Maisua gelan lo (AND-059/007)

Etxean zer egina baldin bazen, eskolara joan gabe geratzen zen Juan, baina eskolan ez omen zion inork konturik eskatzen horregatik. Maisuak berak ere, gelan lo hartzen omen zuen maiz, Juanen esanetan.

1.129. Apaizak baino gehiago jakin (AND-059/010)

Andoainen zein eskola ziren kontatzen du Juanek. Berez, bakarra zela dio baina ba omen zen eskolak ematen aritzen zen besterik ere. Salletar fraideek jarri zuten gero eskola Andoainen, baina Juan denbora gutxi egon zen haiekin. Eskola utzi egin zuen gero.

1.130. Kontrabandoari muga zabalik (AND-059/013)

Bilbon urte bete egin ostean Erratzun izan zen Juan soldadutza egiten, eta mendiko muga zaintzea egokitu ohi zitzaien, baina kontrabandoan zebilen jendea ez zuten geratzen. Zaintzaileen eta kontrabandisten artean tratuak egiten ziren eta ez omen zen arazo handirik izaten.

1.131. Kapitainaren laguntzailea presoarekin alde egin (AND-059/014)

Erratzun soldadutza egiten ari zela neska bat hartu omen zuten preso. Goiz batean, kapitainaren laguntzaileak harekin ospa egin zuela konturatu ziren.

1.132. Astoak erakutsi (AND-059/016)

Zazpi-zortzi urterekin pentsu bila joaten zen Juan, astoa lagun. Umea zen Juan, eta bakarrik joateak hasieran beldur pixka bat ematen bazion ere, aitak asto hura ongi irakatsia zuela azkar ikasi zuen.

1.133. Hamabost lagun etxean (AND-059/017)

Hamaika senide ziren etxean, eta gurasoak, amona eta eurekin bizi zen Añorgako lehengusinarekin, hamabost. Hamabi urte betetzerako morroi joaten omen ziren gehienak. Juanek udako hilabeteak egiten zituen euren lurrak jiratzeko mesedea egiten zien auzoaren etxean lanean, truke modura.

1.134. Hori pagotxa! (AND-059/018)

Aziendak gustura asko jaten zuen landarea da pagotxa. Egun ez da ereiten. "Hori pagotxa!" esamolde ezagunak landare honetan ditu sustraiak. Pagotxaren hazia nola eskuratzen zuten kontatzen du Juanek.

1.135. Belarra ebakitzen eta ontzen nahiko lan agindakoa (AND-059/020)

Fabrikatik atera eta askotan joan behar izaten zuen Juanek etxekoak eta etxekoak ez ziren belarrak ebakitzera. Haiek gustuko lanak zituen Juanek, eta ezer kobratu gabe, afari truke hainbat bider burutzen zituen halakoak.

1.136. Sega pikatzen eta zorrozten (AND-059/023)

Segaren orria ingude gainean jarrita pikatzen zuten, findu, baldin eta belarra ebaki behar bazuten. Garotarako sega bera erabili ohi zuten, baina lan horietarako ez zen orria fintzen ibili beharrik.

1.137. Lehen baino baserri gutxiago da gaur egun (AND-059/024)

Juan gaztea zenean berrogei baserri inguru ziren euren inguruan. Gaur ez du uste dozena erdira iritsiko direnik.

1.138. Kuadrillan igeri egiten ikasi (AND-059/028)

Erreka putzura joaten ziren sarritan auzoko haurrak, eta lagunartean ikasten zuten igerian.

1.139. Jai goizetan mezara, arratsaldetan ez (AND-059/029)

Igandetan mezara joaten ziren, goizean goiz, eta sorora lanera gero. Arratsaldetako mezara, aldiz, ume garaian bai, baina behin koskortuta, ihes egiten zioten. Nahiago izaten zuten txori-habia bila joan.

1.140. Pazkotako ur bedeinkatua (AND-059/032)

Pazko garaian ur bedeinkatu bila joan ohi ziren urtean behin elizara, eta handik botila bete ur bedeinkatu eramaten zuten etxerako. Bidea ilunabarrean egiten zuten, su emandako ardagai batek eskaintzen zien argitasunaren laguntzaz. Etxera iritsitakoan, ur bedeinkatua etxeko hainbat gelatan banatu eta ardagaia bota egiten zuten.

1.141. Amonaren gupida (AND-059/033)

Astean zehar hurrek ere lan egin behar izaten zuten etxean, agintzen zitzaaien hartan. Kunplitu ezean haserretu egiten zen aita, eta harekin broma gutxi izaten zela dio Juanek. Errespetua eta beldur pixka bat ere bazitzaaien gurasoei. Eskolan harrapaketa jostatzen ibili eta botoi baten faltan etxeratuz gero, gurasoen errieta gauza ziurra zen. Amona, ordea, bilobekin gupidatzen zen eta berak josten zizkien arropak, gurasoak ohartu baino lehen.

1.142. Fronteak hamabost egun Borda Berri inguruan (AND-059/035)

Hamabost egun inguru egin zituen fronteak Borda berri inguruan. Juanek kontatzen du bala batek ia jo zituela, egun horietako batean, eta euren lehengusu Ximonek ere eskapada ederra egin zuela.

1.143. Bonbardaketak Sorabillan (AND-059/036)

Sorabilla auzoak dezente nozitu zituen gerraren ondorioak. Eguzkitza baserriko morroia bonbardaketa baten ondorioz erail zuten.

1.144. Babarrunak ezkutatzen (AND-059/037)

Errazionamendu garaian, baserritarrek hainbat elikagai entregatu behar izaten zituzten. Borda Berrin babarrun asko egiten zuten, eta parte bat ezkutatzea erabaki zuten, ez entregatu behar izateko.

1.145. Gerraostean gosea (AND-059/038)

Gerraostean Andoaingo errota biak itxi zituzten, eta Itsasondoraino joan behar izaten zuten irina bila, trenean ekartzeko gero. Baina irina etxeratzea ez zen libre, eta trenean garraiatutakoa zaindarien harrapatuz gero, kendu egiten zuten. Ezkutuan ibili beharra zegoen. Beste aukera bat etxeko tresneriarekin artoa txikitzen saiatzea zen, baina emaitza ez zen izaten errotan lortzen zen bera.

1.146. Ogia ala harria? (AND-059/042)

Errazionamenduko ogiaz ongi akordatzeko da Juan. Harria baino gogorragoa zela dio. Hamalau urte bete arte oso jale txarra izan zen Juan. Eskerrak amak Donostiatik ogi txuria ekartzen zion tarteka.

1.147. Jaiero gurasoekin perretxiko bila (AND-059/044)

Gurasoekin hasi zen Juan perretxiko biltzen, artean hiru edo lau urte zituela. Apirila eta Gabonak bitartean igandero joaten ziren, bazkalostean. Familia osoa joaten zen, baina Juan omen zen anai-arreba guztien artean gehien ibiltzen zena, eta geroztik eutsi egin dio afizioari.

1.148. Denak dira perretxikoak (AND-059/045)

Onddoei buruz hitz egiterakoan, Juanek argitzen du onddoei "onddo" esaten diela, eta gibelurdi eta halakoei "perretxiko", baina guztiei erreferentzia egiteko garaian, perretxikoak dira denak Juanentzat.

1.149. Lehen, egun baino perretxiko gehiago (AND-059/046)

Juanek martxoan bildu izan du perretxikoa, baina normalena, apiriletik aurrera hastea izaten zen, Gabonak arte edo. Gaur egun, ordea, abuztua heldu eta sarritan alerik ere ez dela dio.

1.150. Onddoa gaztainondoen jiran (AND-059/049)

Ilbeherak mugitzen zuen onddoa, garai batean. Hala ere, gune jakinetan ateratzen zen perretxikoa, ez denean. Gaztainondoen jiran biltzen zuten gehien. Gaztaina eta haritza nahasian dauden tokian onddoa izaten da beti; hala dio Juanek.

1.151. Onddoa non bildu den ez da esaten (AND-059/050)

Familiakoei eman izan die Juanek onddo-tokien berri, baina sekula ez etxeokak ez direnei.

1.152. Azkoitiarraren apustua (AND-059/051)

Juan mendira joan zen batean, hantxe ikusi zuen lagun azkoitiar bat, perretxikorik ezin topatu, eta perretxikoa baietz kalera jaitsi apustua egina zegoena, gainera. Eremu berean zebiltzan biak, baina Juanek lortu zuen mordoxka biltzea, lagun hark ez bezala. Orduan, azkoitiarrak, herrian egina

zuen apustua ez galtzarren, mendian bertan erosi zizkion Juani onddoak, eta gainera, atun bat oparitu omen zion biharamunean.

1.153. Onddorik ikusten ez zuen enkargatua (AND-059/052)

Laborde anaien fabrikako enkargatua topatu omen zuen behin mendian, eta Juanekin joan nahi izan zuen perretxiko bila. Juanek onartu egin zion, eta hala lortu zuen enkargatu hark poltsa bat onddo biltzea, Juanek perretxikoak zeuden tokietara eramanda.

1.154. Perretxikotarako baldintza aproposak (AND-059/053)

Ilbeheraren hasiera behar du garaiak, eta hezetasuna mendiak.

1.155. Perretxiko jangarriak (AND-059/054)

Bildu ohi zituzten perretxiko jangarri guztiak zerrendatzen ditu Juanek.

1.156. 'Esnegorriak', besterik ez denean (AND-059/055)

'Esnegorri' edo 'robeiloiak' beste perretxikorik ez denean soilik jaten dituztela dio Juanek.

1.157. Nafarren hizkera oso diferentea da (AND-059/063)

Juanek dio Andoain inguruan ia ez dela hizkera aldatzen, oso eremu zabalean, gainera. Goierri aldean aldaketa apur bat sumatzen du. Urola aldean aldatzen dela dio. Bestalde, Zarautz arte nahiko antzekoa iruditzen zaio, eta ekialderantz, baita Iruneraino ere. Behin Nafarroan sartuta aldaketa sumatzen dela dio, eta gogora etorri zaizkio Erratzun soldadu egindako hamasei hilabeteak: hartara jartzea asko kosta zitzaiola dio, baina azkenerako, ulertzen zutela elkar.

1.158. Arrosarioa ez erreztatzeko martingalak (AND-060/005)

Aitona eta amona oso erlijiosoak ziren, eta beti arrosarioa erreztatzen aritzen ziren. Joxek asmatu zuen trikimailua, berak arrosarioa erreztatu behar ez izateko.

1.159. Aita Andoainera etortzera animatu zutenekoa (AND-060/007)

Aita mekanikoa zen, eta "Cervera del río Alhama"n bizi zen. Behin, andoaindar batzuek Gipuzkoara joateko animatu zuten, eta hala etorri zen 21 urterekin.

1.160. Andoaingo auzoetako mutikoen arteko borrokak (AND-060/010)

Auzoen artean ika-mika handiak egoten ziren lehen. Etxeberrieta, Kale Txiki eta Bastero ziren auzo nagusiak. Zumeakoek Bastero aldera jotzen zuten. Umeek gerrak egiten zituzten, harrika, elkarren kontra. Etxeberrietakoek gaizto-ospea zeukaten. Etxeberrietan futbol-zelaia zegoen, eta hara joaten ziren denak.

1.161. Umetako jolasak (AND-060/012)

Umetako jolasak aipatzen ditu: kanikak, gorde-gordeka, "a bule"ka, "guardias y ladrones", pilotan... Andoainen, pilotarako zaletasun handia zegoen; baina pilotari profesionalik ez zen atera.

1.162. Pilotan denek jokatu ahal izateko moduak (AND-060/014)

Pilotan aritzen zirenean, nola antolatzen ziren aipatzen du. "Txokoka" jokatzeko zuten, denek jokatu ahal izateko.

1.163. Bainatzeko leku jakinak (AND-060/018)

Lehen, Leizaran ibaira joaten ziren bainatzera. Jende asko joaten zen hara, baita Lasartetik ere. Nolanahi ere, bazeuden bainurako beste leku batzuk: kanala, besteak beste. Bainatzerakoan, ez zegoen arrisku handirik, leku jakinetan bakarrik.

1.164. Neskak alde batetik, eta mutilak bestetik (AND-060/019)

Lehen, neskak eta mutilak ez ziren elkarrekin ibiltzen. Neska gutxi joaten zen orduan bainatzera, etxean ez baitzieten uzten. Lehen, beldurra zegoen, emakumeak ahulagoak zirelakoan. Umeak zirela, "la playa de las chicas" zegoen. Lehen, bainatzeko, galtza zaharrak janzten zituzten.

1.165. Arratsaldea antolatzeko ordutegia eta ohiturak (AND-060/021)

Etxera goiz itzultzen ziren, jolasean ibili ostean. Ibaian ez ziren denbora luzez ibiltzen, bestela hoztu egiten ziren-eta. Siesta egiteko ohitura handia zeukaten lehen, kanpoan beroa egiten zuenean, etxean egon zitezen umeak.

1.166. La Salleko anaien abitua (AND-060/023)

5 urte zituela hasi zen eskolan, La Sallen. Eskola etxetik oso gertu zegoen. Gerra ostean, maisuak abituarekin ibiltzen ziren; Errepublikara garaian, ordea, abitua kenarazi egin zieten.

1.167. Soldaduekin tratua ona zeukaten (AND-060/025)

Gogoan ditu gerra garaiko soldaduak; haiekin bazkaldu izan zuten eta tratua ona zeukaten. Soldaduak tiroka aritzen ziren; "pakun" hotsa egiten zuten tiroek. Gogoan du tiro haietako batek lagun bati hankan egindako zauria.

1.168. Beldurrik gabe itzulitakoen patua (AND-060/028)

Andoaindik jende askok egin zuen alde. Gerora, asko bueltan etorri ziren. Itzulitako asko fusilatu egin zituzten; Andoainen, guztira, 18.

1.169. Osabek gerran pasa beharrekoak (AND-060/030)

Bi osaba frontean ibili ziren borrokan, eta kontzentrazio-esparruetan egon ziren; beste bat desagertu egin zen borrokan. 1942 inguruan itzuli ziren osabak esparru haietatik. Langileen Batailoietako baldintzak eta lanak aipatzen ditu.

1.170. Errazionamenduko elikagaien kontrola (AND-060/031)

Gerra ostean, Andoaingo alondegian egoten ziren errazionamendurako elikagaiak. Handik kontrolatzen zen dena; eta mikeleteek aztertzen zuten alkoholaren graduazioa.

1.171. "Tren txiki"ak salbatu zuen Andoain (AND-060/033)

"Tren txikiak" salbatu zuen Andoain. Haren bidez, hainbat elikagai ekartzen zituzten Nafarroatik, ezkutuan, ikatz azpian. Guardia Zibilak enteratu zirenean, tren-geltokira joaten hasi ziren; baina estraperloa egiten zuten lagunek ere hartu zituzten beraien martingalak.

1.172. Nafarrek Andoainen sortutako laguntasunak (AND-060/034)

"Tren txiki"an, Nafarroako jende askok egiten zuen lan. Haiek laguntasun handia sortu zuten andoaindarrekin, eta dendak ireki zituzten Andoainen.

1.173. Emakumeak tranbian kontrabandoko ogia eramaten (AND-060/037)

Andoaingo emakumeak Donostiara joaten ziren tranbian, ogi zuria eramatera: batzuetan, harrapatu egiten zituen poliziak. Garai zailak izan ziren.

1.174. Fraideek dantza eta kanta bultzatzen zuten (AND-060/040)

Dantza soltea egiten zuten. Ezpata-dantzari ibilitakoa da Joxe. Fraideen artean, Sebastian anaiak erakusten zituen dantzak. Kantatzeko balio zuenak, koruan hasi behar izaten zuen nahitaez. Gerraren ondorioz, dantza-kontuan hainbat traba izan zituzten.

1.175. Ezpata-dantzako taldeak eta emanaldiak (AND-060/041)

Ezpata-dantzari, 10-14 urte bitarteko gazteak ibiltzen ziren. Taldeak zenbatekoak izaten ziren azaltzen du. Emanaldiak non egiten zituzten.

1.176. Ezpata-dantzako jantziak eta tresnak (AND-060/042)

Ezpata-dantzako trajea nolakoa zen deskribatzen du. Ezpatak txapa finezkoak izaten ziren.

1.177. Ezpata-dantzako txistulariak (AND-060/044)

Ezpata-dantza dantzatzean, txistulariekin ibiltzen ziren. Aizpuruatarrak izaten ziren txistulariak: aita, semea eta osaba.

1.178. Lehengo mezen egutegia (AND-060/046)

Lehen, mezak noiz izaten ziren azaltzen du.

1.179. Ikastearen garrantzia (AND-060/049)

16 urterekin hasi zen lanean, bulegoko lanetan, teilerian. Etxean garrantzia ematen zioten hezkuntzari. Fraideetan zeudela, konturatzen ziren ikastea gauza ona zela; lehiakortasuna zegoen ikasleen artean.

1.180. Ingurukoen arabera, euskaraz edo erdaraz (AND-060/051)

Joxe umea zela, euskaraz egiten zen dena kalean. Berak etxean erdaraz egiten zuen; baina, kalean, euskara. Euskara galarazita egon zen arren, euskaraz egiten zuten mutil koskorren artean. Amaren aldeko aitona-amonekin ere euskaraz egiten zuen.

1.181. Zumeatarrei buruzko kanta eta Aingurasutegiren historia (AND-061/004)

Zumeatarrei ateratako kantaren letra irakurtzen du. Aingurasutegiren historiaz hitz egiten du: garai batean itsasoko aingurak egiten zituzten han eta egurrezko baltsatan eramaten zituzten Oriora ibaitik.

1.182. 4 urterekin hasi zen ikasten (AND-061/009)

4-5 urte zituela, Maindikoen eskolan hasi zen ikasten; gerora, 8 urte inguru zituela, Kontxa Arretxerekin ibili zen. Garai hartan ez zuten ikasmaterialik.

1.183. Gerran familia guztiak alde egin behar Andoaindik (AND-061/010)

12 urte zituela, Espainiako Gerra Zibila hasi zen. Orduko oroitzapenak gogoan ditu: aita ihesi joan zen Bizkaia aldera, eta gainerako familiartekoak Oriora joan ziren. Han zeuden bitartean, ama astean bitan etortzen zen Andoainera, horrela, bi oilo eramateko Oriora bidaia bakoitzean.

1.184. Mundakan zirela, Gernikako bonbardaketa ikusi zuten (AND-061/012)

Oriotik Mundakara alde egin behar izan zuten, eta lehenengo Zarautzen pasa behar izan zuten gaua. Mundakan ondo zaindu zituzten. Mundakan zirela ikusi zuten nola bonbardatzen zuten Gernika.

1.185. Gerra garaian Bilbon (AND-061/013)

Gerra garaian, Mundakatik Bilbora joan ziren. Han goizean zopa ematen zieten jaten, baina Juan Bautistak ez zuen probatu ere egiten hura.

1.186. Santandertik Frantziara sorpresa eta guzti (AND-061/015)

Gerra garaian, Bilbotik Santander aldera joan ziren ihesi. Han jatekoa bilatzeko, frutak osten saiatu zen behin anaia, baina harrapatu egin zuten. Santandertik itsasontzi bat hartu zuten Frantzia aldera joateko, eta aita ere itsasontzi hartan joatekoa zela konturatu ziren azkeneko momentuan.

1.187. Frantzian bizimodu zoriontsua (AND-061/016)

Santandertik Frantzia aldera joan ziren itsasontziz: bi gau eta bi egun eman zituzten bidaian, eta zer jateko ematen zieten aipatzen du. Frantziara iritsitakoan, ogia banatzen ari ziren batzuk, eta beraiek lotsatuta zeuden ogi hura eskatzeko. Hainbat lekutan lo egin ostean, Dijon hirira iritsi ziren. Han futbol-taldea osatu zuten.

1.188. Herrira itzulitakoan, panorama gogorra (AND-061/018)

Gerra bukatutakoan, Frantziatik itzuli ziren eta aitari ez zioten harrera ona egin lehengo lanean; beraien etxea oso hondatuta zegoen, lapurretan ibiliak ziren herriko batzuk.

1.189. Piper egin zuen eguna (AND-061/020)

Behin, La Sallen ikasten zebilela, piper egin zuen lagun batekin; etxera ez zekien noiz itzuli, eta iritsitakoan, amak La Sallera joateko agindu zion, haren bila etorriak baitziren Anaiak. Hasiera batean, uste zuen errieta egingo ziotela, baina fraide izateko ikasteko aukera eskaini zioten.

1.190. Musika ikasteko grina (AND-061/023)

Nobizio izateko ikasten ari zela, santuei buruzko liburuak irakurri beharrean, musika ikasten harrapatu zuten. Ordutik ez zioten utzi musika gehiago ikasten; baina orduan grina handiagoa sartu zitzaion musikarekiko, eta lortu zuen nola-hala musika ikastea.

1.191. Labordeko korua (AND-061/028)

Fraidetza utzi zuenean, Laborden hasi zen lanean. Koruan ibili zen orduan. Eguberrietan, gabon-kanten lehiaketa izaten zen. Juan Bautistak nesken korua sortu zuen, eta pixkanaka bera ere ikasten joan zen koruak nola zuzendu.

1.192. Aita, itzaina (AND-062/002)

Felixen aita itzaina zen. Andoaindik Villabonako paper-lantegira pasta garraiatzen zuen idiekin. Egunean bi joan-etorri egiten zituen. 4.000 kilo pasta eramaten omen zituen. Jornala, garraiatutako pisuaren arabera.

1.193. Garbitokiak (AND-062/003)

Felixen ama etxeko zereginetaz arduratzen zen. Beserriaren gainaldean zegoen garbitokia eta idientzako aska. Garbitokian, arropa jotzeko harri bakarra zegoen. Andoainen hiru garbitoki bazirela dio.

1.194. Subijana ehun-lantegia eta emakumeak (AND-062/004)

Etxeko zereginenez gain, emakume batzuk lantegietan aritzen ziren lanean. Villabonako Subijana ehun-lantegian emakumeak ere lan egiten zuten, eta familia izaten zutenean, lantegian bertan zaintzen zizkien umeak beraiek lanean zebiltzan bitartean.

1.195. Lau anaia umetan hilak (AND-062/005)

Familiari buruzko azalpenak. 12 senide ziren, baina lau anaia umetan hil ziren: bat biriketako gaitzarekin, bestea kukutxeztularekin... Felixek anaia bikia zuen, baino jaiotzean hil zen.

1.196. Hagina eta ron kopak (AND-062/007)

Garagartza baserrian morroi zela, hagineko minez joan zen Gantzarain medikuarengana. Medikuak Elizondo taberna joan eta bi ron kopa edako esan zion. Bi kopak edan, eta medikuak hagina atera zion. Ondorenean ere beste bi ron kopa edateko esan zion medikuak. Hagina atera eta odolustuta hil zen gizon bati buruz hitz egiten du.

1.197. Oiloa, indartzeko (AND-062/009)

Felixen amak 12 haur erditu zituen. Erditu ondoren indartzeko oilo puskaren bat eta oilo-salda egokiak omen dira. Appetitua egiteko, berriz, jereza. San Clemente ardo gozoa aipatzen du.

1.198. Umeak Paristik ekartzen zituzten (AND-062/011)

Lehen, haurdunaldiak eta erditzeak ezkutatu egiten zitzaizkien seme-alabei. Umea Paristik ekarria zela esaten zien. Gurasoen eta aiton-amonen esana, zuzen bete beharrekoa.

1.199. Ailorbea eta pagotxa (AND-062/014)

Pagotxa biltzen zuten. Ailorbea azaroan erein eta maiatzean ebakitzen zen.

1.200. Lasto-zuzia (AND-062/017)

Komunikatzeko modua: lasto-zuziak pizten zituzten Iturriotzen eta Igeldon. Lasto-zuzia: garia jo ondoren gelditzen den lasto sorta. Baserrietatik herrira mezara joateko, bidea argitzeko lasto-zuziak erabiltzen zituzten. Txerria hil ondoren haren bizarrak erretzeko ere erabiltzen zituzten lasto-zuziak. Lastoa txikitu eta ganaduari jateko ematen zitzaion.

1.201. Ganaduaren jatekoa (AND-062/018)

Ez zuten otarik biltzen. Baziren, ordea, ota bildu eta pentsuarekin nahasita ganaduari jaten emateko erabiltzen zutenak. Urte guztian lastoa ematen zien idiei, baita berdura pixka bat ere. Arto kozkorak ere eman ohi zizkien behiei eta idiei. Ailorbea, pagotxa, arbia eta belarrondoa.

1.202. Ereite kontuak (AND-062/020)

Artoa maiatzean ereiten da. Ailorbea eta garoa, berriz, azaroan ereiten dira. Arbia, martxoan loratzen da. Felixen amak ilargia kontuan hartzen zuen ereiteko, txerriak hiltzeko eta txorizoak egiteko garaian.

1.203. Idiak (AND-062/021)

Behiei ematen zitzaaien jateko berdinez gain, idiei pentsua, baba eta sabia ematen zien. Idiak aparte egoten ziren, ukuiluan. Felixek aitak lauak aldean ematen zien idiei jana. Gero, zazpi eta erdiak aldera gurdia kargatu eta Villabonara joaten zen idiekin.

1.204. Garagartza baserrian morroi (AND-062/022)

16 urterekin, morroi joan zen Garagartza baserrira. Bi urte egin zituen morroi. Irabazten zuen dirua gurasoei entregatzen zien. 18 urterekin morrontzatik atera eta lantegian hasi zen lanean. Baserriko lanetan ere aritzen zen lantegian lana egin eta gero.

1.205. San Estebandik eta kanpandorretik tiroak (AND-062/023)

Gerra denborako oroitzapenak. San Estebandik eta kanpandorretik tiroak botatzen zituzten. Familia guztia ukuiluan gordeta egon zeneko oroitzapenak ditu. Auzoko gizon bat idiekin gauzak garraiatzera behartu zuten soldadu "gorriek". Bueltan, Galardi baserrian egon zen gordeta gizona Felixen familiarekin. Hiru egun Galardin pasata, arto tartean ixilka joan zen etxera. Idiak Galardin gelditu ziren hainbat egunez.

1.206. Soldaduak inguruko baserrietan (AND-062/024)

Gerra denborako oroitzapenak. Soldadu batzuk inguruko baserrietan egon ziren. Aldian-aldean, idizaleek kaletik jana hartu eta baserrietan zeuden soldaduei eraman behar izaten zien. Felixen aitari tokatzen zitzaionean joaten zen soldaduei jana eramatera.

1.207. Makiak (AND-062/025)

Gogoan du makiak ibiltzen zirela mendian. Soldaduak makiei kontu hartzera joan ziren.

1.208. Morokila (AND-062/027)

Gose denboran, artoa bazuten ganbaran, baina ezin hura txikitu. Gero, Felixen aita artoa txikitzeke makina ekarri zuen, eta morokila jaten zuten. Morokila: arto txikitua eta esnea.

1.209. Gosea bai eta ez (AND-062/028)

Gerra ondorenean, artoa bai, baina irina falta izaten zen. Inguruko jendea Goizuetara joaten zen errotara irin bila. Felixen aita Itsasondora joan izan zen irin bila. Gainerakoan, baserrian beti izaten zen patata eta babarruna. Urtean txerri bat edo bi hiltzen zituzten. Olio faltan, mantekarekin moldatzen ziren. Olio kontrabandoan iristen zen.

1.210. Kontrabandoa (AND-062/029)

Tren txikiek ekartzen zuten kontrabandoko jeneroa Nafarroatik. Baba, patata, irina... kontrabandoko jeneroa.

1.211. Klean, gosea (AND-062/030)

Klean gose gehiago pasatu zuten baserrietan baino. Kaleko gizon bati buruz hitz egiten du: gose denboran, asko flakatu zen.

1.212. Auzoetako ospakizunak (AND-062/031)

Abuztuaren 3an San Estebanen festa polita izaten zen. Abuztuaren 6an, berriz, San Roken. San Juanetan, fabrikaan permisoa ematen zien hamabietan.

1.213. Xoxokako erromeria (AND-062/032)

20 urte inguru zituela, Urrietako Xoxoka auzoko erromeriara joaten zen Felix. Neska-laguntzea.

1.214. Neska-laguntzea eta baltseoa (AND-062/033)

Zenbait tokitan, neska-laguntzera joaten ziren mutilei harriak botatzen zizkien. Neskei muxu ematea eta xirriak egitea bekatu ziren. Apaizari konfesatu beharra. Xoxokako erromeria. Baltsean egitea ez zen libre.

1.215. Konfesatu beharra (AND-062/034)

Elizaren eragina. Ezpainetan muxu ematea bekatua zen. Konfesatzera joan beharra.

1.216. Kale-garbitzailea (AND-062/035)

Kale-garbitzailea mandoarekin ibiltzen zen kaleko zakarrak biltzen. Kale-garbitzaile ibilitako gizon batzuen izenak aipatzen ditu. Kale-simaurra ongarri moduan erabiltzen zen soroetan. Garai bateko Andoain nolako zen aipatzen du.

1.217. Serenoa (AND-062/038)

Serenoaren eginkizunak eta uniformeak. Gauean, serenoa atez ate joaten zen tabernak itxiko agindua ematen. Kartzela udaletxearen azpiko partean zegoen. Artzain bati pinudi bat erretzea leporatu eta kartzelara eraman zutenekoa kontatzen du.

1.218. Aguazila eta bandoa (AND-062/039)

Aguazilak, jaietako meza ondorenean, bandoa jotzen zuen. Eliza aurrean, petrilaren gainera igo, txapela kendu, tanborra jo eta bandoa botatzen zuen. Auzolanean egin beharreko bideak, lote edo suerteen zozketak... iragartzen zituen aguazilak. Bandoa euskaraz izaten zen.

1.219. Mendiko guarda eta "guarda ríos" (AND-062/041)

Guardaren egitekoa izaten zen mendia zaintzea. Ehiztariei baimenak eskatzen zizkien. Erreketako zaintzaz arduratzen zena, "guarda ríos".

1.220. Txorroskileroa euria ekarri (AND-062/043)

Txorroskileroa maiz ibiltzen zen herrian. Txorroskileroa euria ekartzen zuela esan ohi zen. Aho-soinua jotzen zuen iritsi zela abisatzeko.

1.221. Barkileroa, errifa saltzailea eta txurreroa (AND-062/044)

Festetako saltzaileak: barkileroa, errifa saltzailea, txurreroa... Herrian ba omen zen gizon bat goxokiak, oiloskoak, arkumea... zozketatzeko errifak saltzen zituena. Pepe txurreroari buruz hitz egiten du: soinujole ona omen zen.

1.222. Arrain-saltzaileak (AND-062/045)

Arrain-saltzaileak arraina karroan hartuta ibiltzen ziren kalez kale. Herriko arrain-saltzaileak izendatzen ditu.

1.223. Ederra fruta-saltzailea (AND-062/046)

Kanpotik etorritako gizon bat ibiltzen zen fruta-saltzen. Fruta "ederra" zeula esan ohi zuen, eta ezizen horrekin gelditu zen gizona. Hasieran, gurpildun karro batekin ibiltzen zen fruta saltzen. Gero, zaldia eta karro txiki batekin. Azkenaldera, automobilarekin.

1.224. Ama, barazkiak saltzera (AND-062/047)

Felixen ama herrira joan ohi zen barazkiak saltzera.

1.225. Tatulu bertsoaper saltzailea (AND-062/049)

Joxe Manuel Tatulu ibiltzen zen bertsoak kantatu eta bertsoaperak saltzen Andoainen.

1.226. Izebaren enkarguak eta "asto alperra" (AND-062/051)

Donostiako izebak enkarguren bat zuenean, auzoko palaziora deitzen zuen telefonoz. Neskameak enkargua ematen zien, eta etxekoren bat bizikletan joaten zen Donostiara. Felixen aitak bizikletari "asto alperra" esaten zion.

1.227. 9 urte zituenerako, zalgurdiarekin enkarguak egiten (AND-063/009)

Hernaniko feriara txerriak saltzera joan zen umetan, behin baino gehiagotan. 9 urte zituenerako, zalgurdiarekin ibiltzen zen hara eta hona. Enkarguak egitera gustura joaten zen Migel. 15 senidetan 8.a izanda, senide zaharragoen eta gazteagoen enkarguak izaten zituen.

1.228. Lehengo zalgurdi dotoreak (AND-063/010)

Migel askotan eta gustura ibiltzen zen zalgurdian. Zalgurdi hura nolakoa zen azaltzen du. Lehen baziren gurdi dotoreak, eta Migelek gogoan du nolakoak izaten ziren, eta nondik nora ibiltzen ziren.

1.229. Uztarriak lotzeko prozesua (AND-063/011)

Baserrian, lan asko egoten zen. Idiak erabiltzen zituzten uztarriei lotuta, soroan lan egiteko. 15 urte zituenerako, idiak berak bakarrik lotzen zekien Migelek. Uztarria nola lotzen zuten azaltzen du. Hemengo uztarriak oso landuak izaten ziren.

1.230. Idia gurdiari lotzen (AND-063/012)

Idiei uztarria lotzean, gurdiarekin nola lotzen zuten azaltzen du. Ataunen ez zuten gurdirik erabiltzen, bide txarrak baitzeuden.

1.231. Leraren ezaugarriak eta erabilerak (AND-063/013)

Lerak erabiltzen zituzten zenbait lanetarako. Leraren ezaugarriak eta egitura aipatzen ditu.

1.232. Gurdiaren atalak (AND-063/014)

Gurdiaren atalak aipatzen ditu: pertikak, gorputza, kaxak, tantaia, ezpata...

1.233. Etxe txikiegia horrenbeste lagun eta lanetarako (AND-063/015)

Belarretan asko ibilitakoak dira beraiek etxean. Ganadu dexente zuten garai hartarako. Ganbaran toki gutxi zeukaten, baina moldatzen ziren. 25 urtera arte aritu zen baserrian lanean.

1.234. Ur bila joan behar zuteneko komeriak (AND-063/016)

Umetan jolas gutxi egin zuen. Ur bila iturrira joatean, baldeak etxera nola ekartzen zituzten azaltzen du. Orduko ontziak. Asko zirenez, askotan ekarri behar izaten zuten ura. Ura zertarako erabiltzen zuten.

1.235. Dutxarik ez zeneko garaia (AND-063/017)

Norbere burua garbitzeko, ez zuten dutxarik. Nola-hala moldatzen ziren, zikintzen zirenean garbitzeko. Dutxa jarri zutenean, ohiturak aldatu ziren.

1.236. Oilasko zikiratuen salmenta (AND-063/018)

Oilaskoak zikiratu egiten zituzten, kapoiak saltzeko. Izan ere, etxeko nagusiari errenta ordaintzean, kapoiak ematen zitzaizkionez, Migelen amak kapoien salmenta antolatu zuen. Oilaskoak nola zikiratzen ziren azaltzen du: ebakia egin, zauria josi, baratzuria sartu barrena desinfektatzeko...

1.237. Amaren opari txikiekin, pozez zorutzen (AND-063/019)

Eguberrietan, amak opari txikiak ekartzen zizkien; eta beraiei ilusio izugarria egiten zien horrek, poz-pozik egoten ziren. Migelek gogoan du behin eskopeta txiki bat oparitu zioteneko.

1.238. Gabon gaueko kantak baserriz baserri (AND-063/020)

Lehenago Gabonak beste era batekoak ziren. Egunez kantu gutxi entzuten zen. Gauez, ordea, baserrietan, etxez etxe ibiltzen ziren musika jotzen eta kantuan; horrela, xox batzuk atera, eta majo jaten zuten. Hurrengo goizean, baina, seietarako mezara joaten ziren. Jendeak harrera ona egiten zieten baserrietan. Erljioari esker, diziplina izaten zutela uste du Migelek.

1.239. Gabonetako afariko menua (AND-063/022)

Gabonetan, bisigua eta turroia jaten zuten etxean. Behin, bisiguari osagairen bat falta zitzaionekoa gogoan du. Helduek kafea eta kopa edaten zuten.

1.240. Gabonetako kantu-ibilbidea (AND-063/023)

Gabon gauean, afaldu ostean, kantura ateratzen ziren, baserriz baserri. Orduko ibilbidea gogoan du; baserrien izenak aipatzen ditu.

1.241. Eguberri eguneko ohiturak (AND-063/025)

Eguberri egunean, goizeko seietan mezara joaten ziren, gaua baserriz baserri kantuan eman ostean. Gero, lotara joaten ziren, eta esnatzerakoan, erdi erotuta sentitzen zen, horrenbeste trikiti entzun ostean. Bazkaldu, eta festara joaten ziren. Hirubiden egiten ziren bilerak, eta non zegoen azaltzen du. Oialumera ere joaten ziren.

1.242. Inuxente eguneko giroa (AND-063/026)

Gabonetan, Inuxente eguna ospatzen zuten. Kalekoek inuxentekeria ugari egiten zituzten; baina beraiek, baserrian, ez zuten giro hori horrenbeste nabaritzen. Behin aitona egiten zuten inuxentekeria kontatzen du.

1.243. Santa Agedako ohitura berreskuratu zutenak (AND-063/028)

Santa Agedatan, baserriz baserri ibili ziren urte batean, kintoak zirelako. Beraiek berreskuratu zuten ohitura hura, urte askoan utzita egon zena.

1.244. Errege eguneko ilusioa eta ohiturak (AND-063/029)

Errege egunean, zapata jartzen zuten, ilusioz beteta. Opariren bat izaten zuten orduan. Lehen, Olentzero ez zen ospatzen.

1.245. Kanpai motak (AND-063/034)

Gauetz, goizeko seiak aldera, ezkilak jotzen zituzten. Inor hiltzen zenean, agonia-kanpaiak jotzen zituzten. Eguerdian, 12etan, kanpaiak jotzen zituzten.

1.246. Erreguteetako ohiturak (AND-063/036)

Erreguteei buruz hitz egiten du: lehorra zenean, euria egin zezan egiten ziren; kanpaiak jotzen ziren orduan. Orduko kankak gogoan ditu.

1.247. Sua zeneko kanpaiak (AND-063/037)

Sua zenean, kanpaiak jotzen ziren. Gogoan du haien hotsa. Alarma sortzen zuen horrek, eta denak sua nondik zetorren begiratzen hasten zen.

1.248. Aste Santuko zeremonia Andoainen (AND-063/040)

Aste Santuko prozesioan, Andoaingo bandak jotzen zuen hileta-martxa, eta horrek errespetua sartzen zuen. Orduan, Guardia Zibilek galako janzkera eramaten zuten, fusilak behera begira jarrita. Zeremonia serioa zen hura. Emakumeak atzean joaten ziren lehen.

1.249. Lehen, emakumerik ez tabernetan (AND-063/041)

Emakumeak lehen ez ziren sartzen tabernetan. Mutilei, ordea, gizarteak baimena ematen zien tabernetan sartzeko, 14-15 urte zituztenez geroztik.

1.250. Tabakoaren bilakaera emakumeen artean (AND-063/042)

Beraien garaian, emakumeek ez zuten zigarrorik erretzen; jauntxoek emazteek bakarrik. Lehenagoko garaietan, ordea, Migelen amonak pipa erretzen omen zuen. Tabakoa etxean egiten zuten; zintzilik ganbaran lehortu; eta gero saldu.

1.251. Hezkuntza kontuak (AND-064/001)

Umetan, mojen eskolan ibili zen eskolan. Arreba zaharragoek eramaten zuten eskolara. Handik, La Salle eskolara pasatu zen; 14 urtera arte ibili zen bertan. 14 urterekin, Labordeneko lantegian sartu zen mekanikako "aprendiz" moduan. Bederatzi urte egin zituen lantegi horretan. Beste lantegi batean ere aritu zen lanean.

1.252. La Sallen eta Laborden ibilia (AND-064/003)

La Sallen eta Laborden ibili zen Migel. La Sallen eta Laborden ibiltzen zirenak herriko "flor y nata" zirela dio, baina bera ez omen zen "flor y nata". Labordeneko bulegarien eta lantegiko jendearen artean bereizketa egiten du.

1.253. Labordeneko koru, txistulari eta dantzariak (AND-064/005)

Laborde lantegian "kultura asko sartu" zutela dio Migelek. Laber eta Lorea koruak, txistulariak eta dantza taldea zituen. Bi-hiru urtean Gabonetan kantuan atera zen Migel diru-eskean.

1.254. Laborde: kultura mekanika baino gehiago (AND-064/006)

Laborde lantegiari buruzko azalpenak. Migelen ustez kultura gehiago erakusten zen mekanika baino. Mekanika gehiegi erakutsiz gero, langileek lantegitik alde egiten zutela dio. Laborden jornal baxuak egoten ziren. "Ciencias naturales". Animaliak diseatzen irakasten zuten. Behiak sariketetara aurkezten zituzten.

1.255. Industriaren bilakaera (AND-064/008)

Laborde lantegiari buruz hitz egiten du. 500 langile zeuden lantegian, baina makinaria zaharkitua gelditu zen. Laminazioa jarri zuten, baina asko kostatu zitzaion hura martxan jartzea.

1.256. Zailtasunak Laborde lantegian (AND-064/010)

Laborde lantegiari buruz hitz egiten du. Laminazioa jartzeko saiakeran, galera handia izan zuten. Lantegia langileei oparitu ziela dio.

1.257. 100 kiloko irin-zakuak, garo azpian (AND-064/011)

Etxean 100 kiloko irin-zakuak gordeta edukitzen zituzten. Hernanin bazen "harinera" bat, eta hango laberako harria Nafarroatik eramaten zuten. Harri tartean, 100 kiloko irin-zakuak ekartzen zituzten. Txoferrak abisua jasotzen bazuen kontrolen bat zegoela, irin-zakuak Upategin gordetzen zituzten garo azpian.

1.258. Osaba bat gerran hil (AND-064/012)

Migelen bost osaba gerran ibili ziren. Haietan gazteena, errepublikano-abertzaleekin boluntario joan zen eta Anboto aldean hil zuten. Beste bi osaba Donostia defenditzen ibili ziren. Eta beste bi osaba, berriz, etxean geratu ziren baino frankistek eraman zituzten gero.

1.259. "Gora Euskadi, Jaungoikoa eta lege zaharra" (AND-064/014)

Gerraosteko giroaz hitz egiten du. Igandetan, La Salleko apaizekin mezara joaten ziren. Etxera bueltan, errepidean idatzita ikusi zuen: "Gora Euskadi, Jaungoikoa eta lege zaharra". Arrebak gerrari buruz esaten zituenak.

1.260. Buruntzako gurutze puntan ikurrina (AND-064/015)

15 urte inguru zituela, San Roke egun batez Urnietako bi lehengusurekin Buruntzara joan zeneko pasadizoa. Buruntzako gurutzearen puntan ikurrina zegoen jarrita. Ikurrina debekatuta zegoen orduan. Guardia zibilek agindua eman zuten ikurrina kentzeko.

1.261. Ikurrina eta propaganda politikoa (AND-064/016)

Frankismo garaia du hizpide. Ikurrina eta propaganda politikoa ezkutuan gorde beharra. EGI eta ETArekin propagandak.

1.262. Euskara eskolan eta elizan (AND-064/017)

Mojen eskolan, erdaraz egiten zuten mojak euskaldunak izan arren. Mojek zerbait galdetu eta erdaraz ez bazekiten, "kriston egurra" jasotzen zuten. Hitz bat bera ere ezin zuten egin euskaraz. La Sallen ere maisuek ez zuten euskaraz egiten. La Salleko dotrina eta elizakoa euskaraz ikasteko aukera zegoen. 10 lagunek bakarrik egin zuten komunio handia euskaraz.

1.263. Kantu frankistak, eskolan (AND-064/018)

Mojen eskolan, 'Cara al Sol' eta 'Viva España' kantatzen zuten.

1.264. Agur faszista egiteari utzi (AND-064/019)

La Salle eskolan, eskolako zuzendaria gelan sartzen zenean eskuineko besoa altxatu (agur faszista) eta "Ave Maria Purísima" esan behar izaten zuten. Zuzendari berriak, ordea, agindua eman zuen besoa gehiago ez altxatzeko.

1.265. Euzkadi irratia (AND-064/020)

Iluntzetan, anaia zaharrenaren etxera joaten zen Euzkadi irratia entzutera. Venezuelatik emititzen zuten irratia.

1.266. 1966an Urbian bizitakoa (AND-064/021)

Diktadura garaiko kontuak. Mixel Labegerieren kanta hasi ziren modan jartzen. Urriko aurreneko igandean mendizaleen eguna ospatzen zen Urbian. Euskal giroko festa. Euskal kanta abestu zituzten. Hernaniko gudari batek altxatu zuen ikurrina. Jendeak ikurrinak atera zituen.

1.267. Euskara elizan (AND-064/022)

Diktadura garaian, euskaraz egitea debekatuta zegoen. Elizan ere latina zen nagusi: Aita Gurea, arrosarioa eta sermoi batzuk izaten ziren euskaraz.

1.268. Erretoreari hika egiten zion laguna (AND-064/025)

Ikaskide gehienak euskaldunak ziren Labordenean. Lagun artean euskara ikasi zuen mutil bati buruz hitz egiten du: mutiko hark erretoreari ere hika egiten zion (ikasten ari baitzen). Besteek, ordea, apaizari berorika hitz egiten behar izaten zien.

1.269. Erretoreari, medikuari eta gurasoei berorika (AND-064/026)

Herriko erretoreari eta medikuari berorika hitz egin behar izaten zitzairen. Apaizarekin gurutzatuz gero, agurtzerakoan txapela altxa behar izaten zen. Migelek gurasoei berorika hitz egiten zien.

1.270. Hika, lagun artean eta anai-arrebekin (AND-064/027)

Anai-arreben artean hika hitz egiten zuten. Gurasoei, berriz, berorika. Lagun artean ere hika egiten zuten. Koinatu-koinatei, berriz, zuka. Soldadutzako pasadizo bat kontatzen du.

1.271. Txori-habiak ateratzen eta perretxikotan (AND-064/030)

Pareta zuloetatik txori-habiak ateratzen ibiltzen zen. Txoriei amorrua zien, gari soroetan kalteak eragiten zituztelako. Perretxikotara ere joaten zen lehengusuekin.

1.272. Umetako gaiztakeriak (AND-064/031)

Eskolatik etxerakoan, ahuntz bati harrika aritzen ziren mutikoak. Errietak. Olamiako ziznei ere harri botatzen ibiltzen ziren.

1.273. Eskolatik ateratakoan, pilotan (AND-064/032)

Eskolatik ateratakoan, pilotan jolasean gelditzen zen Migel. Aitonak auzoko beste mutikoak etxera noiz joaten ziren ondo jakiten zuen. Errietak. Etxeko neskek formalago portatu behar izaten zuten. Nesken eta mutil arteko desberdintasuna heziketan.

1.274. Soldaduek etxea miatu (AND-064/034)

Gerra hasierako kontuak. Frontea Buruntzan egon zeneko azalpenak. Bonbardeo edo tiroak sumatzen zituztenean, etxeko sagardotegian gordetzen ziren. Soldadu batek etxea miatu zueneko kontakten du. Idiekin bi bandoetako soldaduentzako materiala garraiatzen ibili zen Migelen osaba bat.

1.275. Bulanotxiki baserriaren egitura (AND-065/002)

Bulanotxiki baserrian jaio zen, eta haren egitura nolakoa zen azaltzen du: ukuilua, sukaldea... Etxean ez zuten urik.

1.276. Urnietara ebanjelioak zirenean (AND-065/011)

Urnietan, ebanjelioak izaten ziren, eta hara joaten ziren osabarekin. Oso gustura joaten ziren hara, osabak gutiziak erosten baitzizkien.

1.277. Mezara sartzeko, abarkak kendu behar (AND-065/012)

Lehen, asko joaten ziren mezara, nahitaez. Mezara oinez joaten ziren; eta, sartzeko, abarkak kendu eta zapatak jantzi behar izaten zituzten neskek. Abarkak non uzten zituzten azaltzen du.

1.278. Mezara goizean goiz (AND-065/014)

Elizara sartzeko, emakumeek buruko zapia eraman behar izaten zuten. Goizean goiz joaten ziren mezara, eta argia eraman behar izaten zuten. Ilunpetan, beldurra izaten zuten, "Sakamantekas" azalduko ote zen.

1.279. San Juanetan, Sorabillako ermitara (AND-065/019)

Sorabillako ermitara gutxitan joaten ziren. San Juanetan, San Juan sagarra eta San Juan lorea eramaten zituzten bedeinkatzeko. Baina, gainerakoan, ez ziren hara joaten.

1.280. Oilasko-biltzaileen ohitura (AND-065/021)

Oilasko-biltzaileen ohitura azaltzen du: kuadrillak oilaskoak bildu, eta haiekin zer egiten zuten azaltzen du.

1.281. Soroak bedeinkatzeko erramuak (AND-065/031)

Soroetan gurutzeak jartzen ziren, soroak bedeinkatzeko. Erramua bedeinkatu, zurtoinean gurutzea jarri, eta soro-bazterretan jartzen zituzten Asentzio egunean. Kredoa errezatzen zuten orduan.

1.282. Norbait hiltzean, baratxuria jarri (AND-065/036)

Lehen, norbait hiltzean, auzoen laguntza izaten zuten. Baratxuria jartzen zuten, gorpuaren usaina ez nabaritzeko; hildakoari trajea jantzi...

1.283. Intsusaran baserria I (AND-066/002)

Terreno aldapatsuak zituen, baina baserri handia zen Intsusaran. Komunik ez zuen. Baserriaren egitura eta banaketa azaltzen ditu Maria Angelesek.

1.284. Baserri ona izateko baldintzak (AND-066/003)

Dozena erdi bat behi eta idi parek izan behar zituen baserriak gutxienez, baserri ona kontsideratzeko. Terrenoak ere.

1.285. Aita eta amaren lanak (AND-066/004)

Aitak mendian egiten zuen lan, eta amak, etxeko lan guztiak egiten zituen.

1.286. Zoruari argizaria ematen (AND-066/005)

Intsusaraneko geletako zoruari argizaria ematen aritzen ziren Maria Angeles, haren ahizpak eta ama. Gizonezkoak ez ziren garbiketa eta sukaldeko lanetan aritzen.

1.287. Garbitasunaren usaina (AND-066/006)

Maria Angelesen amak sukaldeko ekonomikaren txapa garbi-garbi edukitzen zuen, produktu berezi batekin garbitzen baitzuen. Leku garbiak berez izaten du usain ona, baina hala ere, menda belarrarekin erratzak egiten zituzten Intsusaranen, eta ohe azpiak errazten zituzten haiekin.

1.288. Lera jostailu (AND-066/010)

Maria Angelesek 10 urte zituela ezagutu zuen irratia etxean. Anai-arrebekin zein jostaketa ibiltzen zituen kontatzen du. Jostailuak eurak sortzen eta egiten ere ibili ohi ziren. Lera bat egina zutela gogoan du eta baita untxientzat kardabera etxeratzen ibili ohi zirela ere. Belar hori untxientzat txarra zen, baina.

1.289. Oparirik ez (AND-066/011)

Urtebetetzerik ez zuten ospatzen, eta errege egunean, bizkotxoa eta laranjak eramaten zizkien amak; ez zuten beste oparirik izaten.

1.290. Astegunetako otorduak (AND-066/013)

Astegunetako otorduak: haragi zopa, babarrunak edo garbantzuak eta haragi egosia. Postretarako fruta, baldin bazen. Meriendatzeko ogia eta txokolatea. Ogi zuririk eta oliorik ez zen izaten.

1.291. Abereen zaintzak eta jolasak (AND-066/015)

Txerriak ezkur jatera eramaten zituztenean kakalardoekin jostaketan aritzen ziren. Behiak zaintzera joandakoan, aldiz, saltzailearen eta eroslearen paperean aritzen ziren jostatzen, lurrez egindako jeneroarekin.

1.292. Marro-marroka jolasa (AND-066/017)

Marro-marroka esaten zioten jolasa zertan zetzan kontatzen du.

1.293. "Tabak" edo tortolosak (AND-066/018)

Jolas zerrenda baten ostean "tabak" edo tortolosak aipatzen ditu Maria Angelesek. Gazteleraz jostatzen ziren haiekin.

1.294. Sasierrotako eskola I (AND-066/020)

Sasierrota esaten zioten eskola partikularrean ibili zen Maria Angeles. Ezin izaten zuten beti joan eskolara, etxean eginbeharrak izaten baitzituzten. Oso etxe zaharra zen Sasierrota. Gazteleraz ikasten zituzten ikasgai gehienak, dotrina ezik; hura euskaraz.

1.295. Sasierrotako eskola II (AND-066/021)

Adin desberdinetako ikasleak ziren eskolan, eta guztiak gela berean, baina adinaren arabera taldekatuta. Jolas-garairik ez zuten izaten.

1.296. Neskek galtzarik ez (AND-066/025)

Neskek ezin zuten galtzarik jantzi. Garotara joateko, ordea, Maria Angelesek dio aitak galtzak janzteko esaten ziela, zangoak urratuta bukatzen baitzuten halako lanak burutu eta gero.

1.297. Arropa berria (AND-066/026)

Santa Krutzetan zapatak estreinatu ohi zituzten, Tolosan erosiak. Aste Santuko prozesiotan ateratzeko ere soineko eta arropa berriak janztea ohikoa omen zen.

1.298. Helduen arropak eta jantzi-ohiturak (AND-066/027)

Behin adin batetik gora, kolore ilunak nagusitzen omen ziren emakumeen janzkeran. Gizonezkoek galtza urdinak janzten zituzten astean. Igandetan alkandora txuria, lepo motzekoa, txalekoa, eta galtza grisak. Txapela ere maiz erabiltzen zuten gizonezkoek.

1.299. Buruan txapela edo zapia (AND-066/028)

Behin koskortutakoan hasten ziren mutilak txapela janzten. Neskak, aldiz, lanean, buruko zapia jantzita ibiltzen ziren.

1.300. Amaren janzkera (AND-066/029)

Amak arropa iluna eta ilea mototsean bildua ibiltzen zuen. Aurreko mantala janzten zuen gehienetan. Oinetan ezpartinak eta abarakak.

1.301. Koltxoiak eta oheak (AND-066/031)

Maria Angelesek ezkondu eta gero ere artilezko koltxoiak jarri zituen etxean. Bi urtean behin berritzen zituen. Koltxoiaren azpian lastaira izaten zen; arto orriekin lehen, eta malgukiduna gero.

1.302. Jaioberriak lehen bailehen bataiatu (AND-066/033)

Haurrak ahalik eta azkarren bataiatzeko joera izaten zen, zer gerta ere.

1.303. Erditzea eta ondorena (AND-066/034)

Urte berean izan zituen Maria Angelesek lehenik bikiak, urtarrilan, eta semea gero, abenduan. Emaginak lagundu zion erditzen. Semea etxean izan zuen. Asko aldatu dira garai batetik hona erditu eta geroko indarberritzeko erak.

1.304. Euskara gure oinarria (AND-066/037)

Euskara da Maria Angelesen hizkuntza.

1.305. Anai-arreben artean hika (AND-066/038)

Anai-arreben artean hika hitz egin izan dute beti. Aitari eta amari zuka egiten zieten; aitona-amonei berorika egin behar izan zieten etxean, medikuari eta apaizari bezalaxe.

1.306. Gurasoak nongoak ziren (AND-067/002)

Aita Andoaingoa zuen, eta ama Villabonakoa. Aitaren aita Bergaratik etorri zen Andoaina lanera Subijana lantegira. Amaren aita iturgina zen Villabonan. Ama neskame ibili zen ezkondu zen arte: Andoaingo Fondanean lan egin zuen bitartean hango giroa nolakoa zen azaltzen du.

1.307. Fondaneko anekdotak (AND-067/003)

Fondanean izandako anekdotak kontatzen ditu: Orbegozok ilea xeblebre moztu zuenekoa eta emakumez mozorrotu zenekoa. Ohitura handia zegoen egunero parrandan ateratzeko; eta, norbait ateratzen ez zenean, zer egiten zuten kontatzen du.

1.308. Bizartegiaren garrantzia familiako ekonomian (AND-067/004)

Familian bizartegia zeukaten: aita bizargina zen; eta amak, ezkondu zenean, ile-apaintzaile izateko ikasi zuen. Gerran, aita kartzelan sartu zuten eta heriotza-zigorra izan zuen; garai hartan amaren ile-apaindegiko lanari esker atera zen familia aurrera. Aitak Donostian ikasi zuen lanbidea, eta hara joateko bizikleta hartzen zuen.

1.309. Bizartegiaren azpian taberna (AND-067/005)

Joxeba bere familiaren bizartegian egoten zen askotan. Bizartegiaren azpian taberna zegoen, eta aita hara jaisten zen maiz; bitarte horretan bezeroren bat etortzen bazen, Joxebak hankarekin jotzen zuen lurra eta aita berehala igotzen zen. Aitak laguntzaile bat zuen bizartegian.

1.310. Bizartegiko lanerako bokazio gutxi (AND-067/007)

Bizartegian Joxeba oso nekatuta egoten zen fabrian ere lan egiten baitzuen; batzuetan erdi mozkor joaten zen etxera lanean basoerdiak hartuta, ez

zegoen alkohola edatera ohituta eta. Azkenean, bizartegiko lana uztea erabaki zuen.

1.311. Bizartegiko ordutegia (AND-067/008)

Bizartegiko ordutegiari buruz hitz egiten du. Arratsaldeko 7etan beti izaten zen afaltzeko tarte.

1.312. Bizartegiaren aurrean gasolindegia zeukaten (AND-067/012)

Amaren ile-apaindegia aitaren bizartegiaren ondoan zegoen. Bizartegiaren aurrean gasolindegia ere bazeukaten, baina gerran kendu egin zieten negozio hura. Gasolina botatzeko makina nolakoa zen aipatzen du.

1.313. Gerra hasi, aitik alde egin eta gasolindegia galdu (AND-067/014)

Gerra etorri zenean, aitik alde egin zuen; familia Olazabalgo baserrira joan zen. Andoaingo zubia bota egin zuten dinamitarekin eta orduko oroitzapenak kontatzen ditu. Beraien gasolindegiko gasolina kendu eta beste gasolindegikoei eman zieten.

1.314. Gerra garaian emakumeei jarritako zigorrak (AND-067/015)

Ama ia fusilatu egin zuten. Emakumeei ilea mozten zieten umiliatzeko. Emakume haien erruak zein ziren aipatzen du. Amari ez zioten ilea moztu, baina nahi izan zuten.

1.315. Bizartegia kendu eta kiosko/posta bihurtu (AND-067/016)

Bizartegia itxi egin zieten gerra garaian. Horren orde, egunkariak saltzeko eta armadaren gutunak jasotzeko erabiltzen zuten lokala, eta hilabete bat egon zen horrela. Bizartegia kendu zieteneko eguna gogoratzen du.

1.316. Aita Andoaina itzultzera atrebitu eta kartzelan bukatu zuenekoa (AND-067/017)

1937-38 inguruan, aita Andoaina itzuli zen. Orduan bodegan hasi zen lanean, eta ama ere sukaldari egon zen han. Gerran espioia zegoen Andoainen, eta harekin aitik tratua izan zuen, nahiz eta amak kontuz ibiltzeko esaten zion. Azkenean, aita udaletxe azpiko kartzelara eraman zuten guardia zibilek: hiru hilabete egin zituen kartzela hartan, eta gerora 29 hilabeterako eraman zuten Ondarretako kartzelara. Bi epaiketa izan zituen denbora hartan.

1.317. Fusilatu zituztenen istorio tristeak (AND-067/021)

Soldaduak hilabetez eduki zituzten etxean, baina bitarte horretan ez zuten alde egiterik pentsatu. Andoainen fusilatu zituzten gizon batzuei buruz hitz egiten du: ez zuten errurik eta horregatik beldurrik ere ez; baina horrek ez zien bizia salbatu.

1.318. Bederatzi urte zituela kartzelara eraman zutenekoa (AND-067/023)

Bederatzi urte zituela, ordu eta erdi kartzelan eman zuen Joxebak. Delitua? UHP idatzi izana. Kartzelan sartu zuteneko inpresioak gogoan ditu oraindik:

kirats izugarria zegoen, beste bi lagunekin batera egon zen, inoiz baino gehiago errezatu zuen orduan... Kartzelan zeudela jakin zuenean amak, alkatearengana joan zen. Azkenean, libre utzi zituzten.

1.319. Umetako jolasak (AND-067/024)

Umetan aisialdian zer jolasetan ibiltzen ziren aipatzen du: kanikatan, zibarekin, korrika albiraka... Nola moldatzen ziren kontatzen du. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean zenbaitetan.

1.320. Auzoen arteko gerrak (AND-067/028)

Auzokoen arteko gerrak egiten zituztenean, batzuk besteen aurka elkartzen ziren. Tiragoma ezagutu zutenekoa kontatzen du. Trenbideko harriak botatzen zituzten tiragomarekin, eta behin mutil bati eman zioten; bere onera etorri arte, ezkutatu egin zuten.

1.321. Eskola publikoko maisuaren "objektibotasuna" (AND-067/031)

La Sallen ikasteko ordaindu egin behar izaten zen, eta hartarako dirurik ez zegoenez, eskola publikora joan zen ikastera Joxeba. Eskola hartan maisuak gorrotoa hartu zien Joxebari eta bere lehengusuari: zer eginarazten zieten aipatzen du.

1.322. Sagarrak ostu eta loinak harrapatu (AND-067/033)

Aisialdian, mendira joaten zen Etxeberrietakoekin sagarrak ostera. Estoldaren ondoan, loinak harrapatu eta mojari eman zizkionekoa kontatzen du. Loinak nola harrapatzen zituen azaltzen du.

1.323. Ogia eta esnea ez zitzaien falta izan (AND-067/034)

Ogi gutxi zen garaian, Joxebaren etxean ez zen falta izan ogirik. 10 urte inguru zituela, egunero marmita hartuta joaten zen esnea ekartzera: 10-11 litro ekartzen zituen. Ekarritako esnea hiru familiaren artean banatzen zuten.

1.324. Amak garrantzia ematen zion eskolara joateri (AND-068/002)

6 urterekin hasi zen eskolan: aurrena Andoaingo ospitalean, eta geroago eskola nazionalean. Mokoroa izan zuen maisu urtebetez: klase haiek herriak ordaintzen zituen. 1933an La Salle iritsi zen herrira, eta han ikasi zuen 3 urtez Txominek. 13 urterekin lanean hasi zen. Eskolan gustura ibiltzen zen eta amak garrantzi handia ematen zion eskolara joateari.

1.325. Gerran Buruntzatik kalera jaitsi beharra (AND-068/007)

Buruntzako frontean Gipuzkoa osoko gizonak aritu ziren borrokan. Gerra garaian, Buruntzako baserria utzi eta kalera jaitsi ziren behiak hartuta.

1.326. Gerraren bilakaera Espainian (AND-068/009)

Beldurra zegoen gerra garaian. Anaia frontera eramán zuten, eta gutunak idazten zituen handik. Gerraren bilakaera nola izan zen azaltzen ditu.

1.327. Gerran fabrikak militarizatuta Andoainen (AND-068/011)

Jende askok alde egin zuen Andoaindik gerra garaian, Bizkaia aldera gehienek. Bitartean, Andoainen lana bazegoen, fabrikak militarizatu egin baitzituzten. Laborden lan handia egon zen garai hartan.

1.328. Gerraostean, soldadutza eta gosea (AND-068/012)

Soldadutzan hiru urte pasa zituen: Burgosen egon zen bi urtean eta hirugarrena Donostian. Soldadutzan kotxeak konpontzen aritzen ziren. Gerra garaian ez zuten goserik pasa, baina gerra bukatutakoan bai. Baserrian nola-hala moldatzen ziren olio eta oinarritzko produktuak lortzeko. Trenari esker iristen ziren zenbait gauza Nafarroatik.

1.329. Guardia zibila tren txikiaren zain (AND-068/013)

Beraiek baserrian nahiko ondo moldatzen ziren, eta ez zuten tren txikiko jenerorik hartu behar izaten. Guardia zibilak adi egoten ziren tren txikia iristen zenean.

1.330. Janaria apreziatzeko onena gosea (AND-068/014)

Gerra ostean, taloa jaten zuten beti, batzuetan esnearekin. Gosea zegoenez, gehiago apreziatzen zuten jaten zutena.

1.331. Goseari aurre egiteko pribilegioa (AND-068/015)

Etxean babarrunak jaten zituzten egunero. Gaztainak ere jaten zituzten. Gose handirik ez zuten pasa beraiek, baina badago gosez hil zenik.

1.332. Baserriko abereak eta baserrien arteko elkartasuna (AND-068/020)

Baserrian lan asko izaten zuten: 5 behi inguru zituzten, txerriak... Txerria hiltzean, auzoko baserrien artean banatzen zen.

1.333. Ur bila eta arropa garbitzera iturrira (AND-068/025)

Ura iturritik ekartzen zuten astoarekin. Ura baldetan ekartzen zuten. Iturria non zegoen azaltzen du. Arropa iturrian garbitzen zuten emakumeek.

1.334. "Udara jun eta negua heldu da" (AND-069/002)

Jaioteguna. 1937ko urriaren 28an jaioa da, San Simon de Juda: "Udara jun eta negua heldu da". Antzizu baserrian jaioa da; ondoko etxera ezkondu zen.

1.335. Aita Andoiangoa; ama Asteasun jaioa (AND-069/004)

Aita Andoiangoa zuen, Antzizukoa, eta ama Asteasukoa, baina Andoainera joana 12 urterekin, San Esteban bailarako Urresti baserrira. Maizterrak ziren. Antzizura ezkondu zen ama.

1.336. Aita txerriak hiltzen baserriz baserri (AND-069/005)

Aita-eta 10 senide ziren, eta 18 urte zituela aita hil zitzaien. Aitaren segida hartu, eta txerriak hiltzen hasi zen. Odolkiak ematen zizkioten etxerako, eta umetan odolki nazkatu egin zen Mari Karmen.

1.337. Txerria noiz hil (AND-069/006)

Txerria hiltzeko garaia noiz zen. Martxoa baino lehen izan behar du, txerrikiak gazitzeko, gazi-kutxan. Eguraldi epelarekin gatza urtu egiten baita.

1.338. Txerri-hiltzeekin sufritzen (AND-069/007)

Txerria hil behar zutenean gaizki pasatzen zuen. Ez zuen lorik egiten, eta gero ez zuen nahi izaten txerri-hiltzean egoterik. Aitak esaten ziona, bere jarrera ulertu ezinik. Oraindik orain ezin du. Hori bai, beti laguntzen zuen odolkiak egiten.

1.339. Odolkiak nola egin (AND-069/008)

Txerria hil aurreko lanak. Gazi-kutxa mandiora eramane, tipula txikitu... Odolkiak egiteko prozesua. Anis haziak labeaz erretzen zituzten. Manteka nola prestatzen zuten. Errezeta. Inork ez zuen probatu nahi, gatzaz ondo zeuden jakiteko.

1.340. Odolkiak nola egosi (AND-069/009)

Odolkiak nola egosi. Zumea erabiltzen zuten odolkiak lapikoan sartzeko. Ez zituzten odolkiak zulatzen, eginda zeuden jakiteko.

1.341. Hesteak betetzeko makina; txorizoak eta txerrikiak (AND-069/010)

Hesteak nola betetzen zituzten, makinan. Txorizoak egiteko ere erabiltzen zuten. Txorizoak egiteko osagaiak. Txerriaren zatiak. Manteka gorde egiten zuten, baita urde xigortuaren grasa ere, patatak frijitzeko.

1.342. Txerrikiak; solomoa, gazi kutxan (AND-069/011)

Txerria nola zatitzen zuten. Txorizo gaiak. Saihetsa, urdaia... Solomoa gatzetan izaten uzten, zortzi bat egunean. Baratxuria ere jartzen zioten.

1.343. Gizonen eta emakumeen lanak txerri-hiltzean (AND-069/012)

Gizonen eta emakumeen lanak txerri-hiltzean. Txerria hil eta ilea erretzea gizonen lana zen, baita zintzilik jartzea ere. Gero, emakumeen lanak zetozen. Mantekak, hesteak eta gibela kentzen zitzaizkion lehenengo. Manteka hozten zenean, xerratu egiten zuten (odolkiak egiteko).

1.344. Txorixo gaiak prestatzeko makina (AND-069/013)

Txorixo gaiak txikitze makina nolakoa zen azaltzen du. Makina hori etxe askotara eramaten zuten. Gizena eta giharra, biak behar ditu txorizoak. Txerriaren zein zati ziren onak txorizotarako. Begiz egiten zuten.

1.345. Lehengo txerriak nola hazten zituzten (AND-069/014)

Lehengo txerriak nola hazten zituzten. Txerrikumeei arto txikitua ematen zieten, aza, erremolatxa... Txerri-jana egosi ere egiten zuten. Barazkiak eta patata jaten zituen txerriak. Orain ez dago lehen bezalako txerriarik. Artorik ez dute ereiten orain, ekarri egiten dute. Etxean txerriarik ez da hiltzen jada.

1.346. Txerria isilka hiltzeko komeriak (AND-069/015)

Gerraostean txerri bakarra hil zezaketen, baina bi ere hiltzen zituzten. Aitak kontatzen zuen pasadizoa, txerria isilka hiltzeko komeriak: mazoarekin jo zioten buruan, garraxirik ez egiteko; erretzen ari zirela, alarma faltsua izan zuten: Guardia Zibila zetorrela pentsatu zuten, baina ez, Antonio Mari zen, burutik zakua jarrita.

1.347. Txerriari bizarrak erretzeko lanak (AND-069/016)

Lasto balekin erretzen zitzaion ilea txerriari. Lastoa nola prestatzen zuten: gariaren sustarra zen. Garia jotzeko modua. Txerriaren azala nola erretzen zuten. Isilka ibili behar zutenean (txerriak hiltzeko debekua zegoen gerraostean), ezin lanak ondo egin.

1.348. Errotak itxita eta babarruna entregatu behar (AND-069/017)

Errotak itxita egon ziren gerraostean. Patata, artoa eta babarruna alhondegira entregatu behar zituzten. Taloak egiten zituzten artoarekin. Baina arto-irina behar. Aranora joan zen aita behin, osabarekin, gauez. Itxita zegoen, baina topatu zuten zabalik zegoen bat.

1.349. Kaletxikiko errotara, astoarekin (AND-069/018)

Andoaingo errotara askotan joan zen astoarekin, 50 kiloko zakuarekin. Trukean irina ematen zieten, baina kilo gutxi xixago.

1.350. Etxearen nagusiarentzat kapoiak (AND-069/020)

Kapoiak etxean kapatzen zituzten lehen, eta batzuetan hil ere egiten ziren; beraz, nagusiari emateko erosi egin behar izaten zituzten batzuetan maizterrek. Errenta ere ordaindu behar zen. Nagusiak bakailaoa ematen zien.

1.351. Txerri puskak partitzean, propina (AND-069/021)

Baserrietara odolkiak eramatera joaten zirenean, propina ematen zieten: duroa eta. Txerria hiltzen zutenean, txerri puskak partitzen zituzten, aza hostoan bilduta. Eltxetxoa zuten, baina ezin omen zen bete arte puskatu, eta sekula betetzen ez!

1.352. Kanilako urik ez, umea zenean (AND-069/022)

Behiak izaten zituzten. Idi bat izan zuten, baina geroago. Urik ez zuten baserrian, bera umea zela. Noiz jarri zuten ura. Uraren hotsa. Aurretik, erre kara eramaten zituzten behiak ura edatera, sokatik helduta banan-banan.

1.353. Arropa eta maindireak garbitzeko lanak (AND-069/023)

Ura jarrita ere, maindireak errekan garbitzen jarraitu zuten. Garbigailurik ez zen, baina arropa gutxiago aldatzen zuten orain baino; maindireak hamabostean behin garbitzen zituzten. Azpiko maindirea garbitu, eta gainekoa azpian jartzen zuten. Xaboia. Lejia. Añila. Labaderora buruan eramaten zuten arropa.

1.354. Larraulen, Andoainen baino aurrerapen gutxixeago? (AND-069/024)

Lixiba egitea ez du ezagutu, baina entzun bai, senarrari. Larraulen egiten omen zuten, arropa kuelan jarri, eta 'surtako hautsa' bota. Kalean aurreratuago ote zeuden urrutiko baserrietan baino...

1.355. Senideak bisitatzera, festetan (AND-069/026)

Menta belarrarekin garbitzen zuten zorua. Familiakoak orain baino gehiago elkartzen ziren; bisitan ere joaten ziren, festetan. Lezora joaten ziren, eta Pasai Donibanera oinez. Trenez joaten ziren.

1.356. Medikua zaldian eta bizikletan (AND-069/027)

Lehen medikua etxera joaten zen, bizikletan (gero motoz). Don Alejandro. Haren aita zaldi gainean ibiltzen ei zen.

1.357. 2 anai-arreba oso txikiak zirela hil ziren (AND-072/002)

7 senide izan ziren, baina 5 hazi ziren. Arreba bat 2 urte eta erdirekin hil zen, gurdiak behean harrapatuta. Beste anaia aingeru hil zen.

1.358. Buruntzako lur buztintsua eta etxeko karea (AND-072/007)

Lehen, beraien etxean bi karobi zeuden. Lortutako karea lurrarentzat oso ona izaten omen da, mesede egiten omen dio. Buruntzako bailara buztintsua da, lur gogorra. Lurra zer tresnarekin lantzen zuten azaltzen du.

1.359. Gerra osteko errazionamenduaren astindua (AND-072/009)

Gerra ostean, baserriko jeneroa alondegian entregatu eman behar izaten zuten. Hori astindu ederra izan ohi zen beraientzat. Inguruko errota itxita egon ziren garai hartan, eta ezkutuan joan behar izaten zuten Itsasondoraino.

1.360. Gerra hasi, eta beraiek Kale Txikira (AND-072/012)

Gerra hasi zeneko oroitzapenak gogoan ditu. Etxetik alde egin zuten, eta Kale Txikira jaistea erabaki zuten. Garai hartan, ez zekiten askorik gerrako bandoei buruz.

1.361. Gerrako tiroekin gertatutako eskapadak (AND-072/013)

Buruntzatik Kale Txikira tiro egiten zuten gorriek. Orduko eskapada batzuk azaltzen ditu.

1.362. Beraiek Kaletxikin, eta ganadua baserrian (AND-072/014)

Gerra garaian, Kaletxikin egon ziren, eta beraien ganadua zaintzeko nola moldatu ziren azaltzen du.

1.363. Gerran, familia Andoainen sakabanatuta (AND-072/016)

Gerra garaian, hiru etxe desberdinetan banatu zen beraien familia. Noren etxeetan egon ziren azaltzen du. Frontea nondik nora mugitu zen.

1.364. Gurdi azpian bonbetatik babesteko (AND-072/018)

Gerran, behin, hegazkin batek hiru bonba bota zituen; beraiek gurdiaren azpian "babestu" ziren. Beraien baserrian, bi kanoikada sartu ziren.

1.365. Ukuiluan babestu baino, hobe kanpoan etzan (AND-072/020)

Gerrako erasoetatik babesteko, ukuiluan ezkutatzen ziren, nahiz eta hobe izango zen kanpoan etzanda jarri.

1.366. Gerrako kanpai tristeak (AND-072/021)

Gerran, erasoak zirenean, elizako kanpaiak jotzen zituzten. Kanpai tristeak dira haiek.

1.367. Ezkongabe gelditzeko arrazoi batzuk (AND-072/029)

Lehen, mutilzaharrei burla egiten zitzairen. Ezkongabe gelditzearen arrazoiei buruz hitz egiten du.

1.368. Lakunzara bidean, lastargia itzali (AND-072/031)

Martinen aitonari buruzko kontuak: Zaldibiatik Lakunzara ezkontza batera zihoala, bidean, gauez, lastargia itzali zitzaion, eta komeriak izan zituen helmugara iristeko. Lastargiak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

1.369. Gabonetako kantu-eskea (AND-072/033)

Gabonetan, etxez etxe joaten ziren kantuan, diru eske. Urte batean, bederatzi ogerleko bildu zituen bakoitzak. Orduko ibilbidea nondik nora egiten zuten aipatzen du. Goizean goiz, mezara joaten ziren, nahitaez.

1.370. Aitona zen etxeko "irratia" (AND-072/036)

Etxean, aitona aritzen zen kontu-kontari; bera izaten zen etxeko "irratia". Aitona Afrikan ibilia zen soldadu; eta, gaztetan, artzain.

1.371. Labordeko lan-baldintzak (AND-072/039)

Laborden lanean hasi zenean, zer lan-baldintza izaten zituen azaltzen du.

1.372. Diruari ondo begiratu behar zitzaioneko garaia (AND-072/041)

Garai batean, astean 3 pezeta irabazten zituzten; orduan, zineak pezeta bat balio zuen. Egun batean, Villabonara idi-apustuak ikustera trenez joan zirenekoa kontatzen du.

1.373. Idi-apustu batean izandako iskanbila (AND-072/042)

Idi-apustu batean tongo izan omen zen; eta, horregatik, bertan behera utzi zituzten idi-apustuak. Iskanbila handia izan zen orduan.

1.374. 1956ko izozte handia (AND-072/049)

Urte batean, otsail osoan egin zuen elurra: 14-15 gradu 0 azpitik. Izozte handia izan zen hura; eta baratzeko jenero guztia galdu zuen. Orduko komeriak aipatzen ditu.

1.375. Izozte handia bukatu zenekoa (AND-072/050)

1956ko izozte handia bukatu zenekoa gogoan du.

1.376. Izozte handiaren ondorio larriak (AND-072/051)

1956ko izozte handia izan zen garaian, lanean zebiltzan, eta hotzak akabatzen egoten ziren. Gizon bat hil egin zen garai hartan, estropezu egin eta zutitu ezinik, izoztu egin baitzen. Berotzeko lanak izaten zituzten orduan.

1.377. Gerrako oroitzapen batzuk (AND-073/002)

Gerrako oroitzapenak aipatzen ditu: San Rokeetik tropak sartu zirenean, etxetik alde egin zuten, Buruntzan bizi baitziren. Anaia gerran hil zen, eta etxetik nola joan zen gogoan du. Tiroak eta soldaduen joan-etorriak gogoratzen ditu, baina umeegia zen hura zer zen ulertzeko.

1.378. Neskek eta mutilek lan desberdinak etxean (AND-073/004)

Etxeko neskek normalean etxean egiten zuten lan, eta mutilek baserriko lanetan. Ama garbategira joaten zen arropa garbitzera.

1.379. 12 urterekin morroi joateko moduan (AND-073/006)

Etxean 12 senide ziren, eta maiorazkoa ezkondu gabe gelditu zen anaiari tokatu zitzaion. Garai hartan normala zen morroi, neskame edo lantegira lanera joatea. 12 urtetik aurrera morroi joateko moduan zeuden, eta 14tik aurrera lantegirako prest. Primitibok ez zuen morroi joan behar izan.

1.380. Lehen hezkuntzari garrantzi gutxiago eman (AND-073/007)

Eskola nazionalean ibili zen, eta 13 urterekin hasi zen lanean. Eskolan askotan egiten zuten piper, etxean lagundu behar izaten baitzuten. Etxean ez zioten garrantzi handirik ematen eskolari. Eskolan neskek eta mutilek batera ikasten zuten.

1.381. Neskak eta mutilak elkarrekin jolasean (AND-073/008)

Neskek eta mutilek elkarrekin jolasten zuten. Orduko jolasak aipatzen ditu.

1.382. Errekara bainatzera joaten zirenekoa (AND-073/010)

14 41 Errekara joaten ziren bainatzera jai arratsaldetan. Hara mutilak bakarrik joaten ziren. Uretan saltoka eta korrika ibiltzen ziren, igerian. Libre ibiltzen ziren aisialdian, gurasoak ez ziren begira egoten. Amuarrainak harrapatzen ibiltzen ziren.

1.383. Amuarrainak ezkutuan harrapatzen (AND-073/012)

Amuarrainak harrapatzen ibiltzen ziren Oria ibaian. Amuarrainak harrapatzeko zer teknika erabiltzen zuten azaltzen du: beraiek eskuz egiten zuten, baina

batzuek sarearekin. Bazen guarda bat ibaia zaintzen ibiltzen zena, baina ez zuten haren ikararik izaten: isunak jartzeko ardura zuen, baina Primitibok ez du entzun inoiz jarri zuenik.

1.384. Gaztainak biltzen, gero etxean edo lagunartean jateko (AND-073/014)

Gaztainak biltzera askotan joaten ziren, menditik ekartzen zituzten; gustura jaten zituzten gero etxean edo lagunartean. Gaztainak nola prestatzen zituzten azaltzen du.

1.385. Gaztainak danbolinean prestatzen (AND-073/015)

Danbolinaren sua prestatzeko sagar-egurra izaten zen onena. Txingarraugarra baino hobea izaten da. Danbolinak non saltzen zituzten aipatzen du. Lagunen artean danbolina erosteko, denen artean osatzen zuten dirua.

1.386. Gaztainak bildu eta etxera ekarri ahala jan (AND-073/016)

Gaztainak biltzeko, mendira joaten ziren igandetan; morkotsa kenduta ekartzen zituzten. Ekarri ahala, jan egiten zituzten gaztainak, 8 egunean ondo egoten ziren. Haga erabiltzen zuten gaztainak zuhaitzetik botatzeko; eta gero poltsatan edo zakutan ekartzen zituzten etxera.

1.387. Gaztainak ardoarekin ondoen (AND-073/017)

Gaztainekin batera ardo pixka bat edatea gustatzen zitzaientzen, baina hura berehala bukatzen zutenez, urarekin konformatu behar. Etxean sagardoa egiten zuten.

1.388. Sagardoa egiteko prozesua (AND-073/018)

Etxean sagardoa egiten zuten, sagarrondo batzuk bai baitzituzten. Dolareak non egoten ziren azaltzen du. Nork bere sagarrak eramaten zituen dolarera, eta haietatik ateratako sagardoa ekartzen zuten etxera; nola ekartzen zuten aipatzen du. Dolarea erabiltzeagatik ordaindu egiten zioten haren jabeari. Sagarra makina elektrikoarekin edo eskuz jotzen zuten.

1.389. Gurdi asko eta upel bakarra (AND-073/019)

Muztioa etxera ekartzeko, gurdia erabiltzen zuten. Baserri guztietan zegoen gurdia, oso beharrezkoa baitzen; upela, ordea, bat zegoen denek erabiltzeko. Barrikak zaintzeak lana ematen zuen. Lehen sagardo gazia ere edaten zuten, beharra baitzegoen.

1.390. Artoa, taloak eta itxitako errotak (AND-073/020)

Etxean artoa egiten zuten: ganaduari ematen zioten edo harekin taloak egiten zituzten. Errotak garai batean itxita egoten ziren, eta orduan Alkizako errotara joaten ziren beraiek. Etxean amak egiten zituen taloak eta Primitibok gogoa du nola prestatzen zituen.

1.391. Taloarekin batera jaten zutena (AND-073/021)

Taloa zerekin jaten zuten azaltzen du: potajearekin, gaztarekin... Esnea saltzen aritzen ziren. Taloa esnearekin jaten zuten.

1.392. Garia erein bai, baina saltzeko (AND-073/023)

Ogirik ez zuten egiten etxean; garia izaten zuten etxean, baina saltzeko izaten zen. Garia urte askoan egin zuten: garia nola jotzen zuten azaltzen du, zer eguraldik egiten zion on...

1.393. Ekonomia hobetu arte, garia lagun ona (AND-073/024)

Etxeko ekonomia hobetzen hasi zen arte, garia egin zuten etxean, Andoaingo etxe askotan bezalaxe. 1945etik aurrera, egoera ekonomikoa hobetzen hasi zen eta garia alde batera gelditu zen.

1.394. Behien ezaugarriak eta haien lana (AND-073/025)

Baratzean etxerako jeneroa lantzen zuten gehienbat. 4-5 behi izaten zituzten, eta lur handiak behar izaten zituzten haientzat. Behi batzuk lanerako izaten zituzten, eta besteak esnetarako. Behi guztiei berdin ematen zitzaaien jaten. Behien ezaugarrien arabera, lan baterako edo besterako aukeratzen zituzten.

1.395. Behien izenak birziklatzen (AND-073/026)

Etxeko behiei izenak jartzen zizkieten. Behi guztiei izen berak jartzen zizkieten: bat hiltzen zenean, berriari ematen zitzaion haren izena, alegia.

1.396. Zezenak baserri gutxi batzuetan bakarrik (AND-073/027)

Zezenik ez zuten izaten etxean. Behiak estaltzeko, zezena zeukaten baserrira joaten ziren. Andoainen zezenak zer baserritan egoten ziren azaltzen du. Behiak haiengana eramateagatik zerbait ordaindu behar izaten zuten.

1.397. Zezenak aukeratzeko irizpideak (AND-073/028)

Baserri bateko edo besteko zezena aukeratzeko irizpideak bazituzten: fisikoari begiratzen zioten gehienbat, ez izaerari.

1.398. Behiak eta idiskoak kentzean haiekin egiten zutena (AND-073/029)

Behi zaharrak kentzean, haragitarako erabiltzen ziren. Idiskoa kentzean, saldu egiten zuten.

1.399. Auzoko ermandadea (AND-073/030)

Behiak ez ziren etxerako hiltzen, saltzeko baizik. Baserrien artean ermandadea zegoen. Ermandadean 15 baserri inguruk hartzen zuten parte. Ermandade gehiago ere baziren.

1.400. Lanean han eta hemen (AND-073/031)

13 urte zituela hasi zen fabrikan lanean: fideo-zopak egiten zituen. 14 urterekin lantegiz aldatu zen eta hainbat fabrikatan ibili zen lanean. Azkenean, zentrolean aritu zen eta handik hartu zuen erretiroa. Lan asko egin izan du.

1.401. Dantzarako tarte bat beti bilatzen zuen (AND-073/032)

Lanean ibili arren, beti bilatzen zuen tarte bat dantzara joateko. Gustuko izan du dantza egitea. Zer musika mota dantzatzeko zuten aipatzen du. Banda ugari zeuden garai hartan; beraiek gehienbat Irubide eta Oialumera joaten ziren.

1.402. Benta Berrira dantza egiten ikastera (AND-073/033)

Xoxokan beti soltean jotzen zuten zenbait lekutan. Apaizak ez zuen uzten dantza lotua egiten. Dantzan ikastera Benta Berrira joaten ziren beraiek bizikleta hartuta.

1.403. Lan asko eta jostaketarako denbora gutxi (AND-074/002)

Etxeko lanetan aurrenetarikoa izaten zen ura etxera eraman beharra. Erramueta baserritik kilometro batera zegoen iturria. Arropa eskuz garbitu beharra izaten zen, txerriak kanpora atera behar izaten zituzten, eta eskola 2 kilometrotara egonik ere, egunean bi joan-etorri egiten zituzten.

1.404. Pilota bakarra Sorabilla guztian (AND-074/003)

Haur batena zen Sorabillako pilota bakarra, eta Maria Angeles mutiko haren atzetik ibili ohi zen, pilotan jostatu ahal izateko. Gainontzean, txinbotan eta soka-saltoan jostatzen ziren gehien, eta tarteka, kurkuluxetan. Ez ziren sekula aspertzen, jostailurik ez eduki arren.

1.405. Miserian baina zoriontsu (AND-074/004)

Euripean oinutsik ibilita ere gaizkitzen edo gaixotzen ez zirela kontatzen du Maria Angelesek. Bestalde, miserian baina pozik eta elkar maitatuz bizi zirela dio.

1.406. Oso ama langilea (AND-074/005)

Oso ama langilea zuten. Goizeko bostetan jaikitzen zenetik oheratu bitartean amak egin ohi zituen lanak esaten ditu Maria Angelesek.

1.407. Goiz oheratu eta goiz jaiki (AND-074/006)

Erramueta baserrian ez zen argirik, eta behin ilunduz gero ohera bidaltzen zituzten seme-alabak, pixka bat koskortuak izanagatik ere. Goizean, uda partean behinik behin, argitu orduko jaiki ohi ziren, goizeko seiatarako edo.

1.408. Mutilen eta nesken eginbeharrak diferenteak oso (AND-074/007)

Desberdinak ziren oso mutilen eta nesken eginbeharrak. Mutilek etxetik kanpo egiten zuten lan gehienbat, eta neskek, aldiz, etxe barruan.

1.409. Soldaduek oiloak eta arrautzak eraman (AND-074/008)

Gerra garaian gaizki asko pasa zuten Maria Angelesen gurasoek, soldaduek oilaskoak eta arrautzak eta Udalak barazkiak kentzen zizkietelako. Gogoan ditu tiro hotsak eta bonbardaketak, eta asko beldurtzen zirela ere bai, baina haurrak izaki, horiez guztiez segituan ahazteko gaitasuna zutela dio.

1.410. Babarrunak eta gazta (AND-074/009)

Babarrunak eta gazta izan ohi ziren elikagai nagusiak, eta tarteka, intxaurrak.

1.411. Apaiza irakasle (AND-074/010)

Don Domingo Yurramendi zen Sorabillako apaiza, eta harengana joaten ziren dotrina ikastera, baina horrez gain, eskola ematen zien.

1.412. Eskola publikoan 102 lagun gela berean (AND-074/011)

Behin koskortuta, eskola publikora joaten hasi zen. Doña Maria delako emakume bat zuten maistra, eta ehun eta bi lagun ziren gelan, baina libururik batere ez.

1.413. 'Baskorras!' (AND-074/012)

Eskola publikoan gogor zigortzen zituzten euskaraz egiteagatik, eta baserriko zein kaleko neska euskaldunei 'baskorras'! esaten zietela gogoan du Maria Angelesek.

1.414. Zerura baino infernura nahiago (AND-074/013)

Hildakoan zerura edo infernura joan nahi zuten galdetzen zien irakasleak. Maria Iraolak, Maria Angelesen ondoan esertzen zen neskatoak, zerura joan baino infernura nahiago zuela esaten zuen, han behintzat sutondoan goxo egongo zirela eta.

1.415. Zeruko Argia aldizkariarekin euskaraz irakurtzen ikasi (AND-074/014)

Eskolan kultura gutxi jaso zutela kexu da. Hala ere, ume-zaintzen etxean geratzea tokatzen zitzaionetan San Antoniori errezatzen aritzen zen Maria Angeles, eta eskolara joan ahal izateko aukera izatea eskatzen zion. Euskaraz irakurtzen gerora ikasi zuen, Zeruko Argia aldizkariarekin.

1.416. Laneko irabaziak aurrezten (AND-074/015)

Lanean irabazitako dirua aurreztu egiten zuten Maria Angelesek eta heren anai-arrebek.

1.417. Amaren irrifarra gogoan (AND-074/016)

Behin, Gabonetan, 20 duro eman zizkion Maria Angelesek erosketak egitera aterata zegoen amari. Amak egin zion irribarrea ez du ahazteko.

1.418. Amari laguntzen etxeko garbiketan (AND-074/017)

Amak etxean egiten zituen lanetan laguntza ematen zioten alabek.

1.419. Aitaren artisau-lanak eta konponketak (AND-074/018)

Maria Angelesen aitak larrua lantzen zuen, eta abarkak eta halakoak egiten zituen, baina kaleko aberatsei saltzeko; seme-alabek ez zuten sekula halakorik izan. Zumea ere lantzen zuen aitak, eta etxeko konponketa guztien ardura hartzen zuen.

1.420. Dendan erositako lehen koltxoia (AND-074/019)

Koltxoiak nola egin eta nola mantentzen ziren kontatzen du Maria Angelesek. Bera ezkondu zenean dendan erosi zuen koltxoia.

1.421. Otorduen prestaketa (AND-074/020)

Haurra zeneko otorduak nola prestatzen zituzten. Babarrunak arroz pixka batekin prestatuta ezagutu ditu Maria Angelesek. Haragia normalean egosita preparatzen zuten, eta patatekin, gehien gehienez.

1.422. Ogi beltza (AND-074/021)

Haurrak zirela astean behin erosten zuten ogia. Atunak alergia eragiten zion Maria Jesusi, baina hain zen ona eta berezia, berak ere jan egiten zuela.

1.423. Errege magoak baziren ala ez ziren? (AND-074/022)

Ez zuten batere urtebetetze ospakizunik egiten. Herriko jaiak eta Gabonak ospatzen zituzten soilik. Amak errege magorik ez zela esaten zien, baina apaizak, aldiz, baietz.

1.424. Kalean baserrian baino are gose gehiago (AND-074/023)

Maria Angeles haurtzain ibili zen kaleko etxe batean, eta han baserrian baino gose gehiago pasatzen zutela dio.

1.425. Aitagurea (AND-074/025)

Errezo askorik ez zen izaten etxean; 'aitagurea', akaso, otordua egin aurretik.

1.426. Ostiak eman (AND-074/026)

Apaizak bere arrebarengana ostiak emateko esatera bidali zuenekoa.

1.427. Komuna ez eramateagatik ordaindu egin behar (AND-076/003)

"Bar Ignacio" taberna jarri zuten gurasoek Andoainen. Eta, gerora, batzoki bihurtu zuten. Batzokia nolakoa zen gogoan du. Gerra garaian, batzokia hustera etorri ziren soldadu batzuk; eta, komuna eraman ez zezaten, gurasoek ordaindu egin behar izan zuten.

1.428. Kultur ekintzak batzokitik kanpo (AND-076/004)

Gerra aurretik, batzokian zer giro egoten zen gogoan du. Ez zen kultur ekintzarik antolatzen; ekintza horiek udaletxearen eraikuntza batean egiten ziren. Eraikuntza hura nolakoa zen azaltzen du.

1.429. Batzokiko giroa (AND-076/005)

Batzokian herriko jendea ibiltzen zen. Gerra pasa eta handik urte ugari pasatakoan, Basarri eta Uztapide Andoainera etortzen ziren Migelen gurasoen garaiko nazionalistekin elkartzera eta lagun-giroan egotera.

1.430. Bertsolaritzarako zaletasuna (AND-076/007)

Migel bertsozalea izan da beti: Otañtilde; o, Xenpelar eta Txirrita gustuko izan ditu. Habanerak abesteko ohitura zeukaten lehen. Manuel Olaizola Uztapide bertsolari handia zela uste du. Bertso bat abesten du.

1.431. Lehengo bertsolari onak (AND-076/009)

Lehen bertsolari onak nolakoak ziren aipatzen du. Lehen bertsolariak tabernan aritzen ziren gehienbat. Uztapidek abestu zueneko bat gogoan du: oso saio polita izan zen hura.

1.432. "Euskotarrak gera" abestia ikasteko gorabeherak (AND-076/012)

Txistua jotzen zuten. Txistuko irakaslea karlista ote zen susmoa du, ez zien erakutsi nahi izan "Euskotarrak gera" abestia. Azkenean, baina, beren kabuz lortu zuten abesti hura ikastea. "Euskotarrak gera" abestia kantatzen du.

1.433. Euskaraz hitz egitea debekatuta (AND-076/013)

Abesti batzuk debekatuta zeuden Francoren garaian. Behin etxe inguruan jolasten zebilela, soldadu batek euskaraz hitz egitea debekatuta zegoela esan zion Migeli. La Sallen irakasle gehienek euskaraz jakin arren, baziren batzuek inoiz egingo ez zutenak.

1.434. Gerran Urnietara egin zuten alde (AND-076/017)

Gerra garaian, Migelen familiak Andoaindik alde egin zuen Urnietara, amaren anaia baten etxera. Hegazkinen bonbetatik nola babesten ziren kontatzen du.

1.435. Ondasunak eta bizia salbatzeko egin beharrekoa (AND-076/018)

Andoainen hiru bonba bota zituztenean, non erori ziren aipatzen du. Beraiek orduan Urnietan zeuden, eta Andoaindik Joxe Goya joan zen gurasoei abisatzera etxeak lapurtzen ari zirela. Gurasoak Andoainera itzuli ziren, beraien ondasunak babestera. Handik gutxira, soldadu batzuk etorri ziren etxera gurasoen bila, baina ordurako irtenak ziren haiek; ordutik gordeta ibili behar izan zuten soldaduek harrapa ez zitzaten. Gerran Andoainen hil zituzten gizonek ez zuten inongo errurik.

1.436. Soldaduengandik babesteko egindakoak (AND-076/019)

Gerra garaian, Urnietan gelditu ziren osaba baten etxean. Arreba eta Migel orbel azpian gorde ziren soldaduak etxera etorri zirenean. Baserri hartan hiru bizitza zeuden, eta barrutik zuloak egin zituzten batetik bestera pasatzeko.

1.437. Laborden hasi eta igeltsero sartu geroago (AND-076/020)

14 urte zituela hasi zen Laborden lanean, egunean 3.5 pezeta irabazten zituela; handik 3 urtera, ordea, 19.30 pezeta irabazten zituen egunero. 20 urte zituela utzi egin zuen Labordeko lana eta aitarekin hasi zen igeltsero. Hasiera hartan, oinarritzko tresnak bakarrik zeuzkaten lanerako, baina denborarekin makineria hobetzen joan ziren.

1.438. Soldaduak etxean izan zituzteneko janaria (AND-078/003)

Soldaduak izan zituzten etxean gerra garaian. Soldaduek janari pila bat ekarri zuten; eta, gero, dena udaletxera jaitsi behar izan zuten. Janaria ez zen falta izaten orduan. Behin, soldaduak baserriko txekorra eramaten saiatu ziren; baina buruzagiak itzuli egin zien.

1.439. Gerrako desorekak eta sorpresak (AND-078/004)

Nazionalak Santa Barbaran kanoia jarri zuten. Alderdi militarretik begiratuta, gorriak ahulak ziren, indar guztia nazionalak zeukaten. Hasieran, gerrak 15 egun iraungo zituela esan zuten; eta 3 urte iraun zituen.

1.440. Abionetari eraso egitearren, baserriko horman zuloak (AND-078/005)

Gerra garaian, nazionalak egon ziren Andoaingo futbol-zelaian. Nazionalak, gorrien abionetari tiro egin nahian, Ferminen familiaren etxera bota zituzten tiro ugari. Fermin eta anaia etxe parean ari ziren jolasten, baina ez zitzaien ezer gertatu.

1.441. Gerrako borrokak eta abioneta gorri-gorria (AND-078/007)

Gerran ikusitako borrokak gogoan ditu; bera mutil koskorra izanda, ez zen konturatzen horren larritasunaz. Gerrako bandoen armen artean, desoreka handia zegoen. Gorrien abioneta gorri-gorria zen. Abionetari buruzko anekdotak kontatzen ditu.

1.442. Belkoainen hildako soldaduen hilobi galdua (AND-078/008)

Nazionalak 15-20 egun eman zituzten Andoainen. Belkoainen, borrokan hil eta lurperatutako mutil batzuei buruzko kontuak aipatzen ditu. Gorpu haiek ez zituzten aurkitu.

1.443. Soldaduak etxean, eta senideak oilaskoak lumatzen (AND-078/010)

Soldadutzara joan aurretik, Ferminek lau hitz bakarrik zekizkien gaztelaniaz. Gerra garaian, bi bandoetako soldaduak izan zituzten etxean; eta soldadu haiekin beti euskaraz hitz egiten zuten. Soldaduak etxean zituztenean, oilaskoak lumatzen ematen zuten eguna Ferminek eta anaiak; oilasko haiek soldaduentzat izaten ziren.

1.444. Soldaduek kontserbako janaria ekartzen zuten (AND-078/011)

Gerra garaian, soldaduak izan zituzten etxean. Soldadu haiek janari asko ekartzen zuten etxera, baina gehiena kontserbakoa. Soldaduak etxean edukita, ez zuten dirurik irabazi.

1.445. Aita harrobiko langile preziatua (AND-078/012)

Aitak harrobian egiten zuen lan; oso langile preziatua zen han. Aitaren lanari buruz, tresnei eta lanaren ondorioei buruz hitz egiten du. Kare-haitza ateratzen zuten harrobitik.

1.446. Simaurra eta belazea (AND-078/015)

Garoa ona da lurrarentzat. Simaurra eta belazea lurrean nola eta noiz botatzen zuten azaltzen du.

1.447. Simaurrarekin lanean (AND-078/016)

Simaurra lantzeko tresnak eta teknikak aipatzen ditu.

1.448. Uztarriak erabiltzen zituzten (AND-078/019)

Behi parek nola prestatzen zuten azaltzen du. Uztarriak pagoarekin egiten zituzten. Uztarriak egiteko egurra lantzeko moduak.

1.449. Uztarria egiteko, pagoa (AND-078/020)

Lehen pago asko zegoen, eta egur noblea izaten zen hura. Uztarriak egiten zituzten pagoarekin, eta pagoa nola lantzen zuten azaltzen du.

1.450. Uztarriak egiteko egurra lantzen (AND-078/021)

Uztarriak egiteko egurra nola lantzen zuten azaltzen du: teknikak, tresnak...

1.451. Artoa eta babarruna landatzea (AND-078/025)

Artoa eta babarruna nola lantzen zituzten azaltzen du: prozesuak, tresnak...

1.452. Arbia eta artoa lantzen (AND-078/026)

Artoa jaiotzen zenean, nola lantzen zuten azaltzen du. Arbia arto artean ateratzen da.

1.453. Arbi-hazia eta artoa (AND-078/027)

Arbi-hazia nola lortzen zuten azaltzen du. Arbi-hazia bel-beltza eta txiki-txikia omen da. Arbia eta artoa lantzeko prozesuaz hitz egiten du.

1.454. Soroko bilketak (AND-078/028)

Soroko bilketak egiteko jakin beharrekoak aipatzen ditu.

1.455. Artoa eta arbia biltzeko prozesuak (AND-078/029)

Arbia neguan biltzen da. Artoa biltzeko prozesuaz hitz egiten du.

1.456. Arto-zuritzearen ostean, azalen erabilera (AND-078/030)

Arto-zuritzeari buruz hitz egiten du: gauero egiten zuten, azala behiei ematen zien jateko, lastairak egiteko erabiltzen zuten... Lastairak nola egiten zituzten azaltzen du.

1.457. Errotara gauez eta beldurrez (AND-078/033)

Gerra ostean, irinaren bila joatea lan zaila zen, errotak itxita egoten baitziren. Errotara gauez joan behar izaten zuten, eta gogoan du bidaia hura egin zuen lehenengo aldia.

1.458. Lakaria zer zen (AND-078/035)

Lakaria zer zen azaltzen du.

1.459. "Alberro, ¡apunta!" (AND-078/036)

Hernaniko gizon bati sagardotegira joatean gertatutako anekdota kontatzen du: denak gonbidatzea gustatzen zitzaion, baina ez zuen inoiz ordaintzen.

1.460. Kontrabandoa eta pikarokeria (AND-078/038)

Gerra ostean, olioaren kontrabandoa zegoen; oso garesti saltzen zen. Kontrabandistek izandako jukutria kontatzen du.

1.461. Jaiotetxea lorez beteta (AND-079/002)

Bere jaiotetxea nolakoa zen azaltzen du: lorez beteta egoten zen etxea. Zelaia, baratzeak, fruta-arbolak... zeuzkaten beraien lurretan.

1.462. Pneumoniak umeekin eragindako zorigaitza (AND-079/004)

Amak 11 haur izan zituen, baina 6 hil egin ziren umetan, pneumoniak jota. Amak asko sufritu zuen. Izeba baten semea ere 8 hilabeterekin hil zen, pneumoniak jota. Gerora, ezin izan zuen ume gehiagorik izan.

1.463. Soldaduak inguruan ziren bitartean, beraiek gordeta (AND-079/005)

Gerra iritsi zenean, Maria Pilarrek gogoan du hegazkinak pasatzen zirela Andoaindik, soldaduak etxe inguruan ibili zirela, kalteak eragin zizkietela... Soldaduak etxean ziren bitartean, beraiek gordeta egon ziren sukaldearen azpiko zulo ezkutu batean. Bi aste inguru egon ziren gordeta; eta, Frantziara alde egitekotan egon ziren arren, azkenean, etxean geratu ziren.

1.464. Soldaduek etxean utzitako arrastoa (AND-079/007)

Soldaduak etxetik igaro zirenean, kalte handiak eragin zituzten, eta zeukatena lapurtu.

1.465. Gordeta egon zireneko bizimodua (AND-079/008)

Gerran, soldaduak etxera etorri zirenean, beraiek gordeta egon ziren etxe azpian. Isil-isilik egoten ziren zuloan. Jatekoa prestatzera, noizean behin, sukaldera igotzen ziren. Kaletik gertu bizi arren, urik ez zuten etxean; eta nola-hala moldatu ziren egarria asetzeko, gordeta egon zirenean.

1.466. Gerra bukatu eta gosea etorri (AND-079/010)

Gerra bukatu ostean, gosea iritsi zen. Irina egitera, gauez joaten ziren errotara, ezkutuan. Errazionamenduan ematen zuten ogia oso gogorra zen: lurrera bota, eta sabairainoko botea emateko adinako gogorra.

1.467. Aita arotza eta baserritarra (AND-079/012)

Aita igeltsero izan zen La Salle eskolan. Maria Pilar neska koskorra zela, aitari bazkaria eramatera joaten zitzaion. Aitak lan asko egiten zuen, bai etxean, bai etxetik kanpo.

1.468. Ama, etxeko martxaren arduraduna (AND-079/013)

Santa Krutz egunerako, etxean patata berria eta ilarra jaten zuten. Amak etxean egiten zuen lan, etxeko martxa eramaten eta umeak zaintzen. Ama askotan gaixo egoten zen, eta ahizpa arduratzen zen etxeko kontuez.

1.469. Etxeko garbiketak (AND-079/015)

Lehen, etxeko lanak nola egiten zituzten azaltzen du: lurra garbitu, argizaria eman, eskuilarekin pasa distira ateratzeko... Orduko xaboiak.

1.470. Maindireak garbitzera, ibaira (AND-079/016)

Leitzaran ibaira joaten ziren arropa garbitzera. Maindireak zuri-zuriak ateratzen ziren orduan; belarretan zabaltzen zituzten, zuritzeko.

1.471. Lehengo eguraldia (AND-079/018)

Lehen, oraingo aldean, eguraldia desberdina zen. Neguan, arropa lehortzeko, sukaldean moldatzen ziren, sutik gertu, soka, zintzilikatzen.

1.472. Lutoa eta hil-kutxaren ibilbidea (AND-079/019)

Lehen, lutoa eraman behar izaten zuten: gurasoak hiltzean, bi urtekoa. Hiletan egunean, hil-kutxa kalez kale eramaten zuten, bizkar gainean. Lutoko arropa beltza lortzeko, berria erosi edo zaharra tindatzen zuten. Buruko zapia nolakoa izaten zen azaltzen du.

1.473. Hiletetako kategoriak (AND-079/024)

Hileta klase ugari egoten zen, kategoria desberdinak. Primerako hiletak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Zenbat eta kategoria hobea, orduan eta garestiagoa izaten zen hileta.

1.474. Gaztetako planak, mutil-lagunarekin eta dantzan (AND-079/031)

Gaztetan, dantza asko egiten zuten igandero. Musika non egoten zen aipatzen du. Neguan, zinera joaten ziren. Mutil-lagunarekin, igandetan bakarrik elkartzen zen. Lehen, dantza lotua ere egiten zuen, nahiz eta Mariaren Alaben kongregazioan egon.

1.475. Ezkontzako bazkaria, etxean (AND-079/037)

Ezkontzean, etxean egin zuten bazkaria, ama gaixo baitzegoen. 32 lagun elkartu ziren: etxeakoak, lehengusuren bat... Jatekoa ahizpak prestatu zuen, sukaldari ona zen-eta.

1.476. Ur bedeinkatua urrutitik botatzen (AND-080/008)

Apaiza baserriz baserri ur bedeinkatua botatzera joaten zenean, meزالagunaren funtzioa zein izaten zen azaltzen du. Ur bedeinkatua botatzeari buruzko txistea kontatzen du. Garai hartan, borondatea nahiko obligazioa zen.

1.477. Seminarioaren aldeko "borondatezko" laguntza (AND-080/009)

Lehen, apaizak beharrezkoak zirela uste zenez, seminarioko mantenimendua laguntzeko, apaizen aldeko borondatea eman behar izaten zuten: baserrikoek, elikagaia; herrikoek, diru-biltzea.

1.478. Kanpora irtetean, perspektiba hartu (AND-080/010)

Lehengo sinesmenak aipatzen ditu: San Juan bedeinkazioa, erreguteak... Erreguteen nondik norakoak. Salamancako herri batean, festetan izaten zuten

ohitura xelebrea kontatzen du. Kanpora irtetea konturatzen zen bera, hemen zer bidegabekeria egiten ziren.

1.479. Errezoen balioa naturaren kapritxoan aurrean (AND-080/012)

Erreguteetan, euria egiteko, harria ez egiteko... eskatzen zuten. Behin, ekaitza etorri zenean, errezoak ez ziren balio izan kalterik ez jasateko. Lehen, fede handia zegoen. Arrosarioa errezatzen aritzen zireneko anekdotak.

1.480. "Heriotzak denok berdintzen gaitu" (AND-080/015)

Hil-kanpaiak denentzat berdinak izaten ziren. Berdintasunik handiena heriotza da, denok hiltzen gara.

1.481. Nesken mugak eta kortseak (AND-080/017)

Festatik erretiratzeko kanpaia jotzen zutenean, etxera joan behar izaten zuten neskek. "Emakumerik ez zegoela, bekaturik ez zegoen". Gerora, etxeratzeko ordua luzatzen joan zen. Emakumeak ez ziren sartzen tabernetan; eta, sartuz gero, marmarra egoten zen. Orduko anekdotak kontatzen ditu. Gaur egungo ikuspegia eta lehengoa alderatzen ditu.

1.482. Emakumeen arteko planak (AND-080/018)

Emakumeak tertulian egoten ziren, korroan jarrita. Batzuk jokoan aritzen ziren.

1.483. Umetako jolas umilak (AND-080/019)

Emakumeak elkartzen zirenean, umeak jolasten aritzen ziren. Beraiek egindako baloiak eta pilotak erabiltzen zituzten. Orduko jolasak aipatzen ditu.

1.484. Tranbia: jolasa eta arriskua (AND-080/020)

Lehen, ibilgailu gutxi ibiltzen ziren errepidean. Tranbia pasatzen zenean, umeak korrika ibiltzen ziren hari segika. Tranbiak hanka moztu zien zenbaiti.

1.485. Tranbiaren ibilbidea eta bidaiariak (AND-080/021)

Tranbiak Tolosa eta Donostia bitarteko ibilbidea egiten zuen. Trolebusean, oro har, emakumeak ibiltzen ziren, Tolosan erositakoa Donostian saltzen zutenak, edo baserriko jeneroa saltzera joaten zirenak.

1.486. Inguruko herrietara joateko ohitura (AND-080/022)

Gaztetan, 20 urtera arte, inguruko herrietara bakarrik joaten ziren. Donostiara, festa bereziren bat zegoenean bakarrik joaten ziren.

1.487. Neskak liluratzeko lehia (AND-080/023)

Neska-laguntzea ohitura normala zen lehen. Bizikletak eta motorrak iritsi zirenean, haien jabeek arrakasta handiagoa izaten zuten. Asteasuarrak gaiztoak omen ziren; gaizki ikusten zuten kanpoko mutilek herriko neskak hartzea. Orduko ika-mikak.

1.488. Neskari lagundu, eta gero nola itzuli? (AND-080/024)

Kuadrillan, herritik kanpo joanez gero, bakoitza bere gisa moldatzen zen neska-laguntzeko. Norabidea galtzen zutenean, nola-hala bilatzen zuten bide zuzena. Lagunen artean, komentatzen zuten neskekin zer lortzen zuten.

1.489. Nesken gainean zegoen bekatuaren zama (AND-080/025)

Lehen, bekatuaren zama handia zeukaten neskek. Jaiotzatik, ezetz esaten erakusten zitzairen neskei. Mutilek neskeengan zer bilatzen zuten azaltzen du. Autobusean, estu joatea gustatzen zitzairen.

1.490. Dantzako maiseatzaileak eta apaizaren hitzen pisua (AND-080/026)

Lehen, maiseatzaileak egoten ziren dantzaldietan, ikusitakoa apaizari kontatzera joaten zirenak. Geroago, apaizak kargu hartzen ziren maiseatzaileek salatutako horiei. Orduan, apaizak indar handia zeukan. Haren esanen arabera, inauterietara joaten zirenak ez omen ziren pertsona normalak, bekaturako bidea omen ziren inauteriak...

1.491. Tolosako inauterietako giroa eta gehiegikeriak (AND-080/027)

Inauterietan, gehiegikeriak egiten omen ziren. Mozorroen babesean, baimenik gabe neskei zirri egiten ziotenak egoten ziren. Tolosako inauterietan, jendea gainezka egoten zen; baina, zezen-plazako giroa izaten zen garrantzitsuena.

1.492. Inauterietan, Tolosara edo baserriz baserri (AND-080/028)

Inauterietan, Andoainen ez zen giro handirik egoten. Inguruko herri guztiak Tolosara joaten ziren. Orduko mozorroak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Beraiek baserriz baserri kantari joan izan ziren, xox batzuk ateratzearren. Kanta abesten du.

1.493. Tolosako inauterien berezko umorea eta historia luzea (AND-080/031)

Inauteriak, garai batean, galarazita egon ziren. Orduan, "Udaberriko festa" izena jarri zioten inauteriei. Gerora, hainbat herritako inauteriek hartu dute indarra; baina garrantzi handiena Tolosakoek daukate oraindik, berezko umorea baitaukate han.

1.494. Aste Santuko su bedeinkatua (AND-080/032)

Gabonetan, eskean ibiltzen ziren. Aste Santuan, sua eta ura bedeinkatzen ziren, eta etxez etxe eramaten zuten; eskupekoa ematen zieten horregatik. Su bedeinkatuak urte guztirako zortea ekartzen omen zuen. Gazteek suarekin zer tranpa egiten zituzten azaltzen du.

1.495. Bedeinkazioaren babesa (AND-080/035)

Su eta ur bedeinkatuek zertarako balio zuten azaltzen du. Erramu bedeinkatua ere izaten zuten etxean, zorte ona izateko. Jainkoaren inguruko kezka eta beldurra izaten zen lehen.

1.496. Zorte ona erakartzeko ohiturak (AND-080/036)

Erramua sutara botatzeko ohitura zuenik bazen. Soroan, gurutzeak jartzen ziren txokoetan, zorte ona ekar zezan.

1.497. Erramua, hildakoaren gorpua igurzteko (AND-080/037)

Norbait hiltzen zenean, erramua jartzen zen gelan, ur bedeinkatuarekin busti eta hildakoaren gorpua harekin igurzteko.

1.498. Andoaingo ermitak eta elizak (AND-080/041)

Andoaingo eliza nagusia San Martin da; Sorabillan, San Martin eliza dago; eta Santa Kruz ermita ere bazen lehen. Lehen, Andoain nolakoa zen azaltzen du.

1.499. Andoaingo etxerik politenak, Goiburun (AND-080/043)

Goiburun, San Esteban ermita dago, eta abuztuaren 3an izaten dira hango festak. Auzo hori oso ondo antolatua dago, eta hainbat obra egin izan dituzte auzolanean. Etxerik politenak alde hartan daude.

1.500. Trafiko gutxi zeneko kontuak (AND-080/045)

Andoainen, hainbat festa ospatzen dira. Lehen, Santa Kruzetan, errepidean dantzatzen zuten; eta, autoa etortzen zenean, hura pasatzeko lekua egiten zioten. Lehen, trafiko gutxi ibiltzen zen. Bizikleta edukitzea gauza handia zen.

1.501. Bonba-fabrikatik igeltserotzara (AND-080/047)

6 urterekin hasi zen eskolan. Baina, 11 urte zituela, bonba-fabrika lanean hasteko aukera izan zuen. Gerora, gau-eskolan ibili zen. 18 urte zituela, konturatu zen hura ez zela beretzako lanbidea; eta igeltserotzan hasi zen lanean.

1.502. Igeltsorako aldaketak lehendik hona (AND-080/048)

Igeltserotzan aritu izan da lanean, gaztetan hasi eta erretiroa hartu arte; oso gustura ibili izan da. Orduko lan motak aipatzen ditu. Lehendik hona, hainbat gauza aldatu dira igeltserotzan: materialak, tresnak...

1.503. Igeltserotzako tresnak eta segurtasun-neurriak (AND-080/049)

Igeltserotzan, lan-tresnak aldatu dira; baina baita tailerreko argindarra ere. Lehen, segurtasun-neurri gutxiago izaten zituzten, eta kontu handiz egin behar izaten zuten lan.

1.504. Ehizaren interesgarriena: geroko tertulia (AND-080/050)

Ehiza gustatu izan zaio Rafaeli, baina ez zuten asko harrapatzeko grina izaten, gutxiarekin konformatzen ziren. Ehizan, ehiza bera baino, haren inguruko tertulia gustatzen zitzaion.

1.505. Hegaztien ohiturak (AND-080/051)

Hegaztien ohiturei buruzko kontuak azaltzen ditu: usoenak, oilagorrenak...

1.506. Birigarroak lehen estimazio gutxi zeukan (AND-080/053)

Birigarroaren ehizaz hitz egiten du. Birigarroari tiro ugari botatzeak pena ematen zien, ez zitzaion iruditzen merezi zuenik.

1.507. Euskara etxean, batzuekin bai eta besteekin ez (AND-080/057)

Etxean, hiru senide zaharrenek euskaraz hitz egiten dute elkarren artean; baina gerora etorritako senideekin, erdaraz, haiei erdararen modak harrapatu baitzien. Euskaraz idazteari buruz hitz egiten du.

1.508. Euskararen aldaketak batetik bestera (AND-080/058)

Lehen, ez zitzaion garrantzirik ematen beste hizkuntzak ikasteari. Andoaingo hizkera inguruko herrietakoekin alderatzen du.

1.509. Umetako jolasen oroitzapenak (AND-082/002)

Txikitako lehenengo oroitzapenak aipatzen ditu: jolasean ibiltzen ziren kalean, erreka izkinan, futbol-zelaian... Orduko jolasak aipatzen ditu: gordeketa, zigarroak erretzen...

1.510. Erreka zikina zegoeneko garaiko aisialdia (AND-082/003)

Lehen, erreka lehen oso zikina zegoen. Leitzaran ibaira igeri egitera joaten ziren. 10-11 urterekin, sagarrak lapurtzen ibiltzen ziren.

1.511. Andoaingo auzo bakoitzaren ospea (AND-082/004)

Zumea auzoko umeek zintzo-ospea zeukaten. Ondoko auzokoak, ordea, Etxeberrietakoak, oso bizkorak ziren; futbolean oso onak ziren; eta gaizto-ospea zeukaten. Lehen, bakoitza bere auzoan ibiltzen zen. Bastero auzokoak ere zintzoak omen ziren, baina herritik urruti bizi ziren. Lehen, denak berdinak ziren, gerrak denei eman baitzien egurra. Gerra ostean, ez zegoen ezer soberan.

1.512. Erregimen garaiko eskolako ohiturak (AND-082/005)

Gerra ostean, eskolan egunero abesten zituzten erregimen frankistako abestiak. Falangeko fletxak ere gogoan ditu. Maiatzean, egunero errezatu behar izaten zuten.

1.513. 9 urte zituenerako, koruan (AND-082/006)

Igandero, meza nagusira joan behar izaten zuten. 9 urterekin, Jesus Mari koruan hasi zen abesten. Arratsaldetan, zinera joaten ziren.

1.514. Betidanik, musikazalea (AND-082/008)

Betidanik izan da musikazalea. 8 urterekin hasi zen solfeoa ikasten, don Alberto Agirrerekin. Garai hartan, diziplina zegoen; eta, zigortzen bazituzten, etxean ez zuten ezer esaten, bestela errieta egiten zieten eta.

1.515. Koruan emakumerik ez (AND-082/009)

9 urte zituenerako, koruan tiple (soprano) zen, eta mezan abesten zuten. Garai hartan, koruan ez zegoen neskarik. Emakumeak lehen ez ziren gizonak adina irteten kalera.

1.516. Lehengo mezak, eta emakumeen papera (AND-082/013)

Lehen, mezak latinez izaten ziren, apaiza jendeari bizkarra emanda egoten zen, kantu gregorianoak abesten zituzten... Maiatzean, Ama Birjinari abesteko, emakumeek kantatzen zuten; baina ez korura igota, herri gisa baizik.

1.517. JOC taldeko kezkak eta dinamika (AND-082/014)

Lehengo kongregazioak aipatzen ditu: Mariaren Alabak, Luistarrak. Garai hartan, JOC taldea zegoen: lantokiko arazoez hitz egiten zuten, eta arazoak konpontzeko elkartzen ziren han. Orduko arazoak eta kezkak gogoratzen ditu: kanporatzeak, gau-eskolak...

1.518. Gau-eskoletan irakasle ibili zenekoa (AND-082/015)

Gau-eskoletan, irakasle aritu izan da Jesus Mari. Ikastera etortzen ziren gehienak kanpokoak ziren. Andoaingo eskoletan kultura maila txukuna hartzen zuten. Kanpoko jendea nondik etorri zen aipatzen du.

1.519. Andoainen, musikan murgilduta ibilitako pertsonak (AND-082/017)

Andoainen, musikan murgilduta ibili ziren pertsonen buruz hitz egiten du: Alberto Agirre, haren semeak, Juan Bautista Barandiaran...

1.520. Mendira txistua jotzera (AND-082/022)

Igandero, mendira joaten zirenean, txistua eramaten zuten. Zer menditan ibiltzen ziren aipatzen du: Aralarren, Urbian... Orduan zer kanta mota jotzen zuten. Geroago, Aberri Egunak hasi zirenean, hara ere hasi ziren joaten txistua jotzera. Nahiago izaten zuten mendian jo, kolean baino.

1.521. Lehen abestu ohi zituzten kantak (AND-082/023)

Lehen gehien jotzen zituzten kantak zein ziren gogoan ditu.

1.522. Lehengo erromerietako giroa (AND-082/025)

Gaurkoaren aldean, lehen, erromerietako giroa oso desberdina zen: jendea dantza egitera joaten zen, eta binaka dantzatzen zuten.

1.523. Kaletarrak oinez batetik bestera (AND-082/026)

Lagun-kuadrillak izaten ziren lehen, eta hara eta hona joaten ziren. Neska-laguntzeko, beraiek ez zuten ez motorrik ez kotxerik izaten. Noizean behin, Oialumera joaten ziren; baina, baserritarren aldean, kalekoek desabantaila zeukaten neska-laguntzarako, motorrik ez baitzuten. Villabonako festetara joaten ziren; eta, askotan, oinez itzultzen ziren etxera.

1.524. Euskararekiko maitasuna eta beldurra denboran zehar (AND-082/029)

Euskararekiko sentimenduaz hitz egiten du. Pena du, gaztea zela, ez euskara gehiago ikasi izanagatik. Gizonek oraindik euskara mantentzen dute; baina beldurra egon izan da euskaraz hitz egiteko.

1.525. Maizterra ondo konpondu behar jabearekin (AND-083/002)

1937an jaioa da. Bere kintan gutxi samar ziren, gerra garaia tokatu zelako. Politika konturik ez zuten etxean. Maizterrak baserri jabearekin ondo konpondu beharra zeukan, eta haren gustua egiten saiatzen zen. Galardi baserrian jaioa, orain desagertua.

1.526. Larre motzean haziak (AND-083/005)

Zortzi senidetik seigarrena da. Umetako kontuak. Anaia zaintzea ere egokitu zitzaion. Ogi faltaz gogoratzen da; ez zitzaion taloa gustatzen. Jostailurik ez zuten. Erregeek laranjak ekartzen zizkieten. Larre motzean haziak.

1.527. Baserri txikia zen Galardi (AND-083/006)

Baserri txikia zen Galardi. Lursail gutxi zuen. Alokairuan ere hartzen zituzten lurrak. Aita itzaina zen, eta idiak ziren inportanteenak etxean. Hiru behi, txerria, oiloak...

1.528. Aitaren lanak itzain moduan (AND-083/007)

Aitaren lana itzain moduan. Aitak Villabonara pasta eramaten zuen, idiekin. Kamioiak hasi zirenean bukatu zen lanbidea. Kotxerik ez zen sasoi horretan.

1.529. Umetatik, "itzulian" (AND-083/008)

Baserrietan zazpi urtez geroztik egiten zen lana, "itzulian" edo "ittaurrian" adibidez. Lan aspergarria zen, idiak geldoak zirelako. Atzean senide zaharragoren bat edo aita joaten zen. txikitatik ezagutzen zituzten etxeako idiak.

1.530. Idi pare onaren ezaugarriak (AND-083/009)

Idi pareak ona izateko nolakoa izan behar duen.

1.531. Lurra lantzeko tresnak: lau-hortzekoa, goldea, harea (AND-083/010)

"Itzulian" erabiltzen ziren tresnak: lau-hortzekoa, goldea, area, alperra...

1.532. Lurra lantzeko tresnak: alperra, hesia eta mazoa (AND-083/011)

Alperra nolakoa den azaltzen du. Rastrak egiten zuen alperraren lana, etxe batzuetan. Hesia, lurra berdintzeko. Zokor-mazoa; umeak ere aritzen ziren mazoarekin.

1.533. Lurra ongarritzea (AND-083/012)

Lurra ongarritu beharra zegoen, simaurrarekin. Noiz egiten zuten. Karerik ez zuten erabiltzen. Arto sustarra bildu egiten zen, txikitu, eta behien ohe bihurtzen zen.

1.534. Ama, baserriaren arduran (AND-083/013)

Ama arduratzen zen baserriko lanez, umeen laguntzaz, aita kanpoan ibiltzen zelako. Ereiteko garaiak. Artoa, babarruna eta patata ziren lehenagaiak.

1.535. Patataren begiak (AND-083/014)

Patata haziari buruzkoak. Patataren begiak.

1.536. Patata nola erein (AND-083/015)

Atxurrarekin arrastoa egin, eta patata nola erein. Marka erabiltzen zuten distantzia neurtzeko. Patata jorratzea. "Arba".

1.537. Patataren gaixotasunak (AND-083/016)

Patata zomorroa eta herdoila.

1.538. Patata ateratzeko ordua (AND-083/017)

Patata ateratzeko garaia: uztaila edo abuztua. Atxurrarekin ateratzen zuten. Eguraldi lehorrarekin komeni. Patata zuloko 3-4 kilo patata atera daiteke, patata onarekin.

1.539. Patata ganbaran lehortzen (AND-083/019)

Baratzuriari ere herdoila egiten ei zaio orain, eta lehen ez. Patata kopan bildu, eta ganbarara eramaten zuten. Gero, amak txikiak apartatzen zituen, ganaduarentzat. Estali egiten zuten, ez izozteko.

1.540. Gerraosteko eskasia (AND-083/020)

Taloez du asko maite. Ez da gerrarekin gogoratzen, baina soldaduak egon ei ziren etxean. Gerraosteko eskasia bai, ezagutu zuen. Errotak itxita egon ziren garaian, aita beste nonbaitetik ekartzen zuen artio-rina. Tren txikian ekartzen zuten batzuek, Leitza aldetik.

1.541. Eskolan fraideekin, 12 urte arte (AND-083/022)

Eskolara joateko gogoia bai, baina aukerarik ez. 12 urte arte ibili zen. La Salleko fraideekin azken urteak. Dotrina zen euskaraz ikasi zuen bakarra. Fraide gehienek ez zekiten euskaraz. Gogorrak ziren, baina asko ikasi zuen. Orduko mentalidadea.

1.542. 12 urterekin morroi, 14rekin fabrikara (AND-083/023)

12 urterekin Urnietara joan zen arreba zaharrenaren etxera, laguntzera. Bi urte egin zituen han. Gero, 14rekin lantegietan hasten ziren. Erraza zen lana aurkitzea. Pixka bat gehixeago ikasi izan balu, ofizioa ikasiko zuen gero fabrikari. Ciaco pertsiana fabrikari bi urte egin zituen eta Olamian gero, 13 bat urtean; ordu libretan, zoruak akutxilatzen zituen.

1.543. Butanoa partitzen, Andoainen (AND-083/024)

Ezkondutuek, Olamiaz aparte butanoa partitzen hasi zen Andoainen. Gero, Olamia utzi zuen. 9 urtean ibili zen butanero. Galardin su baxua ezagutu zuen, baina ekonomia toki askotan zegoen. Butanoa aurrerapen handia izan zen. Goizuetara eta Aranora ere eramaten zuten butanoa.

1.544. Andoain zenbat aldatu den 1965etik hona (AND-083/027)

Andoaingo argazkia, 1965ekoa. Aldaketak aipatzen ditu. Hiltegia, Ondarreta baserria, Berrobi baserria, La Salle fraideen ikastetxea, Galardi baserria, Muñagorri jauregia...

1.545. Tren txikiaren agonia (AND-083/029)

Tren txikia nondik joaten zen erakusten du, baina 1965erako ez zegoen. Azkenengo urteetan egur garraioan ibiltzen zen batez ere.

1.546. Andoain 1965ean (AND-083/030)

Lehengo kanposantua eta etxe "berriak".

1.547. Euskara, inportantea (AND-083/032)

Euskara zer den berarentzat. Umeak izan zituztenean ikastolara eraman zituzten, eta asko ikasi dute haiekin. Tankeran hitz egiten dute, hala ere. Fraideek ez zieten kargu hartzen euskaraz egiteagatik.

1.548. Euskalkien mugak (AND-083/033)

Andoainen eta inguruko herrietan antzeko hitz egiten da. Hitz solteak aldatzen dira Urnietatik Andoainera. Adibideak jartzen ditu. Alegian desberdin hitz egiten da, hitzak e-z amaitzen dira a-z amaitu beharrean. Zarautz, Irun eta Azpeitia aipatzen ditu. Tratamenduak: hika eta berorika.

1.549. Elizan, dotrina euskaraz (AND-083/035)

Elizak euskara mantentzen lagundu duela dio. Dotrina euskaraz ikasteko aukera izan zuen.

1.550. Elizondo baserrian jaioa (AND-084/002)

Andoainen jaioa, Elizondo baserrian. Eliza dauka ondoan. Su bajua zuten sukaldean eta sukaldean ez zen dutxarik: zuloa ikuilura. Lehengo atea zabalagoa zen, idiak ere handik sartzen ziren eta. Idi pareak zuten.

1.551. Idiekin lurra lantzera, hara eta hona (AND-084/003)

Baserri guztietan ez zituzten idiak. Lanerako erabiltzen zituzten. Hamabost egun ere egin zituen berak idiekin batera eta bestera, Nafarroa aldera. Ez zen errentagarria. Fabrikan ere egin zuen lana.

1.552. Idiekin lurra lantzera, hara eta hona II (AND-084/004)

Idiekin egiten zuen lana zenbat kobratzen zuen. Goldetu egiten zuten. Tren txikiaren mesillan eramaten zuten goldea, karrilaren gainean. Itaurrean bertako norbaitek egiten zuen, neska gazteak normalean, eta bera gustora.

1.553. Lurra lantzeko tresnak (AND-084/005)

Garotan eta egurretan ere ibiltzen ziren idiekin. Goldea burdinezkoa zen. Egurrezko besabeak bai, baina golderik ez du ezagutu. Area, alperra, karramarroa, hesia... Aldiarekin erabiltzen zuen 500 kiloko alperra. Arbi hazia botatakoan hesia erabiltzen zuten. Rastra.

1.554. Ondo gobernatuta, baserriz baserri zebilenean (AND-084/006)

Lan asko egin eta gutxi irabazten zuen idiekin baserriz baserri zebilenean. Idiei zer ematen zien jaten. Baserrietan ondo ematen zioten jaten; etxean erdi goseak egon arren, kanpokoarentzat beti ona jartzen zuten. Etxean zegoenean zer jaten zuen.

1.555. Garotan ere nahikoa lan (AND-084/009)

Bi ordu eta erdiko bidean joaten ziren garotara. "Loteak" egiten ziren garotarako. Ahalik eta garo gehien ekartzeko gurdia nola prestatzen zuten (ezpatak, zarbak...); behin mugitu ezinik geratu zen, behea jota.

1.556. Trontzerrarekin (AND-084/011)

Garai bateko ibilerek hozkia ematen diote orain. Elurretan ere ibiltzen ziren, trontzerrarekin egurra mozten. Trontzerrarekin ibiltzen zen, lehian San Estebanetan.

1.557. Harri jasotzen ibilia (AND-084/012)

Harria ere jasotzen zuen. Fabrikako nagusiak apostua antolatu zuen, baina besteak atzera egin zuen. Ez zuen txalekorik eta odoletan bukatu zuen. Harri klaseak.

1.558. Harri jasotzen ere ibilia II (AND-084/014)

Harri jasotzen ibili zen garaiko kontuak. Erraz esaten zuten jokatzeko, baina afizioz egiten zuten, ez diruarengatik. Txuletak zenbat balio zuen. Jasoaldiak baino minutuak kontatzen ziren. Jasoaldi onak eta txarrak.

1.559. Garai bateko harri jasotzaileak (AND-084/016)

Garaiko harri jasotzaileak aipatzen ditu. Usategieta, Manterola...

1.560. Segan ere bazekien (AND-084/017)

Segan ere aritu zen. Apustua egitekotan egon zen, Tapiarekin. 105 kilo pisatu zituen urte askoan.

1.561. Herri kiroletan entrenatzaile (AND-084/019)

Gazte denboran trontzerrarekin, bi biren kontra. Lasartera jaoten zen erakustera, eta gero etxera joan zitzaion talde bat, ikastera. Taldeka lehia egiten zen nafarren kontra. Entrenatzaile ibili zen. Oriotik arraunerako nahi zuten, baina urruti zen, eta ez zen joan.

1.562. Asto-probetan, Azpeitian (AND-084/020)

Idi-probak eta asto-probak. 700 kiloko harriarekin, Azpeitian. Itzain ibiltzen zen bera. Herri kiroletan mutil gutxi Andoainen; futbolistak bai onak.

1.563. Ama bertakoa, aita Amasakoa (AND-084/022)

Ama bertakoa zuen, Elizondo baserrikoa, eta aita Amasakoa. Ama alargundu egin zen hiru umerekin, eta bigarren ezkondu zen. Beste hiru jaio ziren.

1.564. Andoaingo euskara (AND-084/024)

Andoaingo euskara eta inguruko herrietako euskarak berdinak iruditzen zaizkio. Tolosan aldatzen da pixka bat, eta handik aurrera gehiago. Lasartetik behera ere bai. Bizkaiera ez du ondo ulertzen. Euskara garbia nongoa den.

1.565. Idiak kentzean, traktorea (AND-084/026)

Idik kendutakoan traktorea jarri zuen. Izan dituen traktoreak. Jostaketa da traktorearekin ibiltzea, goldearekin konparatuta.

1.566. Karmentxo Enea (AND-085/003)

Pilar Enea izatetik Karmentxo Enean izatera pasa zen Andoaingo kaleko etxea.

1.567. Ama hogeita hamabost urterekin ezkondu (AND-085/004)

Sei senide izan ziren. Ama 35 urterekin ezkondu zen eta 37 urterekin izan zuen lehendabiziko haurra: Maria Jesus bera.

1.568. Mojen zigorra (AND-085/008)

'Cara al sol' ozenki ez kantatzeagatik zigorra ezarri zioten mojek Maria Jesusi: Espainiako ereserki nazionalaren letra hogeita lau aldiz kopiatzea. Gurasoek hori jakin zutenean, Maria Jesusen bila joan eta etxera eraman zuten, mojei sekulakoak esan eta gero.

1.569. Gregorio 'carbonero'k mojak Valladolidera bidali! (AND-085/009)

Gregorio 'carbonero' esaten zioten ikazkin bati kontatzen zizkieten Maria Jesusek eta haren bi ahizpek mojekin izaten zituzten istiluak. Harekin husten zituzten barrenak.

1.570. Antzinako kanta (AND-085/013)

Oso antzinako kanta. Maria Jesusen aita bere aitonari entzuten ziona, eta etxean maiz kantatzen omen zutena.

1.571. Gabon kanta (AND-085/020)

Koruarekin kantatzen zuen gabon kanta. Maria Jesusek bakarlari moduan kantatzen zuen.

1.572. Burgosko osaba (AND-085/022)

Hogeita zortzi biloba ditu Maria Jesusek. Etxean juntatzen direnean, guztiak kantuan aritzen dira. Burgoseko osabari, ordea, isiltzeko esaten diote, belarri onak ez duelako.

1.573. Alkateak lurren jabe (AND-085/025)

Aitak Andoaingo baserri guztien izenak erakutsi zizkion. Aitak Andoaingo lurrei eta jabetzei buruzko kontuak azaldu zizkion.

1.574. 'Ardi kontuan dabil gure Joxe Mari' (AND-085/026)

Irakasle izandakoa da Maria Jesus, eta ikasleekin paseatzera joateko joera handia zuen. Behin, Joxe Mari Oiartzabal soinu jotzailearen baratzearen

aurretik pasa eta denen artean kantatu zioten bertsoa kantatzen du Maria Jesusek.

1.575. Ikasle erdaldunak euskalduntzen (AND-085/027)

Behin Ikastolen mugimendua sortuta sartu zen Maria Jesus irakasle. Irakasle ikasketak Bergaran egin zituen, asteburutan joanda. Haur erdaldunekin aritu izan zen, haiek euskalduntzea helburu. Hurrei ezkutatu egiten zien berak gazteleraz bazekienik.

1.576. Errenteriako hizketa goxoa (AND-085/033)

Maria Jesusek aldea nabaritzen du Andoaingo, Errenteriako eta Lazkaoko hizkeren artean.

1.577. Euskararen erabilera eskasa gaur egun (AND-085/036)

Maria Jesusen iritziz oso presentzia urria du euskarak Andoaingo kaleetan zehar. Gainera, nahikoa omen da euskaraz ez dakiten lagun pare bat tokatzea, bilera oso bat gazteleraz egiteko.

1.578. Bixiketan, lokatzezeko ontziekin (AND-087/002)

Lokatzezeko ontziak egiten zituzten eta horiek erabiltzen zituzten bazkaria prestatzen ariko balira bezala jolasteko.

1.579. Korroan jolasteko kanta. "Korruan korruanera" (AND-087/003)

Korroan jolasteko kanta. Nola jolasten zuten azaltzen dute. "

1.580. "Eragidazu, eragidazu..." lo-kanta (AND-087/006)

Lo-kanta. "Eragidazu, eragidazu..."

1.581. "Honek eta honek eta honek..." hatz-jolasa (AND-087/007)

Hatzamarrekin egiten den jolaserako kanta. "Honek eta honek..." Batek doinuarekin eta besteak errezitatuz esaten du.

1.582. "Honek txotxak bildu..." hatz-jolasa (AND-087/008)

Hatzamarrekin egiten den jolasa, hitzak errezitatuz. "Honek txotxak bildu..."

1.583. "Arre-arre mandako" kantua (AND-087/009)

"Arre-arre mandako" kantua, umea oinaren gainean jarrita hanka mugituz kantatzen dena.

1.584. "Txantxibiri..." kantua (AND-087/011)

"Txantxibiri" kantua.

1.585. Eskuarekin jolasteko kanta "Hiru txito izan eta ama galdu..." (AND-087/012)

Eskuarekin hiru hatzamar erakutsita egiten den jolasaren kanta. "Hiru txito izan eta ama galdu..."

1.586. "Alpargatak urra-urra..." kanta (AND-087/013)

Dantzarako kanta. "Alpargatak urra-urra..."

1.587. Gabon-kantak (AND-087/014)

Gabonetako kantak. "Artzai burutxuri bi, Anton eta Peru...", "Horra, horra, gure olentzero...", "Olentzero bego gorri...", "Ai hau gabaren zoragarria...", "Gabon gabian ohitura degu...",

1.588. Don Manuel Lekuonaren kantak (AND-087/015)

Gabon-kantak. Don Manuel Lekuonaren kantak abesten dituzte. "Trakatan, trakatan..." eta "Elizebatxu, txingo-txingo-txingo...". Eskolara norbait etorri omen zen kantuak irakastera.

1.589. Santa Agedatako koplak (AND-087/016)

Santa Agedatan kantatzen zituzten koplak. "Dios te salve..."

1.590. "Zubiri-zubiri" jolaserako kanta (AND-087/017)

Jolaserako kantua. "Zubiri-zubiri...". Jolasari buruzko azalpen eta bertsoak ematen dituzte.

1.591. Lo-kanta. "Eragidazu, eragidazu..." (AND-087/018)

Lo-kanta. "Eragidazu, eragidazu..." kantatzen zen lehenengo eta ondoren doinu berarekin "ttunkurrun, ttunkurrun...". Azkenean doinua bera ahoa itxita abesten zuten.

1.592. Kurkuluxekin jolasean (AND-087/020)

Kurkuluxekin nola jolasten zuten azaltzen dute. Pieza bakoitzaren izena aipatzen du eta zer esan behar zen ere bai. Bakoitzak ere batera azaltzen du. Gaztelerazko berbak esaten zituzten eta euskeraz nola zen ez dute gogoan; "Bat kurkulux, bi kurkulux..." esaten omen zien amonak.

1.593. "Andre Madalen" kanta (AND-087/021)

"Andre Madalen" kanta abesten dute.

1.594. "Nere aitag amari..." kanta (AND-087/022)

"Nere aitag amari gona gorria ekarri..." kantua abesten dute.

1.595. "Maritxu nora zoaz..." kanta (AND-087/023)

"Maritxu nora zoaz..." kanta. Lehenengo estrofa bakarrik abesten zuten.

1.596. Gipuzkoako kanpairik handiena (AND-090/002)

Gipuzkoako kanpairik handiena omen dago Andoainen. Jai handietan jotzen du berak.

1.597. Sakristau lanetan (AND-090/003)

Hamar urte zituenetik ibili zen sakristian. Serora-etxea zen, bota egin zuten. Bere senideak Etxebestera etorri ziren Baliarraidik. Oraingo kontuak ere bai.

1.598. Joakin Bermejo apaiza (AND-090/004)

Joakin Bermejo erretorea, frankistak etorri aurretik zegoena. Seminarioa zegoen lehen eta han aritzen zen. Futbol jokalaria izan zen. Eguberri batzuetan umeei jaiotza prestatu zuen antzerki modura.

1.599. Eguberrietako antzerkiko kantak (AND-090/005)

Joakin Bermejok antolatutako eguberrietako antzerkian artzaiek kantak abesten zituzten: "Ala kinkirrinera..." eta "Potxolo dago negarrez...". Ramon Aldalur "Auzokalte", oso aktore eta abeslari ona omen zen. "Auzokalte" zein etxe den aipatzen du.

1.600. Kaniketan, "gua" sartzera (AND-090/006)

Futbolekin, pilotan eta kaniketan aritzen ziren. Kaniketan egiten zuten jolasean "grixa" jo eta "gua" sartu behar izaten zen.

1.601. Lehengo eskola, antzezleku (AND-090/007)

Beheko Plazan zegoen eskola. Lehenengo pisuan eskola zegoen eta bigarrenean irakasleen etxea. Antzerkia egiten zuten bertan oso sarri. Musika kontzertuak eta boxeo saioak ere egiten ziren.

1.602. Arrate baserria eta errebotea (AND-090/008)

Kale Txikira etorri ziren bizitzera eta ondoren Arrate baserrira. Lehen Arrate non zegoen kontatzen du. Errebotean jokatzen zen frontoian eta kontra udaletxean izaten zen.

1.603. Misioetako kanta (AND-090/009)

Hiletetan abesten zen kantua kantatzen du, latinez. Meza latinez eta euskaraz izaten zen. Misioak antolatu zituen Bermejo apaizak eta ordurako asmatutako kantua abesten du. Izugarria izaten zen.

1.604. Auto lasterketa famatuak (AND-090/010)

Auto lasterketak egiten ziren. Oso ezagunak izan ziren, zirkuitoa garai hartako handiena zelako. Donostiaren garapena kontatzen du, herri izatetik hiri izatera nola pasatu zen urte gutxian.

1.605. Joxe Arretxeren esaera (AND-090/012)

Joxe Arretxeri buruzkoak. Aita karlistadetan liberalekin boluntario izandakoa eta ama aguazila zituela esaten omen zuen.

1.606. "Aizan Maria Goiko..." kantua (AND-091/002)

Hitz-jolasa erreztatzen du, ipuin moduko bat "Aizan Maria Goiko...". Eskolan ikasi zuen, señorita Doloresekin. Abesti horiek egunero abesten zituzten.

1.607. "Señor maestro, txoria he visto..." (AND-091/005)

"Señor maestro, txoria he visto..." erreztatzen du. Ez dute guztia ondo gogoratzen.

1.608. "Kukurruku, zer diozu?..." hitz-jolasa (AND-091/006)

"Kukurruku, zer diozu?..." hitz-jolasa erreztatzen du.

1.609. "A la kinkirrinera..." kanta (AND-091/007)

"A la kinkirrinera..." kantatzen du.

1.610. "A la kinkirrinera..." nola jolastu (AND-091/009)

"A la kinkirrinera..." nola jolasten zuten kontatzen du.

1.611. "Arre-arre mandako" abestia (AND-091/011)

"Arre-arre mandako..." abestia erreztatzen dute.

1.612. "Elizebatxu" kantua (AND-091/012)

"Elizebatxu, txingo, txingo, txingo..." abesten du. Irakasleak zuzendu egiten zituen.

1.613. Santa eskeko koplak (AND-091/013)

Santa Ageda bezperako koplak kantatzen dituzte. "Dios te salve" eta beste koplak batzuk.

1.614. "Trakatan trakatan..." gabon kanta (AND-091/014)

"Trakatan trakatan..." abesten zuten eskolan beti.

1.615. "Gabon gabeen ohitura degu..." kanta (AND-091/017)

Eskolan dotrina egiten zuten euskaraz. "Ama Maite Maria" abesten zuten. "Gabon gabeen ohitura degu..." abesten zuten gabonetan.

1.616. "Bat, Martin tarrat..." kontatzeko kanta (AND-091/019)

Kontatzeko kantua abesten du, "bat, Martin tarrat..."

1.617. "Amandre Santa Ines..." ametsik ez egiteko (AND-091/020)

"Amandre Santa Ines..." kantua erreztatzen du. Gauez ametsik ez egiteko.

1.618. "Jeronimo entzun zazu..." kanta (AND-091/023)

"Jeronimo entzun zazu..." abestia kantatzen dute. Ezkontzetan abesten zen sarri.

1.619. Kantoi-zahar etxean jaio (AND-095/002)

Kantoi-zahar etxean jaio zen. Doña Juanitaren dirua ikastolentzat.

1.620. "Kaleak lehen alaiagoak ziren" (AND-095/003)

Lehengo eta oraingo etxeak.

1.621. Haurtzaroko bi abesti. (AND-095/005)

Haurtzaroko bi abesti.

1.622. "Zazpiak Bat" bertsoan (AND-095/007)

Doña Juanitak erakutsitako bertsoak.

1.623. Lanean zerotik hasten ziren (AND-095/009)

Gazte garaitan lana lortzea errazagoa zen.

1.624. Eskolan ere abestuz (AND-095/011)

Biderketak eta hizkiak nola ikasi zituzten.

1.625. Kantoi zahar eta kantoi berri etxeak. (AND-095/013)

Kantoi zahar eta kantoi berri etxeak.

1.626. Umetako bihurrikeriak (AND-095/015)

Egunero arrosariotik bueltan etxeko aldaba guztiak jotzen zituzten.

1.627. Lehendabiziko Kutxa Andoainen (AND-095/017)

Atzeko plaza eta bertako antzerkiak.

1.628. Mutilen jolasa: sua (AND-095/019)

Mutilak suarekin jolasten ziren, behin batek sudurra hautsi zuen.

1.629. Alfabetoa ikasteko kantua (AND-095/027)

Alfabetoa ikasteko kanta.

1.630. Kromoekin jolasteko abestiak (AND-095/029)

Kromoekin jolasteko abestiak.

1.631. Soka saltoan ere kantuan (AND-095/031)

Soka saltoko kantuak.

1.632. Kantuak eskolan gaztelaniaz (AND-095/032)

Eskolan ere kanta guztiak gaztelaniaz.

1.633. Sehaska kanta (AND-095/034)

Sehaska kanta.

1.634. Inauteritako anekdota bat (AND-095/036)

Abesteko ohitura handia zegoen lehen, asko prestatzen zen jendea.

1.635. Hezurretarainoko beldurra sartzen zien elizak (AND-095/037)

Inauteritan ere eliza presente zegoen.

1.636. Errezua euskaraz (AND-095/039)

Errezuak.

1.637. Gasteizko apaiztegian 700 ikasle (AND-096/002)

Fraide eskolan ikasi zuen sei urtez, Gasteizko apaiztegian. 700 ikasle biltzen ziren bertan.

1.638. Errebotetik tenisera (AND-096/004)

Errebotera jolasteko partiduak prestatzen ibili zen gaztetan.

1.639. "Goardiari txistuka" (AND-096/006)

Gaztetako anekdota bat.

1.640. Soldaduei esnea ematen (AND-098/002)

Maria Kristina jaio eta berehala hasi zen gerra. Ilunabarrean, soldaduak errenkan jartzen omen ziren baserri gainaldean eta esnea partitzen zien amak. Soldaduak Belabitatik Buruntzaldera sartu ziren.

1.641. Ontzerri (AND-098/005)

Andoaingo herriari Ontzerri esan izan zaio. Izenaren jatorriari buruzko azalpena ematen du.

1.642. Sutea, baserria, basoak eta artzaintza (AND-098/006)

Urrizti baserriri buruzko azalpenak: hiru aldiz erretako baserria da. 1928an izugarrizko sutea piztu zen, basoz baso, Leitza aldetik Urrizti inguruko basoetaraino. Gaztainondo ugari zegoen Urrizti inguruan. Orduko hartan baserria sutetik salbatzea lortu zuten. Sute hura eta gero, Maria Kristinaren aita soroak egiten hasi zen. Aitona eta aita artzainak ziren: 300 arditik gora zituzten. Adarramendi eta Usalartza aldean ibiltzen ziren ardiekin. Gerora, Maria Kristinaren ume garaian, 60 ardi inguru zituzten: eskolatik irtendakoan ardi bila joan eta ardiak jetzi behar izaten zituen.

1.643. Behiak (AND-098/007)

Soroak atera eta gero, behiak jarri zituzten. 1997ra arte behi "pintoak" (esne-behiak) eduki zituzten: 20 behi eta 10 bigantxa. Gero, lantegiko lana eta baserrikoa uztartzeko zailtasunak etorri, eta behi "gorriak", limusinak, jarri zituzten.

1.644. Emakumearen zereginak (AND-098/008)

Baserriko bizimodua. Senarra lantegira joaten zen lanera, eta bera baserrian geratzen zen. Baserriko lanak amaierarik ez. Emakumea eta etxeko zereginak.

1.645. Urrizti baserria (AND-098/011)

Maria Kristinaren ume garaian Urrizti baserria nolakoa zen. Baserriaren egiturari buruzko azalpenak ematen ditu.

1.646. "Konfiantza dek gauza bat ona, fina eta segurua" (AND-098/012)

1928an Urrizti baserria erre zenean, nagusiak ez omen zuen nahi izan baserria berritu: izan ere, aurretik beste bi aldiz ere erre zen etxea. Errenta handia jarri arren, baserria egin zien nagusiak. Errenta kontratua noiz arte sinatu zuten. Baserria erosteko gizon batek aitari dirua konfiantzan utzi ziola kontatzen du.

1.647. Asteasuarrak Andoainen (AND-098/014)

Maria Kristinaren gurasoak asteasuarrak ziren. Elkar ezagutu aurretik, ordea, bien familiak Andoainera joan ziren bizitzera. Ama neskame eta Moleraneko

fabrikan ibili zen lanean. Amaren anaiak taberna zuen Andoainen, eta hango giran ezagutu ziren gurasoak. Familiari buruzko azalpenak ematen ditu.

1.648. Bakoitzak bere zereginak (AND-098/016)

Lau senide ziren, bi neska eta bi mutil, eta Maria Kristina zen denetan zaharrena. Bakoitzak bere zereginak izendatuta izaten zituen baserrian. Neskak ardi lanetan ibiltzen ziren; mutilak, berriz, basoko eta ukuiluko lanetan. Maria Kristina jostera bidali zuen amak. Ahizpak egiten zituen baserriko lan "fuerteenak": behiak jetzi, jatenak segarekin ebaki... Bi anaiak egiten zituzten sega eta baso lanak. Ikasketak bukatu eta bi anaiak bankuan sartu ziren lanera.

1.649. Garo eta soro lanak (AND-098/017)

Garo, babarrun eta arto denborako lanak. Artoari maizorria kentzen zitzaion, babarruna hobeto heltzeko. Larre eta garo artean ibilita, pantorrilak ebakita. Artean, ez zuten galtzarik janzen.

1.650. Garoa eta lursailak (AND-098/020)

Garoa beharrezkoa azpitarako eta soroak eta belazeak mantentzeko. Garoa menditik ekartzeko, idiak zituzten. Baserri fuertea zirela dio Maria Kristinak. Inguruko beste baserriei buruzko azalpena.

1.651. Arropa kontuak (AND-098/022)

Lehen, astelehenetik larunbatera arropa bera erabiltzen zuten. Igandetan, beste arropa bat janzen zuten.

1.652. Eskolarako bidea eta uniformeak (AND-098/023)

Eskolan, mojetan ibili zen lehenbiziko urteetan. Baserritik eskolara arteko bideak ikaragarri txarrak ziren; lohia eta ura besterik ez. Bide bazterreko baserri batean aldatzen zituzten oinetakoak. Astea uniforme batekin pasatzen zuten. Igandetan, beste uniforme bat edukitzen zuten mojekin meza nagusira joateko.

1.653. Labadora (AND-098/024)

Gutxitan garbitu izan du arropa garbitokian. Nahiko goiz jarri zuten labadora baserrian.

1.654. Asteko eta igandeko uniformeak (AND-098/025)

Eskola garaian, bi uniforme zituzten: astekoa eta jaietakoa. Asteko uniformeak zikinduz gero, larunbatean garbitu eta astelehenerako prest eduki behar izaten zen. Igandetako uniformeak ez zuten astetik atera garbitzen; mezik bueltatu eta aurreneko lana arropa aldatzea izaten zen.

1.655. Jaietako arropa (AND-098/026)

Maria Kristinaren amona eta ama elegante jantzekoak ziren. Lagunak bata eta alpartekin janzen ziren. Bera, berriz, organtzazko soinekoa, zapata zuriak eta kapela jantzita joaten zen mezara.

1.656. Orrazkera (AND-098/027)

Komuniorako permanentea egin zuen. Maria Kristina eta ahizpa ile-apaindegira eramaten zituzten ilea moztu eta txukuntzera.

1.657. Komunioko soinekoa (AND-098/028)

Komunio handirako nolako arropa eraman zuen azaltzen du.

1.658. Alpargatak jantzi nahi (AND-098/030)

Gazte garaiko janzkerari buruz hitz egiten du. Maria Kristina eta ahizpa oso dotore janzten ziren. Lagunak, berriz, bata eta alpargatekin. Beraiek ere zapata zurien ordeztu alpargatak jantzi nahi izaten zituzten. Herriko giroa nolakoa zen aipatzen du.

1.659. Erromeriak (AND-098/031)

Gaztetan, Aduna, Amasa, Zizurkil eta Urnietako erromeriatara joaten ziren. Amak ez zien uzten Oialumera joaten. Zizurkilen, orkestina. Adunan, dantza sueltotan egin behar izaten zen. 21:00etarako etxera bueltatu behar izaten zuten bi ahizpek: lagunak dantzan geratzen ziren.

1.660. Nesken eta mutilen heziketa, etxean (AND-098/032)

Etxeko kontuak. Nesken eta mutil arteko bereizketa. Erromeriara joaten zirenean, bi neskei ez zien dirurik ematen trena edo tranbia hartzeko: oinez joaten ziren Aduna edo Zizurkilera. Aldiz, mutilei dirua ematen dien. Behinola, erromeriatik etxera zihoazela harrika egin ziela kontatzen du.

1.661. Sute handia (AND-099/002)

Joxe Luisek hamar hilabete zituela Leitzalarretik Iyuya ingururainoko mendi guztiak kiskali ziren, txondor batetik ateratako sua zela eta. Amonak besotan hartuta urrundu zuen Joxe Luis, baserriak su har zezakeelakoan, eta amonari buruko zapiak su hartu zion. Hala ere, onik atera ziren biak. Baserria erre egin zen eta Bista Eder baserrira joan ziren bizitzera. Bertan hazia da Joxe Luis.

1.662. Sute handia II (AND-099/004)

1929ko suteak zein kalte eragin zituen esaten du Joxe Luisek. Urrizti baserrian bizi dira gaur egun; gutxienez bitan erretako baserria.

1.663. Huntza ardiaren gustuko jaki (AND-099/006)

Hazi ahala arrebak neskame joan ziren. Neguan, aita artalde bat zaintzen zuen eta gainontzeko senitartekoek beste bat. Huntza ematen zieten jaten ardiei.

1.664. Aziendarentzako jana preparatzen (AND-099/007)

Etxean hiru-lau behi izaten zituzten eta haiei huntza eta ote samurra ematen zieten. Otea jo behar izaten zen, txiki txiki egin, huntza, belar ondu, arbi edo erremolatxarekin nahasi nahi baldin bazen.

1.665. Txondorra nola egiten den (AND-099/009)

Joxe Luisen aita basolanetan jarduten zuen udan. Joxe Luisek azaltzen du txondorra nola egiten den. Egurrak, ikatz egitekotan, txondor barruan erre ez, egosi egin behar du.

1.666. Ikatza txondorretik atera eta saldu (AND-099/010)

Hamar urte betetzerako Joxe Luis ikatza saltzen ibiltzen zen, aurrera eta atzera. Zortzi urterekin hasi zen eskolan, baina hamar urte betetzerakoan utzi zuen, eta mendian lanean hasi zen gero, aitari laguntzen.

1.667. Urriztiko lehen maizterrak (AND-099/018)

Urriztiko lehen maizterrak Nafarroako Labaiengo familia bateko kideak izan ziren. Bizilekuaz gain, egunean laurogei litro esne erosteko prest zegoen hartzaile-zerrenda eman zieten labaiendar haiei, baina hiru semek alde egin zioten aitari eta hiru urteren buruan utzi zuten baserria.

1.668. Urrizti erosi (AND-099/020)

Bigarren familia bat egon zen Urriztin, maizter, baina horrek ere ez zuen iraun. Koinatuek etxea saldu beharra zegoela zioten, baina Joxe Luisi pena ematen zion etxea saltzeak, eta berak erosi zuen.

1.669. Baserriko lanaren etekina eta diru-laguntzak (AND-099/022)

Joxe Luisek beti ezagutu ditu abereak baserrian. Urrizti baserria koinatuei erosi eta gerora ere behiak jarri zituen. Hala ere, beste garai batzuk ziren, eta egungoarekin alderatuz, baserriko lanari atera ahal zitzaion etekina oso bestelakoa zen.

1.670. Sasiardiak eta zotalekoak (AND-099/024)

Joxe Luisek azaltzen du zein alde dagoen sasiardien eta zotalekoen artean.

1.671. Lizar-hostoa ardien (AND-099/025)

Iyuya baserri inguruan lizar asko zegoen, eta lizar hostoa biltzen zuten, neguan ardiei emateko. San Migeleko ilbeheran biltzen zen hostoa eta sabaian jarri.

1.672. Pentsutarako dirurik ez (AND-099/026)

Joxe Luis eta haren senideak aitarekin batera artzain ibiltzen zirenean, ez zuten ia dirurik ikusten, eta ondorioz, ardientzat pentsurik ere ez zen erabiltzen.

1.673. Mendira igo eta ardiak jetzi (AND-099/028)

Zortzi urte zituenetik, eta hamalau bete bitarte, ardiak jetzi behar izaten ziren garaian, udan, egunero joan behar izan zuen Joxe Luisek haiek jetzi eta esnea jaistera, amak gazta egin zezan. Anaia zaharragoarekin joaten zen.

1.674. Gatzagi naturala zer den (AND-099/030)

Esneko arkumearen gatzagia da lehortzen jarri eta gazta erabiltzeko erabiltzen dena. Behin belarra jaten hasi den arkumearen gatzagiak ez omen du gazta egiteko balio.

1.675. Gazta egiten (AND-099/031)

Esnea hogeita hemezortzi gradutara berotuta egiten da gazta. Esnea gehiago berotuz gero, gazta zakarragoa ateratzen da; esne hotzagoarekin, aldiz, beragoa. Esnari gatzagi naturala gehitzen zaio; esnea lehortu egiten da, eta

txikitu egin behar izaten da hori guztia. Eskuekin bildu eta zapaldu, eta gazura apartatu egiten da. Ondoren, latazko molde borobil batzuetan sartzen zen gazta; molde hauei "sumitz" esaten die Joxe Luisek, eta hondoa zulotxoaz josia izaten zuten, eskuz estutzerakoan gatzura guztia irten zedin.

1.676. Gazta ketu eta kolorea eman (AND-099/032)

Gazta ketu eta kolorea emateko haltzaren egurrari su ematen zitzaion, eta gaztak su horren gainean jartzen ziren, keak gaztak biltzeko moduan. Txikoria urarekin egiten ere ezagutu du Cristinak.

1.677. Mami ona egiteko gakoak (AND-099/033)

Garai batean mamia gutxitan egiten zuten Joxe Luisen etxean. Gazta egiteko joera gehiago zuten. Esnearen tenperatura erabakigarria da mami ona egiteko.

1.678. Gazura txerrientzat (AND-099/034)

Gazta egin eta sobratzen zen gazura txerriei ematen zieten.

1.679. Oilaskoak kalera saldu eta sardinzarrak etxerako (AND-099/035)

Oilaskoak kaletarrei saltzen ateratzen zuten etekinik handiena. Sardinzarrak eramaten zituzten baserrirako; egun baino estimazio handiagoa zuten orduan sardinzarrek.

1.680. Arkumeak Erreteriarra saltzen (AND-099/037)

Izeba batek jatetxe handi bat zuen Erreterian, eta hari saltzen zizkioten arkumeak, etxean hilak eta larrutuak.

1.681. Arkumearen odola jan (AND-099/038)

Arkumearen odola egosita jaten zen: arrautzarik baldin bazuten, tortillan; eta arrautzarik ez baldin bazen, aldiz, odola hutsik jaten zen.

1.682. Ardi mozteko garaian, arkume jateak (AND-099/039)

Ardi mozteko garaian, arkume jateak egiten zituzten bazkaritan. Hala ere, lan handia eta nekeza izaten zen ardi moztea, eta gosaritarako, arkumearen bihotza, birrikak, burua eta lepoa jan ohi ziren, patatekin kazuela handi batean prestatuta. Ondoren, bazkaritan, hildako arkumea jango zuten, erreta zein gisatua.

1.683. Ardi moztea (AND-099/040)

Udan berorik pasa ez dezaten mozten zaie ilea ardiei. Egun, urtean bitan mozten zaie, baina garai batean urtean behin mozten zitzairen, San Juan egunerako-edo. Ardi moztea guraizeekin egiten zen lehen, eta aprobetxatu egiten zen ardiei zintzarriak eta uztaiak berritzeko. Hankak lotu egiten zaizkie ardiei, geldirik egon daitezen eta ilea errazago mozteko.

1.684. Ardien hanka-minak sendatzen (AND-099/041)

Ardi mozteak hanka-minak osatzeko aprobetxatzen ziren ere.

1.685. Aharia zikiratu edo aldatu (AND-099/042)

Ahari batek bere ume bat estaltzen badu, handik ez da arkumerik ondo jaioko. Horregatik, ahariak, behin estalketa lanak egin eta gero, zikiratu edo aldatu egiten dira. Ahari bat berrogeita hamar ardi inguru estaltzeko izan ohi zuten.

1.686. Ahariak zikiratzen zituen osaba (AND-099/043)

Aldea dago garai bateko zikiratzeko modutik gaur egunekora. Zikiroa, ahari zikiratua alegia, jaki estimatua izan da beti.

1.687. Arkumea noiz jaio (AND-099/044)

Aldatu egin da aharia artaldeari botatzeko garaia. Garai batean, arkumeak udaberrirako etor zitezen nahi izaten zen. Egun, diru gehien egiten duen garairako ekarri ohi dira: Gabonetarako, alegia.

1.688. Artaldea osatzen (AND-099/045)

Artaldea ezin da justuan osatu. Beti izan behar dira ardiak soberan, badaezpada ere. Lehen urtea bete arteko ardiari arkume esaten zaio. Bost urtetik gorakoa, aldiz, ardi zaharra da.

1.689. Ardiak arkumea ukatu (AND-099/046)

Orain baino gehiagotan gertatzen omen zen lehen, ardi batek umea egin eta ez onartzea edo ukatzea. Joxe Luisek dio ardia gutxi janda egoteagatik gertatu ohi zela hori.

1.690. Arkume bat beste baten larruarekin jantzita (AND-099/047)

Ardi bati arkumea hiltzen zaionean, ardi horrek berak beste arkume bat onar dezan modu bat baino gehiago dagoela dio Joxe Luisek. Hala ere, ardi batek bere arkume propioa ez dena onartzeko ala ez, asko dago animaliaaren izaeraren baitan.

1.691. Joare edo zintzarri klaseak (AND-099/048)

Hainbat joare edo zintzarri klase dago, baina Joxe Luisen ustez, egokienak txikienak dira beti, animalia traba gutxien egiten diotenak. Zintzarriaren barruko mingaina nolakoa izan behar duen ere esaten du Joxe Luisek.

1.692. Ardien belarrietako seinaleak (AND-099/049)

Artzain bakoitzak bere seinalea egiten die ardiei, belarri batean edo bitan forma jakin bateko mozketak eginez.

1.693. Garai bateko otorduak (AND-099/051)

Garai bateko otorduak nolakoak izaten ziren kontatzen digu. Eltzea mahaiaren erdian jarri eta familia guztia handik jaten, batere platerik gabe. Helduak eserita jaten zuten, baina hurrek zutik. Norberaren tokia errespetatu egiten zen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com